



Iturria: *Cristaubaren ikasbidea edo doctrina cristiana*,
[Juan Antonio Moguel ta Urquiza] (Luis Villasanteren edizioa).
Euskaltzaindia, 1987.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MogelJAIkasbidea.htm>

KRISTAUBAREN IKASBIDEA EDO DOKTRINA KRISTIANIA

Juan Antonio Mogel

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

KRISTAUBAREN IKASBIDEA
EDO
DOKTRINA KRISTIANIA

Nun agertu, ta adierazoten dirian itaune, ta erantzutetan geure Fedeko gauzarik biarrenak, ta miragarrienak. Atera da gauza onen gañean onduen eskribiu, ta jarduten daben Liburubetarik, ta opa deutse euskaldun guztiei euren Animen onerako.



Prólogo al lector

En fin la llegó el tiempo, lector mio, de que abras los ojos de la razón, y depongas un error bien grosero, y funesto, en el que havras caído con el torrente de los bascongados. No has oído decir a tus Paisanos otra cosa sino que eso de escribir, y leer en nuestra lengua bascongada es empresa ardua, y poco menos que inasequible. Pero qué reflexiones serias havran hecho los que hablan tan neciamente? Yo te lo diré sin rebozo: ellos han sido preocupados de una voz demasiado comun, mas nacida de la ignorancia, y la barbarie; te puedo asegurar ingenuamente, que he visto (y sin especial admiración) leer perfectamente en libros bascongados á varios que no atinan en la lectura de los Castellanos. Y sino vamos á la razon: dime por tu vida la figura de las letras bascongadas (si se me permite hablar así) es diferente de las que llaman Españolas? Podrá tener el bascongado mas dificultad en la union de las sílabas, ó sentirá mas violencia en pronunciar suavemente las voces de su lengua nativa, que de la adquirida tal vez a puro azote? Llamo por testigos á todas las Naciones del Uniberso.

Todo eso es inegable, atendidas las razones, me replicarás, pero la experiencia enseña, que cada día se ven varios Depositarios de ciencias, y hombres reputados por literatos, que no aciertan á leer, ni escribir en nuestra lengua, que cortan dificultosa y violentamente las dicciones, y en fin cuya pronunciación es fastidiosa á los oíentes. Ya lo se, y no lo confieso sino con mucha vergüenza mia, y no con menor oprobio de nuestra Patria. Mas en que pueden consistir estas tan decantadas dificultades? Me lisongeo de adivinarlas, y consisten en nuestra inaccion, y desidia, así á la escritura, como lectura de nuestra lengua. Que dolor! Quantos se ven, que (sic)

No sé que te diga sobre otro error tan comun, como el referido. No se oie por esos corrillos otra voz, sino de que la lengua bascongada está tan alterada, y desfigurada, que no la conocería la Madre que la parió. Si resucitaran los antiguos bascongados, no la entenderian, tan otra está al presente. A cada paso, dicen, nos hallamos tan atascados, que no podemos dar con varios significados legítimos. Los pobres Predicadores se descabezan, y se ven a veces tan apurados, que aun á costa de mucho trabajo apenas pueden formar un Sermon lo mas de él lleno de borrones, y barbarismos. Así nos quieren pintar nuestra lengua, como tan enmarañada, que no la entienden aun los naturales; pero que naturales? Predicadores, y hombres de gran entendimiento, y gusto. Para acallar á estos enemigos de su patria, solo basta recordarlos, como hablan nuestros Guizones, con que energía, naturalidad, y pureza, y havran de confesar, que la culpa es de los ignorantes, y no de la lengua ignorada. Solo un pensamiento me consuela y es que la sociedad bascongada, que se emplea con tanto honor, y vitalidad en infinitos asuntos, no tendrá a mengua el confundir á estos enemigos de su

*Pais, sacando á luz un Diccionario copioso, y a poder ser tridialectico. Hai ociosos eternos, que blasfeman lo que ignoran, y que si no se mofan de las fatigas de unos Cavalleros, que han merecido la estimacion de un Carlos III, y los mas altos elogios del Autor de la **Industria popular**, a lo menos las respetan poco.*

*Pero á nuestro intento. He aqui al origen de la corrupcion de nuestra lengua. Los que salen de estos Países con el motivo de los estudios, y la buena crianza, (y no lo digo sin dolor) la dejan olvidar en gran parte. Pasados seis, ó siete años entre Estrangeros, vuelben á su Patria. Si sigue el rumbo Eclesiastico, tiene que predicar, ó confesar en bascuense; si es Cavallero, que tratar de diferentes Negocios, y con toda suerte de Personas. la se ven perdidos, sin poder formar una mediana Oracion, y poder atinar con los significados puros de las voces. Que recurso en este conflicto? Bien obvio; con recurrir a la lengua Castellana, y decir **un errespondidu, un espantau, un bai por zierito**: y con varios castellanismos, salen del día á costa de alterar á su lengua con mil barbarismos. Yo me acuerdo haverles preguntado á varios Feligreses, que comprendían con aquellas voces, qué dicen al terminar la Salve. **O klementisimia O piadosia! Promintimentuba?** Y me han respondido ingenuamente, que no las entienden, por que ignoran el Castellano. Yo apuesto, á que no hai una sola voz, que no sea clara en todas las traducciones del Credo, Salve, Mandamientos que se hallan en este Catecismo? Pues estando nuestra lengua tan surtida de voces, para que andar mendigando de las extrañas? Por esta causa hé procurado, que el bascuense salga algo limado, pero no con tanta delicadeza, que deje de ser entendido. Sé, que el mismo Jesu Christo, y los Apostoles hablaban en la lengua Hebrea, que estaba mui alterada por el trato, y diferentes cautividades entre las Naciones incircuncisas, donde olvidaron las originales y sustituian en terminacion hebrea muchas voces de los Babilonios. Esto mismo casi nos ha sucedido a nosotros; aunque siempre dire que entre los Rusticos se habla con bastante pureza.*

*La variedad de los dialectos es Cambien una de las dificultades al primer aspecto insuperables; todos ellos se reducen en suma á tres. El Vizcaino, Guipuzcoano y Navarro, ó Lavortano, sin embargo de que aun entre estos hai tales quales variaciones. Qual de ellos deba ser preferido, yo no lo diré, por que sería disgustar á mas de uno. Solo si, que el Guipuzcoano es mas afectuoso, y su tal quai ventaja consiste, en que así los Vizcainos, como los Navarros les oien con gusto, y le entienden quando por el contrario, no se entienden estos mutuamente. Pero tambien es gran necesidad, querer preferir por tema unas voces á otras. **Barre, ó farra, sukaldia, edo eskaratzza, gura, edo nai, zelan, edo nola, legez edo bezela**, ó las terminaciones en **ea**, o **la** como **sarea**, ó **Baria**, **ikustea**, ó **ikustia**. Lo que yo puedo decir es, que el Vizcaino usa de mejores reglas (así lo han confesado, los Guipuzcoanos inteligentes, é imparciales) y en menos palabras dice lo que los otros en muchas. Solo sirvan de ejemplo estos tres verbos Nic **dantzut; dakust; dazaut**; Yo oigo, veo, y conozco.*



El Vizcaino conjuga asi. **Nik dantzut; zuk dantzuzu, ak dantz; guk dantzugu; zubek dantzuzu; aek dantzube.** El Guipuzcoano conjuga por el modo regular; pero con mas voces. Yo oigo, **Nik enzuten det.** Yo oia, **Nik enzuten nuan.** Lo mismo á su modo con **dakust, y dazaut;** tambien es mas expresivo, y breve el modo de conjugar con **daruat, neroian, que oi det, y oi nuan** Guipuzcoano.

También se conjuga por esta regla el imperfecto del optativo. Si yo viera **Nic banekus,** Si oiera **Banentzu,** Si conociera **banezau** en lugar de **Nik ikusten baneu; enzuten baneu.** Es lo mismo de los imperativos, oie, **enzuzu, Ikustzu.** Asi tambien las preguntas de los presentes. Oies? **Banzuk? Bakusk? Bazauk?** Sincopes de **Badantzuk, Badakusk, Badazauk.**

Tampoco comprendo, que ventaja pueda haver en la terminacion **kin** por **az.** Vg. Joco aut maquillarequin, maquilliaz, cigorrarequin, ó cigorraz? antes bien se pronuncia esa ultima con mas facilidad y dulzura. Seria salir de los limites de un Prologo, si pretendiera hacer un parangon de ambos dialectos con las ventajas de cada uno. Bien sé, que los hombres desimpresionados de maximas populares, y que miran de raiz á las cosas, juzgan, que el desprecio, en que tienen muchos al dialecto Vizcaino, nace de la ignorancia, y de no haver hecho jama el menor estudio sobre su inteligencia. Vamos al caso. Que ventaja maior se halla en la simple mutacion de las letras **a o e, o u e Egin dot, egin det; egin dau o deu, dozu, dezu, dabe, date, neban o nuan?** Con lo que pueden dar en cara á los Vizcainos es con estas barbaras voces **deutsat, neutsan,** en lugar de **diot, y nion.** Mas vá, ¿a que tampoco dan prueba alguna solida de su ventaja? en una palabra toda la variedad de los dialectos consiste en una friolera; y si se mira con reflexion, y sin dejarse arrastrar del Espiritu de partido, se verá, que ambos tienen especiales reglas, que no las pudieron inventar los Guizones y aun menos los hombres literatos, que no los conocia este Pais. Que prueba mas sólida de la antigüedad, y del verdadero origen de la lengua bascongada?

Mas quiero tocar de paso una locucion bien impropia, y mui comun en los Guipuzcoanos. Hablan con un muchacho, y le dicen, **to mutil,** toma chico. **Ori Gizon,** toma hombre. He aqui que trata irracionalmente al que por naturaleza es racional. El vizcaino distingue mejor de sugetos y habla asi **Autsa mutila** toma chico. Toma hombre, **eutsi gizon.** Tome Vm; **Beutsa.** Y los imperativos to y ori? Esos los reserva para irracionales **to txakurra;** ori al bué, la baca. Y hasta los mas montaraces responden, eso de to es para perros, y el ori para bueyes. Bacas. Nada quiero hablar sobre la pureza de la lengua. Es preciso confesar ingenuamente, que está menos alterada en lo comun de Vizcaya (no hablo de Bilbao, por que parece que aqui se esmeran en sacar un **terciumquid** de la lengua castellana, y la bascongada, como

alla algunos Israelitas con la hebrea, y la Babilonica). Hablo pues de otros lugares, donde tal vez no saben aun el comercio de las gentes.

Si alguno desea saber las causas de dar á pública luz este Catecismo digo, que son muchas. Mas las principales son la total falta de libros bascongados particularmente en Vizcaia, y el querer desimpresionar a muchos Patriotas del error en que estan tan alucinados, que gritan. **Es imposible escribir, y sacar libro alguno en una lengua.** Que brutalidad, y barbarie! Para que vuelban á la razon, si alguna vez la han tenido, les suplico lean con atencion este Catecismo, y les advierto de paso, que no he forjado voces á mi antojo, que no hé manejado Diccionario alguno, y que son claras, y del Pais. Bien pudiera aun escribir con mas pureza. Mas me sugeria a la maledicencia de muchos, que quisieran hablasemos medio Castellano, por no confesar que son medio bascongados. Espero en Dios, que los Parrocos de tal quai seso, y celo alabarán el proieto; y que tal vez se valdrán de este catecismo, para instruir á sus ovejas. Me persuado que el mejor metodo es el de catequizar, y doctrinar: quiero decir hacerles conocer las verdades, y misterios de nuestra Religión, desentrañar los errores y vicios, vajar á casos practicos, enseñandoles esto es pecado, esto otro no; esto mortal, aquello venial; pues se ven tales ignorancias, que causa compasión. Por tanto no me he atenido precisamente á lq letra del original, que salió á luz en el Obispado de Bayona por orden de un Venerable Pastor de aquella Diocesi; y así me he tomado la libertad de añadirle algunas cosas especialmente en las instrucciones de los Mandamientos de Dios, y de la Iglesia y abreviándole otros puntos, que no son tan importantes para los poco instruidos. He tenido hartito que discurrir sobre el dialecto, en que debía sacarle. Bién conocía, que el Guipuzcoano es mas unibersal, a lo menos en la inteligencia, y que se huviera recibido en lo general con mas aplauso. Pero que dirán los Vizcainos? decia entre mi. Por que no há de tener la Vizcaia algun monumento eterno, ó fixo de su lengua, si acaso en los tiempos venideros la quisieran corromper, y desfigurar los naturales? Convencido de estas razones, y despreciando las mofas, que harán algunos Guipuzcoanos (que las estoi adivinando) con sola la brebe lectura de cortas lineas, hé resuelto sacarle en el dialecto de este Señorío. Mas con la esperanza de vertirle nuevamente en el Guipuzcoano, para que un mismo libro corra en los tres dialectos Labortano, Guipuzcoano y Vizcaino, y se eche de ver de que forman sustancialmente una verdadera **sociedad de Irurak = bat.**

En fin he abierto el campo, para que otros trabajen con mas facilidad, y mayores ventajas, y si el publico no me desengaña con la inutilidad de semejante produccion, espero no sea de los ultimos de esta dase. En fin, Letor mio, tu que conoces; y ponderas tanto la dificultad de la Empresa, tu que inculcas en que ni aciertas á escribir una sola linea, ni aun á leer lo escrito, perdonarás facilmente las faltas, que huviese en este Catecismo, unas verdaderas, otras de la impresión, y no pocas de tu imaginación. Con tanto agur.



Ikasbide aurrekua

**Nun erakusten dirian Kristaubak
jakin biar dituban gauzaren batzuk,
itaune, ta eranzunakaz**

I: *Zer da Jesu Kristoren ikasbide, ta legia?*

E: Da gere Maisu andi onek lurrera jatsita erakutsi ebana, ta bere ordeze Eleisa Ama Santiak guri darakuskuna.

I: *Egin biar andi, ta premiazkua da bere erakutsi onek ikastia?*

E: Bai, eta bestela eztago salbazinoerik.

I: *Zeintzuk erakutsi biar dabe Kristoren ikasbide edo doktrina au?*

E: Eleizako Arzain, Guraso, Ugazaba, edo etxeke Andrak.

I: *Zer dino San Pablok onetan ardurarik artu ez daruen etxeke Nagusi, edo Burubak gaitik?*

E: Dino diriala Fedebagiak baño bere deungaguak, ta sinistze guztia galdu dabela

I: *Zer gautzatzuk erakutsi biar jakez umiai?*

E: Kristinaubak bere adimendu, edo ezaguerara eldu ezkerro, jakin biar ditubanak.

I: *Zeintzuk, ta zeinbat dira orrek?*

E: Lau: lenengua jakitea, zer sinistu: bigarrena jakitia zer ezkatu: iru-garren jakitia zer egin: laugarrena jakitia zer artu.

I: *Eta zelan erakutsiko jake zer sinistuko daben?*

E: Ikasi eragiñaz Kredua, edo Fedeko artikulubak.

I: *Zelan erakutsiko jake zer ezkatu?*

E: Ikasi eragiñaz Aita guria, Abe Maria ta Eleisako beste eskabideak.

I: *Zelan erakutsiko jake zer egin biar daben?*

E: Ikasi eragiñaz Jainkuaren, ta Eleisiaren agindu edo Mandamentubak, ta errukizko jardunak.

I: *Zelan jakingo dabe zer artu?*

E: Ikasi eragiñaz zazpi Sakramentubak.

Ara guztiak bein banaan.

Aita guria

Aita geuria, Zerubetan zagozana, santifika bidi zure izena. Betor gugana zure Reinuba.



Egin bedi zure borondatia, nolan Zeruban, alan lurrian. Egun iguzu eguniango gure ogia.

Parkatu iguzuz geure zorrak, guk geure zordunai parketan deusegun legez.

Ez itxi jausten tentazinoian.

Baña bai librau gatxerik. Amen.

Abe Maria

Abe Maria graziaz betia, Jauna da zugaz.

Bedeinkatia zara zu Andra guztien artean; ta bedeinkatuba da zure sabeleko Frutuba Jesus.

Santa Maria Jainkuaren Ama, erregutu eizu gu bekatariorok gaitik, orain, ta geure eriotzako orduban. Amen.

Sinisbidia, edo Kredua

Sinisetan dot guztia leian Aita Jangoikoagan Zerubaren, ta lurraren Egillia.

Eta aren Seme bakar Jesu Kristo geure Jaunagan,

Zein sortu zan Ezpiritu Santubaren birtutez, ta graziaz: jaio zan Andra Maria birjiniagandik.

Padeziu eban Ponzio Pilatos Agintari zala: izan zan Kurutzian josia, ill da lurpetuba.

Jatsi zan Infernubetara: arik irugarren egunean biztu zan illen artetik.

Igo eban Zerubetara: an dago jarririk Aita Jangoiko guztia daianaren aldeskumatatik.

Andik etorriko da biziak, ta illak juzgetara.

Sinisetan dot Espiritu Santubagan.

Eleisa Ama Santa guztientzakua

Santuben egite onetan daukagun partiltasuna.

Pekaturen parkazinoia.

Aragiaren bizitze barria.

Eta beti iraungo daben bizitzia. Amen.

Salbia

Jainkuak gorde zaizala Erregiña, ta erruzkiz (sic) beteriko Ama.

Bizitza, gozotasun, ta esperanza geuria. Jainkuak gorde zaizala.

Zuri deiez gagoz Ebaren Ume erbestetubok, Zizpuruz, eta negarrez illetazko erri onetan.

Ea bada Andria, Bitarteko geuria.

Geuganuntz biur egizuz zure begi errukitsu orrek. Eta erbeste au iragota, erakuskuzu Jesus,

Zure sabeleko Frutu bedeinkatuba.

O guztiz bigun! O errukitsuba! O Maria Birjina gozua! Erregutu eizu gugaitik, Jangoikuaren Ama Santia, izan gaitezan diña Jesu Kristoren eskinsarien.

Amen Jesus.

Jainkuaren Legeko agindubak dira amar:

Lenengo irurak jatorkoz Jainkuaren honreari,

ta beste zazpirak gizonen onari.

Lenengua, Jainkua maite izatia gauza guztien gañean.

Bigarrena, ez juramentu alperrik egitia, bere izen santuba deungaro erabilliaz.

Irugarrena Jaiegunak gauza santubetan iragotia.

Laugarrena, Gurasuai lotsia ekartia.

Bostgarrena, ez inor illtia.

Seigarrena aragiazko (sic) pekaturik ez egitia.

Zazpigarrena ez ezer ostutia.

Zorzigarrena egin eztabenik inori ez ezartia, ta guzurrik ez esatia.

Bederatzigarrena Lagunaren senarrik, edo emazterik ez gura izatia.

Amargarrena, inoren ondasun bidebagokorik (sic) ez nai izatia.

Amar mandamentu, edo agindu onek datoz bitara. Lenengua Jan-goikua amau, ta serbietara gauza guztiez gainian. Bigarrena lagunak geure buruben ereduban.

Eleisa Ama santiaren agindubak dira bost.

Lenengua Metz (sic) osua enzutia Jaiegun guztietan.

Bigarrena konfesetia edolabere urtian bein, edo lenago eriotzako peligrurik badago, edo komulgau biar badau.

Irugarrena komulgetia Pazkua lozatu, (sic) edo Jesu Kristo biztu zanequetan.

Laugarrena, barau egitia al daienak, Eleisa Ama Santiak aginduten dabenian.

Bostgarrena Amarren Primiziak osoro, ta ziatz pagetia.

Fedeko Artikulubak dira amalau:

lenengo zazpirak jagokaz jangoikotasunari,



*ta beste zazpirak Jesu Kristo
geure Jaunaren Gizatasun Santubari.*

Jainkotasunari jagokazanak dira onek

Lenengua sinistu, Jangoiko bakar guztia daian bategan.
Bigarrena sinistu, dala Aitia.
Irugarrena sinistu dala Semia.
Laugarrena, sinistu, dala Espiritu Santuba.
Bostgarrena, sinistu, dala egille, edo Kriadoria.
Seigarrena sinistu, dala salbagillia.
Zazpigarrena sinistu dala Gloria emolia.

Gizatasun Santubari jagokazanak dira onek

Lenengua sinistu, Jesu Kristo gere Jauna Gizona danez, sortu zala Espiritu Santubaren bitartez, ta graziaz.

Bigarrena sinistu, jaio zala Maria Birjiniaganik, geratuten zala Donzella Semia jaio baño lenago, jaiotzan, ta jaio ezker. Irugarrena sinistu, artu ebal eriotza, ta Pasinoia gu bekatoriok salbetiarren.

Laugarrena sinistu, jatsi zala Infernubetara, bere etorreriaren zain ego zan arima zorionekoak ateratera.

Bostgarrena sinistu, irugarren egunian biztu zala illen artetik. Seigarrena sinistu, igo ebal Zerubetara, an dauala jarririk, guztia dakian (sic) Aita Jangoikuaren aldeskumatatik.

Zazpigarrena sinistu etorriko dala biziak, ta illak juzgetara: esan gura dau, onai emotera betiko gloria, bere agindu Santubak gorde zitubelako; ta deungai inoz amaituko eztan infernuba, zerren gorde etzituben.

*Obra miserikordiazko, edo errukizko egitiak
dira amalau: zazpi arimeari jagokazanak,
ta beste zazpi gorputzari jatorkazanak.*

Arimiari jagokazanak dira onek

Lenengua, estakianari erakustia.

Bigarrena, biarra daukanari konseju onak emotia. Irugarrena, utsegin dabena zuzendutia.

Laugarrena, gatx egiñak parketia.

Bostgarrena, triste daguana konsolau, edo atseginutia. Seigarrena, besteen argaltasunak, ta emoten deuskubezan atsakabiak pazienziak igarotia.

Zazpigarrena, biziak, ta illak gaiti Jainkuari erregututia.

Gorputzari jagokazanak dira onek

Lenengua, gaisuak ikustia.

Bigarrena, gose danari jaten emotia.

Irugarrena, egarri danari edaten emotia.

Laugarrena, Kautibuak erosi, ta ateratia.

Bostgarrena, Billosak jaztia.

Seigarrena, erromes, ta erbestearrai hostatuba emotia.

Zazpigarrena, illak enterrau, edo lurpetutia.

Akto Kontrizinoekua

Neure Jesu Kristo Jauna, Jangoiko ta gizon egiazkoa, neure Kriadore ta Redentoria; zariana zarialako, ta maite zaitudalako gauza guztiez gainian, damu dot Jauna, damu dot biotz guztitik zu ofendiuba, asmo sendo bategaz ez geiago pekatu egiteko, pekatuben bide guztietatik aldegitoko, neure utsegiñak konfesetako, ta pozik artzeko emoten jatan penitentzia. Opa deusdaz, jauna, neure bizitza, egite, ta neke guztiak neure pekatuben orderako, ta esketan deusdaz legez, alan uste dot zure erruki, ta ontasun bardin bagian, parkatuko deustazuzala zere odol benegarri, Pasinoe, ta eriotziagaiti, ta emongo deustazula grazia, bizitzia obatuteko, ta zure aginpian irauteko eriotzaraño. Amen.

Konfesinoia edo Autormena

Ni bekataria autor natxako guztia daikian Aita Jangoikuari, Andra Mari (sic) beti Birjiniari, Jandone Migel Aingerubari, Jandone Juan Bautistari, Jandone Pedro, ta Paulori, ta Jandone guztiai; eta aen ordian zuri Aita Espiritukua. Zerren pekatu geige (sic) egin dodan gogoz, berbaz, ta egitez, neure erruz, neure erruz, ta neure erru andiaz. Orregaiti eskatuten deusat Andra Maria beti Birjiniari, Jandone Migel Aingerubari, Jandone Juan Bautistari, Jandone Pedro, ta Paulori, ta Jandone guztiai, ta zuri, neure Aita erregutu daiozula nigaiti geure Jaun, ta Jainkuari.

Jan aurrean egingo dan Mai bedeinkazinoia

Jesu Kristo gere (sic) Jaunak digula guri, ta artzera goiazan jaki, ta edariari bere bedeinkazinoe Santuba Aitiaren, Semiaren, ta Espiritu Santubaren izenean. amen.

Jan ondoko eskerrak



Guztia daikezun Jangoiko andia, zuri deutsuguz eskerrak, oraindiño egin deuskuzuzan mesede guztiak gaiti, bizi zara, ta aginduten dozu denpora betikuetan. Zorionekua Aita Eternuaren Semia ekarri eban Sabela. Eta zorionekuak Kristo geure Jauna azi eben bularrak.

Goiseko erreguba

Aitiaren, Semiaren, ta Espiritu Santubaren izenian. Jangoiko andi zeure eskubetan guztia daukazuna: ona nun dagan zure aurrion berez lur puska bat baño eztana. Sinisetan dot, zu zariala bakarra, iru Persona izan arren, eztaguala beste Jangoikorik, ta zu zagozala bazter, ta arkuntza guztietan, ta guztiz emen. Adoretan zaitut gogo, ta humiltasun alik andienaz: autor dot, ez nasala diña zure aurrion agertuteko. Indazu arren grazia, eskini au ondo egiteko. Zuri, Jauna, eskerrak, nere Aita onenari lege zure eskubetatik artu ditudan, ta egunoro artu daruadazan mesede andiak gaiti. Zuk ekarri nenduzun lurrera, ta naukazu erosirik zeure Seme maite Jesu Kristoren odolaz. Zuk ekarri nazu zeure Eleisako Ume izatera, ta etzara aspertuten niri on egitez. Zelan, Jauna, eranzungo deutset ainbeste metsederi? Nik egin daikedana da zuri neure biotzau opa egitia. Alan gura dot, zuk bertan erreginau dagizun. Gorde nagizu egun onetan, pekatutan jausi ez nadin. Orain artekoak dira asko, ta geiegi bere. Esketan deutsut dirianen parkazinoia. Zuri opa deutsudaz, Jauna, egun onetako lan, neke, ta naigabe guztiak, ta uste dot, ezarriko deutsezula zeure bedeinkazinoia. Artzen dot asmo bizi bat, zugaiti alegin guztia egiteko. Zerren zuriak dirian guztiak, ta zugana zuzendu gura ditut. Orretako sinistuten ditut Eleisa Ama Santiak sinistu, ta erakusten dituban gauza guztiak: Zerren zuk erakutsiak dirian. Uste dot, egunen baten zure arpegi ederra ikustia zure Seme Jesu Kristoren merezimentu ugariak gaiti, ta orain emongo deutstazula (sic) grazia irauteko zure agindu Santubak gordeten. Maite zaitut biotz osotik: Zerren zarian ona, ta maitagarria. Indazu bada grazia, zukanik aldegin бага bizi izateko, ta gero betiko gloria.

I: Zer da gabeko arimiaren afaria?

E: Examiña, edo billakuntza ziatz bat oera aurrion egitea.

I: Zegaitik ori?

E: Zerren dan birtutian aurreratu, ta on izateko bitartekorik errakena.

I: Zelan egin leite orazinoe goisian, Eguberdian ta arratsian, Abermaritakuak joten ditubenian?

E: Aingerubak barri onak Ama Birjiniari emon, ta Espiritu Santubaren graziaz semia bere sabelian sortu zan. *Abe Maria bat.*

Ara emen Jaunaren Serbitzaria: egin bedi zeuk dinozuna. *Beste Abe*

Maria bat.

Jainkuaren Semia Gizon eginik bizi izan zan gure artian. *Abe Maria.*

Jainkuaren Ama Santia erregutu eizu gugaiti, Kristoren eskinsarien

diña izan gaitezan.

Eskaria

Iguzu arren Jauna gere Arimetan grazia, Aingerubak barri onak eka-

rri, ta Kristo zeure Semiaren gizon egitea ezautu dogunok, eldu gaitezen

gloriako bizitzara bere Pasinoe, ta Kurutziaren bitartez.



Bigarren ikasbidia

I: *Kristinauba zara?*

E: Bai, Jainkuaren graziaz.

I: *Zer da Kristinauba?*

E: Da batiatu zanetik Jesu Kristo geure Jaunaren aginpian, ta legian bizi izatea.

I: *Zetan dago Jesu Kristoren legegian bizi izatea?*

E: Iru gauzatan:

I: Berak erakutsi ditubanak sinistutean. 2. Aginduten ditubanak egitian. 3. Eta itxi euskuzan Sakramentubak artzeian.

I: *Beraz mesede andia da Kristinau izatea?*

E: Bai, eta da Jangoikuak mundu onetan egin daikegun mesede andienetatik bat.

I: *Zetan dago mesede ori?*

E: Izatian Jainkuaren Ume, Zeruko Jaubeari (sic), edo erederu, (sic) ta Jesu Kristogaz gorputz bat egitian.

I: *Zein da Kristinaubaren irudin, edo señaia?*

E: Kurutze Santia.

I: *Zelan egiten da señaie au?*

E: Eskumako atz bi eruanaz bekokitik bularrera, eskerreko solbar-datik eskumakora, bitartian esanaz, Aitiaren, ta Semiaren, ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

I: *Zer adierazoten dau Kurutziaren señaia?*

E: Gure Fedeko misteriorik andienak

I: *Zeintzuk dira?*

E: Irutasun, edo Trinitade Santuba, ta Erospen, edo Redenzinoia.

I: *Zetan (sic) adierazoten dau Trinitadeko misteriu?*

E: Izentaubaz iru Personak, ta esanaz *izenian*, ta *ez izenetan*, aituteko Jainkotasun bakar bat.

I: *Zelan adierazoten da geure Erospen, edo Redenzinoekua?*

E: Gure gorputzian egiñaz Kurutziaren irudia: bada kurutzian illa izan zan, gu erostiarren.

I: *Zetan dago Kurutziaren señaie, edo irudi onek daukan indarra?*

E: Dago Diabruba urristetian, ta Jainkuaren bedeinkazinoiak erastian gure arima, ta ondasun guztietara.

I: *Noz egin biar da geien kurutziaren señaie au?*

E: Egin bear da goisian oetik jagitian, biarrian astian, gabeko lo aurrian, jatorduban, etxetik urtetan dogunian, Eleisan sartzeian, ta edozein galbide, edo peligrutan aurkietan garianian.

I: *Zeinbat utsegin oi dira zeñatuten?*

E: Txito asko: lenengo utsa da aringa, edo berbak ondo ebagi baga zeñatutia: ta bigarrena arreta ta debozinoe baga.

I: *Nozkua da Kristinaubak zeinatuteko dauken oitura, ekanduba, edo usadua?*

E: Tertuliano Jakintsubak, zein bizi izan zan Eleisako lenengo urtetan, dino, bere denporan zeñatuten ziriala Kristinaubak zeregin, edo lan arduraketan sartu baño lenago: ta alan uste izateko da, usadioau jator-kula Apostolubetatik.

I: *Zer pekatu mueta egiten dau berariaz okertu, ta Eleisiak ifinirik estaukazan nastiakaz zeñatuten danak?*

E: Egiten dau superstizinoia deritxan pekatuba, ta da txito andi, ta ikaragarria.

I: *Zer atera biar dogu irakurte onetatik?*

E: Egin Kurutziaren señaia biar dan arreta, edo arduriar.

2. Maite izan bizitza nekatuba, zein dagan adierazorik bertan.

3. Orduban gomutau, zelan ill zan Jesus ona gugaiti kurutze gogor baten.



ERAKUSPEN ONEN LENENGO PARTIA

NUN AZALDAU, TA ADIERAZOTEN DIRIAN

KRISTINAUTASUNEKO EGIAK

Lenengo Ikasbidia

I: *Zein da Jangoikua?*

E: Da esan, edo asmau al daitekian Izaterik andiena, ta miragarria. Jaun bat txito ona, gauza guztien Jaubia, Jakintsuba, zuzena, ta guztien asieraia, ta azkena.

I: *Zegaitik esaten da Jangoikua dela Espirituba?*

E: Zerren eztaukan gorputzik, ez itxurarik, ta gure gorputzeko zenezunakaz ikusi, ta ezagutu ezin daiekgulako.

I: *Zegaitik esaten da, dala osua edo perfektua?*

E: Zerren beregan daukazan edergarri, edo perfektinoe guztiak, ta oneek mugarririk, ta neuririk eztaben.

I: *Zeintzuk dira perfektinoerik enzunenak?*

E: Dira inoren aginduko ez izatea, edo Agintaritzia, Ontasuna, Arteztasuna, Errukitasuna, Probidenzia, Anditasuna, ta Bitiraune (sic) edo Eternidadea.

I: *Zer adietan dotzu (sic) Agintaritziaz?*

E: Adietan dot, daukala Jangoikuak ainbeste Nagusitasun, edo Jau-betasun, zein da ezin jarri leitian inoren aginpe, edo biarran.

I: *Zer esan gura dau bere Ontasunak?*

E: Esan gura dau, dala txito ongillia, edo inori onegiten baño ezta-kiana, ta ontasun guztien iturria.

I: *Zer esan gura dau bere ziurtasunak, edo Justiziak?*

E: Esan gura dau, bakotxari ziatz, ta artez emongo deusala bere egi-ten ereduban, onai Zeruko gloria, ta deungai betiko nekaldi, edo tor-mentubak.

I: *Zetan erakusten dau bere Errukitasuna?*

E: Gizon guztiak salbau gura izatian, berez danez deituten ditubala Pekatariak penitenziako bidera, ta arturik bere adiskidetasunian, biotz osuaz beragana biurtuten dirianak.

I: *Zer adietan dozu bere Probidenziaz?*

E: Jainkuak kontu, ta arreta daukala Kriatura guztiak jaon, edo gor-detiaz; jakin, ta dakusazala igaroten dirianak, ta eztala orri bat igitu, edo ezer jazoten bere borondate baga.

I: *Zetan agiri da bere anditasuna?*

E: Jakitian berak betetan ditubala Zeru lurak, ta aurkietan dala edo-zein arkuntza, leku, ta gauzatan.



I: *Bada zelan eztakusku gere (sic) aurrian badaukagu?*

E: Zerren dan Espiritu uts bat, edo gorputz itxurarik eztaukana.

I: *Baña berak ikusten ete gaitu?*

E: Bai, ta txito arguro: bada berak dakuzaz gauza guztiak, ta dazauz gere barruko gogo, asmo, ta pensamenturik arinenak, ta ezkutubenak,

I: *Zegaitik dinozu Jangoikua dala Betiraunekua, edo Eternua?*

E: Zerren eztan gundano izan, Jainkua bagako ordurik: edo obeto esateko: Zerren eztaben asierarik, ta ez amairik.

I: *Zer atara biar dogu ikasbide onetatik?*

E: Gomatau sarri Jaingoiko bakar baino eztala, ta ezteutsagula beste gauzari gere biotza opa biar.

2. Jarri gogotik bere aginpian, edo serbiziuan, ta Maite izan beste gauza guztiak baño geiago.

3. Bildur geiago euki bere aurrian gauza deunga bat egiten, gizon guztienian baño.

4. Izan nolabere bait bere irudikua on izanaz, ta mundu guztiari one-giñaz.

Bigarren ikasbidia

I: *Zeinbat Jangoiko dira?*

E: Bat bakarrik, ta ezin inalabere izan leitez Jangoiko asko.

I: *Eta zeinbat Persona dira Jainkotasun bakar orretan?*

E: Iru, Aita, Semia, ta Espiritu Santuba.

I: *Zelan eztira bada iru Persona oneek Jangoiko bakar bat baño?*

E: Zerren bakarrik dabeen Jangoikotasun, ta izate bat.

I: *Nogandik dakar bere izatia Aita Eternuak, edo Betikuak?*

E: Inogandik bere ez.

I: *Eta Semiak?*

E: Aitaganik.

I: *Eta Espiritu Santubak?*

E: Aita, ta Semiaganik.

I: *Eta badago iru Personen artian bata baño bestia zarragorik, indartsubagorik, edo andiagorik?*

E: Ez; irurak dira bardiñak gauza guzti onetan, eztabelako izate bat baño.

I: *Zelan inzentetan da Misterio, edo ezkutapen miragarritzko au?*

E: Trinitade, edo Irutasun txito Santuba.

I: *Zer da Trinitade txito Santuba?*

E: Da Jangoiko bakar bat iru Personetan, zeintzuk dirian Aita, Semia, ta Espiritu Santuba.

I: *Zelan egiten da onen gañeko egikai, edo akto bat?*

E: Neure Jangoikua, sinisetan dot sendo, zu zariala Jangoiko bakar bat iru Personetan, zeintzuk dirian Aita, Semia, ta Espiritu Santuba.

I: *Zer atara biar dogu ikasbide onetatik?*

E: Adorau biotz osuaz iru Personak, eskini geure egite on guztiak, ta eskerrak emon erakutsi deuskulako Misterio au.



Irugarren Ikasbidia

Mundubarren Asaieria

I: *Nozkua da Munduba?*

E: Orantxe sei milla urte gitxi gora bera egiña.

I: *Nork egi eban bada?*

E: Jangoikuak.

I: *Zetatik egi eban?*

E: Ezeberezetik.

I: *Zelan egin leite gauza bat ezeberezetik?*

E: Jainkuak gura izanaz beste бага, zeinentzat eztaguan gauza gatzik, ta errazto ezin daikianik.

I: *Zela egi eban Jangoikuak Munduba?*

E: Bere esan barruko bategaz; onetara: Egin bitez Zerubak, ta lurra; egin bedi argia; emon begiz lurak bedarrak, ta arbolak, ta beinguan egi-ten zirian, ta urtetebe.

I: *Zer eguan, Jainkuak Munduba egin baño lenago?*

E: Ezer ez, Jainkua baño.

I: *Nun eguan Jangoikua Munduba egin baño lenago?*

E: Beregan.

I: *Eta beeban mundubaren biarrik zorioneko izateko?*

E: Ez; zerren Jangoikua berez da guztia daukana, ta eztau inoren premiarik, edo biarrik

I: *Zegaitik, edo zetarako bada egi eban Munduba?*

E: Gure onerako, ta guk amau, ta adarau gengian.

I: *Nork zuzendu, ta jaoten dau Munduba?*

E: Jangoikuak bere Probidenziaz, ta bere indar edo poderio txito andiaz.

I: *Eta biurtu leike Munduba lengo ezebezera?*

E: Bai, ta erraz, gura baleu.

I: *Zetako egin zituban Izarrak, Aberiak, Egaztiak, Arrainak, ta lur gainan dakuskuzan piztia mueta guztiak?*

E: Gizona egi eban legez bere esanak egin, ta agunpian egoteko, alan gauza onek guztiok egin zituban gizonaren onerako.

I: *Zer atera biar dogu ikasbide onetatik?*

E: Jainkuaren ezaguera, ta amorio andi bat, emoten deusaguzala

esker asko: Zerren erakutsi deuskun ainbeste ontasun, eginik gure onera-

ko gauza ain miragarriak.



Laugarren ikasbidia

Zelan Angerubak egin zituban Jangoikuak, ta zelan batzuk galdu zirian

I: *Nork egin zituban Angerubak?*

E: Jangoikuak, Mundubagaz batera.

I: *Zer dira Angerubak?*

E: Dira Espiritu uts, edo gorputz itxura bagako batzuk, Jainkuak (sic) bere agindubak egiteko atera zitubanak.

I: *Zer egera, edo estaduban egin zituban?*

E: Graziazko, edo santutasunean.

I: *Aingeru guztiak irauben beti estatu onetan?*

E: Ez guztiak: batzuk menpetu, edo humildau iakozan Jangoikuari, ta beste asko galdu zirian euren andiuste, arrotasun, edo soberbiagaiti.

I: *Zer izen emoten iake grazian iraubenai?*

E: Aingeru onak; edo bakarrik Aingerubak.

I: *Eta zelan izentetan dira graziako egeratik jausi zirianak?*

E: Aingeru deungak, edo sarriago, diabbrubak, Añenak, ta Demoniuak.

I: *Zer jazo iaken Aingeru zori deungako onei pekatu egin onduan?*

E: Urristau, ta bota zituban Jangoikuak infernuko suleza, edo ondarrretara.

I: *Zer egin darue infernuban?*

E: Dagoz nekaldi, edo tormentu ikaragarriak eurak igaroten, ta beste askori igaro eragiten.

I: *Zetan deardube goiago?*

E: Gizonak pekatuako zirikatu, ta galdu guraz.

I: *Zelan urratu, edo desegino ditugu arerio onek ifinten deuskubezan lakio, edo katiguarriak?*

E: Iratzarturik, ta orazinoian egonaz, Jesu Kristok bere esan, ta egiñakaz darakuskun legez.

I: *Zelan ori?*

E: Zerren orazinoe, edo eskabidiaren bitartez erasten dogun Jangoikuaren laguntasuna tentazinoiak goituteko, ta iratzarririk egonaz gorde-tan gara sartzeiaz gu galduteko asmetan dituban ondabidetan.

I: *Zer atera biar dogu irakurte onetati?*

E.

I: Pekatubaren bildur andi bat, gomutaubaz, zelan galdu zirian Aingeru pekatu egiebeñak (sic).

2. Tentazinoe orduban jaso laster biotza Jangoikuari, ta ezkatu (sic) atera gaizala galbide, edo peligru atati.

3. Arreta andiaz iges egin bide, etxe, ibillera, ta lagun deungetati.

I: *Gorputzik badabe Aingerubak?*

E: Ez. Zerren dirian espiritu uts, eta garbiak.

I: *Nundik dator bada guri erakustia gorputz irudian?*

E: Zerren sarri agertu izan dirian gorputzen itxuriaz.

I: *Eta zegaitik pintau, edo, edo (sic) irudierazo daruez eguakaz?*

E: Guri adierazotiarren, zein laster, ta gogoz egin daruezan Jainkuaren agindubak.

I: *Aingeru deungak galdu zirianetik, zer egin darue, ta nun dagoz Aingeru onak?*

E: Dagoz zeruban, Jainkuaren arpegia ikusten betiko zoriontasunian; onez gañetik bera bedeinketan, ta bere agindubak egiteko prest, eta zain.

I: *Eta badake gure ardurarik?*

E: Bai, Jainkuak emon deutse gugaz ardura eukiteko zeregiña.

I: *Zelan ori?*

E: Zerren Jainkuak emon deuskun (sic) bakotxari Aingeru bat gugaz arduria daukana.

I: *Zer izen emoten iako Aingeru orri?*

E: Aingeru Jaola, Begirale edo Guardakua.

I: *Zertan lagunetan deusku Aingeru Jaola onek?*

E: Jainkuari gugaitik esketan deutsa: gure onegiñak berari opa daruakoz: sendotuten gaitu, Diabbruba goituteko: galbide, edo arriskubetan laguntzat jarten iaku (sic).

I: *Zeintzuk dira gure eginbidiak eurak ganutz?*

E: Da lotsa andi bat eurai erakustia: zerren beti gagozan euren aurrian; ta ez egitia deungaro iritxiko deuten gauzarik.



Bostgarren ikasbidia

Zelan egiña izan zan Gizona

I: *Nork egin, ta ekarri gaitu Mundura?*

E: Jangoikuak.

I: *Zetarako egin, ta ekarri genduzan?*

E: Bera ezagutu, maitetu, ta serbietako, ta bere agindubak gorderik, betiko bizitzara igoteko.

I: *Zeintzuk zirian, Jainkuak lenengo egin zituban gizona, ta Andria?*

E: Adan, eta Eba, gure lenengo Guraso, ta Asabak.

I: *Zegaitik emoten deutsezu Gurasuen izena?*

E: Zerren eurak gandik etorri, ta etorriko dirian gizon, ta emakume guztiak.

I: *Zetatik egi eban Jainkuak lenengo Guraso Adanen gorputza?*

E: Bustin lur zati batetik.

I: *Eta aren Arimia?*

E: Arimia ezeberezetik; geuriak orain legez, ta beriala batu eutsan Adanen gorputzari.

I: *Zegaz egi eban lenengo Andra Ebaren gorputza?*

E: Adan lo eguan artian onen saietsetik (sic) atera eban azur bategaz:

Barriz Arimia ezeberezetik Adanena legez.

I: *Zetan dago gure Arimiaren edertasun, ta onerarik andiena?*

E: Dago Jainkuaren imajiña, edo irudira egiña izatian.

I: *Zetan agiri dau Jainkuaren irudi, edo anzera egiña dala?*

E: Zerren dan Espiritu uts, ta garbi illkortasun bagakua, ta bera ezagutu, ta maituteko (sic) geiak daukazana.

I: *Zeintzuk dira gei orrek?*

E: Iru: Gomutalmena, edo Memoria, Adimentuba, ta Borondatia.

I: *Zetako emon iakun Gomutalmen edo memoriau?*

E: Jainkuaz, ta bere mesedekaz gomuta gindezan.

I: *Zetarako Adimentuba?*

E: Bera ezagutu, ta sarri goguan erabilli gengian.

I: *Zetarako Borondatia, edo guralmena?*

E: Onik andiena, ta ederrena legez biotz guztiaz maitetuteko bera, ta lagunak geure burubak legez.

I: *Eta zer doe emo eutsan gizonari egi ebanian?*

E: Errazoe, ta naibide, edo libertadia, onegaz jasoteko, egin zituban beste gauza guztiez gainian.

I: *Zelan adierazoko da esan au?*

E: Ara zein erraz. Biarrian diardugunian, diardugu alperrik ez ego-tiarren, edo geure bizitzia ateretiarren: Sermoietara guazanian, guaz gauza onak ikasi, ta ondutiarren; iges egiten bada pekatutik, da Jainkuari atsegin emon gura deusagulako, ta onelan beste gauza asko.

I: *Zer da naibide edo libertadia?*

E: Da geurez daukagun indarra, egiten ditugun gauzak egiteko, edo ez egiteko, geuri otuten iakun legez.

I: *Azaldau egiu argiruago.*

E: Berba egin daruagunian, egon geindez isillik: Jarrita gagozania, egon geindez zutiñik; ta onelan geure aukeraz egin daruaguz gauza asko, batez bere arimakuetan.

I: *Zer atara biar dogu ikasbide onetatik?*

E: Jainkuari emon eskerrak: Zerren emon deuskun Arima bat, bera ezagutu, maitatu, ta gozetako gei dana.

2. Erabilli txito sarri goguan, biotz guztiaz amau, ta ez atsakabarik emon pekatu egiñaz.

3. Gomutau, ez gariala lur puska bat baño, ta ez egin jaramonik munduko agur, abegi zoro, ta ondasun geugaz batera lurmendu, ta amai-tuko dirianei.



Seigarren ikasbidia

Adanen pekatu jatorrizkua deritxona

I: *Zer egaldi, edo estadutan egin zituban Jainkuak Adan eta Eba?*

E: Graziazko, edo santutasunekuan.

I: *Eta zor eutsen estadu graziako au?*

E: Ez: Zerren egi eukezan Jainkuak grazia, ta pekatubagako estaduban, zeini dei egin daruake Jakitunak estadu naturala.

I: *Zeinbat denporan irau eben grazia galdutzaka?*

E: Gitxi: bada laster egi eben pekatu, janik Jainkuak debekau eutsen sagarra, edo frutu mueta bat.

I: *Nork eragi eutsen pekatu?*

E: Diabrubak, zeinek ezin ikusi zituban zorionez beterik.

I: *Zeintzuk izan zirian pekatu onen kalte, ta ondoringuak?*

E: Egin zituban zori deungakuak, alan eurak nolan euren seme

Alaba guztiak, Jesu Kristo, ta bere Ama maitia alderaturik.

I: *Zer da zori deungatasun au?*

E: Pekatuau dala bitarte, dirianok jaiotia Diabruaren menpian, Jan-goikuaren aserrian, Zerurako eskubide бага, ta osterunzian dakuskuzan miseria guztiak.

I: *Eta ilgo zan gizona pekatu onegaiti ezpalitz?*

E: Etzan ilgo, ta alan ez ginian gu bere illkorrak izango. Zerren pekatubaz sartu zan eriotzia lurrian.

I: *Zelan ekarri daikeguz guri ainbeste kalte inoren pekatubak?*

E: Zerren Adan, ta Eba zirian gure Buru, ta Asabak, ta sortuten garialako guztiok pekatu agaz beragaz.

I: *Beraz mundura gatozian urten daruagu amaren sabeletik pekatuban?*

E: Bai, ta pekatu oni deituten iako jatorrizkua, edo orijinala: zerren jatorkun jaiotzatik.

I. *Zeinbat dira gure ganuntzko pekatu onen ondoringo, ta kaltiak?*

E: Dira lau ezagunenak.

I: Jainkuaren, ta bere gauzeen jakineza. 2. Deungarako daukagun makurtasuna, ta guraria, ta gauza onetarako atzerapena, ta nagitasuna. 3. Illkorrak izatia. 4. ta betiko galdu biarra, edo Jangoikuaren arpegirik ikusi ezina, Jesu Kristoren eriotza бага.

I: *Zer atara biar da ikasbide onetati?*

E: Penitenzia ordetzat artu pekatu onetati iatorkuzan otz, bero, gose,

egarri, naigabe, ta nekagarri guztiak.

2. Goitu egite onakaz deungarako daukagun makurtasuna. 4. Jaki-

neza kendu, liburubak irakurriaz edo Sermoiak enzunaz.



Zazpigarren ikasbidia

Zelakua eguan Munduba Jesu Kristoren etorreran, eta zelan erosi genduzan

I: Zelakua eguan munduba Jesu Kristo gure Jauna etorri zanian?

E: Gizonik geienak adoretan zituben idolotzar, edo Jangoiko guzur-ti batzuk.

I: Eta zeintzuk ezauben Jangoiko egiazkua?

E: Bakarrik Judegubak, ta Jentilen arteko banaka batzuk.

I: Zelan atera genduzan Jangikuak pekatubaren katigera edo lakiotik?

E: Bialdubaz lurrera Jesu Kristo bere Seme Maite bakarra, illteko kurutze gogor baten, ta bere eriotziaz guri bizitzia emoteko.

I: Zer izen emoten jako, Jesu Kristo gure Jaunak bere eriotziaz irabazi euskun grazia oni?

E: Gere Redenzinoeko, edo Erospeneko grazia.

I: Zer grazia da ori?

E: Pekatu, ta infernukuen menpe, ta eskuartetik ateraten gaitubana, ta Zerurako eskubidia emoten deuskuna.

I: Zelan jarten zirian gizonak salbazinoeko bidian, Jesu Kristo ill baño lenago?

E: Jesu Kristo illgo zanaren laguntasun, edo merezimentu etorkizunekuakaz: ta alan egia da, etziriala orduban bere salbetan redentore maite onen grazia baga.

I: Noz agertu zan Mundura Jesu Kristo?

E: Munduba egin zanetik lau milla urteren buruban geienak dinuenaz gaurko egunian.

I. Nor da Jesu Kristo?

E: Da Jangoiko biziaren Seme bakarra, gugaiti gizon egin da Kurutze baten ill zana.

I: Eta beti izan zan gizon Jainkuaren Seme au?

E: Etzan beti gizon izan; baño bai beti Jangoiko.

I: Eta gizonaren izatia artubaz, galdu ete eban Jangoiko izatia?

E: Ez, zerren aldabatera da Jangoiko, ta gizon egiazkua.

I: Aita, edo Espiritu Santuba egin zirian gizon?

E: Ez: bakarrik Semia egin zan.

I: Zer esan gura dau gizon egitiak?

E: Esan gura dau, guk ditugun legezko gorputz, ta arima bat artutia.

I: Zer izen emoten iako Misterio oni?

E: Enkarnazinoekua, edo Aragizartzekua.

I: Zeinbat izate, edo naturaleza daukaz Jangoikuaren Seme gizon eginak, edo Jesu Kristok?

E: Bi: bata Jangoikuarena, ta bestia gizonarena.

I: Zeinbat Persona?

E: Bat bakarrik, ta bera Jangoikozkua.

I: Zeinbat adimentu, ta borondate?

E: Bi: bata Jainkua danez, ta bestia gizona danez.

I: Zeinbat memoria, edo gomutalmen?

E: Bat baño ez: Zerren Jainkua dan aldetik ezin euki leike gomutazinoe, edo memoriarik, igaruak, ta etorkizunak bere aurrian daukazalako.

I: Zegaiti umildau, edo beratu zan gizon egiteraño?

E: Lenengo, gizona zanez igaroteko nekaldi, azota ta eriotzia.

2. Bigarren, Jangoikua zanez emoteko bere eriotza ta Pasinoiari prezio, edo baliotasun neurri bagia.

I: Eta nun egin zan Gizon?

E: Andra Maria Birjiniaren errai garbietan Espiritu Santubaren mirariz, ta bitartez.

I: Zetati egi eban Espiritu Santubak bere gorputza?

E: Erromako Katezismuak dinuaneez Ama Birjiniaren odol garbiaz. Ex purissimo Virginis Matris sanguine.

I: Zetati bere Arimia?

E: Ezeberezeti guria legez.

I: Eta zelan gero egin zan Gizon?

E: Baturik Trinidadeko bigarren Personia, edo Jangoikuaren Semia gorputz, ta Arima esan ditugunakaz.

I: Eztau beraz Gizona danez Aitarik?

E: Eztau Ama baño: Zerren guztia izan zan mirariz Gizonak zer ikusi ez eukala.

I: Zegaiti bada emoten iako San Joseperi Aitaren izena?

E: Etxako emoten, zalako Aita benetakua, ezpada zerren zan Ama Birjiniaren Senar egiazkua, garbitasuna gordetako, itunduta begoan bere; eta zerren Aita batek legez azi, ta jaoteban inardutebela alkarregaz arotziako langintzan.

I: Beraz Ama Birjina beti geratu zan Donzella, ta garbi?

E: Bai, eta zan ortu isilleko, ta ondo zarratu bat, nun ezin sartu zeitian Gizonik: eta zelan igaroten dan Eguzkiaren rañua, edo argitasuna



bidrio batetik, oni kalterik egin бага, alan urteban Jesu Kristo Eguzki benetakuak bere Ama maitiaren Sabel garbitik.

I: *Beraz Birjina Santa au da egiazko Jesusen Ama?*

E: Bai, ta izen au emon deutsa beti Eleisa Santiak.

I: *Zein egunetan egin zan Gizon?*

E: Martiaren ogeta bostgarrenian.

I: *Zein egunetan jaio zan?*

E: Gabonez, edo Abendubaren ogeta bostgarrenian.

I: *Ze egunetan egi eutsen odolezko epaia, orduan usadio zan legez?*

E: Jaio zanetik zortzigarren egunian, zeini dei egiten iakon Jesusen izena.

I: *Zer esan gura dau izen beneragarri onek?*

E: Esan gura dau Salbagillia.

I: *Eta zegaitik geituten iako Kristoren izena?*

E: Adierazoteko izan zala konsagrauba Espiritu Santubaren doe, ta graziakaz; eta zala Sazerdote guztien Buruba, Errege guztien Errege, ta Profeta, edo Igarlarik andiena.

I: *Zein egunetan eskini eutsezan iru Erregiak euren ondasunak, autortu, ta ezagututeko euren Jangoikotzat?*

E: Erregena esaten dan egunian

I: *Zeinbat urtian bizi izan zan lurrian?*

E: Ogeta amairu urte igarotxu.

I: *Zer bizitza erua eban?*

E: Premiaz, ta nekez betia, ta askoren gorrotuan.

I: *Zer egiteban gazte denporan?*

E: Egon bere gurasuen aginpian, ta jan bere izerdiaz edo San Jose-pegaz biar eginda irabazteban ogia.

I: *Zer egi eban bere bizitzako azkeneko urteetan?*

E: Urten erririk erri, ta basterrik (sic) bazter, bere erakutsi, ta miriakaz erakarteko bide garbi, ta zuzenetara okerturik, edo galdurik ebiltzan Pekatariak.

I: *Zelan ill zan?*

E: Kurutze baten ganian, ta lapur biren erdian gaishin andiren bat izan balitz legez.

I: *Zer adietan dozu esaten danian Jesus gure Jauna ill zala?*

E: Adietan dot bere gorputz, ta arimiak alkarregandik aldegi ebela.

I: *Zer egin zan gure Jesusen gorputzaz ill zanian?*

E: Jose, ta Nikodemus bere eskolari, edo Diszipulubak eratsirik arre-ta andiaz Kurutzeti, sartu eben obizulo, edo arripe garbi, ta barri baten.

I: *Jesu Kristo illda beti geratu zan bere Jangoikotasuna, gorputz, ta arimiaz?*

E: Bai: zerren gorputza geratu bazan bere Arima бага, ez bata, ta ez bestia geratu zirian Jainkotasun бага.

I: *Zegaiti autu eban eriotza ain gogorra, ta lotsagarria?*

E: Guri amodio geiago erakustiarren, ta geretzat irabasteko laguntan, edo grazia ugariaguak.

I: *Ze pekatu mueta gaiti ill zan?*

E: Orain artian Munduban egin dirian, egiten, ta egingo dirian guztiak gaiti; eta egiaz esaten da, pekatu mortal bakotxagaz barristetan dogula Jesu Kristoren eriotzia.

I: *Zegaiti ori?*

E: Zerren geurez danez ifinten dogun bere Pasinoeko geia, edo motiboa.

I: *Beti egon zan lurpian gure Jaunaren gorputza?*

E: Ez: andik irugarren egunian biztu zan illen arterik geiago ez illteko.

I: *Eta zer eginez biztu zan?*

E: Pazkua goisian.

I: *Zer adietan dozu esanaz biztu zala Jesus?*

E: Adietan dot, barriro biurtu ziriala alkargana bere gorputz, ta arimia, edo artu ebala bizitza barri beti iraungo eutsana.

I: *Zer egi eban biztu zan onduan?*

E: Munduban egon zan ezkurturik berrogei egunian, noisian bein agertuten iakeela Apostolubai, zer egin erakusteko, Fedian sendotuteko, ta bere Eleisa barriari zimentu zoliak ezarteko.

I: *Zer egi eban berrogei egunak igarota?*

E: Igo eban Zerubetara, beragaz eruazala Abranen Seno, edo Lezan bere etorrera, ta igoeriaren zain egon zirian Arima Santubak.

I: *Beraz etzan munduba egin zanetik, ta orduataraño Zeruban inñor sartu?*

E: Ez; zerren Adanen pekatubak eukazan Zeruko atiak itxita, eta bakarrik edegi eukezan Jesu Kristok bere eriotziaz.

I: *Eta guztiak jua zirian infernura?*

E: Ez ori bere. Bazirian Errege, ta gizon Santu asko; ta onek egozan itxaraten Kristoren etorrerari, beragaz batera Zeruban sartuteko.

I: *Eta zer eginez igo eban Zerura?*

E: Aszensinoe eguna deritxonian.

I: *Nun dago orain Jesu Kristo?*

E: Jangoikua danez leku, zoko, baster, ta arkuntza guztietan: baña gizona danez Zeruban, ta Altarako Sakramentu Santuan.

I: *Zer atara biar dogu irakurte onetati?*



E: Erakutsi Jesu Kristori geure oneretsi, edo amodio zinzua.

2. Erabili beti alegiñaz geure gogo, ta biotzian bere bizitzako ibille-

ra, ta nekiak.

3. Izan bere irudikuak gogorazinoe, esan, ta egitetan; bada bestela

eztago Zerura igoterik.

Zortzi garren ikasbidia

Eleis-Ama Santia

I: *Zein da Jesu Kristo gere Jaunak Zerura igonda bere Apostolubei, ta onen buruban bere Esposa Eleisiari egi eutsen grazia, edo mesederik enzunena?*

E: Bialtzia Espiritu Santuba agindu eutsen lege.

I: *Zein eguez bialdu eutsan Espiritu Santuba bere Eleisiari?*

E: Biztu zanetik berrogetamar garrenian, edo Pazkua Maiatzekoz.

I: *Zegaitik egi eutsan mesede ain andia?*

E: Eleisia bera santutu, ta zuzenduteko.

I: *Zer da Eleisia?*

E: Da kristinau sinisle guztien Batuera, edo kongregazinoe, Arzain egiazkuakaz zaintu, ta zuzenduba, Agintari Nagusi bakar baten azpian, zein dan gure Aita Santu Erromakua, lurrean Kristoren ordekoa.

I: *Zeintzuk dira Arzain egiazko, ta Zuzentzalle oneek?*

E: Dira Apostoluben ondoringo Obispo Jaunak, Jesu Kristok ifiniak, Eleisia jaon, ta zuzenduteko.

I: *Zeinbat Eleisa dira?*

E: Ezta bat baño, ta ezin aurkitu leite osasunik, edo salbazinoerik beragandik aldendu ezker.

I: *Zegaiti emon jaruako **Katolikiaren** izena?*

E: Zerren zabaldurik dagan mundu guztian, edo ezteusalako sarre-ria ukatuten, zinzoro ta benetan esketan dabenari.

I: *Zelan izan leite ori, baldin erreinurik geienak badagoz Turkuz, Erejez, ta Jentilez beterik?*

E: Egia da; baña beti aurkietan dira Kristinauren batzuk.

I: *Zegaiti deituten da Apostolubena?*

E: Zerren jaon, ta gordetan daben Aita Santu, ta Obispo Jaunak, Apostoluben ondoringuak lege, inoz utsik egin baga; ta Zerren Eleisiak erakusten ditubanak dirian Apostolubak itxi, ta erakutsi zitubenak.

I: *Zegaiti emoten iako Erromakuaren izena?*

E: Dalako Erromako Eleisia beste Eleisa guztien Ama, ta Buruba.

I: *Zegaiti deituten iako Santiaren izenaz, baldin badaukaz ainbeste Seme-Alaba deunga?*



E: Zerren bere lege, ta erakutsiaz (sic) dirian Santubak, ta gu on iza-teko egiñak; ta gu deungak bagara da gordeten eztitugulako bere esanak, ta legiak. Barriz bere Sakramentubak dira txito Santubak.

I: *Nor da Eleisa onen Buruba, ta Agintaria?*

E: Agintari ezkutuko, ta eztakuskuna da Jesu Kristo, ta bere ordeztifinita daukan agiriko Buruba da Aita Santu Erromakua.

I: *Zein da Aita Santuba?*

E: Da lurrian Kristoren Bikario, edo ordekoa, zeñen agindupian egon biar dabeen Kristinau guztiak.

I: *Zeñek, ta ifini eban Eleisa Santa au?*

E: Lenen Jesu Kristo geure Jaunak, ta bere aginduz Apostolubak.

I: *Zer zirian Apostolubak?*

E: Zirian amabi gizon jakituriarik lenenguak (sic) ez ebenak, arrantzuban, ta beste ofizio, ta lan illunetan inarduebenak, ta Jesu Kristok bere Ebanjeliua adierazoteko autu, edo eskojidu zitubanak.

I: *Zeñen ondoringua da Aita Santuba?*

E: San Pedrorena.

I: *Zetan dago Aita Santubaren Nagusitasun, ta agintaritzia?*

E: Obispo guztien Obispo izatian, ta lurreko Kristinau guztietan eskubide espiritukua eukitian, Erregiak izan arren bere.

I: *Nor artekoa da Eleisia?*

E: Eztau amairik, ta alan beti iraungo dau milla persekuzinoe, edo eseste andien artian bere: Zerren Jesu Kristok eskini deutsa bere laguntasuna infernuko ate, edo indar guztien kontra.

I: *Zer jazo jakon Eleisiari bere lenengo asiera, edo urteetan?*

E: Izan zan tint, edo irme persegiduba, ta gorrotauba.

I: *Zer kalte ekarri eutsen eseste, edo persekuzinoe oneek?*

E: Mesede asko: bada Martiri, ta Santubak geitubaz geitu, ta sendotuten zirian Kristinaubak.

I: *Ze bizi modu eroien?*

E: Txito ona, ta gaurko Kristinaubak bario beste modutakua; bada bizi zirian alkarren amodio andian, eguniango komuninoia egiteko pres-tauta egozan ereduban.

I: *Nortzuk dagoz Eleisa onen barruban, ta nortzuk ez?*

E: Dagoz Jesu Kristoren Fedia, osoz, Eleisiak erakusten daben legez, daukenak. Barriz eztagoz Jentilak, edo Jainko egiazkua eztzaubenak.

Fede bagak, edo Jainkua ezagutu arren eztzaubenak bere Seme Jesu Kristo.

Ereje, edo Fedeko gauza batzuk sinistu, ta baten, edo besten eza-gueraz utsegin daruenak sinistu naiezaz.

Zismatiko, edo Aita Santu Erromakua euren Buru ta Arzaintzat eza-gutu gura eztabenak, eta zelan bere bait eskomulgaurik dagozanak arbo-la eze bateko adar ebagi, ta igartubak legez.

I: *Zeintzuk dira Kristinauben obligazinoiak Eleisa Santa oneganuntzko?*

E: Dira berak erakusten ditubanak sinistutia, ta aginduten ditubanak egitia.

I: *Zegaiti sinistu biar ditugu erakusten ditubanak?*

E: Zerren argitu, ta zuzenduten daben Espiritu Santubak, zeñek ezin leikian utsik, ta ez erakutsi guzurrik.

I: *Zegaiti gorde biar ditugu bere agindubak?*

E: Zerren daukan aginduteko Jesu Kristok emoniko eskubidia.

I: *Noren aoz, edo bitartez adierazoten ditu bere erakuste, ta agindubak?*

E: Aita Santu, ta Obispo Jaunen bitartez, batez bere Batuera edo Konzilio Santubetan.

I: *Zelan kastigetan ditu batzubetan bere kontra jarkiten dirian seme uzu, ta lotsabagaak?*

E: Bere gorputzeta kendu, edo alderaginaz, ta oni deituten jako eskomuninoia.

I: *Zeintzuk dira eskomuninoiaren ondoringuak?*

E: Ara batzuk; eskomulgauta daganak, eztauka artu-emonik, edo partilik Eleisako orazinoe, ta Sakramentubetan.

Jarten da Diabrubaren mende, edo agindupian.

Galduten dau Eleisan sartuteko eskubidia, alan bizitzan, nolan eriotzan. Madarikatuten dau bere Ama ona zan Eleisiak (sic), zeñek aginduten deuten beste Kristinaubei ez berbarik egiteko eskomulgaubakaz.

I: *Zer eskomulgau modugaz artu emonik, edo traturik euki biar ezta?*

E: Gaurko egunian bigaz. Lenenguak dira Eleisa-gizon, edo Fraile-ren bati eskuba agirian esarri deutenak. Bigarrenak Eleisa ataian eskomulgautzat eskribiuta dagozanak. Barriz jausten dira eskomuninoe nau-sian Monjen Konbentuban, ta hortubetan, daikianak agindu бага, sartu-ten dirianak.

Obispo, edo Probisore Jaunak eskomuninoiaz aginduten dabenian zerbat agertu, ta biurtuteko, egiten eztabenak jakiñaren gainian.

Eta Obispau onetan, Pazkuaz komulgetan eztirianak euren erruz; baña ez Konfesorik luzatuten badeutse komuninoia, orretako daukan legez eskubidia.

Amarren Pagatzalle txarrak.



I: *Zer atara biar dogu emendi?*

E: Eskerrak emon Jainkuari Eleisa barruban ifini, ta irauteko grazia

emoten deuskulako, ta egin bere esanak.

Eskatu, ondu ditezala pekatuban dagozanak, ta ekarri daizala bere

ezaguera, ta Kristoren Federa Jentil, Fedebaga ta Erejiak.

Artu lotsa andi bat Eskomuninoiari, ta bildur izan Eleisa Santiaren

aserriaz.

Bederatzigarren ikasbidia

Gizonaren Azkenkiak, edo etorkizunak

I: *Zeintzuk dira Gizonaren azkenak, edo etorkizunak?*

E: Dira lau: Eriotzia, Juiziua, Infernuba, ta Zeruba.

I: *Zer da eriotzia?*

E: Da arimiak gorputzetik aldegitia.

I: *Iges egingo dau inork eriotzatik?*

E: Ez; guztiok biar dogu; zerren guztiok zor dogun petxu gogor au, pekatuban sortubak garialako.

I: *Noz illgo gara?*

E: Jainkuak gura dabenian, zeñek daukaz ifinita gure bizitzako mugarriak, ta eztago emendik igaroterik, ta ebanjeliuak dinuanaz, Jainkuaren Semia etorriko iaku Lapur bat legez gabeko isilleran, edo gitxien uste dogunian.

I: *Zer jazoko jaku iilten garian onduan?*

E: Gure gorputza sagu, ta arren jaki izango da, ta geratuko da enparauba auts eginik juizioko eguneraño; baña gure arimia izanik iraunkorra, ta illkortasunik eztabena, juango da Jainkuari bere egin guztien kontu zia-tza emotera.

I: *Zeren kontuba emongo deuta?*

E: Bizitza onetan euki dituban gogorazinoe, asmo, berba, ta egite isil, ta agiri (sic) guztiena, gauza on, edo deungen ereduban juzgauba izateko.

I: *Ze izen emoten jako gorputzetik urten da laster arimiak euko daben juizio oni?*

E: Juizio bakotxarena.

I: *Zer da eriotza ona?*

E: Da graziazko egoera, edo estaduban daguanari jazo jaruakona, ta deituten jako Justuben eriotzia.

I: *Zer da eriotza deungia?*

E: Da Pekatu mortalien daguanari jazoten jakona, ta deituten da Pekatarien eriotzia. I. *Zer egin biar dogu eriotza mueta bi onei begiraturik?*

E: Eriotza on baten ondoren ibilli, ta eriotza deungiaren ikara andi bat artu.

I: *Zeintzuk euki darue eriotza ona?*



E: Oneek dira bizitza on bat eruan dabenak: zerren esana da, nola-kua bizitzia, alakua eriotzia.

I: *Zer galbide, edo peligrutan jarri oi dira deungaro ta arduratzaka bizi dirianak?*

E: Jainkuak jaramonik ez egitian ordu estu, ta larri atan, ta penitenziako lekuri, edo gogorik ez aurkietian.

I: *Zelan ill oi dira geienez onak?*

E: Bake, ta atsegin andiaz, ta Jainkuak lagun dabeela, zeñek gorde daruazan Diabrubaren ordu atako asmo, ta ondabide guztietati.

I: *Zer eriotza euki darue pekatubetan nasturik bizi izan dirianak denporaz gomutau ezpazirian?*

E: Txito deungia kezka, ta esturasunez inguraturik.

I: *Zelan ikusi izan dira bada sarritan onak, ta Santubak bildurrez ordu atan, ta Pekatari asko ardura bago?*

E: Au da Jainkuak Pekatari bati egin al daikion kastigurik ikaragarriena: kentzeia pekatubaren kezka, ta konzienziaren diadarrak; bada da bere eskubetatik itxita daukan señaile ziurra. Gure konzienzia da ortu txakurra legez; lenengo sartuten dirianai zaunka, ta oratu gura andiak; baña sarritan sartu, ta eregetan dabenai zaunka, ta eseste orde, milla salto ta pozkaria. Au berau jazoten jako askori: lenengo, edo bigarren pekatuban konzienziak milla kezka, arantza, diadar, ta eseste. An da barrutik esatia. Begira zer etorriko jatzun pekatu orretati? Illten batzara orregaz infernura artez. Galdu dozu Jainkuaren grazia ederra, ta bere adiskidetasuna atseren zitai bategaitik; ta onelako beste zaunka asko; bigarrenian gitxia-go, ta geroruntz beti gitxitubaz, arik eta guztiz isildu artian. Oni deituten jako Jangoikuaren desanparu, edo jaramonik ez egitia, ta Espiritu Santubak dinuana, istia Pekataria bere gurari gaistuen eskubetan, ibilli, ta bizi ditezan eurai otuten jaken legez. Eta gogortasun au txito sarri eltzen da arimiak urteteraño; orregaiti da Pekatari askoren eriotzia kezka, ta ardura gitxikua. Barriz Santubak, humildiak dirian legez, beti dira euren egiteen bildur; badakie Jainkuaren Juiziuak ziurraguak diriala lurreko gizonenak baño: Badakie, argi bategaz ibilliko dala Jerusalem, aztertu, ta inguratuten, ta emengo egite guztiak pisauko diriala Santuarioko Pisutegian. Atan dakuskuz nosbait bildurrez San Jeronimo, San Agustin, ta San Hilarion legez. Baña laster desegiten jakez ikara aek: artu darue Jainkuaren ontasunen ezaguera andi bat, ta bera ikusteko gurari, edo gose bizi bategaz illten dira pozarren.

I: *Baña zer estutu daruaz beste pekatari asko?*

E: Igaro danaren, orduko, ta etorkizunaren gomutiak.

I: *Zelan igaroriko gauzeen gomutiak?*

E: Gogora pilluan, ta aldabatera etorten jakozalako bere bizitza guztian Jainkuaren kontra egin dituban pekatubak euren ezaintasun andiaz, ta zelan ainbeste bider deiturik penitenzia egitera, ez eutsan enzuterik emon.

I: *Zelan ordukuak?*

E: Zerren gomutetan dan galdu daben zeru ederra, itxi biar ditubala lurreko adiskide, ondasun, ta ibillera guztiak, ta geien itxaraten deutsan kontu emote ziatz, ta estubak.

I: *Zelan etorkizunak?*

E: Gomutabaz doiala Betiko Etxera; ta eztabela amairik izango infernuko nekagarri, ta tormentubak.

I: *Badago onen gañeko sinisbide, edo ejenplurik Eskritura Santetan?*

E: Txito asko; baña enzunena da Antioko Erregeari jazo jakona.

I: *Zer zan?*

E: Osasuna eukan artian, begitandu jakon ez eguala beretzat bildurgarri, ta ez jakola inor berba bat esaten azartuko. Ikara baten eukazan lurreko Kapitan, ta Agintari guztiak, ta uste eban zala munduko Erregerik indartsubena. Sartu zan Jerusalem ospe andiaz; ostu zituban Eleisa Santuko onzi balioso Jainkuari konsagrau, ta opa eginda egozanak; illerazo zituban zazpi mutiltxu gazte, Jainkuaren legia ausi gura ez ebelako: nastu zan gura beste aragiazko (sic) pekatubetan, Donzella gaiso askoren garbitasunaren kostura. Baña begira egokan Jangoiko andia Zerubetatik, ta orra nun Jerusalem kontra joiala, jausita banatu zan. Etzin zan oera, ustelduten asi jakon gorputza, arrak eriozan inok begiratu ez ieutsan taiuraño. Bere buruba ikusi ebanian miseria oneetan, dei egiten deutse bere menpeko enzun, ta adiskidenei, ta asi jaken esaten. Ai neure Adiskide maitiak! Eta zer larri nagan! Zer esturasunetara erakarri dodan neure buruba! Uste baneban bere aginduko neutsela itxasoko olastarik aserratubenai. Neure barruko sits, edo ar gosesto batek geiago jaten nau gorputzian agiri dirian guztiak baño. Orain gomutetan jataz Jerusalem egin nituban pekatutzar, ta gaistakeria guztiak. **Nunc reminiscor malorum, quae feci in Jerusalem.** Orain gomutetan naz ango Eleisan egin nituban sakrilejio, ta lapurretakaz. Neure begien aurrian jarten jataz illeragin nituban mutiltxu errubagiak. Niri kontra diadarrez danzudaz galdu nituban neskattillak. Neure adiskide laztanak, gomuta onek dakart onenbeste kezka, ta larritasun. Ez nintzan len gomuta izaten, bizi zala Zerubetan Errege guztien Jangoiko arteza. Barre egiten neban, zematuten nendube-



nian bere aserriaz. Orain dazaut ondo, nasala illkorra, ta obediui biar deutsala Kriatura errukarri batek bere Kriadore egiazkuari.

I: *Eta ez eban penitenziarik egin ezaguera andi onekaz?*

E: Baietz uste eukian: bada asi zan esaten: Jauna, errukitu zaita nizaz. Artzen dot asmo sendo bat gatx onetatik ateretan banazu, biurtuko ditudala ostu nituban baño ondasun askoz geiago; aberastuko dodala Eleisa santuba: zure jentia estimaiko dodala orain artian baño geiago: biurtuko nasala zure legera. Eta au asko ezpada, neuk urtengo dot bazterrik bazter prediketan, adarau zagiezala biar dan lege: baño ez eban penitenziako lekuri ediro gaiso onek negar zizpuru, ta illeta andiakaz billatu beeban bere.

I: *Zelan bada ez, eskinita badauka Jangoikuak miseriordia benetan dei egiten deutan edozei?*

E: Zerren ordu onetako eskari, zizpuru, ta asmo barriak izan oi dirian bildur utsak atera daruazanak, ta ez Jangoikuagana benetan biurturiko arimatik urtenak: Bildurtuten ditu infernura jua biarrak, Jainkuari kontu emotiak, ta Munduba betiko itxi biar dabelako: eta ezta kuren biotzetan Jainkuaren amodiaren apurrik aurkituten.

I: *Eta zetan igarte jako?*

E: Baldin Jainkuak bizitzia luzatuten badeutse on izateko, ta penitentzia egiteko, laster biurtu oi dira lengo bidetara.

I: *Zer atera biar dogu ikasbide onetatik?*

E: Lenengo geure egite guztietan itandu geure burubari, naiko leukian gauza a egitia, eginda laster ill biar baleu.

2. Ez geigi eregau, edo palagau gorputz zantar, ta arren janari izateko duguana.

3. Bizi ondo, eriotza baketsu bat eukiteko, ta ez itxi ordurako, penitentzia egitia; bada ezta erraz izango konzienziako matasa nastuba arildutia, ta konfesinoe oso, eta damuzko bat egitia.

Amargarren ikasbidia

Juizioa

I: *Zeinbat juizio, edo kontu-artze dira?*

E: Bi: bata da bakotxarena, ta bestia da guztiena.

I: *Zer da Juizio bakotxarena?*

E: Jangoikuak iilda beriala arima bakotxaz egin daruana.

I: *Zeren gainian kontu artuko deuta?*

E: Bizitza onetako gogarazinoe, asmo, gurari guztiena, berba alper bat bere igaro, edo aztu baga.

I: *Beraz gogorrak (sic) ta garratzak (sic) izan biar dau kontu emote onek?*

E: Bai; ain da gogorra, ta latza zein da Santurik andienak bildurtu, ta ikaratu daruazan.

I: *Zelan bada bildurtuten ez tira Pekatariak, ta bizitza alper, ta epela daroenak?*

E: Zerren lotuta daukazan Diabrubak, ez gomutetako benetan, ta astiro etorkizunakaz.

I: *Zer izango da Arimiaz Juizio au antaituta?*

E: Jangoikuak bialduko dau edo infernura, edo Purgatoriora, edo Zerura bakotxaren egite, edo obrak esketan dabeen ereduban.

I: *Zer da Juizio guztiena, edo jenerala?*

E: Da mundubaren azkenian Jangoikuak gizon guztiai artuko deutsen kontuba, bizturik len geunkazan gorputz, ta arimakaz.

I: *Zetarako da guztien azkenengo Juizio au, baldin ill onduan bakotxa juzgauba izaten bada?*

E: Ezta alperra izango: bada an agiriko da nabarmenago Pekatarien arduragabetasuna, Santuben gloria, ta Jesu Kristoren eskubide, edo autoridadia.

I: *Nork egingo dau Juizio au?*

E: Jesu Kristo gere Jaunak, zeini itxi eutsan Aita Eternuak eskubide au, ta zein agertuko dan orduban bere anditasun guztiaz.

I: *Eta zelan agertuko dira gizonak Juizio atan?*

E: Humiltasun andiaz, ta bakotxa bere burubaz arduratan.

I: *Zer gomutauko jakee orduban Pekatariet?*

E: Sartuko dira ikara andi baten dakusenian euren pekatu, ta mausarik isillenak agertu, ta arpekiari emoten jakezala mundu guztiaurrean.

I: *Zer gomuta, ta gogarazinoe etorriko jakee onai, edo justubei?*



E: Pozez inguraturik asiko dira esaten: igaro zan neguba, ta orain jatorku Udabarria. Igaro zirian artu ginduzan nekiak Jainkuaren serbi-ziuan, ta gaistoak egiteuskubezan siñu, ta algarak euren atsegin lekubetan ibilli gura ez gendubalako: zerbait kosta jakun irautia gauza onetan, ta ereiten ditugun azien frutubak batuteko orduba.

I: *Eta zer esango dabee Pekatariak ikustian onen, edo justuben gloria, ta poza?*

E: Amurratu, ta ernegaurik, Espiritu Santubak dinuan legez asiko dira esaten. Ai gure zorigaistokuak! Adikatu, ta aspertu ginian bide gal-dubetan. **Lassati sumus in via iniquitatis.** Utsegin genduban egiazkua. Orreek dira guk denpora baten zorotzat geunkazanak, ta zeintzubei egi-ten geuntsen barre, ta ijui; Zerren gure bide alegre, ta gozo irudikuetan sartu gura ez eben. Baña ai! geu ginian zoruak, ta orreek zenzundunak: guri geritxon simple batzuk ziriala. **Nos insensati vitam illorum aesti-mabamus insaniam,** ta orain dazaugu ziur, eurak eukela errazoa.

Ara zelan dakuskuzan Jangoikuaren Semeen artian, ta betiko zorio-nekuak izateko.

I: *Zer atera biar dogu irakurte onetatik?*

E: Artu arreta andi bat, jausi ez gaitezan pekatu arin ta benialetan bere, artuten deusagula geure burubari kontu ziatz, ta estuba, Jainkuak artu eztaigun.

2. Oera baño lenago aztertu gabero geure konzienziako bazterrak, ta aurkietan badogu utsegiteren bat, eskatu beriala Jainkuari parkazinoia, ta artu neurri onak aurrerrunzian kontuzago bizi izateko.

3. Ez jaramonik egin Mundukuen esames, ta siñubai, Jangoikuak gura dituban gauzak egiteko gagozian: bada Jesu Kristo izango da gure agintaria, ta ez gizon siñulari orrek.

Amaikagarren ikasbidia

Infernuba

I: *Zer da infernuba?*

E: Da nekaldi, edo tormentuzko su-leza bat, nun pekatu mortalien illten dirianak dagozan Jangoikua ikusi бага, ta Diabrubakaz batera erren-ten betiraune, edo eternide (sic) guztian.

I: *Nortzuk juañ oi dira infernura?*

E: Pekatu mortalien eriotziak artuten ditubanak, pekatu mortal baten baño ezpalitz bere.

I: *Zetan diardube infernuban?*

E: Dagoz ernegazinoez, ta damu gorrian igaroten neke, edo pena mueta asko, inoz amaitu ta arintuteko uste бага.

I: *Zer nekagarri, edo pena igaro daruez?*

E: Pena modu bi: arimakua, ta gorputzekua.

I: *Zer izango da arimako penia?*

E: Da Jangoikua ezin ikusiaz euko (sic) daben naigabe ta damuba. Oni dei egiten jako kaltezko penia, zein dan andiena, ta latzena.

I: *Nolakua da bigarren penia?*

E: Da zori deungako aek euren sentidu guztietan igaroko ditube zan nekaldi, edo tormentubak, ta dirianen artian enzunena, beti beti erre, kis-kildu, tximindu, ta gardostuten egon biarra.

Oni deituten jako sentiduko nekaera, edo tormentuba.

I: *Zelan nekatubak izango dira begiak?*

E: Diabru, ta gorputz zorigaistokuen ikuste ikaragarriaz.

I: *Zelan belarriak?*

E: Ango zizpuru, garrasi, illeta, ulu, arrantza, inziria, ta musika tris-teen enzunaz.

I: *Zer kantaiko dabe?*

E: Izen madarikazinoe, ta biraotzar eskergak Jainkuaren, ta Santu-ben kontra.

I: *Zer neke modu emongo iakee ao, ta minari?*

E: Jaki ats, ta edari garratz, edo samintasunez betiak emongo deu-tseena.

I: *Zer ardao mueta emongo, jakela, dino Espiritu Santubak?*

E: Dragoe, edo Piztia ikaragarrien biazunaz eginikua.



I: *Zer pena enparetan da surrentzat?*

E: Gorputz zantar zorideungako aek botako dabeen atsaz eukiko dabeena.

I: *Gaistuen gorputzak orain erretan dira infernuban arimakaz batera?*

E: Ez; bakarrik erretan dira arimak, ta gorputz guztiak geratuten dira munduban deseginik, ta Juizioko egunian batuko dira euren animakaz (sic), jasteko alkarregaz infernura.

I: *Zelan erre leitez arimak subaz, Espiritu utsak badira?*

E: Ori jazoten da, Jangoikuak subari emon daruakon indar, edo birtuteaz, zeñentzat eztaguan gauza gatzik, ta egin ezin leikianik.

I: *Zegaitik erreko dira gero deungen gorputzak euren Arimakaz batera?*

E: Zerren mundu onetan bere izan zirian alkarren lagun euren gura-ri, ta atsegin txarretan.

I: *Zer da inoz illgo eztan konzienziako arra, edo sitsa?*

E: Da infernukuak euko dabeen kezka, ta arantza gogorra, gomutaubaz, zelan sarri dei egi eutsan Jangoikuak zelan errazto salbau zeitian bere auzoko, senide edo lagun batzuk legez; zeinbat bider asi zan, bizitza barri bat artuten; ta zelan zerurako zan iraun baleu edo adikatu ezpaltitz Jainkuaren bideetan.

I: *Zeinbat denporan egon biarko dabe infernuban ara doiazan zorigaistokuak?*

E: Betiraune, edo eternide guztian; esan gura dau Jangoikua Jangoikua dan artian. Eta alan milla millinoe urte igarota bere, eztauke len baño uste geiago andik urteteko.

I: *Eta edolabere etxakez pena gogor aek gitxitu, edo arinduko?*

E: Ez; eta alan ezta aentzat izango eztitasunik, gozamenturik, ez aringarrik, ez bakerik, ta ez lagun onik.

I: *Zetan inardungo dabe bada?*

E: Betiko atralaka, ospe, lera gogor, gorroto, ikusi naiez, birao, ta ernegazinoian, txakur amurratubak legez, alkarri esesten deusela batak bestiaren erruba baleuka baisen axerakuntza (sic) andiaz.

I: *Zelan egongo dira zorigaistoko aen gorputzak subaz guztiz urtu, tximindu, edo desegin bage?*

E: Zerren Jangoikuak berariaz iraun eragingo deutsen inoz amaitu eztakiuezan pena gogor oneek.

I: *Zelan izanik gure Jangoikua ain ona, ta errukitsuba. dago pozaren osta begira, zein irme erretan dirian bere Seme Jesu Kristoren odolaz erosiriko arimak, edo zegaitik betiko tormentu oneek pekatu mortal bat baño egin eztabenari?*

E: Zerren pekatu mortalaren deungatasuna, edo malizia dan neurri-

bagia; eta San Agustinek dinuanaz milla infernu bere eztira asko biar dan

ereduban bera kastigetako.

I: *Zer atera biar dogu irakurte onetatik?*

E: Eskerrak emon Jangoikuari, zerren gaukazan salbazinoeko

bidian, beste asko pekatu mortal gitxiago gaiti infernuko su, ta garretan

daukazan artian.

2. Edozein tentazinoetan gomutau, laburra dala pekatubaren atse-

giña, ta betikua oni jatorkon tormentuba, ta damutu biarra.

3. Artu gorroto andi bat pekatubari: bada ainbesteraño aser erazoten

deutsa errukitasunez beteriko Jangoiko oni.



Amabigarren ikasbidia

Zeruba

I: *Zer da Zeruba?*

E: Da atseren andiz, ta atsegintasunez beteriko leku zoragarri bat, nun grazian illzirianak, ta guztiz garbiturik egozanak, egongo dirian Jainkua ikusten, ta gozeetan betiraune, edo eternidade osuan.

I: *Nortzuben arimak juango dira Zeru onetara illda beriala?*

E: Pekaturik inoz egin eztabenen arimak, ta pekatu egin dabenenak, baldin eranzun badeutse osoro pekatu guztien zorrak gaiti Jainkuaren Justiziari, negar, egite on, induljenzia, edo penitenzia pekatuben eredu-kuaz.

I: *Zer egin darue Santubak Zeruban?*

E: Dagoz gozaldi zoragarri baten, ta zoriontasun osuan.

I: *Zer da gozaldi, edo zoriontasun au?*

E: Da Jangoikua arpegiz arpegi ikustia bere amodiuan zurtuba legez geratutia, ta naigabe бага beti egotia, bedeinkazinoiak kantetan Aingerubakaz batera.

I: *Zelakuak izango dira kanta oneek?*

E: Bedeinkatuba izan dedilla gure Jangoiko ona, zerren ezarri eutskuzan bere miseriakordia, edo errukitasuneko begiak. Bedeinkatuba izan dedilla geure Redentore maite Jesu Kristo: zerren bere odolaz erosi ginduzan, ta irabazi euskuzan ainbeste grazia, ta gloria andi au. Zuri milla esker Birjina maitagarria: zerren zure bitartetasunak atera euskun geure utsegin guztien parkazinoia.

Santu ta Santa, Aingeru zorionekuak guztiok gara alkarren senide, ta adiskide.

I: *Beraz andia da Santuben gloria au?*

E: Ain da andia, zein da ez begiz ikusi, ez belarriz enzun, ta ez gizonaren adimentuban sartu leitez, dino San Pablok, Jangoikuak bere serbitzari, ta adiskidentzat prestaurik daukazan atsegin, ta ondasunak.

I: *Zegaiti eztauz Santuben gorputzak illda laster; arimak legez, Jangoikuaren arpegia ikustera?*

E: Zerren ezagutu eragin gura deuskun Jainkuak, zelan garian illkorrak gorputzez, ta ez arimaz: edo zerren Adanen pekatuba zala bitarte, madarikatu eban esanaz: lurra zara, ta lurrera biurto biarko dozu.

I: *Noz igongo dabe Zerura onen gorputzak?*

E: Juizioko eguna amaituta beriala, euren arimakaz osteratu ditezan.

I: *Zetako sartuko dira orduban santuben gorputzak atsegin leku onetan?*

E: Euren arimakaz lagun izateko glorian, len penitenzia, nekagarri, naigabe, ta egite onetan lagun izan zirian legez.

I: *Zegaz aziko dira euren gorputzak?*

E: Eztabe jakiren biar, ta premiarik eukiko: zerren amaitu iakezan lurreko azi biar, gatx, ta argaltasun guztiak.

I: *Ezagutuko dabe an alkar senide, adiskide ta ezagunak?*

E: Bai, ta ziur; eta orduban geituko da euren senidetasuna, adiskidetasuna, ta ezagueria.

I: *Eta Zerutik ikusiko ditube infernuban dagozanak?*

E: Bai, ta eztabe artuko atsakaberik euren guraso, ta adiskiderik andienak sutan erreten ikusiarren; bada artez dazaube, atan dala Jangoikuaren borondatia.

I: *Zeinbat denpora iraungo dau Zeruko egoera onek?*

E: Jainkuak dirauban artian, edo beti.

I: *Zeintzuk dira Kristinau batek euki biar dituban gurariak?*

E: Zerura juateko Jainkuaren arpegia ikustera pekatu egiteko peligru бага.

I: *Zer egin biar da orretako?*

E: Sarri goguan erabilli, San Gregoriok dinuana. Poztuten gara enzunaz, zein andia, ta zoragarria dan Zeruko atsegintasuna: baña ezin elduko gara euren gozamentura neke andi бага.

Corde Jainkuaren agindubak osoz, ta ez ikaratu penitenziaren ize-naz.

I: *Eta zer atera biar dogu irakurte onetatik?*

E: Esan Jangoikuari noisian beñ **Betor gugana zure Erreinuba;** baña eginaz bere borondatia. Eta Dabid Erregiaz, **Jauna aseko naz edo-labere zure gloriara noian denporan.**

2. Geure gatx, ta naigabe guztietan gomutau, Zeruban gozatuko garia guztiz, ta amaituko jakuzala nekagarri, edo pena guztiak.

3. Ez inozbere aztu San Pablaren esanaz. Eztaukagu emen egontoki iraunkorra, ezpada gabiltz obago baten billa.

4. Eta alan artu edozein neke, ta ukatu geure burubari gozagarri ta gurari txar guztiak gerokuak galdu eztaiguzan.



Amairugarren ikasbidia

Purgatoriua

I: *Zer da Purgatoriua?*

E: Da su leza bat, nun arima on, edo grazian illten dirianak dagozan eranzuten, edo pagetan, zeruban sartu baño lenago, euren pekatuben zorrak, ta ondokiñak.

I: *Nortzuk duaz Purgatoria?*

E: Euren pekatubetati ondo, edo osoro garbitu бага grazian illten dirianak.

I: *Zer esan gura dau pekatu guztietati osoz, edo ondo garbituba izatiak?*

E: Orrek esan gura dau pekatubari jatorkon denpora bateko pena guztitik kitu, edo libre geratutia; edo Batiuaren, edo Martiriaren, edo egiazko penitentzia osuaren, edo induljenzien bitartez.

I: *Parkatuko ezteusku Jangoikuak pekatubei jatorken pena guztia, pekatu eurak parketan deuskuzan orduban?*

E: Ez; zerren parkatu arren infernuko betiko penia, gitxitan parkatu darua denporako, edo Purgatorikua; bada ezta erraz euren ereduko penitentzia osua beinguan egitia; ta orregaitino enparetan jakuz geinian zor asko konfesinoe egiazkoren baten bitartez pekatubak parkatu arren; ta erantzun biarko deutsegu, edo emen euren ereduko penitentziaz, edo gero Purgatorioko su garretan.

I: *Beraz andiak dira Purgatorioko nekagarri, edo tormentubak?*

E: Bai, eta mundu onetan asma al daikeguzan tormenturik gogorre-nak baño gogorruguak.

I: *Zein da pena onen artian latzena, ta saminiñena?*

E: Da an dagozan artian egotia gose txito andiaz Jainkua ikusteko, ta ikuste au luzatutia.

I: *Zelan bada daukagu pena andi, ta garratzagotzat su artian erreten egotia, Jainkua ikusi бага egon biarra baño?*

E: Zerren gorputzeko presondegi, edo kartzela illun onetan gagozan legez, ezin ezagutu dogu, zein ta zelakua dan Jangoikua, ta onek gaukaz pena, ta gurari bizi бага bera ikusteko.

I: *Zeinbat urtian egon oi dira arima gaisuak Purgatorioko su portitz aetan?*

E: Guk ezin jakin geinke ziur, ta Jainkuak gorde daruaz onelako gau-zaak bere Juizio miragarrien barruban. Guk dakiguna da, eztala guztien-

tzat denpora bardina; bakotxak egon biarko dabela, bere zor guztiak ebanjeliuaren esakeria dan legez, au da, pekaturik txikinenak, osoz pagau artian.

I: *Zelan lagundu daikiuegu arima onei ainbat lasterren urten daien su aetatik igoteko Zerura?*

E: Geure penitentzia, limosna, erregu, Meza enzute, induljenzia, ta egite onak euren ordeztangoikuari eskiniat.

I: *Zer atera biar dogu ikasbide onetatik?*

E: Lagundu Purgatorioko Arima gauai erregubakaz, zerbait neka-garri artubaz, batez bere al dagienak, atera eragiñaz, edo esanaz Mezako Sakrifizio Santubak.

2. Euki oraindino arreta geiagu geure Senide, adiskide, ta biar bada geure erruz Purgatorioko subetan dagozanak gaiti.

3. Testamentuz, eskiniz, edo besteren aginduz enkarguren bat badaukagu, Mezak ateretako, edo atera eragiteko, ez luza bideetan ibilli; ezpada gure kontra egongo dira arima aek geure atzerapen alperrak gaiti daukaguzalako zu (sic) gogor aetan.

4. Atera sarri kontu au: baldin gure Jangoiko errukitsubak ainbeste nekatuten, edo penetan baditu bere adiskide, ta serbitzariak, ta pekatu parkatu edo arimak gaiti, zer itxaran daike bere arerio, ta pekatu andiakaz infernura dirianak?



Amalaugarren ikasbidia

Kredua

I: *Zer da Apostoluben sinisgaia, edo Kredua?*

E: Da erakutsi bat, zeñian dagozan sarturik gure Fedeko, edo Kristinautasuneko misteriorik nagusi, ta biarrenak; eta da gure Errelijinoeko agertamen zinzo Apostolubetati jatorikuna.

I: *Zer asmogaz esan biar da Kredua?*

E: An dagozan gauza guztiak sinistutekuaz geure bizitzia kostako balitxakegu bere, edo prest egonaz lenago geure zan guztietako odola emotera, artikuluren bat ukatu baño.

I: *Zeinbat artikulua dagoz Kreduan?*

E: Amabira joten dabe guztiak, berez amalau izan arren (sic).

I: *Esazu lenengua.*

I: **Sinisetan dot guztia daikian Aita Jangoikuagan Zerubaren, ta Lurraren egillia.**

I: *Zer esan gura dau berba onek Sinisetan dot?*

E: Esan gura dau, egia anditzat daukadaz sinisketa oso, ta sendo bategaz Kreduan dagozan gauza guztiak.

I: *Zer adietan dozu berba onekaz: Sinisetan dot Aita Jangoikuagan?*

E: Adietan dot ziur, ta seguru naguala, badala Jangoiko bakar bat, ta ezin izan leitekezala Jangoiko asko.

I: *Zegaitik esaten dozu Jangoikuagan ta ez bakarrik Jangoikua?*

E: Adierazoteko neure esperanza, ta uste guztia ezarrita daukadala Jangoikuagan.

I: *Zegaiti esaten dozu Aita Jangoikuagan?*

E: Esaten dot, adierazoteko, zelan dagozan Jangoikuagan iru Perso-na bein banakuak, ta oneetati lenengua dala Aita.

I: *Zegaiti emoten deusazu Aitaren izena?*

E: Zerren betitik, edo eternidade guztitik sortuten dagan Seme bat, zeini emoten deusan bere izatia, ta zeñegaz dan bardina gauza guztietan.

I: *Zegaiti dinozu guztia daikiana?*

E: Zerren eztaguan berak ezin daikian gauzarik.

I: *Semiak, ta Espiritu Santubak badauke Aitak beste eskubide, indar, edo poderio?*

E: Bai: iru Personak izanik Jangoiko bakar bat, bardinak dira onetan.

I: *Bada zelan ezarten deusazu bakarri (sic) legez Aitari?*

E: Zerren dan beste Persona bien asieria, ta emoten deuselako, indar, ta poderio guztia Jangoikotasunaz batera.

I: *Zer esan gura dabe berba oneek: Zerubaren ta Lurraren Egillia?*

E: Esan gura dabe Jangoikuak Zeruban, ta Lurrarian ezebere ezetik egin zitubala gauza guztiak, len erakutsi dogun legez.

I: *Zein da Kreduaren bigarren Artikulua?*

E: Eta aren Seme bakar Jesu Kristo geure Jaunagan.

I: *Zer esan gura dozu berba orreekaz?*

E: Sinisetan dodala, Jesu Kristo dala Jangoikuaren Seme egiña.

I: *Zer adietan dozu esanaz aren Seme bakar?*

E: Jesu Kristo jaio, ta jaioten dala, ta jaioko dala beti Aita Jangoikuaganik, emonaz bere naturalezia, edo izatia, ta bardinak diriala jakiturian, betikuak izatian, eta podere, edo indarrian.

I: *Zegaiti esaten dozu aren Seme bakarra?*

E: Zerren eztaben Aita eternuak beste Semerik.

I: *Zegaitik izentetan dozu geure Jauna?*

E: Zerren berak egin, ta iraun eragiten deuskun, ta erosi ginduzala-ko bere odol preziosuaz.

I: *Esazu Kreduaren irugarren artikulua.*

E: Zein sortuba izan zan Espiritu Santubaren mirariz, ta egiñez.

I: *Zer esan gura dozu berba orreekaz?*

E: Esan gura dot, Espiritu Santubak egin, edo formau ebal Jesu Kristoren gorputza Ama Birjiniaren odol, edo beste izateren bateti.

I: *Zer adietan dozu berba oneetan: Jaio zan Maria Birjiniagandik?*

E: Adietan dot, Maria eritxon Donzella guztiz Santa batek sortu, ta mundura emoebala bere garbitasunaren kalte bagea.

I: *Zer atera biar dogu irakurte onetatik?*

E: Euki amodio andi, ta bero bat Jesu Kristori, ainbesteraño geu maitetu gaitubalako.

2. Txapela erantzi **Jesusen** edo Mariaren izena aitatuten dan bako-txian.

3. Esan arretaz Abemaritakuak Kanpaiak orretarako ots egin darua-nian.



Amabostgarren ikasbidia

Gauza onen gañian

I: *Esaizu Kreduauren laugarren artikuluba.*

E: Padeziu eban Ponzio Pilatos Agintari zala. Izan zan Kurutzian josia, illa, ta lurpetuba.

I: *Zer esan nai dabe berba oneek: **Padeziu eban Ponzio Pilatos Agintari zala?***

E: Esan nai dabe, Jesu Kristo gure Jauna izan zala lotsariz, injuriaz, edo apaldiz betia, kurutze bati lotuba Judatarren (sic) Agintari, edo Gobernadore zala Ponzio Pilatos eritxon gizon bat.

I: *Zer esan gura dau berba onek, **ill zan?***

E: Esan gura dau, bere arimiak aldegi ebalu gorputzetik.

I: *Eta beti egon zan Jangoikotasuna gorputz, ta arimiaz?*

E: Bai: etxakon inoz gorputzari, ez arimiari Jainkotasuna falta izan.

I: *Zelan Jesu Kristo gure Jaunak igaro eikian eriotzia, bazan Jangoiko egazkua, ta Jainkua illkorra ezpada?*

E: Ez eban igaro Jangoikua legez; baña bai gizona zan aldetik.

I: *Bada zelan esaten da, Jangoikua ill zala abe baten?*

E: Zerren ill zan Jesu Kristo, ta Jesu Kristo zalako Jangoiko, ta gizon.

I: *Nundik dauke ainbeste goxotasun, ta merezimentu Jesu Kristoren eriotza, ta pasinoiak?*

E: Zerren Jainkua zan aldetik emon eutsen balio ezin andiagua, gizona zanez igaro zituban neke, izerdi, ta egindura guztiai. Orregaiti dino ederto San Agustinek. Gizona izan ezpalitz ezin igaro eikian naigabe, ta tormenturik: eta Jangoiko izan ezpalitz ez eben eukiko orain dauken beste balio bere eriotza, ta pasinoiak.

I: *Zer esan gura dabe berba oneek eta **lurpetuba** edo **sepultauba?***

E: Esan gura dabe, Jesu Kristo ill zanian, Kurutzeti eratsita, sartu ebela bere gorputza izara baten inguraurik Arripe garbi, ta barri baten enterru onetan lagun zitubala bere Ama maitia, San Juan Ebanjelista, Magdalena, Andra on batzuk ta bere eskolari leial Josef, ta Nikodemus.

I: *Ezaizu (sic) Kreduauren bostgarren artikuluba.*

E: Jatsi zan infernubetara, irugarren egunian Biztu zan illen arterik.

I: *Zer esan nai dabe berba orreek?*

E: Jesu Kristoren arimiak aldegi ebanian bere gorputzetik, jatsi zala infernubetara; esan gura dau, ez zori deungakuen lekura, ezpada beste batera, nun egozan itxaraten Kristoren etorreriari Munduba zanetik Jan-goikuaren grazian ill zirian arimak, bere eriotziaz, pekatubaz itxirik egozan Zeruko atiak edegita, beragaz batera igoteko betiko gloriara.

I: *Zer izen emoten jako egozan leku oni?*

E: Abranen Lezia, au da lurpian eguan Toki modu bat.

I: *Beuken neke, ta naigaberik leku onetan egozan arimak?*

E: Ez; zerren zirian Jangoikuaren adiskide pekatubaren erlikia, edo azuzkirik ez eukenak, garbitu zirialako, edo emen penitenziakaz, edo beste munduban Purgatorioko su artian.

I: *Zegaiti ara jatsi zan Jesu Kristo gure Jauna?*

E: Arima santubak andik atarata Zerura beragaz eruateko.

I: *Eta jatsi ete zan Purgatorioko Lezara?*

E: Jakitun askoren ustia da, ara bere jatsi zala, an egozan arima guz-tei euren zorrak parkatu ta Zerura eruatera.

I: *Zer esan gura dabe berba oneek, **irugarren egunian biztu zan illen arterik?***

E: Jesu Kristoren arimiak ill zanetik irugarren egunian barriro bere gorputza arturik, urtebala bizirik Sepultura edo obipeti gloriatz beteta.

I: *Zegaiti igaro gura izan zituban onenbeste lotsari ta neke, baldin bere arpe-giko izerdi tanta bat asko bazan munduba erredimiu, edo erosteko?*

E: Guri erakusteko, zetaraño maite ginduzan, ta gomuta onegaz guk bere bera amau gengian.

I: *Zer egin biar dogu ainbeste amodiotasun ikusita?*

E: Gogoz, ta bake andiaz artu naigaberik latzenak, ta garratzenak.

2. Ez egunik igaro Kristoren Pasinoeko ibillera, edo pausuren bat astirotxu gomutau бага.

3. Pekatu mortalien bagagoz (Jaingoikuari nai eztakiola) beriala urten Sepultura, edo leza illun orretati; baña osteraz ez biurtuteko gogo bizi, ta senduaz.

I: *Zein da seigarren artikuluba?*

E: **Igo eban Zerubetara, an dago jarririk Aita Jangoiko guztia daikianaren aldeskumatati.**

I: *Zer esan gura dabe berba orreek?*

E: Jesu Kristo gure Jaunak igo ebala Zerubetako lekurik altu, edo gorenera berez, ta inoren laguntasun бага.

I: *Adierazo eizuz berba oneek: **an dago jarririk etc.***



E: Esan gura dabe, Jesu Kristo Jainkua danez, dala bardina Jangoi-kotasunari dagokazan gauza guztietan bere Aitagaz, ta eztaukala batak baño bestiak gloria geiago; eta gizona danez, Santu, Santa, ta Aingeru guztien gaineti daukala bere tronu, edo egonlekuba.

I: *Zer egiten dau gureztat Zeruban?*

E: Dago gure bitarteko izateko, ta guri mesediak egiteko prest.

I: *Zein da Kredoko zazpigarren artikuluba?*

E: Andik etorriko da biziak, ta illak juzgetara

I: *Zer esan gura dozu orregaz?*

E: Esan gura dot mundubaren azkenian jatsiko dala agirian Jesu Kristo Adanen Seme guztiak batutera leku baten.

I: *Zegiti esaten da biziak ta illak?*

E: Zerren juzgauko dituban graziazko bizitziaz, ta pekatuko erio-tziaz aurkituko dirianak.

I: *Orduban bizi (sic) dagozanak illgo dira?*

E: Bai, ill biarko dabe, barriro bizturik agertuteko Jesu Kristoren aurrian.

I: *Eta iges egin lei inok Juizio onetati?*

E: Ez; guztiok jua biarko dogu, kontu emotera, ta eztira ara бага geratuko Linbuan dagozan Sein batiatu bagiak bere.

I: *Zein da Kreduaren zortzigarren artikuluba?*

E: Sinisetan dot Espiritu Santubagan.

I: *Zer erakusten jaku artikulua onetan?*

E: Erakusten jaku Trinidad, edo Irutasun Santuban badala iruga-rran Persona bat Espiritu Santuba deritxona.

I: *Zer sinistu biar dogu Espiritu Santubaren gainian?*

E: Sinistu biar dogu, bere izatea dakarrela Aita, ta Semeaganik, ta irurak eztaukela izate, ta Jainkotasun bat baño.

I: *Ezaizu (sic) Kreduaren bederatzigarren Artikuluba.*

E: Eleisa, Ama Santa guztientzakua, edo Katolikia.

I: *Zer esan gura dabe berba orreek?*

E: Len astiro azaldurik itxi ditugun (sic) Eleisako Ikasbidian.

I: *Zer esan gura dau Santuben komuninoe, edo partiltasunak?*

E: Esan gura dau, Eleisiak dituban arimako ondasun guztietan daukela parte, edo zer artu Fededun guztiak, gorputz baten zati, ta alkarren Anaia legez.

I: *Zeintzuk dira arimako ondasun orreek?*

E: Dira Jesu Kristo gure Jaunaren meritu, edo irabaziak, ta mundu-ban dagozan, ta izan dirian on ta Santu guztienak.

I: *Zetako emoten da jai egunetan Eleisan ogi bedeinkatuba?*

E: Antxinakua da oitura, edo usadio au, ta da kristinaubak alkarren artian dauken batasun, edo uninoiaren ezagugarria, jaten dogula guztiok ogi batetik, etxe bateko umiak legez.

I: *Zegiti emon jaruako komuninoe, edo partiltasunaren izena, Kristinaubak dauken batasun orri?*

E: Zerren guztiok garian Santu izatera deitubak, geurez deungautu arren, edo garialako Jangoikuari opetsi, edo konsagraubak Batio Santu-baren bitartez.

I: *Badaukagu partiltasunik Zeruban dagozan santubakaz?*

E: Bai.

I: *Zetan dago partiltasun ori?*

E: Geure eskari, edo erregubak aei guk zuzendutian, ta eurak guriak enzunik bitarteko jartian geure premia ordu, edo biar ditugun gauzeetan.

I: *Zer izen emoten jako zeruban dagozan Santuben laguntasunari?*

E: Eleisa triunfante edo Goilariena.

I: *Zegiti ori?*

E: Zerren Jesu Kristogaz batian, dagoz pozkariak, edo atsegiñez, munduko ta infernuko arerio guztiak goitu ta azpiratu ezker.

I: *Badaukagu Purgatorioko Arimakaz artu emon, edo partiltasunik?*

E: Bai, bada erregutu geinke batzuk bestiak gaiti.

I: *Zelan deituten jako Purgatorioko Arimen laguntasunari?*

E: Eleisa Nekatubena, zerren neke, ta tormentu gogorrekaz dagoz pagetan, edo eranzuten euren zor guztiai.

I: *Zelan izentetan da lurreko Kristinauben batune, edo laguntasuna?*

E: Eleisa burrukaria, edo soldadubena; Zerren ibilli biar dogu burru-ka bizi ta gerra betiko baten geure arimako arerio guztiakaz, zeintzu era-gotzi gura leuskeguben Zeruko sarrerria.

I: *Eta zeinbat Eleisa dira?*

E: Ezta orregaiti bat baño, bada iru parte, edo zati onek batuten dira euren artian karidadez, edo Jesu Kristoren irabazi, ta merezimentubetan dauken partiltasunian.

I: *Badauke zer ikusirik Santuben egite onetan pekatu mortalien dagozanak?*

E: Bai; zerren Eleisiaren bitartez artu daruez pekatutik urteteko biar dirian laguntasunak, alan barruko nola agirikuak.

I: *Zeintzuk dira barruko grazia, edo laguntasunak?*

E: Dira Pekatariak daukazan biotzeko kezka, naigabe ta garraztasu-nak, adimentuko argibidiak pekatubaren ezaintasun, ta kaltiak ezagutute-ko, ta barruko ikualdi, edo golpe batzuk Jainkuagana biurtuteko.



I: *Zeintzuk dira azaleko, edo agiriko laguntasunak?*

E: Dira sermoiak, ta Sakramentu Santubak.

I: *Pekatuban dagozanak zelan artu leikez laguntasun orrek, ezpadira Jesu Kristoren, ta Eleisiaren alderuntz arbola bateko adar igartubak legez baño?*

E: Eztira parte biziak, egia da; baña badira parte gorputz Eleisakuan, ta pekatubaz illik egonarren, beti dagoz batubak Jesu Kristo, ta bere Eleisiaz.

I: *Zelan izan leite ori?*

E: Fediaren, ta Esperanziaren bitartez, ta onek galdu ez daruaz pekatubak.

2. Ekarten deusela obediencia agiriko bat Eleisiako Buru, ta beste Arzainai.

3. Daukelako eskubidia Eleisako Sakramentubetara.

I: *Zein da amargarren Artikuluba?*

E: Pekatuben parkazinoia.

I: *Zer esan gura zenduke berba orreekaz?*

E: Esan gura dot, Jesu Kristo gure Jaun maitiak emon deusala Eleisiari eskubide, ta indarra pekatu mueta guztiak parketako.

I: *Zelan parketan ditu Eleisiak pekatubak?*

E: Sakramentuben bitartez.

I: *Eta badago pekatu ain ezainik, zein da parkatu ezin leikian Eleisa Ama Santa onek?*

E: Ez, bada guztiak parkatu leikez, baldin juaten bajako Pekataria biar dirian prestaera, edo dispozizinoiakaz.

I: *Eta zer prestaera esketan deusa?*

E: Eldu dakiola biotzeko damuari bategaz, ezaguturik izan dala Seme gaisto bere Etxetik aldendu, ta iges eginda bide okerretan ibilli dana. Jarri dedilla gero bere Ministruaren onetan miserikordiaren eske, ta bere utseginak artez autorturik, artu dagiala asmo barri, ta sendo bat aurreranzian seme ona legez egoteko bere guraso Eleisa, ta Jesu Kristoren aginpetik aldegin бага.

I: *Zein da amaikagarren artikuluba?*

E: Aragiaren Biztuera edo Erresurrezinoia.

I: *Zer adierazo gura zenduke berba orreetan?*

E: Munduba danetik, ta azkeneario izan, ta izango dirian gizakume guztiak egun baten biztuko diriala; au da, urtengo dabela dagozan tokitik euren arimakaz batuta, juateko Jesu Kristo bizi, ta illen Agintariaren aurrera.

I: *Zetako biztuko dira illak?*

E: Euren egite on, edo deungen sari, edo kastiguba gorputz, ta ari-metan artuteko.

I: *Zelakuak izango dira orduban artuko ditugun gorputzak?*

E: Geure bizitzan euki genduzanak eurak.

I: *Mundu onetan gorputzeko okertasun edo utsen bat eukenak, biztuko dira Zerurako lengo okertasunakaz?*

E: Ez, gorputz zorionekuak euko ditube perfektinoe, edo edergarri asko, ta lengo guztiak. Eta alan itxubak, ta begi bakotxak biztuko dira begi eder ta argitsu bigaz, errenak oin zuzenakaz.

I: *Bada zelan dino Jesu Kristok, obago dala Zeruban begi bategaz, edo errenik sartutia, Infernuban begi, ta oin biakaz baño?*

E: Eztau Jesu Kristok esan gura, alan jazoko dala, ezpada alan jazoko balitz bere, obago dala Zerura juatia; zerren izango lituke emen nork begiak, ta oiñak emon.

I: *Gorputz guztiak biztuko dira era, edo modu baten?*

E: Ez; egia da, dirianak biztuko diriala ez geiago illteko; baña gais-tuen gorputzak biztuko dira infernuko suzko lezan erre, tximindu, ta gar-dostuteko, ta justuben gorputzak beti zorionekuak izateko.

I: *Zein da Kredoko azkenengo artikuluba?*

E: Beti iraungo daben bizitzia.

I: *Zer esan gura dozu orregaz?*

E: Esan gura dot, biztuta beriala, izango dogula inoz amaituko eztan bizitza bat.

I: *Zelakua izango da bizitza au?*

E: Atsegiñez, ta gozamentuz betia onentzat, ta nekez ingurauba deungaro bizi izan dirianentzat.

I: *Zer atara dogu ikasbide onetati?*

E: Sarri konfesau; baña ondo prestaeta, egiazko penitentzia bategaz parkatu deiguzan Eleisiak Kristoren orde zere utsegin, edo pekatubak.



BIGARREN PARTIA

NUN AGERTUTEN DIRIAN KRISTINAUBAREN EGINBIDIAK,
TA BAITIO (sic) SANTUBAK
EZARTEN DEUTSAZAN OBLIGAZINOIAK

Jainkuaren amar agindu, edo Mandamentubak

I: *Zeintzuk dira Kristinaubaren egin, edo obligazinoerik enzunenak?*

E: Pekatubari iges egitia, ta birtuteko bideari jarraitubaz gauza guztiak artez, ta ondo egitia.

I: *Zer egin biar da pekatubari iges egiteko?*

E: Begien aurrian euki Jainkuaren agindu, edo Mandamentubak.

I: *Nork itxi euskutzan orreek?*

E: Jainkuak berak Moisesen bitartez Judatarrei Mendi gañeti bialdu eutsezanian, ta gero Jesu Kristok berak ontzat emon zituban, ta agindu eban erakutsi ta gorde zitezala.

I: *Zer aurkietan da agindu orreetan?*

E: Gure eginbide, edo obligazinoerik biarrenak Jainkuaganuntzko, lagunaguntzko, ta geganuntzko.

I: *Gorde daigeguz Jainkuaren agindu guztiak?*

E: Bai, ta erraz bere laguntasun, edo graziaz: Zerren ezteusku aginduten egin ezin daikgunik; ta bere agindubak eztira ain astunak, zein da jaso ezin leitezan. Alanbere eskatu biar deutsagu sarritan bere grazia, ta laguntasun au, ta ukatuko ez deusku geure aldeti alegiña egin ezker.

I: *Zer sari itxaraten deutsa agindu santu onek artez gordetan ditubanari?*

E: Mundu onetan Jainkuaren bedeinkazinoia, ta genian Zeruko atsegintasun zoragarriak.

I: *Eta zer itxaraten deutsa ardura baga austen ditubanari?*

E: Baldin pekatu mortal egiñaz austen baditu, mundu onetan Jainkuaren Madarikazinoe, ta areriotasuna, ta genian inoz amairik izango eztaben suleza, edo infernuba, penitenzia egiten ezpadau.

I: *Zer atera biar dogu gauza oneek enzunda?*

E: Gomutau sarri, batiatu ginianian esan jakuna. Begira, baldin gura badozu betiko bizitzan sartu, gorde kontuz agindu, edo Mandamentu Santubak.

2. Ez ausi bat bere: bada baten utsegin daruanak, dirianetan utsegiten dau moduren baten, dirausku Apostolu batek.



Lenengo ikasbidia

Jainkuaren lenengo Mandamentuba

I: *Zein da Jainkuaren lenengo Mandamentuba?*

E: Jainkua Maite izatia gauza guztien gainian.

I: *Zer aginduten jaku Mandamentu onetan?*

E: Bera bakarrik adarau daigula, ta erakutsi daiogula beste gauza guztiei baño amodio, edo maitetasun geiago.

I: *Zer da Jangoikua adoretia?*

E: Da berari Jaun bakarrari legez zor deusagun onra, ta menpetasuna ekartia, ta bihurtia.

I: *Zelan adarau biar dogu Jangoikua?*

E: Barrutik, ta agiritik, edo gorputzaz, ta arimiaz.

I: *Zelan adarau daikegu barrutik, edo arimiaz?*

E: Biotz onetik bere buruba Jainkuari opetsiaz, edo sakrifikaubaz.

I: *Zelan adoretan da Jangoikua agiritik, edo gorputzaz?*

E: Bere gorputza umiltasun andi bategaz ezarriaz, nola dan lurrian auzpaztubaz, belaniko jarriaz, ta buruba beruntz makurtubaz.

I: *Baukagu Jangoikua adoretako obligazinoerik?*

E: Bai; bada berak agindurik itxi dau sarri, ta leku askotan, zerren dan gauza guztien Jaun ta Nagusi bakarra, ta gañekua.

I: *Noz geien adarau biar dogu Jangoikua?*

E: Txito sarri; baña batez bere goisian jagitian, oera guazanian, Eleisan sartzeian, ta Jaiegunetan.

I: *Egizu adorazinoeko akto bat.*

E: Neure Jangoiko ona; nik adoretan zaitut biotz guztiaz, ta zazau-daz neure Egille, ta Jaun bakartzat.

I: *Zer atera biar dogu ikasbide onetati?*

E: Gomutau egiazko adoratzalliak, adoretan dabela Jangoikua biotzaz, ta barrutik; ta gorputzeko umildanzia, ta adorazinoiak utsak, edo alperrak diriala arima deunga bateti urtetan bada-be.

2. Jangoikua adoretia esan gura dabela, zelan beti prest egon biar dogun, gauza guztiak sakrifikau, ta istera Jangoikuaren gloria, ta borondatia bitartian jarri ezker.

Agindu onen gainian ostera

I: *Lenengo Mandamentu onetan eragozten ete jaku, Aingerubak, ta Santubak onretia?*

E: Ez; zerren onei ekarten deusagun onriak, ezteutsa kalterik, edo bidebagarik egiten, ta ez gitxitu bere Jainkuari zor deusaguna.

I: *Zelan onretan dira Santubak?*

E: Jainkuaren serbitzari, ta adiskidiak legez.

I: *Adarau biar da Ama Birjina, (Jangoikua legez)?*

E: Ez; zerren bakarrik Jangoikua dan adoragarria (bere moduban)

I: *Zelan ori?*

E: Zerren (onelango) adorazinoia dan beste bati emoten jakon eza-gutza bat, Jaun, ta Nagusi bakarrari legez, ta Ama Birjina, ta Santubak eztira gure Nagusi ta Egilliak, ezpada gu legezko Jainkuaren kriatura ta Serbitzariak.

I: *Eta onrau biar dogu, adarau ez arren, Ama Birjina guztiz Santia beste Zeruko Santu ta Aingerubak baño geiago?*

E: Bai; zerren dan Jesu Kristoren Ama, ta beste Santu guztiak alkar-tuta baño bere, gloria, ta birtute geiago dabena.

I: *Eta Ama Birjiniaz osteranzian, zer santuri euki biar deusagu debozinoerik geien?*

E: Geure Aingeru Jaola, edo Guardakuari, Eleisetako Patroe, edo Bitartekuai, ta geure izenekuai.

I: *Ondo da Santubai eskabidiak egitia?*

E: Bai, ta baliotasun andikua; zerren bitarteko jarriarik Jainkuaren adiskide andiak legez, jaretsi, edo alkanzau leike mesede, ta ondasun asko.

I: *Zelan agertu biar dogu geien Ama Birjina, ta beste Santubei ekarribiar deusagun onria?*

E: Euren oñatseti ibiltian, ta geure biar ordu, ta eukiezetan laguntasuna eskatutian.

I: *Zelan onrau biar dira Santuben azuzkiak, edo erlikiak?*

E: Santubak eurak legez; zerren dirian Espiritu Santubaren tenplo, edo egotegiak izan zirian gorputzen ondar beneragarriak.

I: *Eta onrau daikeguz santuben irudin, itxura, edo imajiñak?*

E: Bai; zerren dirian Jainkuaren adiskide batzuben irudinak.

I: *Zelan onrauko ditugu idolatriako pekatu baga?*

E: Bakarrik onraubaz imajina aetan irudinduta dagozan Santubak, ta ez imajinak eurak: bada eztira zur zati, ta gizonen eskubetako eginak baño.



I: *Eskatu, edo orazinoe egin biar jake imajinai?*

E: Ez eurai; baña bai euren bitartez euretan irudinduta dagozan Santu ta Santei.

I: *Zelan bada jarten gara belauniko irudin, edo imajina onen aurrian?*

E: Zerren euren bitartez onretan ditugun gogora erakarten deusku-bezan Santubak, ta euren birtutiak. Lurreko Errege baten irudiñari askotan kendu jaruako txapela, ez zur, eun, edo papel zati bat dalako, ezpada zerren irudintuten daben Errege bera.

I: *Zelan utsegiten da Jangoikua bakarrik ez adoraubaz?*

E: Iru aldetara: au da, idolatriaz, lotsia gordezaz, ta superstizinoez.

I: *Zelan utsegiten da idolatriako pekatu ikaragarriaz?*

E: Jainkuari berari baño zor ez jakon adorazinoia norbaiti emonaz. Onetara utsegin darue Jentil itxubak eguzkia, irargia, ta beste gauzaren batzuk Jangoikotzat arturik, emoten deutsezanian adorazinoe bidebagakuak.

I: *Zelan egiten da pekatu errespetua gordezaz?*

E: Jainkuari opetsi, edo konsagrauta daguana ondo ez dirudien gauzetan erabilliaz, nola izango litzatian kaliza konsagraubaz lurrero (sic) edarien batzuk artutia Baltasar Babiloniako erregiak legez.

I: *Zelan egiten da pekatu superstizinoez?*

E: Eleisiak ontzat emonda eztaukazan berbaren batzubetan, edo begirakune utsetan, ta amesetan itxarapen, edo uste osua ifiniatz.

I: *Beraz pekatu andia egingo dabe euren moduko berba, edo itaune batzukaz uste dabenak gaisuak osatuko ditubela; baita pañuelo, edo zapiren bat bialduta aginetako minak, ta beste gatzak kendu gurarik dabilzazanak?*

E: Bai, eta txito andia; zerren berba modu, ta egite orrelakuak eztauken eurenz indarrik gatzak osatuteko; barriz Jainkua eztabil premia бага mirariak egiten; batez bere orrelako sorginkerietan dabilzazan gizon alper, ta atso zantarren bitartez, zeintzuk geinetan dirian euren etxeai begiratuken ezteutsenak ta alperreriari ondo eretxita baterik bestera dabilzazanak.

I: *Zek bada sartu daruaz asmo orreetan?*

E: Diabrubak, eurak igarri ez arren; bada gura leuke Jesu Kristoren arerio amurratu onek geure Eleisako bedeinkazinoe Santubak despreziaurik, berak sartu Kristinau artian bere asmoko batzuk, onak dirialako atxakiaz.

I: *Zer kaltetzuk etorri oi dira bide deungako osatu gura oneetati?*

E: Txito asko; Beinik bein, beste erremedio, edo osagarri onak artu nai eztira, bedeinkazinoiakaz osatuko dirian ustian. Gero sartzen dira,

Jainkuaren Ministruai eskubidiak artuten, zeintzubei bakarrik jagoke bedeinkazinoiak egitia. Onez gañeti, darabille naskarri, edo enbasteru onek jenterik geiena engañaurik, milla guzur esanaz; ta dana da eurak atretan daben probetxuba gaiti.

I: *Beraz etxake sinitzerik (sic) emon biar salutareten naste, ta bedeinkazinoai?*

E: Etxake ez sinitzerik, ez enzuterik emon biar, batez bere Obispo Jaunaren gura, edo lizenzia бага badabilzta euren moduko bedeinkazinoe giñen. Eta gure euskalerrietan dakuskuzunak (sic) ibilli oi dira euren burueraz.

I: *Eta zegaiti enzuterik emon biar ez jake?*

E: Zerren euren bedeinkazino eta guzti bere, dakuskuzan illten amurraturik txakurrak, idiak, ta abere asko. Eta onegaz guzurtaubak urteten dabe euren eskini segurukuak.

2. Zerren egin daruezan sorginkeria, ta superstizinoe asko, nola dirian arnasa botatiak, kurutze bat artu, ta abere, ta etxequetara bedeinkazinoiak ezartia, jente zorua belauniko jarriarik, Sazerdote bati jarriko ez litxakiozan legez; ogi bedeinkatutia, ta ogi au jan eragitia kristinaubei, ta aberiai, esanaz, eztabela amurratuko a jan ezkerro, ta urdinduko bere ezta-la urte askotan egon arren.

I: *Nor dabil naste oneetan?*

E: Diabruba lenengo, zeinek aztu eragin gura litukian Eleisako bedeinkazinoiak. Ezpabere itandu biar jake, nork emon deutse gizon zanttar orrei ogia bedeinketako eskubidia, ta esorzismuak egitia, arnasak botiaz? Bildur naz oker egin daruezala kurutzia. Eta zer pekatu ikaragarriagorik.

I: *Zer da gauza oneetan geien zurtu biar gaitubana?*

E: Jente nekezalerik geienak ez sinistu gura izatia onetan Sazerdote, ta Predikadoriari, zeintzubei ondo dakie, ta erakusten dabe esan ditugun bedeinkazinoe kontubak ez diriala bide onekuak. Baña Jesu Kristoren aurrian emongo dabe kontu estuba, ez sinistubaz bere Ministruai, ta geiagotxaranez, edo fiaubaz gizon zatar, ta biarbada edale batzuben bedeinkazinoietan, Eleisakuetan baño. Nik dakidana da, Okosias Erregeari kosta jakola bizitzia bere gaiso denporan zuzendu zalako Aztu, edo igarla guzurtietara, itxirik Jangoikuaren Gizonai. Orregaitik esa eutsen Elias Profeta Santubak Errege onen Serbitzari, edo Morroia: zuaze etxera, ta esaiozu zeuben ugazabari niri (sic) partez, eztaala dagan lekutik geiagotxigiko, zerren eukirik Israelen Profeta egiazko nori itandubak, zuzendu dan Aztu edo Igarla diabruzkuetara. Espiritu Santubaren egia da au.

I: *Zer egin biar dau Kristinau batek gauza onetan?*



E: Ez sinistu atso kontu, ta sorginkeriai.

2. Gatz, edo minen bat jatorkunian itxi bedeinkazinoietako erremedio, edo osabidiak, ta billatu bide onekuak; ta besterik ezin danian, eskatu Jainkuaren Ministro bati, irakurri daiguzala ebanjelio Santubak, eta onena da, egin azterri, edo begirakune bat konzienzian, ta aurkietan bada pekatoren bat, atera kontu, andik jatorkula gatxa. Konfesau laster, ta osteraz jausteko goguz, deungagoren bat jazo eztakigun Jesu Kristok dinuan legez. **Noli amplius peccare, ne aliquid deterius tibi contingat.**

3. *Sen (sic) edo idiren bat gaisotuten bada, ez inoz pensau begizkua dabela, bada begizko kontubok atso ipuinak dira, zeintzubei jakitunak barre egin daruaken.*

4. Bota, edo urristau etxe aldeti salutadore duazanak, ta ez bildurtu, oneek esan al daiezan gauzaak gaiti. Onetara egiten dabe, begiak edegi ditube nekezale askok, ta etxake amurrazinoerik jazoten; garau geiago dauke euren etxeetan, ta konzienziako kezka gitxiago. Kura Jaunak egin biar dabe alegiña euren Eleistarrai begiak edegiteko, kendu ditezan nekezalen arteti milla engañu, ta superstizinoe.

I: *Zein da Jainkuaren lenengo Mandamentubak aginduten daben bigarren gauzia?*

E: Da Jainkua osoro, biotz guztiti, ta indar guztiakaz amau, edo maitatutia.

I: *Zer egin biar da Jangoikua osoro ta alegin guztiaz maitatutko?*

E: Biar da maitiagot izan bera, beste gauza guztiak baño.

I: *Zer egin biar da orretako?*

E: Maitatu Jangoikua Munduko ondasun guztiak baño geiago, geure Senide, Adiskide, ta burubak baño bere geiago. 2. Egin gauza guztiak berari atsegin emoteko asmuaz, ta iges egin Jainkuaren ofensak dirian leku, bide, gauza, ta lagunetati.

I: *Zer eranzun biar jake esan daruen Kristinau askori Jangoikua maite dabela, ta pekatutik urten gura eztabenai?*

E: Eranzun biar jake, obra, edo eginetatik agiri dala amodiua, ta ez berba onetati: erraz dala esatia auaz, ametan dot Jangoikua, besterik biar ezpalitz bera ametako. Onelakuak gaiti dino Apostolu batek. Badira auaz autortu, edo konfesetan dabenak Jainkua, baña ukatuten dabeela eginakaz.

I: *Zein da Jainkua maite izateko sustrairik senduena?*

E: Da bere agindu santubak artez, ta osoz gordetia. Ezpada esan begi edozeñek, zer maitetasun, edo amodio eukiko jako norbaiti, baldin bere agindu, edo guraririk egin gura ezpadogu? Guzurti andi bat da, dino San Juan Ebanjelistiak, esan daruana ametan dabela Jangoikua, bere agindubak gorde baga.

I: *Zegaz baliuauko gara Jainkua ametako?*

E: Gomutabaz lenengo, bera dala ontasun guztien iturria, ta txito maitagarria.

2. Dala geure Aita, berak geure izatia emon, zaintu edo iraun eragin daruagulako.

3. Beti diardubala, guri onegiten, ta sarritan adierazoten deuskula, zein ona dan, batez bere bere adiskide, ta maitatzallentzak (sic).

4. Bere atseginik andiena dala, guk bera maite izatia, gure biotzetan atseretia, ta gu zorioneko egitia.

I: *Jangoikua duin, edo geiago beste gauzaren (sic) maite dabenak, gordetan dau lenengo agindu, edo mandamentu au?*

E: Ez, eta da Jainkuari emon dakiogun naigabe, edo injuriarik garratzena.

I: *Zetan igarriko deutsagu, Maite dogula Jangoikua gauza guztiez ganiian?*

E: Igarriko deutsagu, baldin prest bagagoz lenago geure ondasun, ta geure bizitzia galdutera, Jainkuaren grazia, ta adiskidetasuna baño.

2. Bere borondatiaren kiñu batera zain bagagoz pozarren ozta, ta laster bere gurariko edozein gauza egiteko.

I: *Noz, eta zeinbat bider egin biar dira amodiozko akto, edo egikaiak?*

E: Gitxienez geure adimentu argi, ta ezaguerara elduten garianian.

2. Eriotzako zori, edo peligruban aurkietan garianian.

3. Jainkuaren kontrako, edo bere agindu santuren bat austeko arriskuban dakuskunian geure buruba, baldin beste bitartekorik ediro ezin badogu.

Eta geure bizitzan txito sarri. Zeinbat bider izan biar daben, eztabe oraindino ziur ebagi jakitunak. Alanbere begira zer dinuan Jakituriako iturria dan Jangoikuak. **Amauko (sic) zeure Jangoikua arima, biotz ta indar guztiakaz. Eztituzu inoz aztu biar berba onek ta erakutsiko deutsezu zeure Seme-Alabai. Beti goguan erabilli biar dituzu, dala iratzaririk, edo lotan zagozala, dala jaririk, edo zutinik, etxian, edo kanpuan.** Au dinuanak, adierazo gura dau San Bernardok aitu, ta gero zinuana: Jainkua ametako neurria dala, neurribaga ametia.

I: *Beraz asko (sic) egin darue pekatu mortal Jainkuaren akto amodiozkuak ez egiñaz?*

E: Bai, baña guztiz urte osuak pekatuban igaro daruezan Kristinau errukarriak; zerren ezin batu leite karidade, edo oneretsi egiazkorik pekatu mortalaz.

I: *Zer geiago eragozten jaku agindu santu onetan?*

E: Eragozten jaku lurreko Kriaturen amodio itxu ta geiegi guztia.

I: *Eztitugu bada maitatu biar Jainkuaren Kriaturak?*



E: Bai berez, ta bide onez; eta laguna maite eztabenak, eztau maite Jainkua bera, zeinen anzero, edo irudira eginga dan. Baña eztitugu amau biar, Jainkuari amodiua gitxitubaz; eta alan urrindu, ta gorde biar gara edozeinegandik, geure gurasuak balira bere, baldin eragotzi gura balebe Jainkuaren amodiua, gauza deungaren bat eragin guriatz.

I: *Zeinbat amodio modu, edo mueta dazauguz?*

E: Bi: batari deritxo ondo gurako amodiua, ta bestiari geure oneko amodiua. **Amor benevolentiae et amor concupiscentiae.**

I: *Zer da ondo gurako amodio, edo maitetasuna?*

E: Da ametia Jangoikua gauza guztiez gañian berez ona, ta maitagarria dalako, beste gauzari begiratu baga.

I: *Zer da geure oneko amodio, edo oneretsia?*

E: Da ametia Jainkua, guretzat ona dalako, edo zerren mesedez bete garuazan.

I: *Zeinbat modutakua da oraindino Jainkuaren amodiua?*

E: Beste bitakua. Bata da amodio samurra, sentikorra, ta agiria, eta bestia da amodio ixilleko, edo biotz barrukua.

I: *Zer da amodio samurra, edo agria?*

E: Da Jainkuaganako, ta bere gauzeetarako artu daruagun berotasun, edo mobimentu bizi bat, zeñegaz isioten garian, bere borondatia beti, ta pozik egitera.

I: *Zer da amodio isilleko, edo biotz barrukua?*

E: Da alako berotasun, edo gar baga barruban daukagun prestakuntzia lenago bizitzia emoteko, Jainkuaren borondateari jarki baño.

I: *Zein da maitetasun oneen artian onena?*

E: Ezta erraz igarten: bada askotan biotz otza dirudian baten egongo da amodio zinduagua, ta zoliagua, negarretan urtu oi dan biotz sentikor, edo samur baten baño.

I: *Zelan adierako da ori?*

E: Irudin, edo bardintza onegaz. Daigun, Ama batek daukazala Seme bi, ta bata Nagustuba edo egingo danekua: ta bestia txikarra, edo pardeletan daguana. Ikusiko dozu, zelan ama onek arturik bere seña bular artian gozaro, esaten deusazan milla berba zoro: gabaz lua galerazoten badeutsa bere negarrakaz, guztia darua pazienziatz. Eta denpora onetan, ozta daki daben edo ez beste semerik. Baña ill dakiola Seme Nagusia. orduban dira negarrak, ta naigabiak. Orduban ule tirakak, ta auspaz etzindako illetak. Lenenguan usteukian, andiago zala, seintxubari eutsan amodiua, agiriagua, edo samurragua zalako. Baña gero agertu zan, amodio

zinduagua, ta zoliagua zala Seme Nagusiari eutsana, ezkutubagua bazan

bere. Beste onenbeste jazoten da Kristinau on askoren biotzetan.

I: *Zelan egiten da amodiozko akto bat?*

E: Neure Jangoiko maitia, ametan zaitut gauza guztiez gainian, ta

biotz osuaz, ta lenago galdu gura dot neure bizitzia, zu ofendiu baño:

zerren zarian ain ona, ta maitegarria.

I: *Zer atera biar dogu ikasbide onetati?*

E: Gomutau sarri geure Jainkuaz, ta ez aleginaz ordurik igaro, bere

gomutaren bat euki baga.

2. Ez itxatsi biotza lurreko gauzatan, ta aurretik erabilli, Jainkuaren

amodiozko sustraia dala, bere esanak, edo agindubak egitia.

3. Eskini biotz guztia Jainkuari, zeñentzat gitxi dira Zeruko Santu,

ta lurreko guztien biotzak bere.



Bigarren ikasbidia

Jainkuaren bigarren aginduba

I: *Esaizu bigarren agindu, edo Mandamentuba.*

E: Ez juramentu alperrik egitia bere izen Santuba deungaro erabili-
lliaz.

I: *Zer eragotzen jaku agindu onetan?*

E: Eragotzen jaku, lenengo, juramentu alperra edo biar eztana. 2. Blasfemia. 3. Biraua. 4. Maldizinioia, edo ernegu berbak nori bait ezartia.

I: *Zer da Juramentuba?*

E: Da Jainkua testigantzara ekartia, gauzaren bat siniserazoteko.

I: *Zeinbat era, edo modutara ekarri leite Jainkua testigutzat?*

E: Bitara; bata artez, edo argiro, bestia albotik, edo ziarretara.

I: *Zelan ekarten da artez testigantzara Jainkuaren izena?*

E: Aitatuten danian Jainkuaren, edo Jesu Kristoren izena: nola da esatia, Jainkuagaiti, [berak daki ondo, au edo bestia, onela, edo alan dala], Jesu Kristo izango da testigu, kurutze onegaiti Jainkuak salbau ez nagia-
la, ta beste onelango esakera batzuk.

I: *Zelan ekarten da testigutzat ziarretara?*

E: Jainkuaren eskubetako egite, edo Kriatura nagusiak gaiti jura-
mentu egiten danian, nola dirian Zerubak, lurra, eguzkia, arimia, ta beste
batzuk, zeintzuben agertuten dan Jainkuaren perfekzinoe, edo ederga-
rriren bat.

I: *Zeintzuk egiten dabe juramentu utsian, edo alperrik?*

E: Guzurraren ganian egin daruenak.

2. Egia izan arren premia бага, edo ezeri ez dagokala egin daruenak.

3. Biar eztan lege, gauza deungia egiteko berbias egiten dabenak.

I: *Zer pekatu izango da guzurraren gañeko juramentuba?*

E: Da pekatu mortala txito ikaragarria. Eta pekatu txikinagua da,
kaliza, ta Patenak Eleisan ostutia, gizonen bat illtia, ta Andrakume ezkon-
dubaz pekatu egitia, juramentu guzurrezko bat baño.

I: *Zegaiti ori?*

E: Zerren guzurtaurik itxi gura leuke onelako juramentugilliak

Jangoiko egia bera dana: eta zerren balietan dan bere izen santubaz, zeñ
enzunda ikaratuten dirian Diabrubak, eztan gauzaren bat siniserazoteko.

I: *Eta zer egin darue Justiziaren aurrian guzurrezko juramentuba egiten dabeenak?*

E: Gitxienez pekatu mortal andi bi, bata justiziaren, ta bestia Reliji-
noiaren kontra.

I: *Eta zer egin biarko dau iñori kalterik etorri bajako, geienian etorten dirian lege?*

E: Ezin salbauko da, pagetan ezpaditu nori nai etorri jakozan kalte,
edo bidebagiak, dala honran, dala ondasunetan, Eskribau, ta Juszitiak
eruan dituben dirubetan. Errazto billatuko dau onelango juramentugilliak
konfessore jakintsu bat, esan dagion zer egin.

I: *Eta Jauna, zer egingo neban, esan darue, adiskide batek orretarako berba egin beustan, ta bestela presondegi, edo karzelan sartuta galduko beeben?*

E: Eztabe akiakula, edo atxakia orrek ezer balioko Jainkuaren
aurrian: bada lenago da, bere izen santuba deungaro ez erabilitia, zure
adiskide ori erre, ta urkatutia baño.

I: *Eta zer pekatu izango da guzur txikarren gañeko juramentuba?*

E: Beti da pekatu mortal andia, ta askoren ustian andiagua, gauza
astun baten gañian egiten danian baño, egiten jakolako Jainkuari bideba-
ga, edo injuria andiagua.

I: *Ondo da juramentu egitia egia gañian, biar orduban, ta biar dan lege?*

E: Ondo da, ta onetara juramentu egiten dabeenak egin darue
Jainkuaren gurako gauza bat, zeñen izena onretan dan.

I: *Eta zer pekatu izango da egia ganian; baña premia andi bago juramen-
tu egitia?*

E: Da pekatu arina, edo beniala, nola dirian jokuan, ta ezeberkezke-
rietan gauzaren bat siniserazoteko egiten danian. Baña ezta pekatu benia-
la bena izango, baldin gauza astunen baten zeure errurik eza erakustia-
rren esaten badozu. Eztagidala emendik aldegin, edo Zerurik Jangoikuak
emon, orrelakorik egin baneban, edo jazo bazan. Baña kontu: beti egia-
ren gañian dala.

I: *Zeintzuk utsegin darue, biar dan lege juramentu ez egiñaz?*

E: Biar eztan gauzaren bat egiteko zemaiaz egiten dabeenak. Nola
dan esatia: **Jainkuak salbau ez nagiala, illik geratu nadilla, buruba
austen ezpadeutsat, bengetan ezpanatxako.** Esamodu oneek beti dira
eurenez pekatu mortalak. Eta egiten badira juramentu oneek, eskini, edo
zematuta dan gauza deungia egiteko goguaz, dira gitxienez pekatu mortal
bi: eta badira gogo бага, da guzurrezko pekatu andia.

I: *Zer egin biar dau onelako juramentugilliak?*



E: Lenengo Jainkuari parka eskatu, ta gero ez egin juramentubaz eskini eban gauza deungia.

I: *Gauza onen bat juramentubaz eskini dabenak, zer egin biar dau?*

E: Egin artez, ta ainbat lasterren agindu, edo eskini daben gauzia.

I: *Zer da Blasfemia?*

E: Da Jainkuaren, Santuben, edo geure Kristinautasuneko gauzaren baten kontra esaten dan berba astunen bat; eta da asmau daitian baño pekatu ikaragarriagua. Jainkuari eskerrak, gure euskal errietan buruauste gitxi emoten jake konfesorai onelango pekatubaz.

I: *Zer da Maldizinoe, edo zernai deungia?*

E: Da bere burubari, edo besteren bati berbaz eskini, edo opa izatia gauza txarren bat: nola dirian esakera oneek: Diabrubak eruan naiela: arren bada eztanda egingo al dok; bizirik etorriko ez alaz; lupu gaistok jango alau; purgatan artuko aldituk niri galdueragin deustazanak; besuak igartuko al jakoz nire matasa, edo tresnaren batzuk eruan deustazanari; neuri opa deustana jazoko al jako; eriotza onik izango ez al dau; seingintza gaistok joko al dau; ta onelango beste plegaria Zeru-lurak ikaratuten ditubenak.

I: *Zer merezi dabe onelako gaiski esala eskandalagarriak?*

E: Ondotik mina atera, ta belenatza batera botatia; ta ez istia Komuninoeko Mai santura urreratuten, euren mingain madarikatubetan lotsari andiaz jarri eztedin Jesu Kristoren gorputz bedeinkatuba.

I: *Zer pekatu da maldizinoiak ezartia, abere, edo giberriai?*

E: Pekatu arina, edo beniala Ugazabaren gorrotoz, ta gaiski etorri dakion goguaz esaten ezpadira. Alanbere egin biar da alegiña usadio, edo oitura txar ori kenduteko; zerren aua plegaria orretara oitu ezkerro, igaro leite erraz geure proximo, edo lagunari ezartera.

I: *Zer esango jake arako guraso gogor euren umiai ezarten deusezanei?*

E: Esan biar jake gois, edo berandu itxatsiko jakezala errege deunga orrelanguak; emon daruela eskandaluba etxian, ta auzuetan ta ezin absolbiuko ditubala Konfesoraiak egin gura ezpadabe alegina, ekandu, edo kostunbre ori kentzeko; edo berba onak emonda, bete, edo kunplietan ezpadabe. Espiritu Santubaren esanak dira, Ama baten maldizinoiak galdu daruazala etxeko zimentubak; esan gura dau, ekarten deustela eriotzia euren Seme-Alaba guztiai; ta eztala faltako negarra, ta naigabia onelakuen etxeetan. San Agustinek dino, bere egunetan Ama batek ezarri eutsela maldizinoe bat bost edo sei semeri; ta zirianak artu zitubala gorputz guztiko dardara, edo ikara andi batek, ta urtebela mundurik mundu limosna eske, beste gurasuak bildurto zitezan.

I: *Zer eranzun darue onelako maldizinoe ezarlak?*

E: Ez eukela intenzinoe txarrik; beriala garbatu jakela, ta eginalak egin arren ezin kendu dabela oitura, edo kostunbre deungia.

I: *Eta balioko dabe Jesu Kristoren aurrian asesinoe, edo atxakia oneek?*

E: Ez; bada isillik daguan legezen euren intenzinoia, beti emon darue eskandaluba enzuten dagozanentzat; ondo da, deunga egiñaz garbatutia; baña egiña, egiña da. Barriz eztago ezin eginik benetan gura dabenarentzat, ta jazoera, edo ejenplu barregarri onegaz begiak edegiko dituzu.

Eldu zan bein Konfessore baten oñetara Errege gizon, edo Soldau kapitán bat, ta konfesau eutsan beste pekatuben artian, eukala maldizinoiak ezarteko oitura, edo usadio txarra. Itandu eutsan Konfesoraiak, zeinbat denpora da, oitura ori daukazula? Asko Jauna; antxinako usadio zarra dot. Ainbat deungaro esa eutsan. Zauri zaartubak neke (sic) osatu oi dira. Eta zer penitencia egin dozu? Egin ditut, Jauna, eranzu eutsan, agindu deustezan errezubak. Eta besterik ez? Ez Jauna. Errezubak onak dira; baña eztira asko, arimako gatx (sic) guztiak osatuteko. Zu, neure Semia, denpora orretan guztian bizi izan zara obasun, edo emienda бага, deungaro konfesetan ziniala, ta kondenazinoeko peligru andietan. Eztago zu salbetako beste biderik, ezpada egiazko penitencia, Konfesorioe jeneral on baten bitartez.

Orduban beregana biurturik Soldauba, esaten deusta, Agindu begi, gura dabena; baña kontu, ez azurrak austeko azota, zilizio, baru, ta gauza gogorrik; zerren soldauba banaz bere ez nago arma, edo erremienta orretara egiña. Agindu begi beste edozein gauza, ta emoten deustat Soldau prestu baten berbia. Asi jakon Konfesoría burutik onetara begiraturen, ta ikusi eban, zelan ekarren bere sonekua urrezko botoe ederrez beteta. Eta barruban irri barretxubak eginda asi zan esaten. Itxok bada: nik kenduko deubak maldizinoiak ezarteko gogua. Ara bada. Zu salbetako, ez geiago madizinoerik bota. Ondo dago Jauna. Eta botaten badozu, azurrik auste bagako penitencia eruango dozu. Ori gura dot bada nik bere, zirautsan soldaubak. Geiago egiten badozu, maldizinoe bakotxagaiti penitencia izango da, lenen topetan dozun pobriari, emon beriala soñian dakartzuzan botoetati bat.

Au enzun, ta Soldau ori zurtuta geratu zan. **Agur nire botoiak** esateban barre egiñaz. Zer agindu deust Jauna? Au ikusia dago. **Agur botoiak:** etxat garau bat enparauko. Mutil ona gertuko naz, gizon artian urteteko.

Alanbere, Jauna, berbia berba, ta aginduba agindu. Alperrik geratu (sic) naz botoe бага, kunpliuiko dot penitencia. Bere konfesorioa amaitu-



ta, etxera joiala kale estubateti, topau eban Pobre trinkin, edo erren bat, ta zelan errenga laster bidetik, edo enbarazuti kentzen etxakon, ernegazi-noe, ta aserriaz besotik oratuta esan eutsan, ken akit emendik milla Demonio, ta añaenakaz. Aotik atara orduko, gomutau, ta kontura zan; ta asi zan esaten: Ez neutsan nik igarri zer jazoko jatan? **Agur nire botoe galantak.** Badakit etxera baño lenago bapere бага geratuko nasala. Botoe barriak erostia, kostako jat, ta eurak bere eztira seguru egongo. Atera zituban artazi batzuk, ta min emoten beutsan bere, botoia ebagirik luzatu eutsan Pobreak. Bere bidian joiala asi zan esaten asaiera edo prinsipio onak daukaguz. **Agur nire botoiak.** Baña zelan minduten zan galdu biarraz, aserra leku guztietan ezpanak estututen zituban, ta ez eban galdu botoe geiago. Orra ejenplu onetan zelan dakuskun, eztiriala igaroko Jainkuaren aurrian Jokolari, edale, desonestu, a maldizinoegilliak emon daruezan atxakiak. Borondate ona ta obatu gura sendua balego, egingo geunke geure aldeti alegina; au egin ezkerro, prest dago Jainkuaren grazia, ta kenduko kendukez sustraiti oitura, edo kostunbre zar, ta gaistuenak.

I: Zeri esaten jako Biraua?

E: Izen deungaren bat aitatutuari, edo ezarriaz, edo dei egiñaz, nolan dirian Diabruba, Demoniua, Añena ta Barrabasa.

I: Zer pekatu da aserriaz izen orrei dei egiña, edo aitatutia?

E: Ezta berez pekatu mortala. Baña esatia sarri guraso batek bere umiari, **ator ona Demonio gaisto ori, Barrabasen Seme ori, Añen alakori,** izango da noz bait eskandaluzko pekatu mortala. Zerren umiai emoten jake ejenplu asko ikaratu daruazanak, ta txito deungia; ta alkarren artian esan darue, **gure Aitak, edo Amak bai egiten gitubala (sic) biraotzarrak,** ta auzuetarañokuak egon oi dira gaiski esaka.

I: Zer esan biar jake onelango biraogilliai?

E: Oitu ditezala Jesusen, ta Mariaren izen gozuak debozinoiaz euren miñian erabilten: eztala negarra, ta miseria faltako euren etxetan, pozik etorriko jakela Diabruba dein (sic) egin ezkerro, ta eztala euren biotzetatik urrin egongo: bada Espiritu Santubak dinuanaz, minetik, edo aotik urten darua biotz barruban daganak.

I: Zer esango jake maldizinoe erneguzkuak ezarten ditubenai: zerren zerbait ostu deuten, edo abereren batek egin dituban kaltiak gaiti euren soluetan sartuta?

E: Esan biar jake, eztabela kaltia kendu, edo desegingo birao, ta maldizinoiak ezarriaz.

2. Geratuko dala gorputz, ta arimako kalte biakaz.

3. Egingo dabela alegina Diabrubak ostera zerbait ostu dagiuen, edo esiak idigiko ditubala ostera abere, edo giberriak sartu dakiozan: zerren igarten deutsa, oneek diriala, arimia galduteko bidiak.

I: Zer egin biar da bada?

E: Zerura begiak jaso, eskini Jangoikuari izan dozun kalte, ta naigabia, ta esan, egin dedilla gauza guztietan bere borondate santuba.

I: Zer esango jake dinuenai gatx бага ezarri ebela maldizinoia?

E: Askotan guzurra dinuela: bada gero garbatuarren beinik bein esan daruez aserriaz; ta bildur izateko da, biotza eztala garbia egoten.

I: Zelan kenduko dogu usadio, edo ekandu deunga au?

E: Gomutauaz, guztiok gariala Jainkuaren anzeria, edo irudira egiñak, ta Jainkuaren irudirik onenari ezarten jakola madarikazinoia giza-kumeren bati ezarten jakonian.

2. Goisian jagita laster eskatu Jainkuari laguntasuna, alango berba txarrik esan eztaigun, ta lurra miñaz garbitu, osterako gomuta gaitezan.

I: Zer da Botua, Eskinia, edo esan daruen legez Promesa?

E: Da Jainkuari egiten jakon Eskini bat, obligetan gariala, egitera berari atsegin emongo deutsan gauzaren bat.

I: Ondo da Promes oneek egiña?

E: Berez ondo da; baña eztira arinegi, edo begiratu бага egin biar.

I: Zer esan biar da askoren Erromerietako Promesak gaiti?

E: Geienez balio eztabela: zerren artu daruezan euren kunplimenturako piesta egunak, ta euren egoera, ta juan etorrietan egiteko milla gais-takeria Promes atxakiaz.

I: Zer agindu biar jake gauza onetan geienai?

E: Eztagiela inoz eskini, edo promesik egin, Konfesoriaz itundu бага, batez bere gauza astunetan, nola dan boto kastidadekua esaten jakona.



Irugarren ikasbidia

Jainkuaren irugarren Mandamentuba

I: *Zein da Jainkuaren irugarren Mandamentuba?*

E: Jaiegunak osoro, ta ziatz gordetia.

I: *Zer aginduten jaku agindu, edo mandamentu onetan?*

E: Igaro daiguzala Jaiegunak gauza onetan.

I: *Zer egunetan gorde eruen antxinako legian, edo Jesu Kristo etorri baño lena-
go, Jaieguna?*

E: Zapatuban, edo Larunbatian.

I: *Zegaiti alan?*

E: Zerren egun onetan atsereban Jainkuak bere egite, ta lanetatik: bada lenengo sei egunetan egin zituban, bere borondateko esanaz, mundu onetan dagozan gauza guztiak, ta zazpigarren eguna artu eban beretzat, ta onei dei egiten jako **Zapatuba**, esan gura dau, Atseren eguna: ez Jangoikua adikatu, edo kansau zalako, ezpada zerren itxi eutsan gauzak egitiari. Orra mundik jatorkun asteko egun baten biarrik ezin egiña.

I: *Zegaitik igaro eban Eleisa Ama Santiak jaiegun au Domekara, edo Igan-
dara (sic)?*

E: Zerren egun au dan, zeinian biztu zan Jesu Kristo, igaroteko beti-ko deskansu, edo atseren lekura.

I: *Zer esan gura dau Domekiaren izenak?*

E: Jainkuaren eguna.

I: *Zegaiti ori?*

E: Igaro biar dogulako, Jainkuari atsegin emongo deuten gauzetan.

I: *Zer egin biar da egun au ondo igaroteko?*

E: Meza oso bat enzun egiazko eragozbide, edo errazoerik ezpada-
go. Gero astiro berba egingo da onen gañian.

I: *Zer aginduten jaku ondo igaro, edo santututeko egun au?*

E: Ez biarrik egitia.

I: *Zegaitik biar egingo ezta?*

E: Zerren kenduko leuskegun denporia Jainkuaren, edo arimako gauza, ta lanetan igaroteko.

I: *Zer adietan dozu egun onetan eragozten jakun biarraz?*

Baña geienian ezta orrelako peligrurik egoten, Nekezale konzienzia gar-
bikuak autortuten daben legez, ta eztago oneek lako teologurik gauzaren
batzubetan. Barriz gaztaña batzeian ezta askok gura leuken peligrurik.

I: *Zein da Jaiegunekeo lanik deungeena?*

E: Da pekatuba, ta pekatuba daiekezan edozein ibillera, ta bide. Bada
San Agustinek dinuanaz: baldin gure Jangoikuak galerazo, edo debekau
bazituban biar, edo neke eurenaz onak zirianak, berari egun Santubak
opetsi, edo konsagrau gengiozan, zeinbat geiago eragotziko ditu gaista-
keria, ta gauza deungak?

I: *Zer esango da, Meza isil, edo erreza bat enzun da, egunik geiena igaro
daruena gaiti alperrierian, jokuan, taberna, edo edalekubetan, ta beste ibillera
zoruetan?*

E: Esan leite ardura бага, eztaukela onelakuak Kristinauben azuz-
kerik (sic) izenian baño; ta Jainkuaren begietan eztiriala ondo gordeten
egun santubak.

I: *Nortzuk dira onetan utsegin daruena?*

E: Dira Metza (sic) Nagusietatik iges egiten dabenak, ta biar bada
euren Arzain, edo Kuren Sermoiak ez enzutiarren. Onelakuak eztira Jesu
Kristoren ardiak: bada igesi dabiliz bere txistik, ta deietati, ta da galduko
dirianen señalía.

I: *Zeintzuk dira Jai arinak?*

E: Dira, Meza enzunda, biarran igaro daiegeguzanak: ta Meza enzun
ezin dabenak, egin leike biarra pekatubaga, ta bardin goisian Meza enzun
baño lenago. Eleisa Ama Santiak eukitu errazoe asko, jai katigatuta ego-
zanak librau, edo askatuteko: ta egiten dabe txito deungaro, esan darue
nekezale askok, ori egin zanetik ona gari, ta arto gitxiago arto oi dala.
Ikusteban Aita Santu Erromakuak inoz baño pekatu geiago egiten ziriala
jaiegunetan, edo Jainkuaren egunetan; ta obagotzat euki eban, egun san-
turen batzubetan biar egitia, leku, ta pekatu bidetan ibiltia baño.

I: *Zer jazoko jake Jaiegun katigatubetan biar egin daruena?*

E: Ara zer dinuen gañian, Parisko Konzilio, edo Batzar Santuko
obispo guztiak. Gure arteko askok geure begiakaz ikusi ditugu, ta beste
askok enzunaz dakiguz, Jaiegunetan biarran egozan Kristinaubak onas-
tarriakaz illak izan diriala, beste batzubei besuak igartuta geratu jakezala,
ta ez gitxi zerutik jatsiriko su bizi batek kiskildu, ta auts eginda itxi ditu-
bala. Jainko ziurrak adierazo dau sarri, zeinbat aserratu daruen, Jaiegunak
ez santututiak. Zetan siniserazoko dogu, gariala Kristinaubak? Gauza
negargarria! Itxaroten dagoz asko, deungaro egiteko egun Santuben, ta
Jaiegunei. Biar egunetan bizi dira edolabere ainbestian. Betor Domekia,



Baña geienian ezta orrelako peligrurik egoten, Nekezale konzienzia garbikuak autortuten daben legez, ta eztago oneek lako teolugurik gauzaren batzubetan. Barriz gaztaña batzeian ezta askok gura leuken peligrurik.

I: *Zein da Jaiegunko lanik deungeena?*

E: Da pekatuba, ta pekatuba daiekezan edozein ibillera, ta bide. Bada San Agustinek dinuanaz: baldin gure Jangoikuak galerazo, edo debekau bazituban biar, edo neke eurenz onak zirianak, berari egun Santubak opetsi, edo konsagrau gengiozan, zeinbat geiago eragotziko ditu gaistakeria, ta gauza deungak?

I: *Zer esango da, Meza isil, edo errezau bat enzun da, egunik geiena igaro daruenak gaiti alperrierian, jokuan, taberna, edo edalekubetan, ta beste ibillera zoruetan?*

E: Esan leite ardura бага, eztaukela onelakuak Kristinauben azuzkerik (sic) izenian baño; ta Jainkuaren begietan eztiriala ondo gordeten egun santubak.

I: *Nortzuk dira onetan utsegin daruenak?*

E: Dira Metza (sic) Nagusietatik iges egiten dabenak, ta biar bada euren Arzain, edo Kuren Sermoiak ez enzutiarren. Onelakuak eztira Jesu Kristoren ardiak: bada igesi dabiltz bere txistik, ta deietati, ta da galduko dirianen señalía.

I: *Zeintzuk dira Jai arinak?*

E: Dira, Meza enzunda, biarrian igaro daiegeguzanak: ta Meza enzun ezin dabenak, egin leike biarra pekatubaga, ta bardin goisian Meza enzun baño lenago. Eleisa Ama Santiak eukitu errazoe asko, jai katigatuta egozanak librau, edo askatuteko: ta egiten dabe txito deungaro, esan darue nekezale askok, ori egin zanetik ona gari, ta arto gitxiago arto oi dala. Ikusteban Aita Santu Erromakuak inoz baño pekatu geiago egiten ziriala jaiegunetan, edo Jainkuaren egunetan; ta obagotzat euki eban, egun santuren batzubetan biar egitia, leku, ta pekatu bidetan ibiltia baño.

I: *Zer jazoko jake Jaiegun katigatubetan biar egin daruenai?*

E: Ara zer dinuen gañian, Parisko Konzilio, edo Batzar Santuko obispo guztiak. Gure arteko askok geure begiakaz ikusi ditugu, ta beste askok enzunaz dakiguz, Jaiegunetan biarrian egozan Kristinaubak onastarriakaz illak izan diriala, beste batzubei besuak igartuta geratu jakezala, ta ez gitxi zerutik jatsiriko su bizi batek kiskildu, ta auts eginda itxi ditubala. Jainko ziurrak adierazo dau sarri, zeinbat aserratu daruen, Jaiegunak ez santututiak. Zetan siniserazoko dogu, gariala Kristinaubak? Gauza negargarria! Itxaroten dagoz asko, deungaro egiteko egun Santuben, ta Jaiegunei. Biar egunetan bizi dira edolabere ainbestian. Betor Domekia,

Laugarren Ikasbidia

Jainkuaren laugarren agindu edo Mandamentuba

I: *Zein da laugarren Mandamentuba?*

E: Geure gurasuai biar dan lotsia ekartia, edo onretia.

I: *Zer aginduten jaku Mandamentu onetan?*

E: Geure gurasoi lotsia gordetia, maite, edo laztan izatia; euren esan, ta agindu, deungak eztirianak, egitia; ta euren premia; edo biar ordubetan lagundutia.

I: *Zeintzuk utsegin darue Gurasuai lotsia ez gordiaz?*

E: Dira euren gurasuak oneregi (sic), edo desprezietan dituben Seme-Alaba lotsabagakuak, siñu, ta koko egin daruakenak, ta euren utseginak salatu, ta agertuten dabiltzanak.

I: *Zer pekatu da Guraso bati erremuskada egitia?*

E: Izango da pekatu mortala, egiten bajako erremuskada astun, ta asko estutu daikiana. Baña egiten bajako gitxitan, ta gogortasun бага, ezta pekatu mortala izango. Alanbere beti da soberbiaren azuzki, ta señalía.

I: *Zer juzgu egingo da Konfesoren onetan onetara akusau oi dirianak gaiti. Jauna, abrigu txar bat egin deusat gurasuari; eranzun deusat, ta begirakune illuna eginda mormosietan aldegin nehan bere aurretik?*

E: Egin biar dan juzguba da, egin daruela pekatu mortal, baldin igar ten badabe, irme, edo asko estutuko diriala gurasuak: baña abrigu, eranzute ta mustur astinketak arinak, otzak, edo gogortasun багаak badira, eztira pekatu benialetti igongo.

I: *Zer egin biar dabe Umiak Gurasuen zernai, diadar, ta agirakaz (sic) danzubezanian?*

E: Badazaube erruba daukela, gauzaren baten utsegin dabelako, buruba beratu, ta autortu edolabere euren artian, ondo irabazirik daukela zemaia, agirakia ta zurria. Eta errurik euki ez arren, esan umiltasunaz: Aita, edo Ama onetara, edo bestera izan zan gauzia, ez neukan errurik; ta badiraute orregaitiño diadarrari, eruan Jainkuaren izenian, ta pekatuben orderako jazoten jakena, ta asko irabaziko dabe onetara.

I: *Zeintzuk utsegin darue gurasuak ez laztan izanaz?*

E: Dira, euren gurasuak iguindu, edo gorretan ditubenak, eurakaz bizitzarik egin gura eztabenak, edo bizitza gaisto emon daruakenak.

I: *Nortzuk utsegin darue euren gurasuei obedi ezaz?*



Laugarren Ikasbidia

Jainkuaren laugarren agindu edo Mandamentuba

I: *Zein da laugarren Mandamentuba?*

E: Geure gurasuai biar dan lotsia ekartia, edo onretia.

I: *Zer aginduten jaku Mandamentu onetan?*

E: Geure gurasoi lotsia gordetia, maite, edo laztan izatia; euren esan, ta agindu, deungak eztirianak, egitia; ta euren premia; edo biar ordu-betan lagundutia.

I: *Zeintzuk utsegin darue Gurasuai lotsia ez gordiaz?*

E: Dira euren gurasuak oneregi (sic), edo desprezietan dituben Seme-Alaba lotsabagakuak, siñu, ta koko egin daruakenak, ta euren utseginak salatu, ta agertuten dabilzanak.

I: *Zer pekatu da Guraso bati erremuskada egitia?*

E: Izango da pekatu mortala, egiten bajako erremuskada astun, ta asko estutu daikiana. Baña egiten bajako gitxitan, ta gogortasun бага, ezta pekatu mortala izango. Alanbere beti da soberbiaren azuzki, ta señaia.

I: *Zer juzgu egingo da Konfesoren onetan onetara akusau oi dirianak gaiti. Jauna, abrigu txar bat egin deusat gurasuari; eranzun deusat, ta begirakune illuna eginda mormosietan aldegin neban bere aurretik?*

E: Egin biar dan juzguba da, egin daruela pekatu mortal, baldin igarten badabe, irme, edo asko estutuko diriala gurasuak: baña abrigu, eranzute ta mustur astinketak arinak, otzak, edo gogortasun bagaak badira, eztira pekatu benialeti igongo.

I: *Zer egin biar dabe Umiak Gurasuen zernai, diadar, ta agirakaz (sic) dan-zubezanian?*

E: Badazaube erruba daukela, gauzaren baten utsegin dabelako, buruba beratu, ta autortu edolabere euren artian, ondo irabazirik daukela zemaia, agirakia ta zurria. Eta errurik euki ez arren, esan umiltasunaz: Aita, edo Ama onetara, edo bestera izan zan gauzia, ez neukan errurik; ta badirautse orregaitiño diadarrari, eruan Jainkuaren izenian, ta pekatuben orderako jazoten jakena, ta asko irabaziko dabe onetara.

I: *Zeintzuk utsegin darue gurasuak ez laztan izanaz?*

E: Dira, euren gurasuak iguindu, edo gorretan ditubenak, eurakaz bizitzarik egin gura eztabenak, edo bizitza gaisto emon daruakenak.

I: *Nortzuk utsegin darue euren gurasuei obediū ezaz?*

E: Erakutsi biar jake, eurak bere noz edo noz neurri agaz beragaz neurtubak izango diriala ta eztabela zer uste izan zartza onik.

2. Jainkuak ebagi, edo laburtuko deusela euren bizitzako arilla, edo eztitubela egun luze, ta gozatsubak ikusiko lurgañian.

Jainkuaren aserre, ta madarikazinoiak euren gañera dakarrezala, ta berari emontzat legez artu daruazala, guraso zar gaisuei emoten jakezan esturasun, ta naigabiak.

I: *Zer merezi dau, gurasuari eskuba jasoten deusanak?*

E: Bere beriala bizitzia kentzeia, antxinako Legian Jainkuak aginduteban legez.

I: *Zer besterik aginduteban?*

E: Salatu eizala euren Umiak agintarien aurrera, ta esan egiela: Jauna, lotsa gaistoko Seme bat daukagu: ezin beragaz bururik egin dogu, eztaugure agindurik egin gura; denporia juako jan edanetan, ta andrakumekaz.

I: *Zer aginduteben Agintariak salazinoe oneek enzunda?*

E: Agindutebena zan, erriko guztien artian ill egiela arrika, gatx andi bat legez kentzeko lurraren gañeti.

I: *Eta zeintzuk gana zuzenduten da oraindino laugarren Mandamentuba?*

E: Gurasuak eurak gana, zeintzuk dauken geienetan erruba, Umiak ain deungaak urtetiaz.

I: *Zegaitik ori?*

E: Zerren emon ez daruaken Jainkuaren bildurreko aziera bat.

I: *Zeintzuk egiten dabe pekatu onetan?*

E: Arako guraso gogor euren umiai dotrina santuba erakusten ezteutsenak, amabigarren urtian konfesau, ta komulgau ezin diriala.

2. Deungaro eginda zematu, ta biar orduban zigorra eztarabilenak.

3. Gura daben guztiaz urtetan itxiten deusanak.

4. Ejenplu, edo jarraigarri txarra emon daruakenak.

I: *Zeintzuk dira oneek?*

E: Dira umiak dakusezala orditurik jarten dirianak lera gogor, atralaka, diadarka, iskibidu ta erroiduban dabilzanak; edo umiak danzubezala maldizinoe, biraotzar asko, ta berba loi, edo berdiak esan daruezanak.

I: *Zer izen merezi dabe onelang Guraso gaiztuak?*

E: Eurai egozteko txikinak dira Lupu, ta Otso amurratuben izenak. Jesu Kristok zinuan, umeren bati ejenplu deungia emoteban edozeñegaiti, merezi dabela errotarritzar bat samatik lotuta itxas barrura botatia. Zer esango eban aitatu izan balitu esan ditugun gisako guraso gaiztuak?

I: *Zeinbat pekatu egin darue gurasuak euren umeen aziera deungia gaiti?*



E: Asko, baña enzunenak dira, ez pausubak gordetiaz, edo nundik nora dabilzan, ta ze lagunakaz batu oi dirian ez kontu eukiaz, ta biar dirian neurriak ori eragozteko ez artubaz. Euren oian eratzuaz ito ditezen peligruez ta deungago dana, sei, ta zazpigarren urtian bere, milla gaistakeria irakasteko bidian ifinten ditubela. Bardin Neba arrebatxubak alkarregaz, emoten dabela atxakiatzat, eztaukela oerik, nun eratzu alde banee-tan.

I: Igaroko ete dira atxakia oneek Jainkuaren aurrian?

E: Ez: zerren lenago da arimia gorputza baño. Zeinek artuko eztitu oraingo neke batzuk eternide (sic) edo betiraune guztian ez igarotiarren askoz andiaguak? Konfensoriak dazaube ondo zer igaroten (sic) dan onen gañian. Baña noren lepora loko dabe umiak ikusiaz ikasi, ta egiten dituben txarkeriak? O zeinbat kalte datozaen oe nastu, ta alkarren ondokuetati!

I: Eta zer pekatu izango da seien sorreria eragotzia (sic) edo sen sortubai jaitzia galarazotia, ta onegaz bautismua?

E: Au da Zerura diadarren dagan pekatu eskerga bat. Arima gaiso Zerura biarran Linbora juan zana, egongo da bengai eske onelako mada-rikatuben kontra: zerren galarazo jakeen Jainkua ikustia. Onez osterun-zian geratuten dira eskomulgauta (sic) eurak, ta orretako laguntasunen bat emoten deuten guztiak.

I: Zer egin biar dabe gurasuak umiak ganuntz?

E: Azi txikinetati Jainkuaren bildurrian, erakutsiaz, zeñ ona da (sic), zer sariak daukazan gordeta bera amau, ta serbietan dabenentzat, ta zer kastiguba Infernuban deungentzat.

2. Erakutsi zelan egin biar dituben txito sarri akto fede, esperanza ta amodiozkuak, ta oneek egin leitekezala txito erraz biotzetik, ta kontuz esaten badira. Kredua, ta neure Jesu Kristo Jauna, ta oera orduban, ta goi-setik jagitian esan eragin.

3. Erakutsi zeinbat kalte dakarzan arimara pekatubak, ta esan nos-bait euren aurrian San Luis Franziako Erregiaren Amak Seme Santu oni txikina zan artian esa eruakona: **Neure Seme laztana naiago zenduke-daz ementxe anda baten illik ikusi, pekatu mortal bat inoz egin dozula enzun baño.** Alakuak urteban Semiak, zeinek ezin aztu izan zitu-ban bizitza guztian bere Ama onaren berba Santubak. Ez esan pekatu mortala dala eztana. Orregaitik Ume askok daukez pekatu anditzat Barrabasa, Diabruba, Demoniuu, ta Añenari dei egitiak, eurenez ez izanik pekatu benialak baño, ta gero egin darue pekatu mortal uste txarraz. Era-kutsi zelan konfesau biar dan, ta zein garbiro egon komuninoe Santuban Jesu Kristo artu gura dabeenak.

Beste ikasbide bat

Gauza onen ganian

I: Jainkuaren laugarren agindu onek, zer besterik eskatuten deusku?

E: Geure Gurasuaz osterunzian onrau daiguzala, Aitañiarrabak, Amabigiñarrabak (sic), Ugaz-aita, Ugazama, Osaba, Izekuak, ta beste señidiak, bakotxari jagokan terzio, edo ereduban.

I: Zeintzuk geiago biar ditugu onrau?

E: Geure Arimako, ta gorputzeko Agintariak, nola dirian Aita San-tuba, Obispo, Kura, Sazerdote, Errege, ta bere ordeko Juezak, edo geure Nagusiak.

I: Zeintzuk dira Morroe, ta beste otsegiñen egin bide, edo kargubak?

E: Gorde biar deutse lotsia euren Ugazabai. Begiratu ta zaintu biar ditube etxeko tresna, ta gauzaak. Ezin artu leike ezer soldatiaz gañetik: egin biar ditube arretaz, ta gogoz agindu deungak eztirianak, ezitube kanpoko barriketak etxian esan biar, ezta etxeuak bere kanpuan.

I: Zegaz gmutauko dira, gauza oneek ondo egiteko?

E: Jesu Kristo gure Jaunaz, zein etorri zan lurrera geiago serbietako serbiuba izateko baño.

I: Zeintzuk dira Ugazaba, edo Etxekoandren obligazinoiak, euren mendeko, edo otsegiñak ganuntz?

E: Emotia adiuntzaz, edo ordu onian zor deuten biarsaria, edo sol-datia.

2. Arteztu, edo zuzen bidiak emon okertuten asten badira.

3. Itandu dotrinia euren Umiai legez, ta bialdu ainbat sarrien konfe-setara, edo etxeko kalterik eztaguanian.

4. Eragotzi Jaiegun katigatubetako biarra, baña emon Jai arin, edo astegunetan euren zarrak manietako beste denpora.

5. Eta eurak gauza onetan aurrerenguak izan.

I: Zer erabilli biar dabe goguan euren obligazinoe andi onei ondo erantzuteko?

E: Guztiok gariala alkarren anaiak, Jesu Kristoren odolaz bardin erosiak, batio baten sartubak, ta Jainkuaren aurrian geiago dala otsegin umilde, ta on bat, ugazaba astin, ta deunga bat baño.

I: Eta otsegiña gaisotuten bada, zer egin biar dau Ugazabak?



E: Lagundu aleginaz bere gaisotasunian ta gomutau, edo atera kontu au: baldin beste edozeñi premia, edo biar orduban, ta al daigula lagundu biar badeutsagu; zer egin biarko eztogu geure ogiko, ta otsegin gaisuaz?

I: *Eta zor jako egin daben denporako soldatarik urtia amaitu baño lenago urten gura badau?*

E: Bai: zerren euki leike otsegin batek, Ugazabak jakin biar eztaben errazoa etxetik urteteko. Eta baldin Ugazabaren erruz urteten badau, urtia egin baño lenago, emon biarko litxakio urte osoko biarsari, edo soldatia. Au jazo leite, ugazabak pekaturako bideren bat emon gura baleuskio, ta otsegiñak urteten badau bere arimia gordetiarren.

I: *Zeinbat pekatu egin daruez Senar Emaztiak euren etxetan?*

E: Askok: alkar gogortasunaz trataubaz, berba garratzak esanaz, eskubak luzatubaz errazoe andi, ta arreta бага: beti lera bizian, erroiduban, ta atralaka ibilliaz, alkarganako amodiorik eztaukela.

I: *Egin darue pekaturik arako gizon galtzalle, jokuan, edalekubetan, ta alpe-rrik etxerako biar leukena ondatu daruenak?*

E: Bai, ta asko: ta negargarriena da, dauken itxumen gogorra. Gero ibilli oi dira gorrotoz beteta, ezkontzako zorrai eranzun gura ezta, susma txarretan bere lagunaren leialtadiaren gañian, edozein barritxuri sinistzia emoten deutsela, infernu bizi bat dirudiala euren etxiak. Zer ikasiko dabe ume gaisuak?

I: *Beraz askok utsegin darue laugarren Mandamentu onen kontra?*

E: Txito askok: ta au gordeko balitz ondo, beste mandamentuben kontrako pekatu gitxi ikusiko liritez: bada etxe guztiak ondo zuzendu, edo gobernauko balira, erri guztiak zuzen ibilliko liritez.

I: *Zegaiti esaten dau Jangikuak aginduu gordeta biziko gariala luzaro?*

E: Zerren luzatuko jakun gorputzeko bizitzia, geure arimiaren kaltian ezpada, ta gero izango garian zorionekuak betiko bizitzan.

I: *Zer jazo jaruake Mandamentu au gorde eztaruenai?*

E: Euren gañera dakarrez gurasuen madarikazinoiak, zeintzubei geienian batu jaruake Jangoikuarena.

I: *Zegaz gomutau biar dira gurasuak euren umiak ondo azteko, ta biar danian zematu, ta kastigetako?*

E: Jainkuak Heli eritxon Israelgo agintari enzunaz, ta beste gauzetan txito begiratubaz, egi eban katigubaz.

I: *Zetan egon zan kastigu ori?*

E: Ill jakozan beinguan biar bestian kastigau etzituban seme biak, testamentuko kutxa santuba jausi zan arerieuen eskubetan: berak galdu eban bizitzia, ta adierazo eutsan, ez jakola kastigu gogorra faltako bere

ondoringo laugarren oñekuetan, milla sakrifizio, errege, ta bitarteko infinita bere.

I: *Zer egin biar dabe gurasuak etxia ondo zuzenduteko?*

E: Begiratu nundik nora dabilkozan euren ume, ta otseginak: ez lekurik emon biraurari (sic). Alderagin lagun, ta ibillera txarretatik. Ez igaro egunik Errosariua esan бага, konfesau sarritxu, ta bestia bere agindu. Dotrina Santuba erakutsi kontuz. Onetara Jainkuak ezarriko deutse bere bedenkazinoiak euren arima, ta ondasunai.



Bostgarren ikasbidia

Jainkuaren bostgarren aginduba

I: *Zer aginduten deusku Jangoikuak bostgarren Mandamentuban?*

E: Ez inor iltia, ta inori ez eriotzarik, ta beste gatzik opa izatia.

I: *Zeinbat bizitza modu dazauguz?*

E: Iru: gorputzekua, arimakua ta mundukua.

I: *Zer adietan dozu arimako bizitziaz?*

E: Adietan dot Jainkuaren grazia, zein бага geratuten da arimia illda legez.

I: *Zelan ikutu geinkio arimiari bizitza onetan?*

E: Norbaiti emonaz pekaturako bidia, dala berbaz, dala ejenplu deungiaz, ta oni deituten jako eskandaluba.

I: *Zer adietan dozu Munduko bizitziaz?*

E: Adietan dot norbaitegaiti Mundukuak dauken iritxi ona, zeñi emoten jakon **onriaren** izena.

I: *Zeinbat modutara egiten jako kalte, ta bidebaga lagunari onran, edo mundukuen bizitzan?*

E: Bitara: edo egin eztaben gauza deungaren bat ezarriaz, edo bestiai esanaz ezkutuban eguan (sic) utsegiteren bat.

I: *Zeinbat modutara ikututen jako lagunari gorputzeko bizitzan?*

E: Irutara: berbaz, au da, injuria edo lotsabagakeriaren batzuk ezanaz (sic), Egiñez, edo obraz, au da, banatubaz, eskuba luzatubaz, illaz, edo illeraginaz. Gogoz: au da, bera iguindubaz, gorroto eukiaz, edo gatxen bat opa izanaz.

I: *Zer aginduten jaku onez gañeti?*

E: Amau daiguzala geure gatzgilla, edo areriuak.

I: *Zegaitik ori?*

E: Zerren Jesu Kristok berak aginduten deuskun, dirialako Jainkuaren anzera, edo irudira eginak.

2. Zerren geu bere amau, ta billatu ginduzan gauza onik ez geunkan denporan.

I: *Zetan igarriko jako, gorroto deusagula arerio, edo injuriau gaitubanari?*

E: Berbia, edo agurra uketan badeutsagu, juaten ezipagara len legez bere etxera geure bengari moduba erakustiarren; poztuten bagara bere kontra zerbait esaten danian; ezarten badeutzaguz (sic) biraotzar, ta

madarikazinoiak. Baña naigabe, edo sentimentuba artzeia injuriau gaitubenian, ezta ori gorrotua. Alanbere egin biar da alegiña naigabe oneek itoteko.

I: *Zeinbat gauza galdu daruaz injuriaren bat pazienziaz ez igarotiarren kerella emoten dabenak?*

E: Gitienez iru: Arimia, osasuna, ta dirubak. Arimia: zerren auzi, ta kerella modu oneek izan oi dirian bengaiz, ta gorrotoz emonak, eurak sinistu gura ez arren. Emendik zeinbat gaiski esaka Juezen, Abogau ta Eskribauben kontra. Diruba galdu darualako biar denporia bere jua etorrietan, ta atera daruelako Justiziako Ministruak euren ibillien paguba. Osasuna; zerren izan oi dirian buruko min, naigabe, edo pesadunbre asko.

I: *Zer egin biar dau injuria andiren bat artu dabenak?*

E: Gomutau, berak andiaguak egin izango deusazala Jangoikuari. Juan gero erriko Kura, edo konfessore jakintsun bategana, ta egin berak esango deusana.

I: *Eztira konsejari obiak izango Eskribaubak?*

E: Ez zuretzat: zerren oneek geiago begiratu daruake euren irabazi, ta probetxubari zure ondasun gorputzeko, ta arimakuari baño; ta nozbait bakia biar dala, esan badarue, izan oi da eurena eginda, edo geiago zer atera eztakusenian. Zu itxiko zaitube mutildurik, ta eurak geratuko dira jainzirik, ta apaindurik.

I: *Zer erabilli biar dogu goguan inoz gorrotorik ez izateko?*

E: Ezteuskuzala geure pekatubak Jainkuak parkatuko guk geure gaiskin, ta areriuai parketan ezipadeutseguz.

2. Guztiok gariala alkarren Anaia, ta Jesu Kristoren odolaz erosiak; ta bardin argitu daruazala eguzkiak Jainkuaren aginduz onak ta deungak.

I: *Zeintzuk egin darue pekatu agindu onen kontra?*

E: Euren burubai eriotzia, edo beste gatxen bat opa deusnak.

I: *Eta beti da pekatu bakotzak bere burubai eriotzia opa izatia?*

E: Batzubetan bai, ta beste batzubetan ez. Izango da pekatu ernegazinoez, ta nekeren bat igaro gura ezta esaten danian berbaz, edo gogoz. Arren bada Jainkuak eruango al nau Mundu onetati: nire duin leku bada-gu bada gure Eleisan. Oneek izan oi dira atso ernegau, edo pazienzia bagakuen plegariak. Baña ezta pekatu izango, baldin eriotzia gura bado-gu Mundu onetako pekatu bidetatik aldegitiarren, Jainkua ikusteko gosiaz. Eta alan da erregu txito ona, esatia: Jauna, gurago dot ill nagan lekuban, zu ofendietako izango banaz. Edo Dabidegaz. O zeinbat luza-



tuten jatan erbeste onetan bizi izan biarra! Noz agertuko naz zure aurrian?

I: *Eta pekatu da ume txikinai eriotzia gura izatia, Zerura doiazalako atxakiaz?*

E: Eztaukagu guk orretan zer sartu. Jainkuak daki zer onduen jagoan. Onetan utsegin darue guraso ume asko daukezanak. Etxako Jainkuari eskubiderik artu biar, ta itxi guztia bere eskubetan konfianza osuaz.

I: *Zeintzuk geiago egin darue pekatu gauza onetan?*

E: Geiegi jan, edo edan daurenak.

I: *Noz izango da pekatu geiegiko jana?*

E: Jaten daniel, igarririk osasunian kalte egin deusala.

I: *Zer esan biar da ase artian jan daruenak gaiti?*

E: San Pablok dinuana, au da, Sabela dala euren Jangoikua.

I: *Noz izango da pekatu edana?*

E: Edaten daniel kalte egiteko duin.

I: *Zeinbat kalte egin daruaz geiegazko edanak?*

E: Askok: errazoiak, osasunian, ondasunetan, ta ariman.

I: *Zelan egin darua kalte errazoiak, edo ezagueran?*

E: Edanaz adimentuba astundu, illundu ta galtzeko bestian.

I: *Zer esan biar **jake** edan **daruenai alborunzka** ibilteraño **begiak** lau-sotu, berba moteldu, ta ondo **ebagi** ezinda jarteraño?*

E: Esan biar jake galdu daruela gizatasunaren ezagubide, edo seña-lia, ta emon daruela eskandaluba etxian, ta errietan.

I: *Noz jakingo da ziur, edanaz egiten dala pekatu mortal?*

E: Edaten daniel, Eleisako ondasun, edo Sakramentubak ondo artzeko duin, edo terziuan geratuten ezala.

I: *Zelan galdu darue osasuna?*

E: Zerren naztu (sic) daruazan gorputzeko umore guztiak.

I: *Zelan galdu darua onria?*

E: Zerren edale bati ezin fiau leion isilleko, edo ardurako gauzarik.

I: *Zelan galdu daruez ondasunak?*

E: Zerren ondatu daruen eda lekubetan etxerako biar leukeena, ta askotan ezarten deusezala euren etxian zor andiak.

I: *Zelan galdu darue arimia?*

E: Egin daruezalako pekatu mueta asko: bada esan leite, eztaguala edale batek austen eztaben Mandamenturik.

I: *Zein da kalterik andiena?*

E: Arimako itxumen, ta biotzeko gogortasuna, zeinegaz ezagutu gura eztaben ordituten diriala, inoz ondo konfesetan eztirian: Zerren

esan daruezan baño gitxiago, ta eztaue pekatuzat artu errebesau eragiten ezpadeutse.

I: *Zer esango onelango gizon itxu, ta errukarriak gaiti?*

E: Abere guztiak baño aberiako diriala; bada milla akulu, ta makillakaz ez jako asto ta idi bati edan erango (sic) euren kaltian, edo biar bestian edan ezkerro. Barriz Gizonak, azturik diriala Jainkuaren imajina, edo irudin biziak, ezainduten dira adimentuba galtzeraño.

I: *Zer egin biar da jan edanian?*

E: Aldegin ordi lekubetati, ta edango dana edan kontuz, ta lagun begiratubakaz, ta adiuntzaz juan etxera.

2. Gumutau sarri Jainkuaren erreinuba ezala jan edana, ezpada espirituko garbitasuna.

I: *Zer atera biar dogu ikasbide onetati?*

E: Erabilli beti goguan jaiotzatik jatorkun esamodu au: Gura izan bestientzat geuretzat gura doguna, ta ez geuretzat gura eztogunik.

2. Egin alegina baketu, ta amodio santuban fininteko, gorrutuan, ikusi ezin, ta auzitan dabilzanak.

3. Norbaitek gatzik opa badeusku, eranzun geuk **mesediakaz, ta ez gatzaz gatzari, ta kaltiaz kaltiari.**



Seigarren ikasbidia

Seigarren mandamentubaren gania

I: *Zer aginduten jaku seigarren Mandamentuban?*

E: Izan gaitezala garbiak pensamentu, edo gogorazinoe, berba, gura-ri, ta egite guztietan.

I: *Eta zer eragotzen jaku?*

E: Loikeriako pekatu eruan gaikizan bide, ibillera, ta gauza guztiak.

I: *Zeinbat modutara egiten da pekatu Mandamentu au gorde ezaz?*

E: Lautara: pensamentuz, berbaz, deseez ta egiñakaz.

I: *Zeintzuk egin darue pekatu pensamentuz?*

E: Irudin, edo imajinazinoe zikin, ta aragizkoren bat burura etorrita ezagutubaren gainian gozatuten dirianak.

I: *Asko da, pekatu egiteko pensamentu, edo irudin txarrak etortia?*

E: Ez, ta alan geure guraz, edo borondatez eurretan gozatuten ezpa-gara, eztago pekatuak.

I: *Eta zetan igarriko jako borondatez geratu, ta gozatu garian edo ez?*

E: Baldin estutu, edo larrituten bagara pensamentu edo irudimentu loi, ta zantarrak jatorkuzalako, ta ezagutu orduko baguaz Ama Birjiniaren egapera, edo egiten badogu alegiña kenduteko ainbat lasterren, eztago borondate, ta pekatuak, eta bai meritu asko Jainkuaren aurrian. Suton-duan gagozala salto egiten badeusku soñoko gañera txingarren batek, zer egin daruagu erre usaina sentiu orduko? Ainbat lasterren jagi, ta bota txingarra. Eta orduban zerbait erre bada, izan da borondatiaz kontra. Baña begira egongo bagiña, zelan erreten dan, ta txingarra bota бага, soñoko errete a litzate geure erruz, ta borondatez. Onenbestegaz adietan da beste guztia.

I: *Eta zer egin biar da gorputzeko berotasun, ta amesetan jazoten jakuzan gauza, ta asmo loi edo zantarretan?*

E: Eztago oneetan pekatubaren azuzkirik borondatiaren atsegintan ezaguturik ezpadago. Eta alan iratzartuten garianian kendu beriala asmo txarrak. Alanbere emon leike askok ames deungetarako bidia egun artian deungaro ibilli badira.

I: *Zer esan gura dau pensamentu konsentidubak?*

E: Esan gura dau, jatorkuzan pensamentu loiari arrera ona egitia, edo ezagutu arren, eurretan gozatutia gauza deungarik egiteko asmo бага.

I: *Zer da desee, edo gurari gaistua?*

E: Da gauza loiren bat egiteko gogua, aduz egin ezin ezpadau bere.

I: *Adierazo egizu bardintza, edo irudin bategaz.*

E: Dakusaz mutil batek madari eder batzuk norbaiten ortuban. Begiak juakoz eurak ganuntz. Baña zerren ormak andiegiak daukazan, edo ortulauba zain daguan, geratuten da jan бага. Mutil onek beeeukan, madariak jateko desee, edo guraria, jan бага geratu bazan bere. Au berau jazo jaruake askori, Jainkuak debekau dituban fruta loietan, euren begiak ezarten dituben orduban. Gauza loietan borondatez gozatutia, ezer egiteko gogo бага, pekatu mortala da: baña andiagua gogo txarraz dan denporan.

I: *Zeintzuk egin darue pekatu berbaz?*

E: Esan daruezanak berba zantarrak, tentagarriak, ta izen zikinak.

I: *Zer eranzun biar jake esan daruenai barre egin, ta eragiteko esan ditubela?*

E: Eranzun biar jake Espiritu Santubagaz, barrez lege egin daruezala askok pekatu andiak.

2. Jainkuaren ofensetan ezala barrerik egin, ta atseginik artu biar.

3. Diabrubai barre, ta Aingerubai negar eragiten deusela: zerren askori emon daruaken berba zantarrakaz pekatuak bidia, ta beste askori erakutsi gogora etorriko ez jakezan gauza txarrak.

I: *Zeinbat pekatu egiten ditu, edo zeinbat arimako kalte onelango berba zantar, kanta amodiozko, ta izen loiak esan daruezanak?*

E: Eztauke neurrik. Bakarrik Jainkuaren aurrian agertuko dira zeinbat pekatu eragin, ta zeinbat arima galdu zitubezan.

I: *Zelan egin leike pekatu berba loiak danzubezanak?*

E: Egin leike goguaz, ta pensamentuz, poza artubaz enzun dituben berba zantarretan.

I: *Eta zer juzgu egin biar da izen zikinak, ta berba tentagarriak enzunda barre egin daruenakaz?*

E: Eztabela naigabe andirik artzen aek enzutian; bada ezaruagu barrerik egin, geuri ezertan ikututen jakuzan berbaren batzuk enzunda, ta laster adierazo daruagu geure naieza. Bagiña garbitasunaren txito zaliak, ikara gorrian egongo giñate enzun eztaigun alako zantarkeriarik.

I: *Zer egin biar da, berba zikinak enzutian?*

E: Ebagi beriala al badaigu izkune loa, lujuriako suba aurrera igaro eztedin; atera arpegia Jainkuaren bando geure idakuen artian; ta besterik ezin dogunian, illundu bekokia, musturrak astindu, adierazoteko onetara, eztitugula enzun gura alako berba zantar, ta lotsagarriak.



I: *Zer kastigu merezi dabe berba lizun, kanta loi, ta izen zikinak esan darue-zanak?*

E: Merezi leuke miña ondotik ateratia, ta urte askotan ez istia komul-getan, arik, ta penitenziako negarrakaz garbitu artian euren biotz aragi-tsubak.

I: *Zelakuak izan biar dabe Kristinauben izkune, edo konbersazinoiak?*

E: Izan biar dabe Santubak, garbiak, ta iñoren kalte bagiak: zerren gure miña sarri konsagrau dan Jesu Kristoren gorputz santubaz. Zer esango genduke, ikusiko bagendu Kaliza bat belenatza baten? Bada kon-sagraubaguak dagoz gure miñak Kristoren aragi santuba ainbeste bider artubaz, Munduko Kaliza guztiak baño.

I: *Zeintzuk jausten dira oraindino Mandamentu onetan?*

E: Begirakune deunga, ta ikutute, edo eskuka zantarrak euki darue-zanak euren burubakaz, edo besteren bategaz.

I: *Noz izango da begirakunia pekatu?*

E: Egiten danian atsegin txarren bat artuteko goguaz, edo peligru ezagutubaz. Begiraturen deusanak Andrakume bati, dino Kristok, ta bar-din Andrakume batek gizakumeren bati gurari txarraz, egi eban pekatu bere biotz barruban. Onetan jarraitu biar da San Agustinen konsejuba; geure begiak eruan arren norbaiteguna, eztitugula itxatsi biar.

I: *Zer esan biar da Neska-mutillen arteko bota botaka, bulzakada, oratute, ta onelako beste milla naste, ta ikuerak gaiti?*

E: Esan biar da, egin, ta eragin daruezala pekatu asko, ta euren ari-mak daruezala infernura.

I: *Ondo dirudie neska mutillen arteko jokuak, jan edanak, ta solasak?*

E: Ez: ori da subaren onduan amuluba ifintia, ta ardi gaiso bat otso gosesto baten albian.

I: *Zer pekatu egiten dau, bestia pekatutako tentetan dabenak, edo berbaz, edo kiñuz, edo dan legez dala?*

E: Egiten dau pekatu mortal andi bi: bata garbitasunaren kontra ta bestia eskandaluzkua karidariaren kontra.

I: *Beraz pekatu egin darue arako neskaitilla lotsa gaistoko jua duazanak mutil artera, tentau daguezan gurariak, edo tentauko ditubela igarririk?*

E: Bai, ta eskandaluzkua: zerren ifinten daben bestia pekatu peligru-ban, edo eragozten eztabelako, erraz daikiala, lagunaren pekatuba.

I: *Zer pekatu da, umeren bati pekatu eragitia, edo egiten erakustia?*

E: Da demoniozko pekatuba, zeinégaiti, dino Jesu Kristok, merezi dabela errotarri bat samatik ezarrita itxasuan ondatutia.

I: *Zer egin biar dau bere etxeko Ugazabak, Seme edo Morroe gaistoren batek pekatutako bidian ifinten dabeen otsegiak?*

E: Iges egin ainbat lasterren etxe infernuzko atatik, itxirik bere ardu-ria Jainkuaren eskubetan, ta orretako jua Konfessore Jakintsu bateguna, ta artu berak emongo deusazan neurriak.

I: *Zer egin leike enakumeren batek, gauza deungarako indar egin gura deu-tsenian?*

E: Diadarrari emon, gorde bere buruba aleginaz, edo urratu arpegia dana dala. Norbaitek illgura baleu, zer egingo ez leuke? Bada deungagua da arimako eriotza emon nai deusena pekatu eragiñaz. Eta bitartekorik onena da, dei egitia Maria Birjina garbitasunaren Amari, ta bere kontura geratuko da otso gosesto aen atzamar artetik ateratia.

I: *Sinistu ete jake andrakume askori dinuenai, euren borondatiaren kontra zala?*

E: Geienian ez: bada ondo aztertuten badira gauza ta jua etorri guz-tiak, arkituko da, ez ebela naigabe andirik artu, barreren bat egiebela, oztasun andiaz egon ziriala bestiaren zantarkerietan. Eztan ezer egiten, esanaz bakarrik, bakian egon ditezala; biar da itzala, ta aserre bizi bat era-kutsi, ta ebagi urrengorako bidia, ta lotsagabekeria.

I: *Nundik datoz kalterik geienak?*

E: Datoz andrakumen modestia gitxia gaiti: bada dakuskuna da, gizakumerik lotsa gaistokuenak begiraturen deusela bildurraz neskaitilla garbi ta bakartade zalai.

I: *Zeinbat pekatu mueta egin daruez agindu onen kontra?*

E: Asko, ta Kristinau artian aitatu bere biar ez liretekanak.

I: *Aragiazko (sic) pekatu onegaitik zeinbat kondenetan dira?*

E: Txito asko, Santubak guzurra ezipadinue.

I: *Zer dino San Pablok onen ganian?*

E: Eztabela onelakuak Zeruban sarrerarik izango, dalako garbi leku-ba. Jesu Kristori egiten jakola injuria andi bat, zikindurik gure gorputz, ta arimak.

I: *Zegaz bardindu geinke pekatu au?*

E: Jentilen pekatubaz: ta pekatu andia bada Jainko guzurrezkuai inzenso puska bat botatia, zer izango da Jainkuari zor jakon biotz, ta amodio guztia emotia Kriatura deunga, ta galdu bati: Orregaiti egin ditu Jangoikuak denpora guztietan kastigu ikaragarriak, ta egunoro danzugu, zelan ilten dirian asko euren adiskide txarren besartian.

I: *Zer dino Espiritu Santubak onen ganian?*

E: Dino eztabela aragitsubak Jainkuagana biurtuteko asmo sendorik artuko: zerren kate gogorrakaz lotu daruazan pasinoe deungiak, ta gortu



oi dirialako gauza on guztietara. 2. Dino, igaro daruezala euren egunak pozkaria (sic), ta atsegin artian, ta beinguan jausten diriala infernuko Lezara.

I: *Zeintzuk dira bitartekorik onenak garbitasuna gordeteko?*

E: Ama Birjinaiaren debozinoa, zeinek aterako gaitu tentazinoeko olasta ta itxasandietati.

2. Konfesinoe, ta komuninoe sarrikoa: zerren sakramentu onek bete garuaz pensamentu garbiz, ill edo amatau daruaz aragiaren sugarrak, ta emoten dau indar andia arerio guztiak goitu, edo azpiratuteko.

3. Iges egin danza, bigira, ta lagun deungeen batzar guztietati.

4. Izan begiratuba jan edanian, ta ekin biarrari. Asko jan ta biar gitxi egin daruan Zaldi bat uzutuko da, ta jaurtigiko ditu ostikadak.

5. Artu konfesoriararen borondatiaz gorputzaren nekabide, edo mingarriren bat.

I: *Zer erabilli biar dogu goguan, garbiro bizi izateko?*

E: Laster igaroten dala pekatuko atsegina, ta betikua izango dala itxi-ko daben miña. **Momentaneum est quod delectat, aeternum quod crutiat (sic).**

2. Gero izango dogula, nun atsegin artu, ta gozatu garbitasuna gordeteko, zerbait nekatu biar badogu bere.

3. Egin kontu gariala Jainkuaren Eleisa biziak, *ta eztogula zikindu biar geure biotza.*

Zazpigarren ikasbidia

Zazpigarren Madamentubaren gainian

I: *Zein da jainkuaren zazpigarren aginduba?*

E: Ez inori ezer ostutia.

I: *Zer eragotzen jaku Mandamentu onetan?*

E: Lagunaren ondasun bidebagokori (sic) edo jaubiaren borondatia-ren kontrakorik artzeia, estaldutia, edo orretarako bide, edo laguntasun moduren bat emotia.

I: *Zeinbat aldetara egin darue onetan pekatu?*

E: Irutara: gauzaren bat norbaiti bere borontaria (sic) eztala, artubaz, eukiaz, edo kalteren bat egiñaz. **Injusta acceptio (sic), retentio, damnicatio.**

I: *Zeintzuk egin darue pekatu inori zerbait artubaz?*

E: Askok, ta lenengo etxeko lapurrak.

I: *Zeintzuk dira oneek?*

E: Dira Seme-Alabak, otsegiñak, ta ez gitxitan Senar-Emaztiak eurak.

I: *Zer esan biar da, gurasuen isillik artua, garia, ta beste edozein gauza artu daruen Seme-Alabak gaiti?*

E: Espiritu Santubak artez dirausku, egin daruela pekatu.

I: *Eta balio dau emon daruen atxakia onek: Jauna ez neban alperrik galtze-ko artu, ezpada zapata, amantal, ta beste gauzaren bat egiteko, edo lagun artera esku utsian ez urtetiarren.*

E: Eta au asesinoe, ta atxakia ezta utsa baño (sic): bada gurasuak dakie obeto, zer biar daben euren umiak, ta onei jatorkena da eskatutia umiltasun andiaz. Nik dakidana da, ezteutsela Konfesorai itanduten egin baño lenago, ezpada euren eginda gero, ta da señale txarra. Zeinbat seme-alabak egin daruez soñoko apainduriazkuak, ta jan edanak euren adiskidekaz? Eta eranzungo leuke, etzala alperrik galtzeko.

I: *Egiten dabe pekatuak otseginak gitxika Ugazabai zerbait artubaz?*

E: Bai, eurak jateko gauza arinen bat ezpada.

I: *Zer atxakia emon daruake Konfesorai euren deungarako egiña iruntsi eragiteko?*

E: Soldata laburra daukela, ta beste etxetan geiago emon daruela.

I: *Atxakia, edo errazoe ona da?*



E: Ez, ezpada lapurreta askoren iturria: bada lenago begiratu biar eben zelan sartuten zirian; ta ala egon biar da orduban egintzan ajustera.

I: *Noz egin darue pekatu senar-emaztiak alkarren barri бага etxeko gauza-
ren batzuk artu, ta gastaubaz?*

E: Egingo dabe biar eztirian gauzaren batzuketan gastetan badira. Baña ez leuke emaztiak pekaturik egingo, artuko baleu zerbait etxeko gauza biarretan gastetako edo zor egiazkuai erantzuteko, onetan nagia balitz bere Senarra. Zekenegiak dira Senar asko, ta onelakuan itandu konfessore bati zer egin biar dan; badira emazte gastadora, edo ondagarriak bere.

I: *Egiten dau beste pekaturik Mandamentu au ausiaz?*

E: Bai, ta lenengo ikazgiñak kuren ikaz-jaubiaren borondatia eztala, egurrak euren etxerako artu, edo inori emon daruakezarian, ta burdi erdiren bat enparau dalako atxakiaz, Ugazabak eztakiala kurentzat gordeten dabenian; baita denporaz ikatza egosi ezaz kalterik badauka onegaz Ugazabak.

2. Egin darue pekatu olara neurri txikarra eruanaz edo berariaz autsez, ta iduri loiz zakubetiak daroiezanak.

3. Egin darue pekatu iñoren basuei bakian isten ezteutsenak, batez bere egur lodi, edo ikatz gaiak artu daruezanak; baita orrigintzan kalte egiten dabenak bere, geienetan jazo oi dan legez.

4. Egin darue pekatu jokuan tranpak sartu daruezanak, edo jokatu daruenak jokatu ezin leienekaz: nola dirian Familiako Seme-Alaba euren ez eztauketak, gauza gitxiren ezpada. Egin darue pekatu zerbait erosi, edo jokaturen dabenak ostuta baño euki ezin leienekaz, ta eztabe euren duten irabazia, ta biurtu biar deutse Jaubeari.

5. Egiten dabe pekatu Dendari, edo Jostun batan puska bat, bestiarri beste zataltxu bat Jaubiaren borondatiaren kontra artu daruenak, batez bere eltzen badira pekatu mortal izateko duin dan geira.

6. Egiten dabe pekatu mortal bat edo geiago Baso esaminadoriak abesbeluban, edo ondo begiratu бага, egiten badabe euren esaminia, edo azterria; edo batari baño bestiari geiago ezarri, edo kentzen badeutse euren konzienziaren kontra, ta ez gitxiago orretara zirikatu ditubanak.

7. Egiten dabe pekatu mortal mugarriren batzuk kendu, laburtu, edo luzatuten ditubanak Justiziak, edo Parte biak agindutzaka.

I: *Eztau bestek pekaturik egiten?*

E: Bai: eztago Lantza, edo ofiziorik, zein etan egiten eztiran konde-nazinoeko bide asko: onelakuak dira tabernariak ura arduari ezarriaz,

edo neurri txikinian emonaz; Denderak, errotariak, ta beste ofizio dun askok.

I: *Zeintzuk egiten dabe pekatu, bidebagako eukiaz, edo geratubaz?*

E: Gauzaren batzuk billatuta euren Jaubiai biurtu бага dagozanak.

I: *Zer egin biar dau gauzaren bat billatu dabenak?*

E: Egin alegiña jakiteko, zein da Jaubia; ta agertuten bada biurtu laster, ta ez eskatu billasariarik: baño borondate osuaz emon nai bau, ezta pekatu artzeia. Agiri ezpada itxi erriko Kura, edo Konfesorien eskubetan, ta onek jakingo dau zer egin.

2. Zorrai eranzuten nagia dirianak, gitxika baño ezin bada bere, beti pagetako gogo utsetan urtiak juakezala.

3. Ugazaba euren Otsegiñai itunduriko soldatia, edo biar saria pagau nai ezteutsenak, ta bardin beste edozein biargin, edo langillai (sic).

4. Kontubetako utsegiñak ezagututa, gordeten dabenak isillik bestiarri jatorkona.

5. Amarren Primiziak osoro, ta garbiro pagetan eztitubenak.

6. Testamentario, edo herederu Nagia dirianak, ta geiegi luzatuten dabenak zorren bat pagetia, edo Meza aginduriko batzuk atera eragitia.

7. Baso zainlak, edo Monteru norbaitek eginiko kaltiak ezkutuban gordeten ditubenak, dala adiskidiak dirialako kaltegiñak, edo eskuba berotu deuslako estaldutiarren.

8. Nekezale euren idi, bei, edo zaldiren baten tatxa kaltegarriak, ta baliua gitxituten deuslenak, agertu gura eztitubenak.

9. Jakini zorra, bestiak papela galdu dabelako, ta probau ezin deuslako, pagau nai eztabenak.

10. Eta guztien buruban ostuba, edo kaltegiña biurtu nai eztaben guztiak, ta estalgilla infernukuak.

I: *Zeintzuk egiten dabe pekatu kalteren bat eginaz?*

E: Lenengo testigu guzurrezkuak, ta onek billatu ditubanak, testigantza bidegabia emoteko: bada guzurraren gañeko juramentubaz egiten ditube kalte txito asko.

2. Kuradore askok ume-zurtzen ondasunei biar lan legez begiratu ezaz.

3. Euren abere, edo giberriak iñoren solora sartu daruezanak, edo kanpora ateraten ditubanak auntz, edo bei gaisto esirik onenak igaroteko maña daukenak.

4. Aserrakuntza, edo jakiñaz, norbait jo, edo banatu dabenak: ta pagau biar ditube etorri jakozan kalte guztiak.



5. Mutil, edo gizon gaisto milla eskini, ta erreguz, Donzellaren bat galdu dabenak.

6. Diru deunga, edo falsoren batzuk sartzen ditubenak, atxakiatzat emonda, eurai bere sartu dautsezala.

7. Otsegiñ ugazabaren gauzaren bat artzen itxi daruenak, biar gitxi baño egiten eztabenak.

8. Gauza osturen batzuk erosten ditubenak, edo erosita gero, jakinik ostuba zana, biurtu gura eztabenak, bere izatian gauza ostu a badago.

9. Konsejari txar gauzaren bat ostu, edo kalteren bat egiteko bidia emoten dabenak.

10. Iñoren aginduz bada bere zerbait ostu dabenak; bada lenago da Jainkuaren aginduba Mundu guztiarena baño. Onen artian sartzen dira Seme-alaba, ta otsegin, guraso, edo Ugazabak esan deusela, inoren gauzia artzen dabenak.

I: *Balio dau emon daruen atxakiak, au da, zer egingo neban nik agindu beusten?*

E: Eztau balio: zerren esanik dauka Jesu Kristok, ez bildur izateko gorputzian baño kalterik egin ezin daiekubun lurreko agintariei, ta bildur izateko Jangoiko gure arimak infernura bota daikezanari.

I: *Zeinek biurtu biar dau ostuba, edo kalte egiña, bost edo seiren artian egiña bazan?*

E: Lenengo, gauziaz geratu zirianak: guztiak parte izan bazirian bakotzak tokau jakonaren ereduban, ta bestiak biurtu ezin badabe, edo gura ezpadabe, edozeñek guztia.

I: *Zeintzuk dira errietako lapurrik isillenak, ta deungenak?*

E: Dira logrerubak.

I: *Zeintzuk dira logrerubonek?*

E: Irabazi bide bagiak egiten ditubenak.

I: *Zelan jazoten da ori?*

E: Norbaiti diru, edo gauzaren bat pretauta, urtiaren genian emona baño zerbait geiago eskatubaz. O zeinbat onelako daguan Munduban! Premian daguan gaiso batek esketan deusa beste bati zortzi dukatekoren bat, edo bi, edo geiago, ta susmaurik, duarik emongo ezteutsala, eskini oi deusaz, urtian iru edo lau eskudo euneko, ta oni esan daruake dirubaren irabazia.

I: *Bada Jauna, zergatik emongo deusatz duarik? Zer zor deusa nire dirubak bestiari? Ez nintzan ni bere ondoren ibilli; berak eskini bere egi eustan urtekua.*

E: Atxakia onek eztira igaroko Jainkuaren aurrian, zeiniek dirauskun bere Seme Jesu Kristoren aoz: **Prestau eizuz diru, edo gauzaren**

batzuk duarik, edo ezer irabazteko uste бага. Mutuum date nihil inde sperantes.

I: *Zegatik egin biar da mesede au?*

E: Zerren guztiok ganen alkarren anaiak, ta geuk bere naiko gendukian pretaut daiguben duarik, premia atan aurkituko bagiña.

I: *Eta zer egin biar dabe tratatu orregaz urte askotan irabaziak egin ditubenak?*

E: Biurtu dirianak kondenau nai ezpadabe, ta onetan ezin librau geinkez Aita Santubak bere; baña ezta pekatu zensuan dirubak infintia, ta jausiak urtian bian, edo iruban dagozanak artzeia.

I: *Zeinbat artu emon, edo tratatu oker egiten ditube ganaubakaz batek baño geiago?*

E: Asko, baña bi dira enzunenak.

I: *Zelan egin daruez?*

E: Lenengua da onetara. Ifinten ditu batek beste bategan giberri, edo beste abereren batzuk. Pagau eragiten deusa artu ditubanari urtian buruko errial bat giberrietan, ta geiago abere nagusietan: baña leta, edo kondizinoe onegaz. Baldin edo edo galdu, edo gitxituten badira, dirianak artu dituban gaisuaren lepora, edo esan daruen legez, beti «oña sendo», edo seguru ifini ditubanarentzat.

I: *Zegaiti egin biar eztau tratuan ifinten ditubanak?*

E: Zerren ezer galduteko arrisku бага, ta peligru guztiak lagunari ezarrita, irabazten daben gauza jakiña, ta jeketan daben segurura.

2. Zerren gauzaren bat galduten bada, galdu biar daben Jaubiarentzat. **Res domino suo perit.** Eta emen emon ditubana geratuten (sic) giberri, edo abere guztien Jaube. Eta igaroten baleu jaubetasuna artu ditubanaguntz, ezin artuko leuke aen irabazirik. Onetara josten dau bigarren artu emon, edo tratubak. Gizon dirudun batek emoten deusaz nekezale itu ituban, edo ozta bizi dan bati buztarridiren batzuk urte bete, edo geia-gorako. Egiten dabe baliuaren azterri, edo examinia, ta daigun, igoten dabela larogei dukatera. Ara orain zer kargak ezarten deusazan nekezale gaisuari.

3. Lenengua: buztarridi, edo oña nekezale artu ditubaneren aldera, ta onen erru бага ill, galdu edo baliuan jausten badira, osotuteko obligazioiaz. Bigarrena, urtiaren genian, edo amaian pagau dagiozala Buztarridiak emon ditubanari, zortzi, edo amar dukat, edo dana dala. Eztira artu emon onek zuzenak, ta garbiak, ezpada nekezale askoren ondagarriak. ta oneen izerdi nekatubak diardar (sic) egingo dau Jainkuaren aurrian. Zerbait irabazten badau eurakaz urtiaren genian, da bere izerdi gogorraren kostura. Biderako zaldiren bat artzen dabenak egunero saria emon ezker, eztauka zaldiaren biurrerarik zer egin, bere errubaga edo



galduten bada. Zegaiti bada zorko dau Nekezale gaisuak idia, edo Bei ill edo galdu dana, bere erruz ezpada? Asmo asko daukaz zekentasunak, diru gurariak, ta biotz dollor batek. Egiten bere dabe pekatu, ta ez txiki-na erreteru gaisuei etxe errenta geiegi ezarten deutesnak. Eztabe asko Aberatsek kontu ateraten, zelan erreterubak pagau biar dituben amarrren-Primiziak, bidegintzak, edo errepartimentubak. Ezta ondo geratuten au, enparetan ezpajako errenta, ta beste kargai erantzunda, gari puskaren bat, ta garbiro arto guztia. Ondo dakienak iritxi onetan dagoz. Baña erreterak jasuz jua geiago eskintzen dabeen atxakiaz, da nekezale tristien odola txupau, edo zurrutetia.

I: *Zer egin biar dau Mandamentu au ausi dabenak?*

E: Biurtu ostuba, edo kaltegiña, dala bera bere izatian badago, dala aren ereduba edo baliua.

I: *Zegaiti ori?*

E: Zerren San Agustinek dinuanaz: **Ezta parkatuko pekatuba, biurtuten ezpada ostuba.**

I: *Ezta asko salbetako bakotxak bere pekatubak artez osoz, ta damubaz konfesetia?*

E: Eztago damurik, ta konfesinoerik, ezpadago biurrera, edo errestituzinoerik. Eta onetan ezin librau geinkez Aita Santu Erromakuak bere. Eztabe barriz balio askoren goguak, ta biurtuteko propositubak, zerren geienez guzurrezkuak dirian. Biurtu aldedilla, laster biurtu biar da, ta ez gogo utsetan ibilli.

I: *Zer zuzenbide, edo errege emon leite onetan?*

E: Ara emen. Baldin laster biurtubaz zuri etorri leikezun kaltia bada askoz andiagua, biurtu biar deutzazunari zerbait itxarotiaz baño, orduban ezta pekatu izango biurreria, edo errestituzinoia luzatutia zure kalte peligruegiatzkuak dirauba artian, baña bestela biurtu biar da luza bide baga; eta au bardin adietan da zorren gañian.

I: *Zer egin biar dau gauza onetan, salbau gura dabenak?*

E: Billatu Konfessore jakitun bat, esan oni zinzoro jazoten jakona, ta egin itxu itxuban aginduten deutzana.

I: *Oneek egiak badira, zelan danzuguz lapurretak, kalte egiñak, ta naste asko, eta biurrera, edo errestituzinoe gitxi?*

E: Zerren eztirian batzuk damubaz, ta egiaz konfesetan, ta gura leuskiuezan iruntzi eragin konfessore gaisuei euren mausa, ta guzurak, esanaz: Jauna eztaukat, zegaz, ta nundik biurtu; bere aldetik badeust berak bere ainbeste, etorriko da Abustuba edo arto batzeia ta orduban zerbait

egingo dot. Erantzun oneekaz itxutu daruez Konfessore asko, baña ez biotzetako barri dakian Jangoikua.

I: *Zer egin biar dabe onetan Konfessoriak?*

E: San Franzisko Xabier ta San Karlosek dirautsena: ez igaro absol-bizinoia emotera, biurtu, edo errestituidu artian al dagiala, ta aztertu ondo al dagian edo ez, ta ez sinistu lenengo esanetara. Asmo onegaz egegi jaruahez askori begiak, ta ekarten dira eskura. Bestela beti ibilliko dira berba onetan, baña ezer egin baga.

I: *Zer egin biar dau guztia ezin biurtu dabenak?*

E: Gitxika bada bere biurtubaz, ta pagaubaz jua; ta orretarako ez etxian, ta ez inola gastu alperrik egin, ezpada aurreratutalegiñaz, bakotxari beria biurteko.

I: *Zer jazo jarua onetan ardurarik artuten ezbenai? (sic)*

E: Diabrubak zelan eztakiela ostu daruake askoz geiago; Jainkuak artu darua eskuba bialtzen deutzazala gatzak euren buru, ta aberenetara: artu daruez gari, edo arto gitxiago; eztabe inoz bururik jasoten; beti bizi oi dira zorpeturik, ta ezta ezer aurreratuten ostubaz.

I: *Zeintzuk geiago egin biar dabe ostubaren biurreria?*

E: Ondoringo, edo Erederubak, ill zirianak egin ezepeben; bada ezin itxi euskiuezan ondasun inorenak, edo zorraz katigaturik eukezanak, ezpada zorrai erantzuteko obligazinoiaz. O zeinbat guraso triste doiazan infernura, Umiak aberastuteko gurariak euren obligazinoiai ez erantzutarrren, edo biurrerak egiteko enkargubak egingo eztitubenai itxitarrren! ta nork aterako ditu andik?

I: *Eta Mezatan atera baleitez ostubak, edo kalteginak?*

E: Ez, jakin ezkerori ostu, edo kaltegin jakon; ta onetarako eztago Buldarik. Baña ezpadaki nor dan, itundu Konfessore bategaz, ta egin aginduten jakona.

I: *Zeinbat ostu (sic) edo kaltegin biar da pekatu mortalerako?*

E: Ezta erraz epai guztiko bat emoten. Biartsu, edo pobretxu bati kentzen bajako errial baten duina, edo asko ebana, egun bat ondo igaroteko, izango da pekatu mortala. Nekezale erreteru ez eldu bai eldu bizi dirianai errial birañokua; ta bestelako etxagun ondo jarriai errial biko baterañokua ostu edo kaltegitia, da gauza astuna ta pekatu mortala. Baña gitxika gitxika eldu ezkerori esan dogun terzio, edo eredura, ezango da pekatu mortala, ta bakotxian pekatu mortal bat beukan gogua gauza astu-nera elduteko.

I: *Zer esan biar jake Mandamentu onetan utsegin daruenai?*



E: San Agustinek dirautsena: Baldin juizioko egunian madarikatubak izango dira billosak janzi etzitubenak, gose, ta egarri ziriane jaten, ta edaten emoten ez eutsenak, zer itxaraten dabe janziak billostu, ta zer jan eukenak, gose bidian ifini zitubenak? Zer lapurrak?

Zortzigarren ikasbidia

Jainkuaren zortzigarren aginduba

I: *Zer eragotzen jaku zortzigarren aginduban?*

E: Iru gauza: lenengua guzurra. 2. Egozketa, edo testimonio falsua. 3. Juzgu deungia.

I: *Zer da guzurra?*

E: Da goguan daganaren kontra zerbait esatia: esan gura dau: bako txak dazauban egiaren kontra berba egitia, norbait engañetako asmuaz.

I: *Egiaren kontra zerbait esaten dabenak, egia esaten dabelako ustiaz, esaten badau (sic) guzurrik?*

E: Ez: zerren ez eban ezer esan, iñor engañetako goguaz, edo adi-mentubaren kontra.

I: *Esan leite guzurrik batek, bere buruba edo besterena esturasunen batetik ateratiarren?*

E: Ez, eta bagenki Purgatorioko arima guztiak Zerura beinguan igongo leukela bere guzur bat esanaz.

I: *Zelan bada askok ain arduratzaka esaten ditubez?*

E: Zerren eztaben ondo ezagututen bere gaistotasuna, ta edozein pekatubaz Jainkuari egiten jakon injuria.

I: *Zeinbat guzur mueta dira?*

E: Iru: bata geure, edo inoren onagaitik esaten danian; Bigarrena barre egin, edo eragiteko esaten danian; ta irugarrena, iñoren kaltian esaten danian.

I: *Noz izan leite pekatu mortal inoren edo bere burubaren onian, edo bando guzurra esatia?*

E: Ukatuko bagendu zerbait Agintari edo Juezen batek itanduta: zerren geiago balio dau justiziaren eskubidiak, eta on egiazkuak, geure on irudikuak baño.

I: *Eta guzurra esatia barre egiteko, edo iñori kalterik ez jatorkola, zer pekatu da?*

E: Da pekatu arma, edo beniala: baña alanbere ezta esan biar guzurrik, norbait eriotzatik ateratiarren balitz bere.

I: *Zegaitik ainbeste sentietan dau Jainkuak, guzurrak guk esatia?*

E: Zerren berak artzen daben Jainko egiazkuaren, ta egiaren beraren izena.



I: *Zer dino San Juan Ebanjelistiak guzurtien gañian?*

E: Dino, eurentzat pretauta daguan saria, dala infernuko suba, ta azufria; eta zerutik kanporako diriala txakurrak, ta guzurtiak.

I: *Zer dino onen ganian Espiritu Santubak?*

E: Dino, galduko ditubala Jangoikuak guzurra esaten dabenak.

I: *Noz izango da bada pekatu mortala guzurra esatia?*

E: Norbaiten kalte, edo gaxian esaten danian, kalte txikinen bat ezipada.

I: *Zer jazo jaruake, guzurrak bildur baga esateko oitura, edo ekandu txarra daukenai?*

E: Jainkuak ukatuten deutsez grazia sendo, ta indartsubak, jausi oi dira gero pekatu mortalian, ta etorten jakez arimako kalte asko.

I: *Zer egin biar dogu bada onetan utsik ez egiteko?*

E: Oitu biar gara ez edo bai artez esatera.

I: *Eta norbaitek itantzen badeusku, jakin biar ezta gauzaren bat, zer egin-go dogu?*

E: Eranzun ezin esan zeinkiala alako gauzarik, ta egia ezkutau, baña guzur baga.

I: *Zer da egoketa, edo testimonio falso, edo guzurrezkua?*

E: Da Justiziaren aurrian testigantza oker bat emotia, guzurren bat esanaz.

I: *Zeinbat aldetara egiten da pekatu?*

E: Gixkienez lautara, lenengua besteen bati testigantza txarren bat emon eraginaz.

2. Bigarrena, eskritura, ta kontratu deunga, edo guzurrezkua egiñaz, edo orretarako lagundubaz.

3. Irugarrena Gaistakeria, edo gauza deungaren bat errurik eztaukaren bati egotziaz.

4. Salatu, edo akusauta daguanen bati bere buruba garbietako bide zuzenak kendubaz.

I: *Zelan emon eragiten jake besteei testigantza guzurrezkua?*

E: Lenengo egia esatetik atzeratubaz.

2, Bigarren erakutsiaz zelan testigantza txarra emon, edo egia toles-turaz janziko dabeen.

I: *Zer egin biar dau egoketa txar; edo falso testimoniua ezarri dabenak?*

E: Egin biar dabena da, egin deutzazan kaltiak lagunari jaso.

I: *Zeinbat kalte egin leikioz lagunari?*

E: Bi; bata ondasunetan diruben batzuk gastau eragiñaz Eskribau ta Juez artian; ta honran, ezarririk egin eztaben okertasunen bat.

I: *Zeintzuk jausi oi dira pekatu onetan?*

E: Mutil, edo gizon arima bagako batzuk, donzellaren bati garbitasuna galduta esanaz, euren burubak garbietiarren, besteren batzukaz bere izaebala laguntza deungia, ezarten deutsezala egin ez dituben gauza txarrak.

2. Ez gixkitan neskatiak eurak, guzurraz asmaurik ezkontzako berba emon ez eutsenik, edo ezarririk norbaiti bere seinduntzia, igarririk edo susmaurik besteren batena dala.

I: *Erraz da onelako pekatariak penitenzia benetakua egitia?*

E: Da gauza txito gatxa.

I: *Zegaitik ori?*

E: Zerren lenago infernuban sartuko liratian asko euren guzur esana, edo ezarte deungia agertu baño.

I: *Zer egin biar dau, egin eztaben gauza deungaren bat lagunari ezarri deutsanak?*

E: Agertu egia dan legez, ta esan artez, edo jirabira baga ez ebalagunak alako gauzarik egin.

I: *Zeintzuk jausten dira geiago pekatu onetan?*

E: Dudako pekatu, edo egite txarren bat lagunari ezarten deutenak. O zeinbat oniko (sic) daguan mundu zabalian! Batek esaten dau zerbait, bestiak geituten dau, ta ezeberezerkeria bat zan gauzia eltzen da andira. Konbersazinoe arinon bati ezarten jako tratu txar baten izena. Euria dan denporan tella batetik bestera eztira tanta batzuk baño jausten, ta eurak isill isillik; baña azkeneko tellati jausten dira itusurak ots andiaz? Sustraira begiratuko balitz, ez litzate gauza andirik izango; baña miñetik miñera geitubaz ibillita, egiten dau ots andi bat.

I: *Zegaitik jazoten da au?*

E: Zerren errazegi sinistuten ditugun gauza deungak geure lagunak gaiti.

I: *Zegaitik geiago?*

E: Zerren eztaukagun lagunaren amodiorik, zeindegaitik beti ondo pensau biar geunkian.

I: *Zer da juzgu deungia?*

E: Da uste txarren baten geratutia norbaiten egitiaren gañian errazoe, edo ezagugarri arin, edo laburkakaz.

I: *Zer da duda txarra?*

E: Da gure juzguba ez etzigitia alde batera baño bestera geiago: edo errazoiak bardinak diralako, edo errazoeirik batpere eztaukagulako.

I: *Zer da susma, edo sospetxa deungia?*



E: Da gure juiziua zerbait etzigitia alde batera bestera baño geiago errazoe egiazko бага.

I: *Zelan adierazo leitez iru juizioko malla, edo gradu onek?*

E: Pisutegi, edo balanza bategaz: zein geratu oi dan alde bietan bar-din, pisugarririk ifinten ez jakonian, edo pisugarriak bardinak dirianian; etzigi, edo beratuten da zerbait, pisugarri bata bestia (sic) baño puskaren bat astunago danian: eta azkenik etzigi edo jausten da guztiz, pisugarri bat baño bestia askoz astunago bada.

I: *Pekatu mortalak dira lagunaren kontrako susma, edo duda, edo eztabaida batzuk?*

E: Ez geienian, barruban edo ñori esan бага geratuten badira; baña beti dira benialak, borondatezkuak dirianian.

I: *Noz izango da pekatu mortal juzgu oso, ta deungia?*

E: Izango da egiten bada ezaguera, ta borondate osuaz gauza astun, edo pekatu mortala dan baten gañian, ta sinisgarri, edo fundamentu бага, edo txito laburrakaz.

I: *Zeintzuk jausten dira geienez pekatu onetan?*

E: Ezin ikusi, ta gorroto deungan bizi dirianak.

I: *Zegaitik ori?*

E: Zerren amodiori (sic) ezteutsen legez lagunari, beti, ta erraz pen-setan dabe deungaro onen egiten gañian.

I: *Eta edozein pensamentu, edo ofrezimentu deunga izango da pekatu?*

E: Ez, ezagututa kentzen baditugu.

I: *Zer egin biar dogu geure begiakaz ikusi, edo beste leku segurutik lagunaren gauza deungaren bat jakin dogunian?*

E: Edolabere alde onera bota bere egi modu, edo intenzinoia. Eza-guera бага, edo gitxi az egingo ebala uste izan, laster eskatuko eutsala Jainkuari parkazinoia damuari benetako bategaz.

I: *Zegaitik da ain pekatu andia juzgu deunga borondatezkua?*

E: Zerren artzen deusagun Jainkuari juzgetako eskubidia, zeñi bakarrik jatorkon besten agintari, ta Juez izatia.

I: *Zer esan biar da Kristinau asko gaitik, zeintzuk lagunaren egite onetan bere atxakia, ta egiara txarrak asmau daruezan?*

E: Diriala Fariseo madarikatuben lagunak, zeintzuk beti oi ebiltzan Jesu Kristoren egiterik onenak atxakietan.

I: *Zer jazoko jake onelako Kristinaubei?*

E: Izango dabe errukitasun bagako Juizio gogor bat Jainkuaren aurrian; zerren izan zirian eurak bere Juez gogorak euren lagunakaz.

I: *Zer erakusten deusku San Pablo Apostolubak, juzgu deungarik ez egiteko?*

E: Benetako doktrina bat berba onetan: eztogu ñor juzgau biar, Jainkuak erabagita daukan denporia baño lenago, zeinek bere etorreran desegingo ditu orain itxuturik gaukezan odei illunak, ta agertu, ta azter-tuko ditu gure biotzeko bazterrak, emoteko bakotxari irabazi dabena.

I: *Zelan kenduko ditugu, inor juzgetako gurari txarrak?*

E: Gomutauak (sic) guztiok gariala alkarren anaiak, bakotxak dabe-la zegaz umillau, ta juzgau bere buruba, inorenai itxita bere, ta biarbada Jainkuaren begietan gu baño obiaguak diriala, juzgau gura ditugun lagunak.

I: *Zer jazo jaruake askori?*

E: Jesu Kristok dinuana, au da, ikustia lagunaren begietan samar txi-kin bat, ta eurenetan abe andi bat bere ez.

I: *Zer osabide, edo erremedio gatx onentzat?*

E: Amau bestiak geure burubak legez, ta onegaz guztia dago esanik.



Beste ikasbide bat

Gauza onen gañian

I: *Zer beste gauzarik eragozten jaku zortzigarren agindu onetan?*

E: Geure lagunak gaitik deungaro esatia, edo murmuretia.

I: *Zer da lurrian dazaugun gauzarik onena, ta deungena?*

E: Gizonaren miña.

I: *Zegaitik alan?*

E: Zerren asko balietan diran beragaz, Jangoikua bedeketakako, ta lagun askoren arimak irabazteko ta beste asko Jainkua deshonoratu, ta arima asko Infernuko bidian ifinteko.

I: *Zer da emen eragozten jakun murmurazinoia?*

E: Da lagunaren utsegin ezkutukoren bat agertutia norbaiti.

I: *Noz izango da pekatu mortal?*

E: Nori bait honria kendu, edo gitxituten jakonian, nola izango, litzatan esatia esku garbiak eztitubala, edo adiskidetasun txar bat darabilela, batez bere iritxi, edo opinioe onian egozan personaren batzuk gaitik.

I: *Zer esan biar jake eranzun daruen Kristinau askori, ez neban nik ezer asmau, lenago neuk bere enzun neban, ta enzun neban legez kontau neban?*

E: Esan biar jake, enzunak ito biar dirala barruban, esan guztiak ezti-rala egiak, guzur asko esaten dala munduban, edo beintzat bai asko geitu; eta gauza ziertuba izan arren bere, lagunak daukala ezkutau daiuen esku-bidia.

I: *Eta izango da pekatu Persona bati, edo besteri inoren txarkeri ezkutukua esatia, agindurik gorde daiela eurentzat, inori agertu bago?*

E: Bai konfianza andiko Personak izan arren bere: zerren deshonoratu daben aen artian.

I: *Eta gauza guztiz agertu, ta publikuak kontetia izango ete da pekatu mortal?*

E: Ez: zerren galdurik dabillen honria alako denporetan: baña lenago agertuba izan arren aztu bazan, ta jente artian uste onian beguan, egiten jako injuria andi bat, igaroriko, ta azturiko gauza deunga aek barris-taubaz, ta gomutau eragiñaz.

I: *Zetan utsegiten dabe askok?*

E: Uste izanaz agertu, edo publikuak dirala, gitxiren artian baño eztabillen denporetan bere.

I: *Noz esan leite egiaz gauzaren bat agertuba, edo publikua dala errian?*

E: Askoz geiagok dakienian, edo berez guztien begien aurrian jarten danian.

I: *Erri baten jakina dan gauza deungaren bat beste erri ezkutau danen baten kontetia, izango da pekatu?*

E: Bai, ta mortala, kalteren bat bajatorko lagunari: nola izango litzatan otseginen baten lapurreria kontetia, onegaitik ugazabarik topau ezin baleu, ta osteria egin daikialako peligru errazozkorik ezipalego.

I: *Zeintzuk jausten dira sarritan murmurazinoeko pekatuban?*

E: Gorrotuan bizi diranak, kontetan dabiltzala, euren Areriuari dakiezan utsegite guztiak.

I: Ugazaba, ta Etxeko-Andra asko, euren otseginen bat gauza deungaren baten artuta, auzueta kontetan dabiltzanian.

2. Mutill gaistoren batzuk, galdu daben neskatiarren baten pekatu isillekua lagunari bati agertubaz.

3. Emazte bat baño geiago euren senarragaitik artu daben susma txarren bat kontetan dabenian.

4. Berba baten, Andrakume txito asko, inoren bizitza, ta egitiak aztertu, ta esamintetan denporia igaro daruenak.

I: *Zer esan biar da murmurazinoiari laguntzen deutenak gaitik enzunaz?*

E: Esan biar da San Bernardok dinuana, au da, enzulak daukela Diabruba belarrietan, ta esalak miñian.

I: *Zer egin biar dau murmurazinoe astuna enzuten dabenak?*

E: Begiratu zein dan murmuragillia; eta baldin bada bere azpikua, edo alde guztietara txikinagua, egin agiraka, edo zemairen bat, esanaz, zein gauza deungia, ta gorrotogarria dan murmurazinoia; bere ida, edo ereduakua bada, esan beste ainbeste amodiuz, edo adiskidetasunez: Nagusiagua bada ebagi ezarian, edo egarritzaka legez izkune guztia, aldegin atxakiaren bategaz: edo besterik ezin badau, erakutsi eragin arpegiko mukertasun, edo illuntasunian, zer atsakabe andia artzen daben deungaro esaten enzunaz.

I: *Nortzuk egiten dabe pekatu murmurazinoiari lagundubaz?*

E: Euren arteko pozkeria, ta atsegintasunen bategaz danzubenak.

2. Murmurazinoerako geiak emon ditubenak, lenago igarriaz, zer jazoko zan.

3. Arpegiko argitasun, ta barriakaz euren poza darakusenak.

I: *Zeinbat aldetara murmurau oi da?*

E: Askotara: baña guztiak datoz bitara: lenengua berba zuzen, ta argiakaz; bigarrena berba ebagi, ta erdiakaz.



I: *Zeintzuk murmurau darue berba oso, ta argiakaz?*

E: Jira-bira бага, edo artez inoren utseginak agertuten ditubenak: nola dan esatia, urlia, ta zandia bizi dira deungaro, edo alkarri lagunduten deutse giberri, edo beste gauzaren batzuk ostuteko; neuk ikusi, edo leku onetik jakin nituban.

I: *Zeintzuk murmurau darue berba erdi, ta ebagiakaz?*

E: Azartuten ez diranak artez esaten lagunaren utsegina; baña jira bira batzukaz geiegi adierazo oi dabenak. Orregaitiño egin daruez kalte asko honran, esaten dabenak: Urlia neskatala, edo Andra, edo ain etxetakuak ondo jan, ta ondo janzirik bizi dira: nik eztakit nundik urten daruen ainbeste ondasunek; nik ezin buruba jaso dot, ta deritxat eztodala alperriko denporarik galtzen. Nundik, edo nundik urtengo dabe. Berba erdi onekaz ezin esan lei, zeinbat pensamentu, edo gogorazinoe deunga jatorkezan enzula guztiai.

I: *Eta zer uste izan biar da askoren esakera onegaz? Dinue Urlia neskatala seindun daguala, edo inok eztakiola (sic) seiña egin dabela; zandia otseginak etxeke gari, ta artuak saltzera eruan ditubala; baña ezin nik sinistu dot.*

E: Uste izan biar da, berba txito kaltetsubak diriala: bada bigarren ao, ta izkunerako beste arpegi bat artuko dau esakera ak; eztabe andi laster esango, *dinue*, ezpada *alan da*; eztabe esango, siniseta eztabela, ezpada guztia guzurra izango ezta, ta onelan galdurik geretan da lagunaren honria, ezarten jakola biar bada etzan gauzia.

I: *Zer juzgu egin biar dogu batari, eta bestiari kontetan dabiltzazanak, Urliak zer esan daben eurak gaitik?*

E: Egin biar dogun juzguba da daukela Diabruben zeregiña, gorroto, ta ikusi naiez gogorrian ifinten ditubela asko alkarren artian euren barriketa zitalak gaitik.

I: *Eta pekatu da illak gaitik murmuretia?*

E: Bai, biziak gaitik pekatu danian. Au da, illen azur ustelai eragitia. Juzgau zituban gizon guztien Agintariak. Zegaitik bada bakian isten ezteutsegu, onik egiteko asmorik ezpadaukagu bere?

I: *Zer esan biar jake onai siñu, koko ta ijui egiten deusenai, eurak legez sartu nai eztabelako lurreko baralla, naste, ta atsegin bidetan?*

E: Esan biar jake, Jainkuak bere kontura artuko dabela bere adiskide, ta serbitzariai egiten jakezan siñubak kastigetia.

I: *Zeinbat kalte egiten dabe onelako burlari, edo siñulariak?*

E: Askok bada arima geiago atzeratu oi dira Jainkuaren bideti Mundukuen esames, ta siñuben bildurrez, infernukuen alegin, ta zirika guztia-kaz baño. Azeriak jan daruez mastietako lenengo morgota, edo panpa-

nubak, ta kristinau askok, azeri galtzalle onen irudira, jan edo ondatu daruez Jesu Kristoren mastiko lenengo asiera onak, dino San Bernardok.

I: *Zeri esaten jako kontumelia?*

E: Norbaiti arpegian lotsagabekeria, edo berba astunen bat esatiari.

I: *Zeinbati eriotzia emoten deutsa min geistuak?*

E: Iruri: onek dira, deshonrau daben laguna, enzuten daguana, ta bere arimia.

I: *Zer eriotza emoten deutsa lagunari?*

E: Mundukua, edo gizartekua: bada isten dau honra бага.

I: *Zer eriotza enzula ta bere arimiari?*

E: Espiritukua, pekatu egiñaz, ta eragiñaz.

I: *Zer dino Espiritu Santubak murmuratzalligaitik?*

E: Dino, euren ao barruban daukela eden, edo beneno sugetzarren irudikua, askori eriotzia emoteko.

I: *Zer atera biar dogu ikasbide onetatik?*

E: Ez inogaitik deungarorik esan, ta alegiñaz guztia ontzat euki, edo besterik ezin dogunian errukitu lagun argaltasunakaz. 2. Ez inoz lagundu murmurazinoeko izkunetan, ezpada sartu geure barruban gogorazinoia, ta arpegia atera lagunagaiti, dazaugunian isilerazoteko izango dala bitarteko ona.



Amargarren ikasbidia

Eleisa Ama Santiaren aginduben gainian

I: *Zein da Eleisa Ama Santiaren lenengo aginduba?*

E: Meza oso bat enzutia al dagienak Jaiegun, ta Domeka guztietan.

I: *Zegaitik gura dau Eleisa Ama Santiak Meza enzun daigun esan ditugun egunetan?*

E: Zerren dan Kristinautasuneko egiterik miragarriena, ta Jangoikua geien atsegindu, ta honretan dabena.

I: *Zein Meza biar da enzun eragozbiderik eztaguala?*

E: Erriko Meza nagusia.

I: *Zegaitik ori?*

E: Zerren grazia, ta mesede geiago zabaletan dituban Jangoikuak, Kristinaubak gorputz bat eginda alkarregaz zuzenduten ditugun erregubetara, banaka egiten ditugunetara baño.

I: *Zegaitik geiago?*

E: Zerren enzun biar diran Kura Jaunen erakuste, ta Sermoiak, aste-ko Jaiegunak, barubak, ta beste gauza asko.

I: *Zer merezi leuke urte guztian bein edo beste baño euren Eleisara eztuazanak, ta euren Arzainaren berbarua zelakua dan ozta dakienak?*

E: Merezi leuke, Pazkuaz bere komuninoerik euren Eleisan ez emotia, ta illonduan kanpo baten lurpetutia.

I: *Zeintzuk emon biar dabe onetan ejenpluba?*

E: Etxeko Nagusi, Guraso, ta Errietako Andiki, ta Agintariak.

I: *Zeintzuk egiten dabe pekatu Meza ez enzunaz?*

E: Egiazko eragozbiderik eztaukenak.

I: *Zeintzuk dauke egiazko eragozbidia?*

E: Ezin enzun daikenak kalteren bat etorri dakien peligrubaga, dala gorputzaren, honriaren, edo ondasunen aldetik.

I: *Zegaitik ori?*

E: Zerren Eleisako agindubak ez gaituben biartu, edo obligetan kalte andiaren bian. Orregaitino eztabe pekatu egingo Meza ez enzuna gaiso dirianak, edo osatuteko denporan dabiltzazanak, gatx egingo deuselako bildurra badauke.

Etxia bakarrik ezin itxi leikenak norbaiten bildurrez: baño Meza bi edo geiago dagozan errietan, batzuk jua biar dabe lenengora, ta bestiak bigarrenera.

Gaisoren bati lagundu biar deutesnak, ezpadago nork jaon bestiak Meza danzuban artian, ta nekez egongo balitz gaisua inor бага.

Guraso sein gaisuak daukezanak, ta bestegaz egon nai ezpalebe bere Amagaz baño; bardin adietan da ume txikin asko daukezenak, baldin ezin itxi baleitz bakarrik, etxiari su emon, edo beste kalteren baten bildurrez.

Nosbait ikazkin gaiso batzuk itxi ezin dabenian bakarrik ikaztogi su emona, ta ezin aldizka Meza enzutera jua dirianak. Zar jausitu, edo adore gitxi daukenak, Eleisara juateko, batez bere eguraldi txar, edo gogorak dagozan egunetan.

I: *Baña zelan igarriko da, egjak diran edo ez askok emoten dituben atxakiak, Meza ez enzuteko?*

E: Igarriko jako gauza bati begiratu: baldin amar bat errial baleukaz Meza alako egunetan enzunda, itxiko balituke beste zeregin guztiak, edo artuko balebe, Meza enzuteko biar dan beste neke, adietan emoten da, eztaguala ezin enzunik. Nik dakidana da, Meza gitxiago utsegingo liratekezala egingo balitz Eleisan bakotxarentzat amar errialeko ofrenda bat.

I: *Eta zer esan biar jake, Konfesorik itandurik Mezarik enzun бага itxi daben, eranzun daruenai igaro jakela?*

E: Begiratu biar dau Konfesorik, izan zan edo ez euren erruz Mezia igarotia, dala etxian astiro, edo ardura gitxigaz luzaruegi egon zirialako, dala jokuan, etxeren baten sartuta, edo bidian laguen batzukaz geratuta, igaroko jakelako susmiaz, ta bildurrez. Baña ezta pekatu egingo, ta konfesakizunik bere egingo, igaroten bada ustetzaka, edo erlojuba deungaro ebillelako, edo beste ezagutubagako errazoeren bategaiti.

I: *Eta zer egin biar dau goiseko Mezia utsegin dabenak?*

E: Laster esaten bada besteren bat enzun biar dau: baño bigarren Mezia enzuten geratubaitik (sic), geratu biarko baleuke, Meza enzun бага, bere zain etxian dagozanak, ez leuke pekatu egingo, etxera juanaz, Meza enzuntzaka.

I: *Zeinbatgarren urtian enzun eragin biar jake Mezia Umiai?*

E: Zazpi urte bete, edo kunpliuta.

I: *Zeintzuk enzuten dabe Meza Santuba deungaro?*

E: Gorputzaz Eleisan egon arren arimiaz kanpua dagozanak.

I: *Zeintzuk dira onek?*

E: Meza denporan batera, ta bestera begira sarritan egoten diranak.

2. Lotan dagozanak zati andiren baten.



3. Gogua etxeko zeregin, ta beste arazo batzubetan euren borondatez, ta gurariz darabilenak, edo egiten eztabenak alegina gogorazinoe alper aek kentzeko.

4. Konfesetan dagozanak Meza artian: bada eztauka zer ikusi Konfesinoiak Meza santubaz.

I: *Eta zer esan biar da Mezarik geienian jarrita egon oi diranak gaiti, ozta belaunikatuten dirala konsagrazinoeko denporan?*

E: Esan biar da, eztabela gogoratuten zer dan Eleisia, ta gitxiago Mezako Sakrifizio Santuba. Errege baten Jauregian ezтира jar lekubak ikusten, ta ezta inor azartuten Erregeren aurrian jarten. Bada zelan lotsatuten ezтира premia бага, ta nagitasun utsez Meza denporan, Errege guztien Errege Altarara datorren orduban, jarri, ta biar bada etzinda egonda? Jesu Kristo gure Jauna ikusi zan aserraturik, egia da. Baña ez beste gauzagaitik, ezpada Jangoikuaren Eleisan, (ta ez guztiz Eleis barruban) ikusi zitubalako uso, ta beste egazti batzuk saltzen. Zer egingo eban, dino San Agustinek, topau balitu ordiak, ta luxuriosuak? Zer ikusi izan balitu Eleis barruban barriketan alkarren onduan jarrita etxe, ta bazterretako kontubak esaten?

I: *Eta ondo izango da, Meza bi edo geiagor aldabatera enzutia?*

E: Obeto izango da Jaiegunian Meza bati begiratu, ta arretaz enzutia.

I: *Eta zer juzgu egin biar da, Eleispian barriketan egoten diranak gaitik arik, eta Abadiak altarara urten artian, ta azkeneko bedeinkazinoiaz batera urteten dabela, Jainkuari eskerrak emon, ta altarak ikusi, edo bisitau бага?*

E: Egin biar dan juzguba da, eztaukela kristinautasunaren azuzkirik, ta Eleisan dagozan artian bere ezin bestez dagozala. Gauza negargarria! Aste guztia darue euren biar, ta zereginetan: badator Jangoikuaren eguna, ta Meza labur bat estu estuka, ta itu ituban enzunda, ta bera debozinoe бага, uste dabe Zerurako dirala.

I: *Zelan enzungo da bada onduen Meza Santuba?*

E: Sazerdotiak Mezia asten dabenian egin geure pekatuben konfesinoia, *Ni pekataria* esanaz; eskatu Jangoikuari pekatu guztien parkazinoia, ta garbi dagiala geure arimia biar dan legez, bere aurrian egoteko. Gogoratu konsagrazinoera artian Jesu Kristoren Pasinoia, kontu eginaz zagozala kalbarioko Mendian. Konsagrauta gero begiratu, zein etorri dan Altarara; zetako etorri dan, ta eskatu berari gura dozun guztia. Sazerdotia komulgetan darian, erkutsi Jesus Maitiari, zer gogo andia daukazu bera zeure barruban artzeko; ta komulgau goguaz, ta arimiaz gorputzez ezin dozunian. Meza onduan emon Aita eternuari esker andiak bere Seme

Maitia gure amodioz, ta pekatuben ordeiz, sakrifikau, edo opa egitia gura izan dabelako.

I: *Eta besterik ezin dabenak ondo egingo dau Errosariua, edo beste erregru onen batzuk esatia?*

E: Meza enzungo dau orrenbestegaz: baña obiago da biotzeko eskari, ta gogorazinoe santubetan denpora eder a igarotia.

I: *Nortzuk enzuten dabe Meza osua?*

E: Asieratik amairano danzubenak; alanbere ezta pekatu mortal izango ebanjeliuaren asieratik azkenearano, edo Meziaren asieratik Sazerdotiak bietara komulgau arterano enzutia.

I: *Eta zer egin biar dau Meza erdian eldu danak beste Mezarik ezpadago?*

E: Enzun enparauba.

I: *Zein da prestaerarik biarrena ondo, ta probetxuz Meza enzuteko?*

E: Arimako garbitasuna, edo grazia.

I: *Zegaitik ori?*

E: Zerren siñu egitia legez dan azaletik Jangoikua alabetan egotia, biotz barruban deshonretan dogun artian.

I: *Zer diño Espiritu Santubak pekatubetatik urten nai ezta, Meza Santubak atera eragin, ta enzuten ditubenak gaitik?*

E: Eztitubala bedeinkatuko alako Sakrifizio, ta eskiniak; zerren pekatubak erreginetan daben alakuen biotzetan. Eta egia esateko, zer naigabe zorrotza artuko ezta Jesus maitiak altaran daguan artian, ikusirik etorri dala gure pekatubak kentzera, ta gu gagozala, barriak egiteko asmo galdubetan? Aurre guztiak Aingeruz beterik, eta gu bildur бага, ta arima Diabruz betiakaz jarriko gatzakoz bere begi aurrian?

I: *Zer atera biar da ikasbide onetatik?*

E: Enzun Meza Santuba al badaigu egunoro; prestau atako, komulgetako bagengoz legez. Ezin Mezarik enzun badogu eragozbide egiazkoren bategaitik, enzun etxetik arima, ta goguaz, edo egin beste gauza Santuren bat, nola dan Kalbariua ikusi, edo Errosariua esan.



Amaikagarren ikasbidia

Eleisiaren bigarren, ta irugarren agindubaren gañian

I: Zein da Eleisako bigarren aginduba?

E: Konfesetia edolabere urtian bein, edo lenago eriotzako zorian badago, ta komulgau gura badau.

I: Zer esan biar da urtian bein, edo birritan baño konfesetan ez diran Kristi-naubak gaitik?

E: Esan biar da dabiltzala kondenazinoeko arrisku andietan.

I: Pekatu mortalien daguanak ondo egiten dau konfesinoia luzatutiaz?

E: Eztau ondo egiten, ezpada txito deungaro. Zauriren bat artu dabena ezta egoten egun askotan sendagille, edo Barberubari ots egin baga: zerren ezta ain erraz gerora osatuten. Lokatza baten jausi, ta loitu dana, laster dua uraren billa garbietako. Eztago zauri andiagorik pekatu mortalak gure ariman egin dabena baño. Bada zelan ez guaz arimako Sendagille, edo Konfesorien billa? Sartu, ta loitu gara pekatuko lokatza, ta zingiratzarrian. Zelan ez guaz penitenziako iturriko uretan geure arimia garbitutera?

I: Nogaz egin biar da konfesinoia?

E: Gaurko egunian edozein konfessoregaz.

I: Baña zer izango da onduen?

E: Billatutia konfessore jakitun, zinzo ta birtutetsu bat.

I: Zegaitik ainbeste ardura, baldin guztiak badauke eskubide bat?

E: Zerren obeto zuzenduko gaituban Zeruko bidian. Auzi bat erabilli, edo gaiso danak ezteutsa begia ezarten edozein Letradu, ta Medikuri, ezpada obetuen zuzendu, ta osatuko dabenari. Guztiok darabilgu salbazinoeko auzia Diabrubaz; guztiok gagoz gatxen bategaz arima barruban; bada zelan aututen eztogu onduen zuzendu, ta osatuko gaituban arimako Letrau, edo Medikuba, zein dan Konfessore jakitun, ta ona?

I: Zetako da sarri konfesetia, baldin ezpadago zer esan?

E: Onela berba egiten dabenak, eztazaube ondo euren arimako barri. Gizonik santubenak beti aurkietan dabe, zer konfesau, gauza astunik ez arren. Soñoko zatar, ta baltz baten eztira ondo ikusten mantxa edo loitasunak; barriz sofoko garbi, zuri, ta eder baten edozein loitasun, dan txikinena bada bere agiri izaten da; beste onenbeste jazoten jake arima zatar, ta garbiei. Garbia daukenak edozein mantxa dakuse; baña ez loa,

edo zantarra daukenak. Eta zer esan barririk ezpadago, autortu lengo pekatu bat, ta geituten da ariman grazia, konfesinoiak geitubaz duazan ereduban.

I: Zer edade, edo adiñian asi biar da konfesetan?

E: Ezaguerara eltzen garianian.

I: Zetan utsegiten dabe gauza onetan Gurasuak?

E: Adiuntzaz, edo denporaz ez erakutsiaz euren umiai zer dan konfesinoia, ta zelan konfesau biar dan.

I: Eta zer jazoten da gero?

E: Jazoten dana da, amar, ta amaikagarren urtera elduta bere, ez jakitia, zeinbat gauza biar diran konfesetako, ta milla zorakeria, edo barreagarritasun esan, ta egitia Konfesorien onetan.

I: Zein da Eleisako irugarren aginduba?

E: Pazkua Jesu Kristo biztu zanequetan komulgetia, ta gaurko egunian Errialde onetan Erramu egunetik asi ta amostgarren egunen barruban.

I: Nun egiten da, ta egin biar da Komunioe au?

E: Bakotxak bere Parrokian, baldin Kura Jaunak isten ezpadeutsa errazoe pisutsuren bategaitik, beste Eleisaren baten egiten.

I: Eta Pazkuako egun aetan komulgau ezin izan dana, komulgau biar ete dau amabost egun aek igarota?

E: Bai, ta luzatuten badau, ez komulgetia nagitasunez, bizi da pekatu mortalien.

I: Eta zer egin biar dau Penitente batek, ukatuten badeutsa Konfesorik abso-luzinoia Pazkuako egunetan?

E: Ezagutu umiltasun andiaz, beria dala erru guztia, ta ezin egieukiala konfesorik beste gauzarik, betiko beragaz batera galdu nai ezpeban. Artu gero neurri obiak, ta egin arreta andiaz, Konfesorik agindu eutsan guztia, ta biurtu beragana esa eutsan denporan. Baldin ukatu beutsan absoluzinoia, lenago penitenziak kunpliu etzitubalako, etxian galbidia eukalako, obasunik ezerualako konfesinoe batetik ta bestera, konpliu penitenziak, urten okasinoetik, ta artu neurri senduagua, ez biurtuteko lengo pekabetara (sic), ta onek eginda, jua konfesinoe, ta komunioe on bat egitera.

I: Eta deungaro konfesau, ta komulgetan danak kunpletan dau Pazkuakua?

E: Ez, ta egiten ditu lau pekatu mortal, bi sakrilejiozkuak, konfesinoe ta komunioe deungak gaitik, ta beste bi, Eleisaskua egin eztabelako.

I: Zer kastigaz zenatuten ditu Eleisa Ama Santiak Pazkuakua egin gura eztabenak



E: Zematuten ditu, Eleisan sartzen itxiko ezteutsela, ta eriotziak artzen baditu eginbide, edo obligazinoe andi au kunpliu бага, ezteutsela emongo Eleis-lurrik.

I: *Zer juzgu egin biar da, urtian bein baño komulgetan eztiranak gaiti?*

E: Ezin bestez komulgetan diriala, ta egiten dituben komuninoiak izaten dirala borondate bagakuak, ta Jainkuari atsegin gitxi emoten deutesenak.

I: *Zeinbat bider komulgetia ondo izango da?*

E: Ezta erraz emotia guztientzat zuzenbide, edo erregla bardinik. Konfesore jakintsubak begiratuko deutse bakotxaren biotz, ta eginalai. Donzella bat sarriago komulga leite ezkondu bat baño. Edozeni itxi biar jako, eria dabela, zortzian bein komulgetan, dino San Franzisko Sales Maisu andiak, baldin ardura artzen badau, pekatu benialetan ez jausteko. Au berau da San Agustinen iritxi, ta borondatia. *O zeinbat postuten nasan, esaten eban san Basilio erakukusle miragarriak, ikustia neure Eleistarrak astian iru, ta lau bider komulgetan.* Alanbere otsegin, ta serbitzariak eztabe euren burueraz ibilli biar, ezpada itundu Konfesoriaz, ta egin alegiña erriertarik etxian ez ifinteko.

Amabigarren ikasbidia

Eleisa Santa ko laugarren agindubaren gañian

I: *Zein da Eleisako laugarren aginduba?*

E: Egin daigula baru berak aginetan (sic) deuskuzan egunetan.

I: *Zer egun dira orrek?*

E: Garizumia, urteko lau aldi, edo kuarta: tenporak, ta Jai bispera (sic) batzuk.

I: *Zetako ifini eban Eleisiak garizumako baruba?*

E: Gomutau gindezen Jesu Kristo gure Jaunak Basamorto (sic) baten egi eban berrogei eguneko baru gogorraz, ta era onetan prestau gaitzean Pazkuako Konfesinoe, ta Komuninoera.

I: *Zetako ifini zituban lau denporako barubak?*

E: Eraldi guztiak konsagrau gengizan penitenzia ta negarrari, eta eskatuteko Jangoikuari Eleisako Jaole, ta Ministro onak.

I: *Zetako baru eragiten deusku Jaiegun batzubetako aurre, edo bisperetan?*

E: Ezagutu gengian, penitenzia dala prestaerarik onena, egun santubak honretako, ta gomuta gindezen, ez ebela Santubak billatu Zerurako biderik, gorputzeko nekaldi, edo penitenziaren bitartez baño.

I: *Zeintzuk egin biar dabe baru denpora onetan pekatu mortalaren azpian?*

E: Ogeta bat urte igaro dituben guztiak eragozbide egiazkorik ezpadauke.

I: *Zeintzuk dira eragozbide egiazkuak?*

E: Dira ezin egiña, premia, ta karidadia.

I: *Zeintzuk sartzen dira ezin eginian?*

E: Gaiso diranak, osatuten dabilzanak gatx astunen bat igarota; baña eztau bakotxak onetan bere burueraz ibilli biar, ezpada itandu Mediku gorputzeko, ta nozbait arimakuari, ta egin itxu itxuban onek esaten deusena. Baña eztau edozein gatxek barutik libretan, ezpada baru egiñak kalte ekarri leikionak.

2. Baru egiteko duin jateko batera eztaukenak, ta guztiz oni batzen bajako gorputzeko argaltasunen bat.

3. Inude, ta Seindun dagozanak: zerren begiratu biar deuten senen onari. Baña ezin okela gauzarik jan leike, seña gaiso dabelako Medikubak agintzen ezpadeutse, edo seindun egonda gurari biziren batek artzen ezpaditu.



I: *Zeintzuk librau leitez barutik premiaren aldetik?*

E: Edozein langille, baru eginda, gorputza geiegi nekatuten dabena, edo zeinen lana edo biarra ezin alkartu leitian barubaz. Orregaitino eztauke baru egiteko obligazinoerik Olagizon, ta Errementariak, Arotzak, Atxurlariak, Argiñak, ta bide luze, ta premiazkuak egin biar ditubenak, Lisiba andia jo biar dabena.

I: *Eta zer esan biar da Etxe jateko ona daguan batzubetako ogia egiten dabena gaitik?*

E: Esan biar da, ikusi dodanaz Jainkuaren bildur diran otseginetan, egin daikela baru, batez bere txokolate puskaren bat emoten badeutse, edo txokolaterik eztaukena, onza bat ogi gorputza eregau, edo palageta-ko artuta, egin daikenak: Zerren eguberdi artian igaro ezkerro arratsalderuntz euki eztauen neke andiko biarririk.

I: *Eta zer esango da Eulak gaiti?*

E: Ezta erraz epai bardinik emoten. Itandu deuteset lan onetan jarduten dabena Jangoikozko Neskatilla batzubei ta euren erantzutetatik atera dodana da, begiratu biar jakola bakotxaren sendotasun, ta indarra, dauken jan modubari, ta erraz geienak egin daikela baru bat edo bi baño ezta-karren egunetan; eta Garizuman edolabere egun askotan, guztietan ezin badabe bere. Alan bakotzak itandu zinzoro bere Konfesoriar, gauza guz-tiak argiro agertubaz.

I: *Eta barurik egin daige nozbait Baserritar, ta Atxurlariak?*

E: Bai: eguraldi txarrak diran denpora batzubetan, dagoz egun asko-tan Andrakumiak gorubari dautsela, ta Gizonak gorputzeko neke бага; eta alan janari ona badauke, ta iru, edo lau egun badagoz, biar gogorrik egin бага, ta osasunak lagunduten badeutse, egin leike baru, Baserritar askoren artian dakustan legez.

Egin biar dabe baru Dendari, ta Jostunak; zerren onen biarrak ezta-asko nekatu, ta adikatuten gorputza.

I: *Eta baru egin biar dabe irurogei urte igaro ditubenak?*

E: Ni ez nintzate azartuko barutik libretan zarrak, ikusiko ezpaneu aginte gitxi daukela. Topetan dira indar, ta adore andiko zarrak, ta dakus-kuna da, gazte askok baño errazago egin daruela baru, gura dabengan. Oni begiratu biar jako, ta ez abesbeluban esan, Zar guztiak dagozala barutik libre, senduak izan arren, ta jaki ugaria badauke bere.

I: *Zelan egin biar da baru?*

E: Jatordu bat baño ez eginaz, ta gabaz kolazinoe arin bat, Kristinau onak egin daruen jakiakaz, ta ereduban. Eta alan ezta sardina, ta arrain gauzarik, ezta gaztae, ta eznerik bere, artu biar kolazinoetan.

I: *Zetan utsegin dabe askok?*

E: Uste izanaz goisetik eguberdi arteraño, ta eguberditik arratseraño ezer artzen ezpada, jan daikela gabaz nai beste salda, arto, ta aza.

I: *Zelan egiten zan baru antxinako denporetan?*

E: Orduban ez eben egiten jatordubat baño, ta bera arratsaldian: etzan ezagututen kolazinoerik; ta gaurko egunian turku, ta Jentilen arteko barubak dira gurien aldian gogorrek, ta Jainkuaren juiziuari salatu ta lotsa-tuko gaitubenak.

I: *Eta okelia jateko baimena, edo lizenzia dauken guztiak ete dagoz libre barubetatik?*

E: Ez, beste eragozbidet, edo gatxen bat ezpadauke.

I: *Zeinbat garren urtian debeketan jaku aragi guzak jatia?*

E: Zazpi urte igarota beriala, ta ezin edade onetara eldu ezkerro jan leike inok gaztae, ezne gauza, ta arrautzarik Garizuman, Buldia ezpadauka, ta onetan utsegin darue Guraso askok.

I: *Zer egin biar dau Bijilia egunetan okela jateko lizenzia daukanak?*

E: Ez nastu okelia arrain gauzia; baña eztau pekatu-rik egingo, baru ezpada, ta osasunian kalterik egin daikion bildur ezpalitz, eguberdian okela gauzak, ta gabaz arrainezkuak jan arren: zerren bakarrik daguan debekatuta jatordu bateko nastia.

I: *Zer ordutan egin biar da baru eguneko jana?*

E: Ez eguberdi baño lenago; eta belubago egin gura dabena, bere eskuban dauka.

I: *Ondo da Eguberdi kolazinoia, ta gabaz afaria egitia?*

E: Eztau orrelako aldantzarik egin biar errazoe onen bat eztaukanak.

I: *Zeinbat ondasun dakaz barubak?*

E: Askok; lenengo illdu, ta gitxituten ditu aragiaren bizitasun, ta gura-riak; bigarren, jasoten dau arimia goruntz, errazago igon daian Jainkua-ren aurrera Orazinoiaren bitartez; irugarren iges eragiten deutse Diabru-bei, zeintzuk bildurduten diran barubaren izenaz; laugarren, erakarten ditu Jainkuaren bedeinkazinoiak, ta emoten jako geure pekatuben orde-tasun, edo satisfazinoia.

I: *Zer atera biar dogu ikasbide onetatik?*

E: Gorde artez Eleisako barubak, ta egin osterunzian nozbait borondatez egun batzubetan. Lagundu arimako baruba gorputzekuari.

I: *Zer da arimako baruba?*

E: Ez jatia, Jainkuak debekauriko fruturik: au da Jaunaren agindubak osoro gordetia.



Amairugarren ikasbidia

Eleisako bost garren agindubaren gainian

I: *Zein da Eleisako bostgarren aginduba?*

E: Amarren-Primiziak emotia Jainkuaren Ministruai.

I: *Zeinek emon deutse Jainkuaren Ministruai Amarren-Primizietarako esku-bidia?*

E: Jangoikuak berak, zeinenak dirian lur, ta ondasun guztiak.

I: *Zetarako alan?*

E: Beste arazkeria, ta zereginak albo batera largata, jardun daien Altarako lanetan, ta beste gizonai arimako emoten, eurai gorputzekua emoten deuten legez.

I: *Zenbatetik pagau biar dira Amarrena, ta Primiziak?*

E: Amarrenak amarretik bat, ta Primiziak berrogetik (sic) beste bat: eta alan berrogei anega gari, edo arto batu ditubanak, zor ditube bost anega, lau Amarrenari, ta bat Primiziari.

I: *Eta barruban sartu biar ete da erein zan garauba?*

E: Ez, ta salbauko ezin dira alako asmo dollorren billa dabiltzanak. Amarrenak emon biar dira Jainkuaren bildurrekuen artian emoten diran legez, ta onelakuak beti pagau daruez zinzoro batzen daben ereduban.

I: *Zer gauzatzuk amarrendu biar dira?*

E: Onetan egon biar da Errietako usadio, ta oiturara, ta ikusi zer egi-tan daben geienak, ta ez jarraitu baten, edo besteren egiñari.

I: *Eta emon biar ete jako Amarrenari onenetik?*

E: Ondo litzate; baña eztago orrenbesterako obligazinoerik; emon biar jako bada pillotik, esan gura dot, onetik ona, arinonetik arinona, ta deungatik deungia artu dan legez.

I: *Eta galonduan ereinda artu oi diran linuak zor dabe amarrenik?*

E: Bai: zerren diran amarrendu daruazen frutubetatik bat, ta zerren Kristinau onak alan egin daruen.

I: *Zer jazoko jake Jangoikuaz dollorkerietan ibiltan dirianai, edo osoro jator-kona ez emonaz, edo deungenetik pagaubaz?*

E: Galduko jake ostu daben baño geiago, ta urritu, ta argalduko dira lurrak, frutu ugaririk emongo eztaben ereduban.

I: *Zer jazoko jake barriz artez, ta ziatz amarrenduten dabenai?*

E: Jausiko da eure Solo, abere ta giberrietara Jangoikuaren bedein-kazinoia.

I: *Eta topauko dabe absolbiu daikezan Konfesorarik biurtuten ezpadabe len geratuba, aurrera ziatz pagetako gogo benetakuaz?*

E: Ez: zerren debekauta dago onelakuen absolbizinoia, batez bere Obispau onetan; eta alan milla Buldak bere ezteutse balioko, biurtuteko, asmo agiazko bat ezpadauke, ta Konfesoriak ezteutse berba on irudikuai sinistu biar, ezpada egiñai.

I: *Zer jazo jakon Kaini gauzarik deungenak Jainkuari opetsi eutsalako, ta zer bere anaia Abeli?*

E: Bataren eskiniak ontzat artu zituban, ta Kainenai begirakune txarra egi eutsen.

I: *Zer atera biar dogu ikasbide onetatik?*

E: Ez dollorra, ta prestubeza izan Jangoikuaz, bada bestela neurri atan neurtuko gaitu geu bere.

Ez enzuterik emon Kristinau zeken batzuben barriketai, ta ezta baidaren baten bagagoz, itandu Konfessore jakintsu bati, ta ez urten bere esanetik.

Emongo ditugunak emon borondate onaz, ta biotz garbiaz.



Amalaugarren Ikasbidia

Pekatuben gainian

I: *Zer da pekatuba?*

E: Da esatia, gogoratutia, gura izatia, edo egitia zerbait Jangoikuaren aginduren baten kontra; edo Jainkuaren legiari ez obeditia.

I: *Zeinbat pekatu mueta dira?*

E: Dira bi, Jatorrizkua, ta geurezkua, edo bakotxarena.

I: *Zer da pekatu jatorrizkua, edo orijinala?*

E: Da pekatu bat, zeinbegaz sortuten garian, geure lenengo guraso Adanek, ta Ebak eginda, Amaren sabeletik jatorkuna.

I: *Zer da pekatu geurezkua, edo bakotxarena?*

E: Da geure naiz, ta borondatez egiten dogun pekatuba adimentu, ta ezaguerako denporara eldu ezkerro.

I: *Zeinbat erara egiten da pekatu mueta au?*

E: Lautara, gogoz, berbaz, pensamentuz, ta eginez, edo obraz.

I: *Zeri esaten jako eginezko, edo komisinoezko pekatuba?*

E: Esaten jako debekauriko gauzaren baten egitiari, nola dan zerbait ostutia.

I: *Zer da utseginezko, edo omisinoezko pekatuba?*

E: Da egin biar gendubana, ta egin geinkiana ez egitia: nola dan Jaiegunen baten Meza ez enzutia.

I: *Pekatu bakotxaren artian, zeinbat mueta dazauguz?*

E: Bi: batari deritxo mortala, ta bestiari beniala.

I: *Zer da pekatu mortala?*

E: Da pekatu bat, zeinek galerazoten deusku Jangoikuaren grazia beragaz adiskidetuten genduzana, Zerurako eskubidia, ta ifinten gaitubana Infernuko bidian.

I: *Noz da mortala pekatuba?*

E: Ezaguera, ta borondate osuaz austen dogunian Jangoikuaren aginduba gei astun, edo gauza pisutsuren baten.

I: *Zegaitik emoten jako mortalaren izena?*

E: Lenengo: zerren jatorkun infernuba, zein dan betiko eriotzia, ta zerren illten daben gure arimia.

I: *Edozein pekatu mortalek merezi dau Infernuba?*

E: Bai, ta ezta pekatu mortal bat baño biar Infernuban jausteko.

I: *Zelan emon leikio eriotzia gure arimiari illkorra ezpada?*

E: Galerazoten deusalako Jangoikuaren grazia, zein da arimako bizitzia.

I: *Zeinbat ondoringo datoz arimiaren eriotza orretatik?*

E: Asko: baña iru dira ezagunenak.

Lenengua, arimia egitia Jainkuaren arerio, ta bere aserria ekarerazoten dau bere gañera.

Bigarrena, Diabrubaren katigera, menpetasun, ta eskubetan jartia.

Irugarrena, len eginik eukazan gauza on guztiak alperrik galtzeia, ta egin al daikezanak Zerurako utsat (sic) izatia.

I: *Zelan adierazoko da esan au?*

E: Irudin, edo bardintza onegaz. Egizu kontu aretx landara, baña sustrai bagako bat, ifinten dozula Baso ederrian. Ezarri eiozuz bazterretan dirian simaur, edo sats guztiak; atxurtu eizu baderitxatxu egunian bein, edo birritan. Zeinbat Zaku ikatz artu uste dituzu Arbola agaz? Alperrik diriala, esango duzu, beragaz artzen dirian neke izerdi guztiak. Eta zegaitik ori? Zerren sustrairik eztaukan. Au berau jazoten jako gure arimiari: alperrik nekatuko zara atxurtu, ta simaurtuten egite onakaz. Ezpadauka sustrairik, au da, graziarik, eztau frutu onik emongo Zerurako.

I: *Beraz obeto egingo dau pekatu mortalian daguanak gauza onetan ez inardutia?*

E: Ez orrelakorik, bada gauza onakaz bigundu leike Jangoikua emotera penitenzia egiteko grazia.

I: *Zer egin biar dau pekatu mortalian daguan gaisuak?*

E: Eskatu Jangoikuari estadu negargarritzko atatik urteteko grazia; gomutau, zer peligruban daguan, ta artu neurriak, ainbat lasterren konfesinoe egiazko bat egiteko.

I: *Zelan igarriko deusagu pekatubari bere deungatasuna, edo malizia?*

E: Gomutau, zeinbat aserraerasoten deutsan Jangoiko errukiz betiari; zelan zerubetatik jaurtigi zituban infernuko ondarrera pekatu egieban Aingerubak, ta guri etorri jakuzan atsakabiak, Adanen pekatuba zala bitarte.

I: *Baña zelan geien?*

E: Jesu Kristori iñoren pekatubak ekarri eutsen eriotza gogorrian: eta alan biar dira Jangoiko-gizon onen odol, ta meritubak, emoteko Aita eternuari gure pekatuben ordetasuna.

I: *Zegaitik ori?*

E: Zerren pekatubaren deungatasuna dan neurribagia, ta ezin baketu daikian gizon gaisuak eginak guztiakaz bere, Jangoikuak bere kontra



artu daruan aserria, pekatu mortalen bat egiten dabenian. Orregatik dino San Gregoriok: Begira eizu Gizona, zein andiak diran pekatubaren gatzak, ta zauriak: bada eurak osetako, busti biar dira Jesu Kristoren odolaz.

I: *Beraz ezta pekatu mortalik egin biar geure bizitzia emon biar bagendu bere?*

E: Ez: ta Zorionekuak gu, geure zanetako odol guztia aterako baleuskegube, pekatu egin baño lenago; alanbere ez genduke, Jesus Mai-tiak gugaitik egin dabenen laurenik bere egingo.

I: *Zer atera biar dogu Ikasbide onetatik?*

E: Sartu geure biotzian pekatubaren iguin, ta gorroto bizi bat, ta ikaratu bere izenaz bere. Eskatu Jangoikuari grazia, itxi eztaigun jausten bere ofensatan, ta orretarako iges egin lagun, leku, ibillera, ta gauza deunga usaina dauken guztietatik.

I: *Zer da pekatu beniala, edo arina?*

E: Da pekatu bat, zeinek, galeraso ez arren Jainkuaren adiskidetasuna, alanbere oztuten daben gudanuntz, ta merezi eragiten deuskuz denporazko nekaldi, ta penak.

I: *Noz izango (sic) pekatu beniala, edo arina?*

E: Gauza txikinen baten gañian dan denporan.

I: *Emoizuz gauza onen jazoera, ta ejenplubak.*

E: Guzur bat esatia iñoren kalte baga, aserrakuntza labor bat izatia, lamarairen, edo zortzimarairen baliua ostzeia, ta onelan gauzaren batzuketan.

I: *Eta gauzia berez astuna bada izan leite noz edo noz pekatu ariña, edo beniala?*

E: Bai, ezaguera, edo borondate osorik eztaguan denporan: eta alan ezta pekatu mortala izango gogorazinoe, ta irudi loietan zerbait atseretia, gorputzeko igimentu, ta berotasunak eukitia, baldin ezaguera osorik ezpeguan, ta ezagutu onduan egiten bada alegina ainbat lasterren kendu, ta amatetako.

I: *Ikara andia artu biar deusagu pekatu benialari?*

E: Bai, ta obe da, Mundu guztia galdu dedin, pekatu benial bakar bat ezaguera osoaz egin baño.

I: *Zegaitik izan biar jako ainbeste ikara, ta gorroto?*

E: Zerren edozein pekatatugaz ofendietan dan geure Jangoikua, ta Jangoikuaren ofensia dan gatx guztien artian andiena.

I: *Zelan bada Kristinau askok pekatu benialetako ardurarik artu ez darue gitxitzat eukita?*

E: Zerren eztaben ondo begiratuten, zer dan bere izatez ta benialaren izenian geratuten diran.

I: *Zer jazoko jake ardurarik artu gura eztabenai pekatu benialik ez egiteko?*

E: Espiritu Santubak dinuana, gauza txikietan begiratuba ez dana, gitxika gitxika jausiko dala andietan. Itusuretik datorren ura ezta gauza andia, eta asko da Etxe bat usteldu, ta galtzeko, ardura baga isten bajako.

I: *Zegaitik jausiko da pekatu mortalen baten?*

E: Zerren biotza gitxika ekanduten dan pekatubaz, ta Jangoikuak ukatu daruazalako grazia sendo, ta indartsubak geure arduragabetasunaren kastiguban.

I: *Beraz etorri leikio Kristinaubari betiko galduba izatia pekatu benialak zirala bitarte?*

E: Bai.

I: *Zelan ori?*

E: Ez pekatu milla balira bere jatorkelako Infernuba, ezpada zerren pekatu benialak garuazen mortaletara, ta genian onek Infernura.

I: *Ze pekatu beniali bildur andia izan biar jako?*

E: Ez nozbait beinguan, ta ezaguera laburraz egin daruaguzanai: zerren dan onena jausten da onelakuetan; ezpada arduratzaka, sarri, eza-guera osuaz, ta usadioz egiten diranai.

I: *Asko aserraerazoten deutse Jainkuari onelako pekatu benialak?*

E: Bai, ta egin izan ditu Mundu onetan bere kastigu txito andiak Moises, Loten Emazte, ta Betsamitarretan dakigun legez.

I: *Zer atera biar dogu Ikasbide onetatik?*

E: Ifini ardura benetako bat pekatu benialik aleginaz ez egiteko.

2. Gomutau, zelan galdu geindezan onetan ardurarik artuezaz, ta zelan kastigetan dituban Purgatorioko su gogor, ta portitzakaz, ezertan eztaukaguzan gauza, ta utsegite asko.



Amabostgarren Ikasbidia

Pekatu burutar, edo Kapitalen gainian

I: *Zeinbat dira pekatu burutarrak, edo kapitalak?*

E: Dira zazpi. Lenengua Goiteria edo Soberbia. Bigarrena Zekentasuna, edo Dirunaia. Irugarrena Loikeria. Laugarrena Inbidia edo Ondamuba. Bostgarrena Guleria. Seigarrena Aserrakuntzia. Zazpigarrena Nagitasuna.

I: *Zegatik emoten jake pekatu burutarren, edo Kapitalen izena?*

E: Zerren eurak dirian beste pekatu guztien iturriak, etorgarriak, ta burubak legez.

I: *Zer da Goiteria, edo Soberbia?*

E: Da bere burubaren gurari, ta amodio geiegia, zeinegaz jasoten dan besten gañian.

I: *Zeintzuk dira bere Alabak?*

E: Banidadia, edo Astintasuna, Antustia, Lagunen despreziua, edo gitxiagotzat eukitia, iñoren menpetasunik ez gura izatia, Ipokresia edo Oniduri naia.

I: *Pekatu deungia da Soberbia?*

E: Bai, ta Espiritu Santubak dinuanaz, jarkiten jake Jangoikua Soberbiuai; barriz umildiak grazia ta ondasunez bete daruaz.

I: *Noren Semiak dira Soberbiuak?*

E: Luziferrenak, zein galdu zan Jainkuari obediua naiezagaiti.

I: *Noren Semiak dira humildiak?*

E: Jesu Kristorenak, zein etorri zan, guri otzantasuna, ta humildadia erakustera.

I: *Penitentzia andia, ta limosna ugariak eztira bada euren txito onak?*

E: Bai, baldin egiten ezpadira ondo irudiz, edo Mundukuen begirakuniak erakartiarren.

I: *Zer egin biar dogu bada gauza onetan?*

E: Eskumiak diardubana jakin eztaiala eskerrak, ta San Agustinek dinuana: eztogu Mundukuen esamesagak gaitik ez egin, ez itxi biar ezer.

I: *Zetan utsegiten dabe txito askok?*

E: Lurrekuen siñu, ta zeresanen bildurrez iztiaz gauza onak, ta egi-tia, bestela egingo ez lituken gauza asko.

I: *Zer dino Jesu Kristok onen gainian?*

E: Lotsatuten bagara, berari jarraitutiaz, lotsatuko dala bera bere gu bere Eskolaritzat autortutiaz Aita Jainkuaren aurrian.

I: *Zer egin biar da?*

E: Arpegi emon Mundu gaistuari, ta egin arduratzaka, Jainkuak gura dituban gauza guztiak.

I: *Zeintzuk darakuse argiro euren arrotasuna, ta soberbia?*

E: Apainzaliak, edo soñoko biar baño obiaguakaz astindurik dabil-tzanak Mundukuen oneretsi aisezko baten billa.

I: *Zegaz gmutau biar leuke onelakuak?*

E: Illjanzi bat izango dala azkenengo soñokua, ta janzirik ederrena, ta onduen dirudiana, dala modestia, ta arpegiko itzala.

I: *Ondo dirudi bakotxak bere egiñak jaso, edo alabetia?*

E: Eztago gauza barregarriagorik Mundukuen iritxian bere.

I: *Zer atera biar dogu ikasbide onetatik?*

E: Alabau, edo goratuten gaitubenian beratu, ta humillau geure burubak, ta autortu ez gariala alabantzen diña. Ezer gauza onik badauka-gu, atera guztia jatorkula Jainkuaganik, ta geurez errukarriak gariala. Artu beratasun, edo umildade andiaz emon daruekuzan atsakabe, ta injuriak, ta ez aserrerik igarri eragin.

I: *Zer da Zekentasuna, edo Abarizia?*

E: Da Mundu onetako ondasunentzat, ta batez bere dirubarentzat daukagun amodio, ta gurari larregia.

I: *Zeinbat pekatu sortzen dira emendik?*

E: Asko: lenengua aberatstutiarren guzurak, ta tranpiak sartzeia.

2. Bere burubarentzat bere gogor izatia diru pilluak egitiarren, ta premian dagozanai ez lagundutia.

3. Iñoren ondasunei tximurtzi egitia, beriak gitxitzat eukita.

I: *Zer egin biar da pekatu dollor onetan ez jausteko?*

E: Egunekuari begiratu aurreko etorkizunakaz larritu бага.

2. Aleginen ereduban lagundu premiadun, edo Pobreak euren biar ordubetan.

I: *Zer da Loikeria, edo Luxuria?*

E: Da garbitasunaren kontrako atsegin bidebagako bat, edo aragia-ren gozamentubetarako artzen dan gurari ta amodio itxuba.

I: *Nundik dakar bere jaiotzia pekatu onek?*

E: Bost gauzatatik.

I: Geiegi jan, edo edatiagandik. 2. Gizakume, ta andrakumen arteko adiskidetasun, laguntza, ta artu emon samurregiak gandik. 3. Berba txito



garbiak ez diranak esan, edo enzutetik. 4. Joko, solas, ta danza nastubetan ibilltiagatik. 5. Alperreriatic.

I: *Zer egin biar dabe batez bere neskatillak pekatu onetatik iges egiteko?*

E: Lenengo ez Apainzaliak izan, ta ez agertu inoren amodiuaeren billa.

2. Erabili arpegian itzal andi bat iñok lotsabagakeriaren bat egin eztauien.

I: *Gorroto andia artu biar deusagu pekatu oni?*

E: Bai: zerren eztaguan pekatu, geiago galdu daruanik, ta Jainkuari aserraerazoten deusanik.

I: *Zer da Inbidia, edo Ondamuba?*

E: Da gure lagunaren zorientasun, ta onaz damu, ta naigabe artzeia, arenak guria gitxitu leikian bildurrez.

I: *Zeintzuk dira pekatu onen ondoringuak?*

E: Lenengua da, bere lagunaren iritxi, edo kredituba gitxitu nai izatia, deungaro berba egiñaz.

2. Bigarrena, gure laguna gaitik deungaro enzunda, artu oi dan poza, edo atserena.

3. Irugarrena, gatxen bat etorri jakonian, agaz atsegin izatia.

4. Laugarrena, aren egitiai okergarri, edo sensun txarren bat emotia.

I: *Zer da Guleria?*

E: Da edateko, edo jateko gurari sutsu, ta geiegi bat.

I: *Zeinbat guleria mueta dira?*

E: Iru ezagunenak. Geiegi jan, edo edatia. Jaki onenak, ta gozagarrinak billatutia. Barubak austia ta Eleisiak eragozten daben egunetan aragia jatia.

I: *Zein da onetan egiten dan pekatu rik andiena?*

E: Orditutia: zerren areragiten deusan Jainkuari iguintza, edo gorroto txito andi bat.

I: *Zer jazoko jake Edala, edo Ordiei?*

E: Prestauta dago eurentzat Infernuban su portiz, ta egarri beti iraungo daben bat. Mundu onetan biotzeko gogortasuna; ondasunak galtzeia, ta eriotza ikaragarri bat.

I: *Zer da Aserrakuntzia?*

E: Da arimiaren bizitasun andi bat, zeinek isioten gaituban, bengai artzera lagunaz, egin deuskun txarkeria, edo injuriaren bategaitik.

I: *Zelan osatuko gara gatx onetatik?*

E: Naigabe guztiak geure barruban itota, gomutaubaz Jesus Maitiaeren otzantasun, edo humildadiatz, zeinek ez eban aorik edegi, illtegi

daroi en bildots batek baño geiago, egin eutsezan bidebaga txarkeri, ta lotsabakerietan.

2. Aser aldian ezer iragarri eragin бага, bazter baten belauniko jartia, Jainkuari pazienza, edo igaropena esketan.

I: *Zer da Alperreria, edo Nagitasuna?*

E: Da Jainkuaren gauzentzat, edo geure bizierako eginbidentzat daukagun iguiña, ta atzerapena.

I: *Zeintzue dira Nagitasunaren ondoringuak?*

E: Da denpora asko igarotia gomutau бага geure Jainkuaz, ta ari-mako egin biarretan.

2. Da ardurarik ez artzeia, Sermoiak enzuteko, Sakramentubak artzeko, ta egite onetan jarduteko.

3. Da denporia igarotia jokuan, ta ibillera alperretan.

4. Da denpora geiegi oian, edo lotan egotia.



Amaseigarren Ikasbidia

Eskandalubaren gainian

I: *Zer da eskandaluba?*

E: Da esatia, edo egitia, ta askotan utsegitia zerbait, nundik artu dai-kian norbaitek pekatutako bidia.

I: *Zeinbat erara, edo mudatara (sic) emoten da eskandaluba?*

E: Lautara.

I: Jainkua ofendiubaz norbaiten aurrian, ta ari beste ainbeste egiteko zorrian, edo peligruban ifiniatz.

2. Lagunari pekatu egiten erakutsiaz, ume bati berba loiak esaten jakozala, igarririk ikasi daikezala.

3. Ostuteko, guzurrezko juramenturen bat egiteko edo Neskatiarren bat tentetako konseju emonaz.

4. Jainkuak (sic) ofendietako, dan legez dala, bidia agertubaz.

I: *Zeinbat modutakua da eskandaluba?*

E: Bitakua: batari deritxu (sic) emona ta bestiari artuba.

I: *Zer da eskandalu emona?*

E: Da esatia, edo egitia zerbait lagunari pekatutako bidia emonaz.

I: *Zer da eskandalu artuba?*

E: Da egin dan pekatuba bera norbaiten esan, edo egitetik arturiko laguntasunetik.

I: *Zeinbat modutakua (sic) da otera eskandalu mueta au?*

E: Irutakua, batari deritxo *Umeena*, bigarrenari *argalena*, ta irugarrenari *Fariseuena*.

I: *Zer da eskandalu Umeena?*

E: Da jakinezetik datorrena: alan norbait bariekuban okelia jaten ikus-tia, izango litzate eskandaluba eztakienentzat zer motibo daukan atarako.

I: *Zer da eskandalu argalena?*

E: Da norbaiten argaltasunetik datorrena. Onetara datoz eskandalu-rik geienak: zerren geurez garian deungarako makurtubak. Onegaitik egi-ten dabe eskandaluzko pekatuba:

Lenengo berba zantar, ta zikinak esan daruezanak. Ikuera txar, ta oratute loiren bat andrakumeren bati egiten deutsenak. Euren Etxetan artazuriketa, ospetsu, ta bigira infernukuak isten, edo permitietan ditube-

nak. Jainkuak berak daki zeinbat lotsagabakeria, ta pekatu datoza onela-batatar madarikatubetatik.

I: *Zegaitik egiten dabe eskandaluzko pekatuba etxeko Jaun edo Guraso euren etxetan onelako jentiarri leku emoten deutsenak?*

E: Zerren igarten deutse, zeinbat pekatu jaioten diran alako ospe, ta barralletatik.

I: *Zer egin biar dabe bada salbau gura badabe?*

E: Urrindu euren Etxetatik onelako batzar, ta ibilmotubak. Zuritu artuak euren etxekuen artian puskaka gabetan. Espateta denporan, ez dei egin lagun gitxiri, ta onei baño, ta beste edozeñi atiaz arpegian emon. Euren Seme-Alaba, edo otseginai ez itxi juaten alako lekubetara, ta zain-tu, nundik nora dabilzan. Atan egiten dabe Etxaun honrau batek baño geiagok, ta obeto juake euren arima ta ondasunetan.

I: *Zein da pekatu andiagua, gizonen bat illtia, edo andrakumeren bat pekatu-ren baten jausi eragitia?*

E: Bigarren au: zerren kentzen deutzan geiago balio daben bizitzia, zein da arimako grazia.

I: *Bada zelau dauke gizonak lenengua pekatu ain anditzat, ta bigarrena ez ainbeste?*

E: Bildurrango diralako Mundukuen kastigu, ta Justiziaren, Jainkuare-naren baño.

I: *Zeinbat pekatu egiten ditube, pekatutako askori bidia emoten deutsenak, nola dan berba zikiñen bat esaten dabenak amarren aurrian?*

E: Gizon jakintsu askoren iritxian amar pekatu mortal gitxienez: baño beste askoren ustia da, egiten dabela amar pekatu mortal besteko pekatu eskerga bat. Eskopeta tiro bat jaurtikita illgo balitu batek amar gizon, begira zer gaistakeria egingo leukian? Egite deunga, ta berba loi bat izan oi da, arima askori jaurtigiten jaken tirotzar ondagarria. Batak biar bada euko dau borondatezko gogorazinoe txar bat, bestiak artuko dau, zantarkeriak enzunda atsegin txarren bat, ta guztiai emoten jake pekatu-rako bidia.

I: *Egin leite beste Mandamentubetan eskandaluzko pekatuba?*

E: Bai: zerren askotan emoten dan deungarako bidia. Eta alan emo-ten dabe eskandaluba. Guraso euren Umien aurrian Jaiegunian biar egin, edo eragiten dabenak. Zerbait ostuteko konseju emon daruenak. Mur-murazinoian, ta gaski esanian diardubenak: zerren enzulak artzen daben eurak bere beste ainbeste esan edo egiteko bidia, ta geia.

I: *Zegaitik da ain pekatu andia eskandaluba, edo inori pekatutako bidia emotia?*

E: Zerren dan Diabrubaren lana, ta zeregina.



I: *Zer egiten dabe tentadore onek?*

E: Diabrubak berak baño geiago.

I: *Zelan ori?*

E: Zerren galdu daruezan euren berba, kiñu, ta zantarkeriakaz, Diabrubak galdu ezin dituban arimak.

I: *Zer izen emon biar jako tentadore gaistuari?*

E: Infernuko Prokuradoriarena: zerren egiten daben Diabrubaren bando, arima askok beragaz darabillen auzian.

I: *Zeñen kontra jarkiten da eskandalosua?*

E: Jesu Kristoren kontra modu onetan: Jesu Kristo etorri zan lurra-
ren gañera, galdu zana billatu, ta salbetara. Eta tentadore traidore bat jaio,
ta bizi dala dirudi, galtzeko salbauko zana. Jesu Kristok egi eban alegiña,
Pekatoriak salbetako; ta askok egiten dau alegina, arima onak kondeneta-
ko. Jesu Kristo etorri zan, Adanen pekatubaz itxirik eguan Zeruko Atia
edegitera, ta asko etorri dira Mundura Jesu Kristok edegiriko atiak isteko.

I: *Zer esan biar jake onelako arimen galtzalei?*

E: Kondenau gura badabe, kondenau ditezala bakarrik, itxi dagiuela
bakian, Jesu Kristok bere odolaren kostura irabazi zituban arimai.

I: *Zer itxaraten deute Jesu Kristoren arerio onei?*

E: Infernuko su gogor, sari Diabru euren Ugazabak emongo deu-
tsena; Jesu Kristok Predikadore arimak irabazten dabiltzazanai, Zeruban
gozamentu zoragarriak legez.

I: *Zer atera biar da Ikasbide onetatik?*

E: Ez iñori emon jarraigarri, edo ejenplu deungarik.

2. Egin alegina, bestiak Jainkuaren bidera erakarteko geure berba, ta
egite onakaz.

3. Beti euki buruban Jesu Kristok dinuana. Ai gizon gaiso iñori peka-
turako bidia emoten deusazuna! Obeto egongo jatzun jaio ezipazina.

4. Ez itxi karidadezko, ta bestelako egite onak, batez bere premiaz-
kuak, inoren esames edo murmurazinoiagaiti: zerren egiten daben peka-
tu euren gurariz, edo iñok biderik emon baga.

Ama zazpigarren Ikasbidia

Birtuten gainian

I: *Zer da Kristinautasuneko birtutia?*

E: Da onegiteko indar, ta erraztasuna, zeñen bitartez Jainkuaren gra-
zia lagun dala, gabiltzan bide zuzen, ta garbietan.

I: *Zeinbat birtute mueta dira?*

E: Bi, moralak, ta teologalak, edo Jainkuaganunzkuak.

I: *Zegaitik emoten deusezu moralen izena?*

E: Zerren diran gure egite guztien erregla, edo zuzenbidiak.

I: *Zegaitik izentetan dituzu teologalak?*

E: Zerren zuzendu, ta ukututen deuten artez Jainkuari berari: eta
alan Fedia ukututen jako Jainkuari, Egia andienari legez; Esperanzia, edo
itxarapena, geure azken, ta zoriontasun benetakuari legez; eta Karidadia,
edo onesgunea, izate eder, ta gure amodiua geien merezi dabenari legez.

I: *Zer da Fedia, edo Sinesmena?*

E: Da birtute bat, zeinen bitartez sinisetan ditugun sendoro, Jain-
kuak bere Eleisiari agertu deusazan gauza guztiak.

I: *Fedia бага salbau leite iñor?*

E: Ez, ta da egikizun on guztien sustraia, ta asieria.

I: *Zeinbat Fede mueta dira?*

E: Bi, bizia, ta illa.

I: *Zer da Fede bizia?*

E: Da karidadez lagunduba, zeñek emoten deusan bizitzia: onela-
kua da grazian dagozanen Fedia.

I: *Zer da Fede illa?*

E: Da karidadiak lagunduten ezteutsana, onelakua da Pekatarien
Fedia.

I: *Zer balio dau Fede illak?*

E: Zerurako berez ezer ez, baña bai pekatutik urtenda grazian jarteko.

I: *Zeinbat aldetara egiten da pekatu Fediaren kontra?*

E: Lautara. Fediak irakasten dituban gauzak sinistu naiezaz. Diranak
ukatubaz: ezaguera osuaz eztabaidaren baten, edo dudan geratubaz. Eta
ardurari (sic) ez ifiniaz, ikasteko geure Kristinautasuneko egia, ta gauza
biarrak.

I: *Zer da Esperantzia, edo Itxarapena?*



E: Da birtute Jangoikozko, edo geurezgainetiko bat, zeinen bitartez itxaraten dogun Mundu onetan Jaunaren grazia, ta bestian Zeruba Jesu Kristoren irabazimentubak lagun ditugula.

I: *Zeñen gainian ezarri biar dogu geure Itxarapen au?*

E: Jainkuaren agindu, edo eskinien, eta Jesu Kristoren merezimentuben gainian.

I: *Zelan egin ditu bere agindu, ta eskiniak?*

E: Bere esnak egiten badiugu, ta bestela ez.

I: *Zelan egiten da pekatu Esperanza, edo Itxarapen onen kontra?*

E: Geure salbazinoiaren ustia galdubaz.

2. Jainkua ona, ta errukitsuba dala ikusirik, geiegi beragan fiaubaz, edo jarriaz, ta astiro beragana biurtu baga egonaz.

3. Geure indar, edo aleginetan larregi itxatsiaz, sartzen gariala pekatu bidetan, ondo urteteko ustiaz.

I: *Zer da karidadia, edo Oneguna?*

E: Da birtute bat, zeinen bitartez maite dogun Jangoikua bere ontasunagaiti, ta gauza guztien gainian, ta geure lagunak geure burubak legez, ta Jainkuari begiratubaz.

I: *Zelan maite izan biar dogu Jangoikua?*

E: Geure biotz, arima, indar, ta alegin guztiakaz.

I: *Badago Jainkua maite izateko premia, edo obligazinoerik?*

E: Bai, ta gure kristinautasuneko biarrena, ta andiena.

I: *Zelan galdu leite karidadia?*

E: Edozein pekatu mortalegaz.

I: *Zoritxar andia da karidadia galtzea?*

E: Bai, ta asmau al daitian andiena, ta kaltegarriena.

I: *Zer da laguna geure burubak legez maite izatia?*

E: Da opa izatia geuretzat opa, edo gura dogun guztia.

I: *Zetara garuaz karidadiak lagunak ganuntz premian, edo euren biarordu ta eukiezetan?*

E: Geuri enparetan jakuna eurai emotea, ta ezta alperreko gastu, ta geiegirik egin biar: zerren erri guztieten idoroten dira biartsubak, edo Pobriak.

I: *Parkatu biar deutsegu geure areriorik amurratubenei?*

E: Bai, ta orretako itxi euskun Jesu Kristok berariazko agindubat.

I: *Zer dira karidadeko, edo errukitasuneko egite, edo jardunak?*

E: Dira egite batzuk, zeintzukaz lagunduten ditugun Urko, edo Projimua euren arimako, ta gorputzeko biar, edo premietan.

I: Badaukagu obligazinoerik egiteko sarri Fedeko, Esperanzako, ta karidadeko aktuak?

E: Bai, ta egin biar ditugu sarritxu.

I: *Zelan egingo ditu errazen bestera eztakianak?*

E: Esanaz egunoro, ta arreta andiaz, edo astiro Kredua, ta Neure Kristo Jauna, edo Aitaguria.

I: *Zeinbat berba amodiogoriko daukaz Aita guriak?*

E: Iru, ta dira onek. Lenengua Aita guria; Bigarrena Santifikau bedi zure izena. Eta irugarrena egin bedi zure borondatia, nolan Zeruban, alan lurrian.

I: *Zein da iru birtute onen artian andiena?*

E: Karidadia, edo amodiua: zerren au daukanak, guztiak daukaz, ta askotan jazoten da Fedia ta Esperanzia eukitia karidade baga.



IRUGARREN PARTIA

KRISTINAUTASUNEKO ESKARI,
TA GAUZAK EGITEKO BITARTEKUAK

Lenengo Ikasbidia

Jangoikuaren grazia

I: *Zeintzuk dira Kristinautasuneko gauza, ta agindubak, ondo egiteko bitartekuak?*

E: Dira iru: Jainkuaren grazia, Sakramentubak, ta Eskaria, edo Orazioa.

I: *Zer da Jainkuaren grazia?*

E: Da geurez gainetiko doe bat, jatorkuna Jainko on ta errukiorra-gandik, ta Jesu Kristoren irabaziz, geure betiko osasuna jaderetsi, edo alkanzetako.

I: *Zegaitik dinozu grazia dala geurez gainetiko doe bat?*

E: Zerren emon ezin leikegun Jainkuak berak baño bestek.

I: *Zeinek irabazi euskun ainbeste balio daben doe au?*

E: Jesu Kristo geure Jaunak bere eriotziaren bitartez.

I: *Beraz eztogu Jesu Kristoren aldetik ezpada graziairik artzen?*

E: Ez: eztau salbazinoeko bitartekorik Jainkuak emoten bere Semia-ren meritu, edo irabazimentuz baño.

I: *Zeinbat grazia mueta dira?*

E: Bi, batari deritxo grazia iraunkorra, edo santututen gaitubana, ta bestiar grazia igarokorra, edo jua etorrian dabillena.

I: *Zer da grazia iraunkorra, edo ariman geretan dana?*

E: Da geurez gainetiko doe bat, zeinek egiten gaituban Jainkuaren adiskide, Seme, ta Zeruko Jaubegai, edo herederu.

I: *Zeintzuk dira grazia onen ondoringuak?*

E: Ondo (sic), edo santututen gaitu; geratuten gara Zerurako esku-bide osuaz; ta egiten gaitu Jainkuaren ume aukeraz.

I: *Zegaitik deituten jako iraunkorra, edo abituala?*

E: Zerren geretan dan gure ariman ezertan ez diardugunian bere; eta alan grazia au dago sein batiatubetan, ta lotan dagozan Kristinau on ta nagustubetan.

I: *Galdu daikegu grazia au?*

E: Bai; ta galtzen da edozein pekatu mortalegaz.

I: *Eta topau daikegu barriro bein galdu ezkeru?*

E: Bai, topetan da konfesinoe egiazko baten iturrian.

I: *Zelan azi, ta geituko dogu graziaiu geure ariman?*



E: Sakramentu Santubak sarri, ta ondo prestatu artubaz; Jainkua-ren amodiozko aktuak askotan egiñaz; ta gauza onetan jardunaz.

I: *Zer da grazia igarokorra, edo jua etorrian debillena?*

E: Da Jainkuak emoten deuskun barruko laguntasuna, gauza onetan jarduteko, ta iges egiteko deunga, ta okerbide guztietatik.

I: *Zetako da grazia mueta au?*

E: Argituteko gure adimentuba, ezagutu daigun pekatubaren ezaintasuna, asmo, ta gogorazinoe onak arerasoteko; ta biotzeko keza, ta ikualdi batzuben bitartez jarraituteko Jainkuaren bidiari, itxirik pekatukua.

I: *Zegaitik deituten da igarokorra, edo aktuala?*

E: Zerren dan iraupen gitxiko igiera, edo mobimentu bat zeinen bitartez Jainkuak iratzartuten gaitu on egitera.

I: *Adierazo egizu argiruag.*

E: Baldin emoten badeust niri orain limosna egiteko gogorazinoia, orise da grazia igarokorra, edo esan daruen legez, aktuala.

I: *Ukatuten deuse Jainkuak Pekatariai onelako grazia ta laguntasuna?*

E: Ez: zerren berez danez, gura dau guztien salbazinoia, ta galtzen bagara, izango da geure erruz, ta aukeraz.

I: *Zeinbat modukua da grazia igarokorra au?*

E: Bitakua; bata da sendua, indartsuba, edo eragillia; bestia argala, ta adore gitxiagokua.

I: *Zer da grazia sendo, ta indartsuba?*

E: Da grazia bat, zeinegaz egiten dogun berak esketan ebana. Onelakuak izan zirian San Pedrori Jesu Kristok egi eutsan begirakunia, San Pablaren zaldi jaustia, ta beste askoren biurrerako gogorazinoiak.

I: *Zer da grazia argala, edo adore gitxiagokua?*

E: Da grazia bat, zein artu arren, eztan egiten berak esketan ebana. Onelakuak ziran Judasen, ta Judeguben graziak.

I: *Zelan jazoten da gure irudiko grazia mueta batez, batzuk biurtutia Jainkuaren bidera, ta bestiak ez nola dan sermoe bat enzunda, liburu bat irakurrita, edo eriotzaren bat ikusita?*

E: Eztira gure adimentu laburrerakuak Jainkuaren jakituria aberatseko juizio adoragarri onek; eta alan bakarrik dakiguan da, eztala iñor galduko, bere guraz ezpada, salbauko dala benetan nai dabena, ta eztabela Jainkuak ukatuko orretako laguntasunik.

I: *Zer da graziari lagundutia?*

E: Da bere eskari, ta mobimentubai jarraitutia: nola dan, sermoetara jua, konfesau, ta penitentzia egitia.

I: *Jarki gaitekez Jainkuaren graziaren kontra?*

E: Bai: Fediak, ta geure egunoroko esperienziak darakusku geregi (sic) jarkiten gatxakozala, ta urristetan (sic) dogula, ez eginaz bere bitartez, Jainkuak esketen euskuna. Ala sarri billatuten ditu Pekatariaik, ta egiten deutsez amodiozko txistu, ta dei asko; baña ez enzuna egiten dabe onek.

I: *Zeintzuk dira agriko, edo kanpoko graziak?*

E: Dira mirariak, Sermoiak, Jarraigari, edo ejenplu onak, naigabe, ta gaisotaunak; ondasunak galtzeia, ta beste orrelako asko.

I: *Zer atera biar dogu Ikasbide onetatik?*

E: Sakramentubetara sarri, ta ondo prestatu juateko asmua. Edozein gauza on egiten dogunian ezagutu Jainkuaren graziari zor deusagula, geurez errukarri, ta argalak gariala, ta bere mesede, ta doiak koroetuko ditubala Jaunak, gure egitiak koroetuko dituban orduban.

Jainkuak zerbait egin daigula adierazoten deuskunian, egin laster, edo luza bide бага, ta bildur izan enzuterik, emoten ezpadeutsagu.

Eskatu Jainkuari gogo biziaz, ta sarriro emon daiguzala grazia sendo, ta indartsubak, edo zeintzubekaz dakusan, baliauko gariala.



Bigarren Ikasbidia

Sakramentuben gainian

I: *Zer da Sakramentuba?*

E: Da ezin ikusi daitekian grazia baten irudi, edo ezagugarri agirikua, Jesu Kristo geure Jaunak itxia gure arimak garbitu, ta graziaz beteteko.

I: *Zegaitik dinozu Sakramentuba dala irudi, edo señaie bat?*

E: Zerren ezagueragiten deuskun eztakuskun grazia, berak gure ari-metara dakarrena.

I: *Zegaiti dinozu irudi, edo señaie onek agiriak dirala?*

E: Zerren geure begiakaz dakuskuzan: nola dan batiuan ura, oliazi-noian orio Santuba, ta añbeste Sakramentubetan.

I: *Zegaitik dinozu ezin ikusi daitianaren irudia, edo señaia?*

E: Zerren berenez eztazaugu grazia geure zenzunakaz, dalako gauza itxurarik, ta gorputz gabia.

I: *Nundik dakarre Sakramentubak gure arimak garbitu, ta graziaz betetako indarra?*

E: Jesu Kristo geure Jaunaren pasinoe, ta eriotzatik.

I: *Zelan jazoten (sic) au?*

E: Sakramentu batzuk emoten deuskube len ez geunkan grazia santututen gaitubana; onek dira Batiua, ta Konfesinoia, ta deituten dira illen Sakramentubak, zerren artu daikez pekatubaz illda dagozanak.

Bestiak geituten deuskube grazia au, ta emoten jake sakramentu bizien izena: zerren egon biar dogun geienez graziaz bizirik, eurak artzeko.

I: *Zelan emoten, edo geituten deuskube grazia Sakramentubak?*

E: Jesu Kristo geure Jaunaren eriotzako irabazi, edo meritubak geure arimai ezarriaz.

I: *Sakramentubetara eltzen dirian guztiak artu darue grazia?*

E: Ez: zerren eztira guztiak eltzen biar diran disposizinoe, edo pres-tamentubakaz.

I: *Ondo prestatu baga, Sakramentubak artzeia, pekatu andia da?*

E: Bai: da pekatu eskerga, ta ikaragarri bat, zein izentetan dan sakri-lejiua.

I: *Eztabe Sakramentubak beste gauzarik emoten grazia baño?*

E: Bai: badira iru Sakramentu Karaktera, edo silluba ariman ezarten deuskubezanak; onek dira Batiua, Konfirmazinoia, ta Ordia; eta orregaitiño ezin artu leitez Sakramentu onek bein baño.

I: *Zer da arimako karakter au?*

E: Da sillu espiritual bat gure ariman ezarria, ta inoz desegin, edo kenduko ez dana, ta iraungo dabena Infernuban, ta Zeruban bere.

I: *Zenbat dira Sakramentubak?*

E: Zazpi bakarrik, eta dira: Batiua, Konfirmazinoia, Konfesinoia, Komuninoia, Oriazinoia, Ordia, Ezkontzia.

I: *Zer atara biar dogu ikasbide onetatik?*

E: Esker andiak emon Jainkuari, itxi deuskuzalako Eleisan ainbeste ondasun, ta osabide.

Euki errespeto andi bat Eleisiak Sakramentubai urreratu dituban gauza guztiai: nola diran ur, ta ogi bedeinkatuba, onzi, ta soñoko santubak, ta guztiz Sazerdote Jaunak.



Irugarren Ikasbidia

Sakramentuben gainian banaka Batiua

I: *Zer da Batista?*

E: Da Sakramentu bat, zeinek parketen deuskun pekatu jatorrizkua, edo jaiotzatik jatorikuna; egiten gaituban Kristinau, ta Jainkuaren, ta Eleisiaren Ume.

I: *Zer pekatu parkatu daruaz Bautismuak?*

E: Pekatua orijinala, edo jatorrizkuaz osterunzian edozein pekatu batiatuten danagan aurkieten dana, ta onez gañeti enparetan jaken zor, edo pena guztia; eta alan batiatu onduan illgo balitz edozein nagustubena izan arren, artez luiake Zerura.

I: *Zer parketan eztau?*

E: Pekatubaren ondoringo batzuk; nola dirian jakineza, aragiaren gerria, deungarako makurtasuna, ta egite onetarako naieza, ta atzerapena.

I: *Zelan emoten deusku Batiuak arimako grazia?*

E: Guri emonaz grazia santututen gaitubana, zein da gure arimiaren bizitzia, kendubaz pekatubak gure arimatik.

I: *Zelan egiten gaitu Kristinau?*

E: Zerren egiten gaituban Jesu Kristoren zati, ta eskolari, jarraituteko beti bere Ebanjelioko erakutsiak.

I: *Zelan egiten gaitu Jainkuaren Ume?*

E: Zerren grazia emoten deuskunaren bitartez, autu edo artzen gaituban bere umetzat, jarten gariala onetara Zeruko ondasunetarako eskubide osuaz.

I: *Zelan egiten gaitu Eleisiaren Ume?*

E: Emonaz guri eskubidia, artzeko Eleisako ondasunak, ta Sakramentubak, ta partil izateko bere orazinoe, edo erregubetan.

I: *Zelan batiatu biar da?*

E: Au da, guztiak jakin biar leuken gauza ardurako bat, ta elitzakio iniori txartelik emon biar arik eta ikasi artian.

I: *Zegaitik ori?*

E: Zerren premia orduban edozeinek batiatu leikian, dala Gizakumia, dala Andrakumia. Alanbere Sazerdote, edo beste gizon jakitunen bat aurrian ezpadago, itxi biar jake Andramaistai, batiatu dagien: bada atara egiñak dagoz, ta obeto jakin darue, zelan batiatu biar dan.

Topau biar da ur garbi ta utsa, dala errekakua, iturrikua, itusurekua, edo dana dala, begiratu baga bedekintuba dan edo ez; zerren onelako arazkerietan dabilztan artian, illeite seña. Botako jako burura esanaz batera berba onek ta ez geiago, ta ez gitxiago. NIK BATIATUTEN ZAITUT AITIAREN, TA SEMIAREN, TA ESPIRITU SANTUBAREN IZENIAN.

I: *Eta baldin ezin bota bajako batiatu biar dabenari buru gañera, zer egin biar da?*

E: Señak agiri daben alde, edo parte nagusi, edo andienian, batiatu biar da, ura botiaz, ta esanaz lengo berbak; baña jaiota laster ostera batiatu buruban, bizi bada esaten dala modu onetan. *Ondo batiatuta ezpazagoz, nik batiatuten zaitut Aitiaren, ta Semiaren, ta Espiritu Santubaren izenian.*

I: *Eta baldin guztien iritxian seña illik jaioten bada zer egin biar da?*

E: Batiatu ardura baga usteldu modukua ezpadago, esanaz modu onetan: *Baldin bizi batzara, nik batiatuten zaitut Aitiaren, ta Semiaren, ta Espiritu Santubaren izenian.*

I: *Zelan ori?*

E: Zerren gure iritxian illak egon arren, eztira beti illak egoten. Gaurko egunian ezin onen kontra inor jarki leite, bada ikusten da, zelan enplastu ardaoizko batzukaz biztuten dituban illak zirudien seña, ta noiz bat jazo arren utsak urtetia bautismua, illik egualako seña, eztau deugatzat emoten gure Jangoiko errukitsubak: eta alan euneti bat baño egiaz batiatuba geratuko ezpaliz bere, asko da dirianai bautismua ezarteko.

I: *Zer esan biar da sein galduben gainian?*

E: Etxakela onei bere bautismorik ukatu biar txikarrak, ta ill irudiak agertu arren. Orregaitino illa bete edo bi baño ezpadauke bere, egin biar da alegiña, batiatu baga geratu ez ditezan.

I: *Baña zelan batiatu leitez moltso baten irudian urten daruenak?*

E: Artazi batzukaz kontuz gañeko estalkia ebagirik, ura botiaz barruban dagan Seintxubari, esaten diriala berba onek: *Bizi batzara, nik batiatuten zaitut Aitiaren, ta Semiaren, Espiritu Santubaren izenian.*

I: *Zegaitik alan egin biar da?*

E: Zerren oraindano eztaben inok aztertu, noz sartu oi dan arimia gorputzian, ta biar bada sortuta egun gitxi barru jazo leite. Barriz guk ez dakigu illik urtetan daruen, guri alan iruditu arren, ta eztabaida, edo duda onetan batiatu biar dira. O zeinbat arima geiagok ikusiko eben Jainkuaren arpegia, esan ditugunak egin balira!

I: *Zer intenzinoe, edo asmogaz batiatu biar da?*

E: Eleisa Ama Santiak gura dabena egitekuaz.

I: *Batiatu baga salbau leite inor?*



E: Ez bautismo moduren bat baga.

I: *Zeinbat bautismo mueta dira?*

E: Iru: Urezkua, esan dogun legez, odolezkua, ta suzkua.

I: *Zer da odolezko bautismua?*

E: Da geure Fediaren bando artzen dan Eriotza, edo Martiriua. Onegaz salbau zirian Herodesek Kristoren gorrotoz illeragin zituban sein guztiak.

I: *Zer da suzko bautismua?*

E: Da Jainkuaren amodio, edo karidade bizi bat, urezko bautismua artzeko gurari, edo goguz.

I: *Zer obligazinoiak ezarten deuskuz Batiuak?*

E: Jesu Kristoren erakutsi, edo doktrinak osoz sinistutia.

2. Agur betiko bat egitia Diabrubari, ta bere asmo guztiai.

I: *Zelan uko, ta betiko agur egiten jako Diabrubari?*

E: Ardura, edo lotsabaga adierazuaz ezteutsegula jaramonik egingo bere asmo galgarriei, ta jarraituko deusagula, bere damuz bada bere, Jesu Kristoren bide, ta Lege santubari.

I: *Zer adietan dozu Diabrubaren asmo, ponpa, ta egitekaz?*

E: Adietan ditut Munduko ibilmodu zoro, anduste, arrotasun, pekatu, ta bide gaisto guztiak.

I: *Zelan izentetan dira egin biar, edo obligazinoe oneek?*

E: Batiako eskini, edo promesak.

I: *Baia zelan obligau ginkez orduko eskini, edo promesak, ezpaganian zer egiten genduban?*

E: Aita ta Ama besuetakuak egin zitubelako gure orde, ta ontzat emon genduzalako adimentura eldu ginian orduban.

I: *Zer obligazinoe artu darue Aita ta Ama-besuetakuak?*

E: Gurasuen faltan, edo oneek nagiak badira, erakutsi biar deutse euren besuetakuai Jesu Kristoren Fede, ta legia; ta egiten dira arimako senide, batiatu zirian seinakaz, ta oneen gurasuakaz.

I: *Zegaiti egiten da Sein batiatuba Eleis ataian?*

E: Adierazoteko, pekatu orijinal, edo jatorrizkuak bota dabela Paradisuti kanpora, zeinen irudia dan Eleisia.

2. Eztaguala Eleisan sartzeko Bautismua baño beste biderik, ta aterik.

I: *Zer esan gura dabe Abadiak Seiairen gainian egin daruazan arnasa botate, edo esorzismuak?*

E: Esan gura dabe, Bautismuak ateraten gaitubala Diabrubaren mende, edo katigerati, zeinen esku, ta aginpian legez sortu, ta jaioten garian guztiok.

I: *Zer esan gura dabe egiten jakozan kurutze, seia, edo irudi guztiak?*

E: Esan gura dabe Bautismuak bere indar guztia dakarrela Jesu Kristoren Kurutzeti, edo emen artu eban eriotzati.

2. Kurutziaren bitartez iges egin daruala Diabrubak Seiairen arimatik, nun eguan lenago bere etxian legez.

3. Batiatubak eztabela lotsatu biar Jesu Kristoren kurutziaz; baia bai poztu, ta gozatu.

4. Maitatu biar dogula kurutzeko, edo nekezko bidia, ta geure itxaropen guztia ezarri Jesus Kurutzetubagan.

I: *Zer esan gura dau seia aora emoten jakon gatzak?*

E: Esan gura dau, Bautismuak kendu daruagula pekatubaren ustelatasuna, ta atsa.

2. Motelak diriala lurreko atseginik zoragarrienak.

3. Gozuak diriala ezin geiagoraño Zeruban itxaroten duskubenak gordeten baditugu batioko agindubak.

I: *Zer esan gura dabe orio santuben igortzi, edo bustiketaz?*

E: Jangoikuaren grazia banatu, edo zabalduten dala batiatu danaren biotzian.

I: *Zer adierazoten dau, eskubetara emoten jakon eun, edo zapi zuriak?*

E: Bautismuan artu daruala arimako sofoko garbi, ta eder bat, zein gorde biar dogun ardura andiaz; ta esaten deusku Jangoikuaren Minis-truak, artuko jakula kontu estuba Jesu Kristoren Aditzain, edo tribunalian baltzitu, ezaindu, edo zantartuten badago (sic) pekatubakaz.

I: *Zer esan gura dau eskubetan ifinten jakon argi isiuak?*

E: Jainkuaren amodio bero, ta gartsuba, ta argi egin biar dogula Munduban geure bizitza, ta egite onakaz.

I: *Zegaiti ezarten jako Seiairen santuren baten izena?*

E: Mundu onetan sartzen dan baisen laster euki daigun begi aurrian Ispillu, edo Jarraigari on bat, ta Jangoikuaren aurrian bitarteko andia. O gomutauko balituke Kristinaubak, zer obligazinoiak ezarri eutsezan euren burubai batiatu zirianian! O! ta zeinbat bider arpegian emon leiuen askori San Agustinen esanaz! **Cristiane, quid tibi cum pompis, quid cum operibus, quibus renunciasti?** Uko, ta agur betiko bat egin zeuntzen Munduko ibillera zoro, apainduria ta pekatu bidiai. Zek zaruaz bada euretara? Zu Zara Apostata edo Igesla Fediaren deshonorragari bat. Obeto egingo zenduban iñoz batiara eldu ezpaziña. Jangoikuak edegi daiguzala arimako begiak, ikusteko geure itxumen nagargarrikua.



Laugarren Ikasbidia

Konfirmazinoia

I: *Zer da Konfirmazinoia, edo Indargirua?*

E: Da Sakramentu bat, zeinek emoten deuskun Espiritu Santuba bere doiakaz, ta geure bizitziaaren arriskubetan bere Jesu Kristoren Fedia autortu, edo konfesetako grazia.

I: *Zegaitik dei egiten jako Konfirmazinoia?*

E: Sendotu, ta indartuten gaitubalako, Batiuan artu genduban sini-seta, edo Fedian.

I: *Biarra da, salbetako Konfirmazinoeko Sakramentu au artzeia?*

E: Ez; baña bera artu baga luzaro, ta nagitasunez dagozanak galdu daruez Sakramentu onen grazia, edo ondasunak, ta mesede gitxi egiten deutse Jesu Kristo gure Jaunari.

I: *Zelan prestau biar da Kristinau batek Sakramentu au artzeko?*

E: Egon biar dau Jainkuaren grazian, ta nagustuba bada, jakin biar ditu geure Fedeko gauzarik biarrenak.

I: *Zer egiten dau, pekatu mortalien artzen dabenak?*

E: Pekatu mortal barri sakrilejiozko bat, ta eztau artuko Espiritu Santuba.

I: *Zeintzuk dira konfirmau diranen eginbide, edo Obligazinoiak?*

E: Dira Jesu Kristo geure Jaunaren Fedia lotsabaga autortu, edo agertutia; ta bere ebanjelio santuko eskabidiak jarraitutia.

I: *Zeintzuk dira Sakramentu onen ondoringuak?*

E: Bost: emoten deusku Espiritu Santuba.

Darakarguz bere grazia, ta ondasunak ugariri.

Egiten gaitu Kristinau oso.

Ezarten dau gure ariman kenduko ezin dan silluba.

Emoten deusku indarra, Fedia ardura baga autortuteko.

I: *Zer da Sakramentu onetan jatorkun Espiritu Santuba?*

E: Da irutasun edo Trinitade Santuko irugarren Personia.

I: *Noztik ona dazaube Kristinaubak sakramentu au?*

E: Eleisa santiaren asieratik; bada San Lukasek dino, Apostolubak emoten eutsela batiatubai.

I: *Zer jazoten jaken orduban konfirmetan ziranai?*

E: Etorten (sic) euren gañera, ta agirian Espiritu Santuba, subaren irudian.

I: *Zegaitik orain jasten ezta dakuskun erara, edo irudira?*

E: Zerren biar ziran orduban mirariak, Fedebagiak erakarteko, Kristinau izatera; baña orain eztogu onen biarririk, Fediak darakuskuzan gauzak sinistuteko.

I: *Zein da konfirmazinoiaren bigarren ondoringua?*

E: Da emotia grazia ugariak, edo Espiritu Santubaren doiak.

I: *Zeintzuk dira doe onek?*

E: Dira zazpi. Zurtasuna, edo Prudenzia. Adimentuba. Jakintasuna. Errukitasuna. Konsejuba. Portiztasuna. Jainkuaren bildurra.

I: *Nundik dator ainbeste ondasun, ta doe geienian guk ez artzeia, konfirmaubak izan arren?*

E: Dator: zerren eltzen ganan biar diran prestaketa baga, edo artuta laster galdu daruaguzalako pekatu egiñaz.

I: *Zelan egiten gaitu Kristinau oso?*

E: Jesu Kristoren Fedian guri emonaz indar, edo sendotasun geiago.

I: *Zer diferenzia, edo bestetasun dago batiatuba baño eztan, ta konfirmaubak dan baten artian?*

E: Batiatuba baño eztanari, begiratu biar jako sein argal bati legez; ta konfirmaubari bere adin, edo edaderik oneneko indarrian daguan gizon bati legez.

I: *Zein da Konfirmazinoiaren laugarren ondoringua?*

E: Ezarten deuskun silluba.

I: *Zetara gakaz sillu onek?*

E: Izatera Jesu Kristoren Soldau, ta Diabrubaren Arerio.

I: *Zein da konfirmazinoiaren bostgarren ondoringua?*

E: Emoten deusku indarra, Jesu Kristoren Fedia arduratzaka autortuteko geure bizitziaaren peligrubaz bada ere.

I: *Zer da Jesu Kristoren Fedia arduratzaka autortutia, geure bizitzia galdu biar bagendu bere?*

E: Da ebanjelioko eskabidiak jarraitutia atzerapen baga, ta inoren esames, ta barriketai jaramonik egiten ezteutsegula.

I: *Zeintzuk dira Kristinautasuneko eginbide, edo obligazinoietatik atzeratu gura gendukezanak?*

E: Antxinako Agintari gogorrek illeragiten zituben Jesu Kristoren legebian bizi ziranak; eta orain gizon nasai mundubaren bandari, edo defensoriak milla irauntsi, ta siñugaz ikaratu gura gaitubenak.



I: *Zer egi eruen Jesu Kristoren Fediagaitik eriotzako tokira joiazan Kristinau zorionekuak?*

E: Jainkuari eskerrak emon: zerren egiteutsen ainbeste mesede, ta gurago eben euren zanetako odol guztia bota, ukatu baño Jesu Kristoren legia, zan gauzarik txikarrenian bere.

I: *Zer izen emoten jake onetara illten ziranai?*

E: Deituten ziran Martiriak, edo Testigubak: zerren euren odolaren kostura emoteutsen testigantzia Jesu Kristoren Fediari.

I: *Zer egin biarko genduke, baldin orain Fedia ukatu eragin gura baleuskegube?*

E: Egin Kristinau zorioneko aek egitebena, edo jarraitu euren oñatsai; ta alan galdu biarko gendukez, geure ondasunak ta bizitzarañokua, Jesu Kristoren Fediaz ernegau, edo Artikuluren bat tranpiaz ezkutau baño lenago.

I: *Eta zorionekuak dira Jesu Kristoren Fediagaitik euren bizitzia emoten dabenak?*

E: Bai inor bada: zerren egingo genduke Jesu Kristok geugaitik egiebana, ta igongo genduke Zeruko atsegin leku ederretara, Martirientzat daukan Koroia artzera.

I: *Zetako da bada orain Konfirmazinoia, baldin ezpadaukagu Persegitzalle gogorrik?*

E: Badira Hereje, edo Kristinau izeneko batzuk eruan gura gendukezanak euren utsegitetara, ta munduko jente ez gitxi atzeratu nairik dabilztanak euren barre, siñu, ta mukertasunakaz.

I: *Zer egiten dau Konfirmazinoiak onelakuak ganuntz?*

E: Emoten dau indarra, bildurrik ez izateko Jesu Kristoren esanai jarraituten.

Lagunduten deusku Munduko atsegin, ta ibillera nastuben kontra gogor egoteko.

Geure aragiaran gurari, ta eskabide txarrau eguak ebaten. Diabrubaren zirika, ta tentazinoiak indar geiagogaz goituten.

I: *Nok dauka konfirmazinoeko Sakramentuba emoteko agintia, edo indarra?*

E: Obispo Jaunak.

I: *Zeintzuk dira orretan egin daruezan zeremoniak?*

E: Egiten ditu erregubak: ezarten deutzaz eskubak konfirmau biar dabenari bere buru gainian.

Kurutziaren señalia egiñaz bustzen deutsa bekokia balsamo, ta orio bedeinkatuz eginiko Krismiaz.

Emoten deutsa konfirmau onduan belarondoko txikin bat.

I: *Zetako egiten ditu erregubak Obispo Jaunak?*

E: Konfirmetara doianagana jatsi dedin Espiritu Santuba.

I: *Zegaitik ezarten deutzaz eskubak buru gainian?*

E: Erakustera emoteko, jatsi dala Espiritu Santuba Sakramentu au biar dan legez artu daben arimara.

I: *Zer adierazoten dau oriua?*

E: Zelan oriua daben zabaldu, itxatsi, ta indartuteko birtutia, da Espiritu Santubaren grazia, ta doiak daben ugaritasun, ta indarraren irudia.

I: *Zer esan gura dau oriua nasturiko balsamuak?*

E: Bere usain ona gaiti esan gura dau, Jesu Kristoren usain gozua erabilli biar dogula, alan barruban biotzeko garbitasunaz, nolan agirian, jarraigarri, edo ejenplu onak zabalduen ditugula.

I: *Zegaitik egiten dau Obispo Jaunak bekokia kurutziaren irudia krismiaz buztiaz batera?*

E: Erakusteko ezabela lotsatu biar Kristinaubak, Jesu Kristoren Kurutziari jarraitutiaz, ta Sakramentu onen indarra datorrela Kurutze onetan artu eban eriotzatik.

I: *Zer esan gura dau emoten deutzaz belarondokuak?*

E: Prest egon biar dabela Kristinau batek igaroteko baketasun andiaz lotsari, naigabe, ta injuriarik gogorrenak Jesu Kristoren amodioz.

I: *Zelan prestatu biar da Sakramentu au artzeko?*

E: Prestaera bi eruanaz, bata gorputzaren, ta bestia arimiaren aldetik.

I: *Zeintzuk dira gorputz aldeko prestamentubak?*

E: Juan biar da modestia andiaz janzirik.

2. Jarri biar da belauniko Obispo Jaunaren aurrian.

3. Euki biar dira begiak beraturik, ta oialezko banda bat eskubetan.

I: *Zeintzuk dira arimiaren aldeko prestaketak?*

E: Graziaz osterunzian, Espiritu Santuba artzeko gurari bizi bat, orretako deituten dogula Fede, amodio, ta humiltasun andiaz.

I: *Gorde biar dira Sakramentu onetan arturiko grazia, ta doiak?*

E: Bai, ta iru errazoigaiti: zerren diran guk izan al daikaguzan ondasun, edo tesororik baliosubenak.

2. Zerren grazia onak bein galdu ezkeru, dan gauza gatxa barriro ertestia.

3. Eta zerren bein baño artzen eztan, grazia onak dakarguzan Sakramentuba, zein dan konfirmazinoia.

I: *Zer egin biar da, grazia onen iraun eragiteko?*

E: Iru gauza: Espiritu Santubari sarri mesede au eskatu, komulgau urte guztietan konfirmau ginian egunian, ta igusegin (sic) Konfirmazinoeko graziaren kontra geien diran pekatubei.



I: *Ze pekatu mueta dira onek?*

E: Ardura, edo errespeto gitxiaz gure Relijinoeko gauzen gainian berba egitia.

2. Oneretsiagaitik, edo banidadez gauza onak egitia, edo egin бага istia Munduen bildurrez.

I: *Zer atara biar dogu Ikasbide onetatik?*

E: Ez naigaberik emon Espiritu Santubari geure epeltasunaz, ta pekatubakaz.

Ez itxi biotzeko belarriak bere deiei, ta gogargiei.

Euki daigun amorio bero bat, ta ez lotsatu gauza onetan jardun gura dogunian.

Bost garren Ikasbidia

Sakramentu Santu Altarakua

I: *Zer da Sakramentu Santu Altarakua?*

E: Da Sakramentu bat, zeinetan idoroten dan egiaz Jesu Kristo geure Jaunaren gorputz benetakua, odola, arimia, Jainkotasuna ogi, ta ardauaren iduri, edo itxuren azpian.

I: *Zer adietan dozu ogi, ta ardauaren iduri edo itxuriaz?*

E: Onek dira gure zenzunetan agiri diranak, baita koloria, ta gustua bere.

I: *Konsagrau ezkerro geratuten da ogi, edo ardaorik?*

E: Ez: bada ogi guztia biurtuten da Jesu Kristoren gorputzera, ta ardao guztia bere odolera.

I: *Ori egiaz, ta benetan sinisetan dozu?*

E: Bai, ta ain irme, ta sendo nola neure begiakaz banekus: zerren Jesu Kristo egiaren iturriak dinuan argiro.

I: *Zelan egiten da biurrera, edo aldantza au?*

E: Konsagrazinoeko berba miragarritzkuai Jesu Kristok emon eutsen indarraren bitartez.

I: *Zelan deituten da aldantza au?*

E: Transustanziazinoia, esan gura dau, izate bata bestera biurtu, edo aldatutia.

I: *Zer dago ogiaren iduripian, ta zer ardauarenian?*

E: Jesu Kristo guztia dago osoro irudi baktxaren azpian: esan nai dau, bere gorputza, bere odola, arimia, ta bere Jangoikotasuna guztiak osuak dagozala, ala ogiaren, nola ardauaren idurien parte baktxian.

I: *Ostia santuba austen dan baktxian, austen ete da Jesu Kristoren gorputza?*

E: Ez: ezta austen ogiaren irudina, edo itxuria bano: eta alan aurkietan da Jesu Kristo guztia ostia konsagraubaren dan azuzkirik, edo apurrik txikarrenian.

I: *Zegaz adierazoko da esan au?*

E: Irudin, edo bardintza onegaz. Begira zaitte ispillu andi baten. Zer dakutsu? Zeure gorputza. Zatituko balitz ispillua, ta begiratuko bazina osterata zati guztietan, ikusiko zenduke zeure buruba edozein parte, edo zatitan. Onelan bada, Jesu Kristo guztia osoz dago ostia osuan, ta osoz edozein zatitan.

I: *Beraz ostia santuba baño artzen eztabenak, artzen dabe, Sazerdotiak lege, Jesu Kristo guztia osoro?*



E: Bai: zerren ostia konsagrauban daguana, ez geiago, ta ez gitxiago dago kaliza konsagrauban.

I: *Jesu Kristok urteten dau Zerutik ostiara etorteko?*

E: Ez: aldabatera aurkietan da Zeruban, ta Mundu guztian diran ostia konsagrau bakotxian.

I: *Zelan jazoten dira mirari onek?*

E: Jainkuaren Altasun, edo indar txito andi ta neurri bagiaz, zeinen-tzat gauza guztiak diran egiten errazak.

I: *Noz egi eban Jesu Kristo geure Jaunak Sakramentu beneragarri au?*

E: Egubena Santuz, edo illgo zan Bispera, edo egunaurrian.

I: *Zetako dago Jesu Kristo geure Jauna Sakramentu Santu altarakuan?*

E: Bere Aita Jangoikuari bere buruba sakrifiziuan eskini, edo opa egiteko, ta gure arimen jaki izateko.

I: *Zelan izaten da gure Arimen jaki?*

E: Komuninoiaren bitartez.

I: *Zer da Komuninoia?*

E: Da Jesu Kristoren gorputz santuba artzeia.

I: *Jesu Kristoren egiazko gorputz Santuba artu daruagu komulgetan garianian?*

E: Bai, bera da Ama Birjina Santiaren sabel garbian egon, ta azi zana, kurutzian gure amodioz ill ebena, ta orain zerubetan daguana.

I: *Noz daukagu komulgetako premia pekatubaren azpian?*

E: Pazkuaz, ta illteko zori edo arriskuban.

I: *Zer gogo, ta gurari euki biar dogu komulgetako?*

E: Txito bizi bat: zerren berau dan mundu onetan izan daikegun zoriontasun andiena.

I: *Zegaiti da zoriontasun au ain andia?*

E: Zerren komuninoiak egin daruazan mirari txito andiak.

I: *Zer mirari dira orrek?*

E: Dira lau enzunenak: lenengua Jesu Kristogaz alkartsu, ta gorputz bat egiten gara.

2. Gudan barristau ta gordetan da graziaren bizia.

3. Argaldu, ta agintebagatuten da pekatutako leia, guraria, edo makurtasuna.

Bera da geure bizitza beti iraun biar dabenaren, ta atseginezko baten prenda, edo bai bat.

I: *Zelan egiten gaitu komuninoiak alkartsu, edo gorputz bat Jesu Kristogaz?*

E: Bere aragi Santu, ta odol miragarrian parte artubaz.

I: *Nortzuk atera daruez onenbeste ondasun komuninoetik?*

E: Biar diran prestaketa, edo dispozizioe santubakaz eltzen diranak.

Beste Ikasbide bat

Ondo komulgetako prestamentubak

I: *Zeintzuk dira ondo komulgetako eruan biar diran prestamentubak?*

E: Dira bitzuk: batzuk arimiari ukututen jakozanak, ta bestiak gorputzekuak.

I: *Zeintzuk dira arimako prestamentubak?*

E: Dira lau: konzienziako garbitasuna; Fede bizi bat; konfianza humiltasunez beteriko bat; ta amodio bero edo indartsu bat.

I: *Zer egin biar dogu konzienziako garbitasuna eukiteko?*

E: Geure buruba probau; esan gura dau, geure biotzeko arkuntzak aztertu, ta ingurau; ta pekatutik topetan badogu, jua laster Penitenziako iturrira.

I: *Asko da pekatu mortalik beregan ez ezagututia?*

E: Asko da itu ituban Sakrilejorik ez egiteko; baña ezta asko ondasunak ugari ateretako.

I: *Zer egin biar da bada geiago?*

E: Kendu biar da pekatu arin, edo benialetarako gurari, ta gogua.

I: *Zer esan gura dau pekatu benialaren gogo, edo gurari bago egotia?*

E: Da artzeia asmo benetako bat pekatu benial ezaguera oso, ta oituzko, edo kostunbrezkorik ez egiteko.

I: *Zetan dago Fede bizia eukitia?*

E: Iru gauzatan: Lenengua bein banan ondo jakitia Fedeko artikulurik biarrenak.

Bigarrena sendo sinisetia, artzera goiazana, dala Jesu Kristo bera, geure Erosle, ta Jangoikua.

Irugarrena, gomutetia orduban bere etorreriaz egiten deuskun mesede, edo honra andia.

I: *Zer da humiltasunez beteriko konfianza, edo uste osua?*

E: Da gure Jaun onagan itxaratia, emongo jakula geuri bere ondasun guztiakaz, orretako diña ezpagara bere.

I: *Zentan dago amodio bero, edo gartsuba?*

E: Gauza bitan: lenengua da gurari, edo naikunde bero bat batzeko Jesu Kristogaz, zeinegana zuzendu biar ditugan geure biotzeko amodio, ta samurtasun guztiak. Bigarrena da, geure burubak Jaunari osoz opaegin, edo konsagretia, bera osoz emoten jakun legez.



I: *Zer egin biar da orretara prestetako?*

E: Gauza bi: Komunioeko egun aurrian eskatu bizi bizirik ta biotzetik emon daigula ondo prestetako grazia. Gero sartu geure barruban, ta gomutau astiro, zein maite gaituban Jesu Kristok: zein ona dan gureztat, Sakramentu onetan erakustera emoten deuskun legez; zelan guganako bere amodiua ezin eldu zeitian geiagorano; bada emoeuskun, bere jakituriak asmau ala, eta bere aragi Santuba jakitzat.

I: *Zeintzuk dira gorputzeko prestamentubak?*

E: Dira iru enzunenak.

I: *Zein da lenengua?*

E: Da baru osuan egotia: au da, gaberdi ezkerro jan, edo edan baga; baldin Sakramentu au azkeneko zori, edo eriotzako peligruban artzen ezpada.

I: *Egon biar da txisturik bota бага esan daruen legez komulgau artian?*

E: Au da zorakeria andi bat; eta alan ezta onetan eskrupulurik euki biar. Gomulgauta beriala, edo ordulauren bat igaro artian ezta ondo egiña txistuba kanpora botatia: zerren ostia apurren bat atera leite; baña komulgau baño lenago, edo ordu lauren bat igaro ezkerro komulgau zane-tik, txistuba bota leite, baruba ausi бага egonarren.

I: *Zein da bigarrena?*

E: Soñoko modestiaz betiakaz, ta astin bagakuakaz urreratutia; eztau ezer esan gura pobretxubakaz eldu arren; barruko soñokoak egon biar dabe graziaz apaindubak: esan gura dot, arimia garbiturik.

I: *Zein da irugarrena?*

E: Da debozinoe, ta ardura alik andiena beregan erakustia.

I: *Zer egin biar da orretako?*

E: Juan biar da Eleisara begiak modestiaz beraturik; Ezta inogaz berbarik egin biar premia бага; Eleisan egon belauniko, eta bazter baten, an Jainkuaz baño ez gomutetako.

I: *Pekatu mortalik euki ez arren, prestamentu orrek guztiok eztaruezanaz artzen dabe Jesu Kristo komunioian?*

E: Bai; baña eztabe ainbeste ondasun ateraten, nola prestamentu onek guztiok daruezanak.

I: *Zer egin biar da komulgetan garianian?*

E: Al badaigu, Meza Santuba enzun lenago: zerren obeto prestauko gara Sazerdotiaren erregubakaz, ta geure astiroko gomutiaz, Jesu Kristo (sic) ostatu, edo arrera on bat egiteko.

I: *Zer gomutau biar dogu?*

E: Zein gauza andia egitera guazan; zelan Aingerubak eztauken ainbeste zoriontasun; zelan Jesu Kristo jatorkun, gu aberastutera, ta bere amodioko subaz gure biotzak berotu gurarik.

I: *Zeintzuk dira orduban egin biar diran aktuak?*

E: Guztiak sartzen dira berba onetan. Neure Salbagille Maite Jesus: gorputzeko begiakaz bazenkustaz baño senduago sinisetan dot, zeu zariala, nik artuko zaitudana. Badakit Jauna, ez nasala diña, zu etortiaz nire barrura; baña ain ona izanik, zuga daukat uste guztia ezarrita; esai-zu bakarrik berba bat, ta nire arimia osatuko da bere gatx guztietatik. Parka eske nagotzu alik humiltasun andienaz, neure utsegite guztiak gaitik. Damu ditut, Jauna, diranak; zerren izanik zu ain ona, ta errukiorra ofendiu zaitudan sarri, ta lotsagabetasun andiaz. Artzen dot gogo, ta asmo benetako bat ez geiago pekatu egiteko, ta pekatu bide guztietatik zure graziaz batera aldegiteko. Maite zaitut biotz guztitik, ta eztot munduban zu baisen maite dodan gauzarik. Erdu bada neure Jesus maitia, erdu ene biotzera, atera egizu orain gatx guztietatik; beteizu zeure doe, ta graziaz; daukat Jauna gose, ta gurari bizi bat zu pozarren ozta artzeko. Erdu bada laster, ta ez luzatu zeure etorrera maitagarria.

I: *Fedeko, esperanzako, humiltasuneko, amodiozko, ta gogozko akto onek aoz esatia, edo liburutik irakurtia, asko da?*

E: Ez; bere biotz barru, ta garbitik urteten ezpadabe.

I: *Zer erabilli daiegu goguan komulgau aurreko Meza Santuban?*

E: Jesu Kristo geure Jaunaren neke, ta eriotzia.

I: *Zegaitik ori?*

E: Zerren Jesu Kristok itxi euskun Sakramentu miragarri au, bere Pasinoiaren gomuta betiko bat eukiteko.

2. Zerren eztaguan bere amodiuari isioteko gei obiagorik.



Beste Ikasbide bat

I: *Zelan eldu biar da Mai Santura?*

E: Eldu biar da begiak beraturik modestia andiaz, ta komulgau biar dan lekuban belauniko jarririk.

I: *Nun jarri biar da belauniko?*

E: Baldin bada balustrarik aren kontra, eta ez baldin bada lurrian, edo Altarako oinetako olaren azpiko aldian, eta ez altarako oñ gainian.

I: *Zelan euki biar da komuninoeko zapia?*

E: Euki biar da alako era, edo modutan, nun baldin ostia santuba Abadiaren eskubetatik jausiko balitz, jausi deitjan zapi gainera soñoko, edo lurrera jausten itxi бага.

I: *Komulgau onduan zapiak ezpanak igorzitia ondo dirudi?*

E: Eztirudi ondo, ta alan egin biar ezta.

I: *Zer erabili biar da goguan Confiteor; edo ni Pektaria esaten dan denporan, eta Sazerdotiak ostia santuba eskuban daukala erregubak esan daruazanian?*

E: Orduban barristau biar dira bere biotzian amodiozko, humiltasuneko, ta damuzko egikai, edo akto biziak.

I: *Zelan euki biar da buruba komulgetan?*

E: Euki biar da geldia, ta zuzen, aurreratu, ta atzeratu бага. Ezta begiratu biar batera, ta bestera, ezta begiak ezarri ta itxatsi bere Sazerdoteari; eta bai bakarrik Ostia Santubari.

I: *Zelan euki biar da aua?*

E: Ez geiegi, ta ez gitxiegi idigirik.

I: *Ostia Santuba artu danian, zer egin biar da beragaz?*

E: Euki biar da puska bat min gainian, ta bigundu, edo desegiten asten danian iruntsi biar da, ardura, ta errespeto andiaz, auan guztiz urtu artian itxi бага.

I: *Eta forma bi alkarrir itxatsirik emoten badeutsaz Sazerdotiak, zer egin biar da?*

E: Ezer adietan emon бага iruntsi biak.

I: *Baldin Ostia Santuba itxasten bada ao sabaian, zer egin biarko litzate?*

E: Biarko litzate emero kendu miñaz, ta iruntsi; baiña ez inolabere eskubaz ikutu.

I: *Zer egin biar da Jesu Kristo geure Jauna artu dogun onduan?*

E: Alik onduen erakustera emon, daukagun pozkaria, ta gozamentuba, Jaun ain andia geure barruban eukiaz, eta egon edolanbere ordu lauren bat, Jainkuari eskerrak emoten.

I: *Ondo dirudi komulgauta laster Eleisatik urtetia?*

E: Ori da Judasek egi ebana, ta onelakuak adietan emoten dabe Fediaren arrasturik eztaukela. Etorriko balitxakegu geure etxera Persona Andiki, edo adiskideren bat, ondo dirudiana izango litzate, agur bat egin da beste бага istia, ta beste arazkerietan inardutia? Ause egiten dabe bada komulgau onduan euren Jesusegaz astirotxu egon бага, Eleisatik laster urten daruenak.

I: *Zelan emon biar jakoz eskerrak?*

E: Lau gauza eginaz: lenengua adora humiltasun andiaz Jesu Kristo; orretarako batu biar gatzakez Aingeru, ta Santubak Jaun oni egin daruekezan adorazioei, ta diranak opa egin geuriakaz batera.

2. Bigarrena esker andiak emon: zerren etorri gura izan daben guga-na, bere graziaz betetara, izanik gu geurez ain gauza gitxiak, ta errukarriak.

3. Eskatu beraganako amodio sutsu, ta bero bat, ta biar ditugun grazia guztiak.

4. Erregutu biar deitsagu Eleisako premia guztientzat, geure senide, adiskide, arerio, agintari, ta ongilla gaiti.

I: *Erakutsi zelan.*

E: Neure salbagille maitia: adoretan zaitut ezeberezetik egin nenduzalako; batzen natxake Aingeru ta Santubak Zeruban emoten deitsubezan adorazioe humillei, ta opa deitsadaz Aita Zerukuari zuk Sakramentu Santu onetan deitsazuzan guztiak. Emoten deitsudaz esker andiak zure eskubetatik artu ditudan meseden orde, edo eranzuterako; batez bere emoten zatatzazalako ni legezko gizatxar eskergeistoko bati. Zuk dazauzu, nik baño obeto neure arimako premia; arren emo eidazu indarra enzuterik emon eztauedan mundu galdubaren deiai. Ken egizu nire biotzeko gogortasuna; ta bere orde isio nagizu zeure amodio Santuban. Lagun egiozu zeure Esposa maite Eleisa Santiari bere biar ordubetan. Desegizuz bere kontra jarkiten diran persegimentu, itxas andi, edo olasta aserraturak. Errukitu zaite Fede bagakuen itxutasunaz; argitu eizuz, eza-gutu zagiezan ondo. Ez aztu, Jauna, Pektariakaz; emon egiezu grazia sendo bat urten dagien pekatu bidetatik; ondo eizuz neure adiskide, arerio, ongille ta agintariak, guztiok igaro daigun enparetan jakun bizitzia zeure amodio, ta jarraimentuban. Opa natxatzu, Jauna nasan guztiau, ni al daidan guztia, ta ditudan gauza guztiak: egizu onduen deritxazuna; ta itxi egidazu, nik zeu opa zagidazan zeure Aita betiko Jainkuari, gizon guztien pekatuben parkazinoia jaretsi, edo alkanzau dagizun.

I: *Asko da Jainkuari eskerrak emoten ordu lauren bat egotia?*



E: Ez; biar da oraindino gainerako egun guztia igaro alik onduen.

I: *Zer egin biar da orretako?*

E: Baldin Sermoerik bada, enzun; egun artian gomutau zein euki genduban goisatan geure biotzeko etxian; liburubak irakurri, gaisuak ikusi, ta beste gauza onak egiten jardun

I: *Eta lanian eguna igaro biar dabenak, zer egin leike?*

E: Bere biarren artian gomutau biotz barruban, Jainkua aurrian daukala, ta egun atan artu dituban mesediak; opa egin bere lana esker orde, eta arratsalderuntz al badau, bakartu puska baten bere Jainkuaz gozatu, ta atsereteko.

Seigarren Ikasbidia

Iru Komuninoe mueta, edo suerte

I: *Zeinbat Komuninoe mueta dira?*

E: Dira iru: deungia, epela ta ona.

I: *Zer da Komuninoe deungia?*

E: Da pekatu mortalien egina.

I: *Deungaro egiten dabe pekatu mortalien komulgetan diranak?*

E: Da asmau, ta egin al daitian pekatu andienetatik bat.

I: *Bildur andia euki biar deusagu sakrilejiozko pekatu oni?*

E: Bai, orrentzat bildurrago izan biar gara, gogoratu al daikeguzan gaistakeria guztientzat baño.

I: *Zegaitik izan biar deusagu ainbeste ikara, ta bildur?*

E: Zerren egiten jakon Jesu Kristori injuria gogor, ta ikaragarria bere gorputz, ta odol bedeinkatuba deungaro erabilliaz.

I: *Nun legoke obeto Jesu Kristoren gorputza, txakur, edo zapo baten eztarrian, edo pekatu mortalien komulgetan danen biotz barruban?*

E: Obeto legoke txakur, edo zapo baten eztarrian; zerren eztagoan leku ezainagorik pekatubaz loituta daguana baño.

I: *Zegaitik bildurdu biar gaitu pekatu onek geiago?*

E: Bere ondoringo negargarriak gaiti.

I: *Zein da guztien artian andiena?*

E: Andik sortu oi dan biotzeko gogortasuna, ta kondenazinoia.

I: *Zelan ori?*

E: Zerren sakrilejio au egiten dabenaren biotza asko gogortuten dan jaramonik egiten ezteutsela graziaren dei, ta mobimentubai; eta gitxitan egin daruen egiazko penitenzia.

I: *Zegaitik alan?*

E: Zerren San Pablok dinuanaz, zorigaisto (sic) onek jan daruen euren galduera, edo kondenazinoia.

I: *Bada orren jazoera, edo ejenplurik?*

E: Bai, Judasen buruban, zein geratu zan komuninoe onduan dana gogorturik, ta sentimentu бага; ez eutsen enzuterik emon Jesu Kristoren amodiozko deiai, ta andik laster juan zan bere buruba urkatutera ernegazinoez inguratuturik.

I: *Nortzuk dira komuninoe deunga bat egitera azartuten diranak?*



E: Lenengo konfesinoe on bat egiteko biar dan beste billakuntza, azterri, edo esamina egiten eztabenak.

2. Bigarren, konfesinoian lotsaz, edo bildurrez pekatu mortalen bat gitxitu, edo estalduden (sic) dabenak.

3. Irugarren, damu egiazko бага duazanak, edo artu gura eztitubena biar dirian neurri, ta bidiak, bizitzia obatuteko.

I: *Zer da komuninoe epela?*

E: Da gitxi prestaurik, edo debozinoe бага egiten dana.

I: *Nortzuk dira geienez komuninoe epela egin daruenak?*

E: Onek dira, pekatu benialentzat iguinik, ta ikararik eztauenak.

2. Mundu onetako ondasun, ta bizitza onetako atseginetara itxastan dirianak.

3. Gauza onetan jarduteko gogorik, ta arretarik artu ez daruenak.

I: *Asko bildurtu biar gaitu komuninoe epelak?*

E: Txito asko, ta iru errazoe gaiti.

I: *Zein da lenengua?*

E: Zerren komuninoe epelak naigabe andia emon daruaka Jesu Kristo geure Jaunari, nola Jaun andi bati emongo litxakion bere etxian artuko balitz otz otzik, bekoki illunaz, ta kendu бага berari arpegi emoten deustsen gauzaren batzuk.

I: *Zein da bigarrena?*

E: Zerren kalte andiak darakartz beregana epeltasuneko estadu, edo egoeran jarten danak mai santuban.

I: *Zetan dagoz kalte orrek?*

E: Zerren biotz bero, ta ondo prestaubetara ugari zabaldu daruazan Jesu Kristok milla ondasun, ta grazia, ta galtzen ditubalako geienak epelek komulgetan danak.

I: *Zein da irugarrena?*

E: Zerren askotari isten ditu ondoringo gaistuak.

I: *Zeintzuk dira?*

E: Isten dau arimia argaltasun negargarri baten, ta geratuten da adore, edo indar gitxigaz, tentazinoiak goituteko.

2. Gitxika gitxika prestau darua komuninoe deunga, ta sakrilejiozko batera.

I: *Zelan ori?*

E: Zerren pekatu txikar, edo benialentzat ardurarik eztabenak, usteztaka legez jausi oi dira pekatu mortaletan, ta gero onetatik urteteke gogorik artzen ezta.

I: *Zer bitarteko dago komuninoe epelik ez egiteko?*

E: Iru, gure animia garbitutia penitentzia egiñaz pekatu benialak gaiti bere.

2. Arreta geiagogaz bakartutia, ta gomutetia astiro komuninoe aurreko egunian, zer egitera goiazan.

3. Komuninoe bakotxian geure borondatez nekagarri, edo mortifikazinoeren bat egitia.

I: *Zer da komuninoe ona?*

E: Da gauza ain santu batek esketan daben berotasun, ta debozinoe osuaz egiten doguna.

I: *Zeinbat ondasun dakaz komuninoe amodiotsu, ta onak?*

E: Geituten dau Jainkuaren grazia, ta amodiua.

2. Kentzen deutzaz Diabrubari indarrak.

3. Gitxituten dau deungaro (sic) leia, ta makurtasuna.

4. Ebaten deutzaz aragiari bere egotzarrak.

5. Argituten dau adimentuba Jainkuaren gauzak ezagututeko.

6. Da geure salbazinoeko bairik, edo predarik segurubena.

I: *Zetan igarriko deutzagu egiten ditugun edo ez komuninoe onak?*

E: Bost gauzatan: barristau, ta aurreratuten bagara humildade, ta Jainkuaren amodiuan.

2. Oneregi, edo desprezietan baditugu lurreko arrotasun, ta banidiak.

3. Bildurtuten bagara pekatu txikarrakaz.

4. Gogotik egiten baditugu karidadeko, ta penitenziako ekiñak, edo obrak.

5. Gogua geitubaz bajuaku Jainkuaren gauzetarako, nola diran, bere berbak enzutia, liburu onak irakurtia, orazinoian inardutia, jente onakaz batzeia, ta komuninoe sarriagorako gurari, ta gose andia.

I: *Komuninoe on bat egiteko, zegaz baliauko gara?*

E: Iru gauzagaz: komuninoe batetik besterako bitartian jardun usadio, edo ekandu txarrak kentzen.

2. Komuninoe bakotxian asmo barri bat artu, nola dan humiltasuneko, errukizko, edo penitenziako gauzaren bat egitia.

3. Komuninoe egunian nekagarriren bat artu, edo itxi atsegin emon daikegun ibilkuntza, egoera, edo jateren bat.

I: *Noz daukagu obligazinoia komulgetako?*

E: Ezaguera osora eltzen garianian.

I: *Ardura andi euki biar dabe Kura Jaun ta Gurasuak umiak ondo komulgau ditezten?*



E: Txito andia: zerren bera dan zorioneko iturria, ondo egiten bada, ta zorigaistoko iturria deungaro egiten bada.

I: *Zer egin biar da ondo komulga ditezen?*

E: Prestetan asi biar dira mugonez, edo ordu onian, lau gauza eginaz.

1. Usadio, edo oitura gaistuak itxi, ta len baño bizitza obago bat eruan. Sarri ta utsik egin бага jua, edo bialdu dotrinara. Erregubakaz Jainkuari grazia esketia, ta biotza pekatu guztietatik garbitutia penitenzia-ko iturrian.

I: *Zeintzui itxi biar ez jake komulgetan?*

E: Dotrina eztakienai; gauza onetarako gogorik eztaukenei; usadio txarrak larga gura eztitubenai; lagun deungakaz batzen diranai; euren gurasuetarako obediencia-rik artu gura eztabenai; eta ondo eztatzen bai zer duazan artzera.

I: *Nun egin biar da lenengo komuninoia?*

E: Eleisa nagusian Kura Jaunaren lakez, ta aginduz.

I: *Zer egiten dau Diabrubak ondo komulgau garianian?*

E: Topau milla asmo, artu ditugun grazia, ta ondasunak galerazoteko.

I: *Zelan iraun eragin go deusegu grazia onei?*

E: Sarri komulgaubaz, astirik emoten ezteutsagula Diabrubari lakiuak ezarri, ta gu kastigetako.

I: *Beraz ondo da sarri komulgetia?*

E: Da txito ona, Santu guztiak esan, ta egitekaz erakutsi daben legez.

I: *Eta deungaro egiten dabe esan daruenak, obiago dala bakan, ta ondo komulgetia, sarri, ta deungaro baño?*

E: Txito deungaro: zerren errazago dan sarri egiten dan gauzia ondo egitia, bakan, edo gitxitan egiten dana baño. Baña onetan Konfessore zurrak jakingo ditu zer neurriak artu, edo zer mugariak ifini.

I: *Zeinbat ondasun ateraten dira sarri komulgaubaz?*

E: Iru dira jakinenak: An artzen da indarra aragiaren, ta Diabrubaren gurari, edo asmuen kontra

2. Bizitza onetako neke, ta naigaben arinbidia, edo pazienzia-ko igerotia.

3. Jainkuaren grazian egoteko, ta gauza onetan azkeneraño irauteko bitarteko, edo laguntasun andi bat.

I: *Zeinbat bider komulgetan ziran lenengo Kristinaubak?*

E: Egunoro, ta orregaitik ziran alakuak: Mai Santu onetatik urten eruen Leotzarren indarrakaz edozein martirio Jesu Kristo kurutzetubaren amodioz igaroteko.

I: *Nostik ona etorri da oraingo nasaitasun, ta aldantza negargarrizko dakus-
kun au?*

E: Sarri komulgetiari isten asi ziranetik.

I: *Eta ezipagara diña ain sarri komulgetako?*

E: Egin San Ambrosiok dinuana, au da, bizi egunoro artzeko dina garian moduban. Au da eguniango Ogia. Alanbere biurtuten naz esatera, Konfesorari jagokela zetaraño eldu.



Zazpigarren Ikasbidia

Mezako Sakrifizio Santuba

I: *Etzan Jesu Kristo gure Jauna Altarako Mai Santuban geratu gure janari izateko baño?*

E: Bai, an dago oraindino bere Aita Jangoikuari Sakrifiziuaren opae-gin, edo eskinia izateko biktima bat legeaz Sazerdotiaren bitartez.

I: *Nun opaegiten jako Jesu Kristo gure Jauna Aitari orretara?*

E: Gure Eleisetako altara gainetan Meza Santuba esatian.

I: *Zer da Mezia?*

E: Da Jesu Kristoren gorputz, ta odolaren Sakrifizio odol jauste bagako bat, Sazerdotiak Jainkuari eskini, edo opa deusana, ogiartauaren irudien aspian.

I: *Zetako itxi euskun Jesu Kristok Sakrifizio ori?*

E: Sakrifizio agiriko bat bere Eleisan largateko mundubaren azken, edo amairaino.

2. Berak kurutzte gainian eskini eban sakrifiziua gure artian jarraituteko.

3. Sakrifizio onegaz guri emon, edo egozteko kurutzeko Sakrifiziua-ren indarra, ta irabazimentubak.

I: *Jesu Kristo (sic) kurutzte gainian ofreziau, edo opa izan dau sakrifizio bat?*

E: Bai, kurutzeko eriotziaz eskini jakon gugaitik bere Aita Jainkuari.

I: *Zer egiten dau Meza Santuban?*

E: Jarraituten dau kurutzeko Sakrifiziua bera; ta eztago beste dife-renziarik, ezipada eskini moduban: esan gura dau, Jesu Kristo kurutzian eskini, edo ofreziau jakola odola botiaz, ta Meza Santuban odol botate baga Sazerdotiaren bitartez.

I: *Zelan enzun biar da Meza Santuba?*

E: Debozinoe txito andiaz, jarraituten ditugula Eleisiaren asmo, edo intenzinoiak.

I: *Zeintzuk dira orrek?*

E: Da Jainkuari biurretia zor jakozan adorazinoiak, ta eskumunak. Eregau, ta baketutia gure kontra euki leian aserria, ta geure utseginen par-kazinoia erestia. Eskatu Jainkuari biar ditugun mesede, ta graziak, esker andiak emonaz len artu ditugunak gaiti.

I: *Zelan ondo enzungo da Meza Santuba?*

E: Goguan ondo erabilliz Jesu Kristoren eriotza, ta pasinoia; Jaun au gomutaubaz Kalbario gainian balego legeaz, ta samurturik biotza gogora-tubaz, zer, ta zeinbat igaro zituban gure amodioz.

I: *Zeini eskiniten jako Mezako Sakrifiziua?*

E: Jainkuari berari bakarrik.

I: *Ez jake eskini, edo ofrezietan Ama Birjiniari, ta beste Santubei?*

E: Ez: bakarrik egiten da gomuta bat Santubak gaiti, emoteko Jainkuari eskerrak, onei egi eutsezan mesedekaz, ta euren bitartetasuna gure eskabide, ta erregubaz batzeko.

I: *Norentzat eskini daiegu Sakrifizio Santu au?*

E: Mundu onetan bizi diran Kristinauben ontzerako, ta Purgato-riuan dagozanai lagunduteko.

I: *Jakin gura gendukez Mezako Zeremonien adibidiak, edo zer adierazoten daben.*

E: Ara emen. Sazerdotia prestau, ta soñoko Santubak jazteko Sakristian sartzeiak esan gura dau, zelan Jesu Kristo Ama Birjiniaren Sabel gar-bian sartu zan, ta gure aragizko soñokua janzi eban, ta bere Sakrifiziua Aita Eternuari eskinitako prestau zan.

Amituba da burutik bera Sazerdotiak artu daruan estalki zuri bat; ta esan gura dau, zelan areriuak Jesu Kristori siñu egiteko, ta belarondokuak emoteko, arpegia estali eutsen.

Alba da buruti berako soñoko zuria, ta esan gura dau, zelan Kristo zuriz janzirik Erodesek burlaz Pilatosi bialdu eutsan. *Zinguluba* edo gerri-ko lokarriak, zelan soka gogorraz lotu eben.

Manipulu esker besokuak, zelan azotetako eskubak lotu eutsezan. Eskerrian artzen da Jesusen amodiua gugaiti azotak artzeian, ta guk zor deusagun amodiua erakusteko.

Estolia lepotik kurutzeturik artu darua, adierazoteko Jesus irugarren [aldian], kurutzia artzeko soka gogorraz lepotik lotu ebela.

Kasulla guztien gainian artzen danak esan gura dau, zelan burla, edo siñu egiteko granazko soñokua janzi eutsen; edo kurutzian josteko, zelan tunika jostura bagia kendu eutsen.



Zortzigarren Ikasbidia

Meza enzuteko bitarteko erraza

I: *Zeinbat parte daukaz Meza Santubak?*

E: Daukaz iru: Ofrendaraño bat; Komuninoeraño beste bat, ta azke-neraño bestia. Bata da sakrifizioko prestaeria; bestia ofrezu, konsagrau, ta komulgetia; ta irugarrena eskerrak emotia.

I: *Zelan da ondo Meza enzutia?*

E: Ara emen modu erraza: Jarri belauniko, zeinatu, ta esan erregu au: Neure Jaun andia: ez naz ni diña zure altara ondora urreratuteko; baña zure ontasunak nakar. Zure etxe, edo Eleisan sartuko naz, ta adoraiko zaitut neure biotz guztitik. Ona zuri jartorzun Sakrifizio, edo ofrenda bat, nun aginetan, edo eskintzen deusudan zure begietan dan ederrena, ta zure gloriarik andienerako.

I: *Zer esango da, Sazerdotiak Mezia asten dabenian?*

E: Aitiaren, Semiaren, ta Espiritu Santubaren izenian. *Ni Pekataria* etc al dan damurik andienaz.

I: *Zer esango da Kirielleisonetan?*

E: Jauna, errukitasuna, edo miserikordia nizaz; eta au bederatzi bider.

I: *Zer esango da Glorian?*

E: Aingerubak alabau dagiela Jauna zure ontasuna, zu jaio ziñanian legez. Nai dozu orain jaio gure arimetan graziaren bitartez. Alabetan zaitugu, bedeinketan, adoretan, ta gloriatuten zaitugu; opa deusuguz esker milla zeure gloria andiagaiti; geure erru, ta deungaro egiñen parkazinoia esketan deusugu. Jauna, miserikordia; bada zu zara Aitagaz, ta Espiritu Santubaz batian, gure Jesu Kristo, Jangoiko bakarra. Amen.

I: *Orazinoiak Sazerdotiak esatian, zer esango da?*

E: Jauna, zure Ministro onek esketan deusuna, nagotzu ni bere eske.

I: *Zer esango da Epistolia esan, edo kantetan danian?*

E: Geure Jaun ta Maisu bakarraren aurrian isildu bitez guztiak. Erdu, Jauna, zu, ta egidazu berba. Indazu neure ariman zeure Igarla, edo Profeta Santuben amodiua, zure eskini ederrak kunpli, edo bete ditezan.

I: *Zer Ebanjelioko denporan?*

E: Lurreko bide errukarri onetan nabillen artian, Jauna, gauza biren biarra daukat. Argitasuna, ta janaria. Ez arren onek niri ukatu. Zure

Ebanjelioko erakuste ederrak zuzendu begiez niri oñats, ta ibillerak; ta zure gorputz Jangoikozkua izan bedi nire arimiaren jaki osasuntsuba, utsegi eztaidan Zeruko bidian, edo argaltasunaz geratu ez nadin biderik ezin eginda.

I: *Zer esango da Kredoko denporan?*

E: Sinisetan dot Aita Jangoiko etc edo Kredua.

I: *Zer ostia, ta kaliza eskini, edo ofrezietan diranian?*

E: Egin biotzaz zuk bere beste ainbeste, ta esan. Zeru goietan zagozan Jangoiko andia: opa deusut zeure Seme Maitiaren Sakrifizio au Sazerdotiaz batera zure gloriarik andienerako; niri, ta mundu guztiari egini-ko mesediak gaiti eskerrak, ta ordia emoteko, neure, ta lurreko guztien pekatuben eranzute, edo satisfazinoerako; neuretzat, ta neure obligazino-eko guztientzat eskatu gura, edo biar ditudan mesede, ta grazia guztiak zugandik erakarteko zeure Seme, ta gure Jaunagaiti. Amen.

I: *Zer Orate Fratres, edo jirabira bategaz gure Erregubak Sazerdotiak esketan ditubanian?*

E: Zure Semiaren Sakrifizio au Sazerdotiaren bitartez, edo eskubetatik aregizu, Jauna, zure alabanza, gloria, ta gure onerako, ta Elisa Ama Santiaren probetxurako.

I: *Zetako esaten da Prefaziua?*

E: Biotzak zerura jasoteko, ta Aingerubakaz Jangoikua alabetako.

I: *Zer esango da orduban?*

E: Sazerdotiak dinuan legez, nik bere alabetan zaitut, Jauna, Aingeru guztiakaz; ta bada gugana etorri gura dozu biotzeko ondo etorri, ta bedeinkazinoe guztiak emon nai deusudaz. Santuba, Santuba, Santuba, ta gloriáz betia zara guretzat, Jauna zuria da Gloria.

I: *Mementuetan, edo Sazerdotiak eskubak batuta isillik goretan danian, zer esango da?*

E: Zure Seme Jesu Kristo gaiti esketan deusut, Jauna, Eleisa Santiagaiti, Aita Santu, gure Obispo, ta Errege ta Kristinau guztiak gaiti; neure guraso, senide, ongille, arerio, ta pekatu mortalien dagozanak gaiti, zure graziara biurtu, ta zure lege, ta amodio Santuban guztiok beti bizi gaitian.

I: *Konsagrazinoeko berbak esanda, ta ostia Santuba Sazerdotiak jasoten dabenian, zer esango da?*

E: Adoretan zaitut, nere Jesus maitia, ta Ostia Santu orretan dazaut zure gorputz beneragarria, Kurutzeko Altaran Mundu guztia erosteko diña izan zana, Sinisetan dot or zagozala.

I: *Zer kalizia goratutian?*



E: Adoretan dot, Jauna, zure odol miragarri gure amodioz Kuru-tzian bota zendubana, ta gure arimak garbituteko zuk emona; odol prezioz beteriko orretan itxaraten dot Jauna neure erru, ta deungaro egin guztien parkazinoia.

I: *Zer gero Pater noster artian?*

E: Zuk nai dozun legez, Jauna, eskinetan deutsut Sazerdotiaz batera Sakrifizio au zure Semiaren Pasinoe, Eriotza, bizte, ta Zeruko igoera gloriaz betiaren izenian. Ostia garbia, Ostia Santuba, Ostia mantxa bagia. Begira, Jauna, ez guri, ezpada zure Seme Maite oni, zure bedeinkazinoiaz onegaz bat egin gaitian. Gomutau zaitte, Jauna, Purgatorioko arima gaisuakaz, ta atera egizuz Sakrifizio Santu onen bitartez dagozan leza suzko atatik, ta eruan eizuz zeure gloriara.

I: *Zer esango da Pater noster, edo Aita guria esatian?*

E: Geuk esan beste ainbeste astiro.

I: *Zer esango da Agnus Deian?*

E: Jainkuaren bildots garbi, munduko pekatubak kendu daruazuzan Jesus ona, erruki zaitte guzaz; au iru bider, ta irugarrenian geituten da, iguzu zure bakia.

I: *Komuninoerako Sazerdotia prestetan dan artian, zer esango da?*

E: Zu zara Jauna gure bakia; iguzu bada guri, ta Eleisa Santa guztia-ri Apostolubei emon zeuntsen legez; atera gaizuz geure gatx, ta galbide guztietatik; zure borondatia beti egiteko, ta zugandik inoz alderik ez egiteko grazia iguzu. Alan izan dedilla.

I: *Zer esan leite Domine non sum dignusian?*

E: Jauna, eztot nik merezi, zu neure biotzeko etxian sartzea; baña esaizu berba bakar bat, ta osatuko da nire arimia. Au esango da iru bider, ta Jainkuaren grazian bazagoz (Jaunari nai eztakiola besterik) egizu espirituko komuninoia, artzeko gurari bizi bategaz.

I: *Zer egingo da Komuninoe ostian azkenengo Ebanjelioraño?*

E: Emon Jainkuari esker andiak Sakrifizio atan parte euki dogulako, artu bedeinkazinoia, ta azkeneko Ebanjelioraño esan: Jauna, zu artzen zaitubana zeure Seme, edo Alaba egiteraño jasoten dozu. Arren egidazu niri bere mesede au, eta aragiaren kate, ta makurtasun guztietatik atera nagizu, zure graziaz konfesinoeko Sakramentubaz barriro jaio nadin zuretzat, ta zure komuninoe gogozkua Fede bizi, ta amodioz beti artu dagidan. Orra emen, Irakurle maitia, Mezako, ta Eleisako orazinoiak zuk gura, ta biar dituzun modu laburrian, ta Jainkuak erakusten dituban legez.

I: *Egite andia da Meza enzutia?*

E: Bai ondo enzuten daba; baña pekatu mortalien enzutia, batez bere eypadago pekatutik urteteke gogorik, da Jesu Kristori siñu, ta koko egitera eltzea; jarri belauniko, Judegu madarikatubak legez, jagita laster belarondokuak emoteke.

I: *Zer egin biar dabe baserriko jente, Mezarik astegunian enzun ezin dabenak?*

E: Euren lan, ta biarrak goisian Jainkuari eskini; artu gogua, ta asmo santu bat esaten diran Meza guztiak enzuteke, Meza bakotxa ikusten balegoz legez.



Bederatzigarren Ikasbidia

Sakramentu Santu Konfesinoekuaeren gainian

I: *Zer da Penitenziako Sakramentuba, edo konfesinoia?*

E: Da Sakramentu bat, zeinek parketan dituban, batiatu ezkerro egin ditugun pekatubak.

I: *Zeinbat Parte daukaz sakramentu onek?*

E: Iru: Damuba, Konfesinoia, Ordetasuna, edo Satisfazinoia.

I: *Zer egiten dau Sakramentu onek?*

E: Parketan deuskuz geure deungaro eginak, ta baketu, edo adiski-detuten gaitu Jainkuaz, emonaz grazia Santuten gaitubana.

I: *Zer pekatu mueta parketan dau Sakramentu onek?*

E: Eztago pekatu parkatu ezin daikianik biar dan legez artzen bado-gu; baña onek dauka ultzia.

I: *Eta parketan dau pekatubari zor jakon kastigu edo penia?*

E: Bai betikua, edo infernukua, baña ez guztiz denporazkua, edo Purgatoriokua.

I: *Zelan jaretsiten da Purgatorioko neken parkazinoia?*

E: Jainkuaren amodioko berotasunaz, penitenziako egitekaz, ta Induljenzien bitartez.

I: *Pekakubak parkatuta, zer ateraten dogu Sakramentu onetatik?*

E: Iru grazia: biurtuten deusku pekatubaz galdu genduban Zerura-ko Eskubidia.

3. Emoten deuskuz indarrak Diabrubu goituteko, zeinek nai leuske-gu osteru jausi eragin pekatuban.

4. Biztuten dau barriro lenagoko egite onen meritu, edo irabazi-mentuba, zein galdurik eguan pekatubaren bitartez.

I: *Zelan biztuten ditu lenagoko egiten (sic) onen meritubak?*

E: Gu Jainkuaren grazian ifiniaz, ta grazia onen bitartez bizitzia emonaz illik egozan egite onai.

I: *Eta konfesetan diran guztiak atera daruez onenbeste ondasun?*

E: Ez eltzen ezpadira biar diran disposizinoe, edo prestamentubakaz.

I: *Zer esan daikugu biar diran pretaketa baga konfesetan diranak gaiti?*

E: Esan daikugu, egiten dabela pekatu eskerga, ta ikaragarri bat, zeini deituten jako sakrilejiua, ta oraindino ikaragarriagua, azartuten badira jua-ten komulgetara.

Amargarren Ikasbidia

Kontrizinoia, edo Damuba

I: *Zer da kontrizinoia, edo Damuba?*

E: Da pekatuben garbai, edo naigabe sendo bat, geiago ez egiteko asmo, eta gogo egiazko bategaz.

I: *Zer da asmo edo gogo egiazkua?*

E: Da benetako gurari, edo borondate bat aldegitoko pekatutik, ta pekatuben bide guztietatik.

I: *Onelako gogo edo propositu baga izan leite egiazko konfesinoia?*

E: Ez: ta orregaitik egiten dira ainbeste konfesinoe deunga.

I: *Zetan igarriko jako propositu, edo asmo egiazkua daguala?*

E: Iru gauzatan: iges egiten bada pekatuben bide, edo okasinoietatik, nola diran lagun gaistuak, Neska Mutillen arteko batzar, ta bigira infernukuak, ta beste asko.

I: *Zer da pekatuko bide, edo okasinoia?*

E: Da egite, egoera, edo ibilleraren bat, zeinetan jarririk gauza txito gatxa dan pekatu ez egitia, dala berez, edo gizon zenzudunen iritxian, dala bakotxak bere argaltasunari begiratura.

I: *Eta aldegiten ezpada onelako borondatezko pekatu bide, edo okasinoetatik, ondo konfesau leite?*

E: Ez, ta egingo dabe pekatu ikaragarri bat onelakuak absolbietan ditubezan Konfesoriak.

I: *Zer agindu biar deutse bada absolbiu baño lenago?*

E: Urten dagiela alako etxetik; iges egin dagiela bestelako lagun, ta ibillera txarretik, ta ez sinistu emon daruezan berbai, ta bota daruezan negarmalkuai, ta zizpuru larritasunak aterai.

I: *Zer egin biar dau Otsegin, edo Serbitzari Andrakume batek dakusanean bere Ugazaba, etxeko Seme, edo Morroeren batek pekatutako tentetan dabela, edo modu txarrian erabilli daruela?*

E: Eztago bildots bat ondo, ta seguru toki baten Otso gosesto bategaz, ezta alako neskatiilla gaisuak bere infernuko otso onen atzamar artian; eta alan eskatu laster konsejuba Konfesore jakintsu bati, ta egin aginduten deusana.



I: *Eta balioko dau askok emon daruen atxakia onek: Jauna, zer susmau, ta esango da Errian, urtia amaitu baño lenago urteten bado? jasoko dira esames, ta murmurazinoe andiak?*

E: Ezin igaroko da Jesu Kristoren Aditzain, edo tribunale zuzenian, zeinek aginetan deuskun oiñak ebateko, ta begiak aterateko; esan gura dau, ez gauzarik maite, ta biarrenari bere parketako, pekatu bidian bagaukez. Deungaro jaten emon, edo gogortasun andiaz Ugazabak tratauko balituke, laster litzatez etxetik kanpora, zer esanai begiratu baga. Baña ari-miaz ardurarik eztago, ta orregaitik dagoz ainbeste atzerapen gauza on, ta biarretarako.

I: *Zer egin biar da onez gainetik ondo konfesetako?*

E: Itxi, edo kendu usadio, edo oitura txar guztiak; nola dirian pensamentu loietan borondatez gozatutia, eskuka zikinak bere burubaz, edo besteren bategaz eukitia, ta onelako beste gauza asko.

2. Bizitza on bat eruateko bitarteko, ta neurri senduak artu.

I: *Nortzuk adierazo darue eztaukela egiazko gogo, edo borondate sendorik bizitzia obetuteko?*

E: Konfesau onduan lengo pekatubetara, ta ekandu deungetara biur-tuten dirianak, batez bere laster bada.

I: *Zer izen emoten jako pekatu mueta oni?*

E: Bir jausteko pekatuba, edo pekatura ostera biur-tutia.

I: *Pekatu andiagua da au bestiak baño?*

E: Bai, zerren dan eskergetasun txito andi bat, ezaguera, edo maliazko (sic) pekatuba, ta Jainkuaren desprezio andiagua.

I: *Zelan ori?*

E: Zerren artu ezkerro Jainkuaren grazia, ostera lengora biur-tuten bada, adierazoten daben, obato juakola pekatubaren aginte, ta gozotasu-naz, Jainkuaren adiskidetasunaz baño.

I: *Zer dino San Pedro Apostolubak pekatura biur-tuten dirianak gaiti?*

E: Dino diriala txakurrak, ta belarluziak legez euren janak atera, edo errebesau ezkerro barriro jaten ditubelako, ta garbitu onduan biur-tuten dirialako etzitera pekatuben zikintzan.

I: *Zegaiti da ain bildur izatekua barriroko pekatu jauste au?*

E: Gauza askogaitik: zerren pekatubakaz gogortuten jaken biotza Jainkuaren deietara.

2. Zerren prestatan dituban penitenzia bagako eriotzara.

3. Eta zerren jarten dirian pekatuben neurria beteteko zori, edo peli-gruban.

I: *Zer da pekatuben neurri au?*

E: Da Jainkuak pekatubai ifini deutsen mugarria, zeinetara eldu ezkerro eztago aurrera igaroterik.

I: *Zer jazoten da neurri au bete ezkerro?*

E: Lasterko eriotza deunga bat, edo Jainkuaren jaramonik eza one-lako Pekatariet, isten ditubala euren gurari gaistuen eskubetan, ez emonaz penitenziako grazia senduak, zeintzuk baga eztan inñolabere salbauko.

I: *Zegaitik bada bizi dira asko ain ardura gixigaz, ura legez pekatubak eda-ten ditubela?*

E: Zerren pekatuben gaistakeria, ta illuntasunak itxuturik dabil-tzan; orregaitino egin daruez konfesinoe sakrilejioz betiak.

I: *Zeinbat gauza, edo kondizinoe biar ditu bada Kontrizinoe, edo Damubak, onak (sic) izateko?*

E: Biar dira lau: geurez gainekua, edo Zerukua, Barrenekua, Guztie-na, ta Sendua.

I: *Zer da damu Zerukua, edo geurez gainekua?*

E: Da Espiritu Santubaren mobimentutik, ta Fediak dakuskuzan gauza, edo geietatik, jatorkun pekatuben naigabe, edo garbai zinzo bat.

I: *Mundu onetako gaxten bildurrez artzen dan damuba, asko ete da Konfesi-noe on bat egiteko?*

E: Ez, zerren bildur mueta au dan geurez jatorkuna Espiritu Santu-baren parte baga, ta eztarua kendu biotzetik pekatubaren gurari guztia. Onelakua da Neskatiilla askok euki daruen damuba euren donzellatasuna galduta: zerren munduko oneretsi, edo onria galdu daben, edo ukatu deu-tselako ezkon berbia.

I: *Zer da barreneko damuba?*

E: Da pekatubaren naigabe, ta iguin ez irudi utsekua, ezpanetakua, ezpada biotzetik datorrena.

I: *Pekataria geienak eriotzako gaxian artu daruen damuba, zelakua izaten da?*

E: Aozkua, azalekua, ta bildur utsekua.

I: *Zegaiti alan?*

E: Zerren deungaro bizi diranak geienez deungaro ill oi diran.

2. Zerren darakusezan damu seinaliak, nola diran, kurutze munak, zizpurubak, begi jasotiak, geiago sortu oi dira Jainkuaren aurrera agertu-teko (sic) biarreko, ta infernuko tormentu, edo nekabidien bildurretik, barruko egiazko damu, ta Jainkuaren amodiotik baño. Orregaitik dino San Agustinek, bildurtuten zaitu infernuko subak, eta ez pekatubak. *Times ardere, non peccare*.

I: *Zer jazoten jake onelako errukarriet?*



E: Txakur autzian aragi zati ostubaz doianari jazoten jakona, zeinek itxi darua autzetik, ez goguaren faltaz, ezpada makilliaz norbait atzetik dabelako.

I: *Zer da damu guztiena?*

E: Da pekatu mueta guztietara eldu, edo zabalduen dan gorroto benetako bat.

I: *Euki leike batek egiazko damurik pekatu batzuketarako, guztietarako euki bage?*

E: Ez; zerren ez leuke damurik artuko Jainkuaren ofensia, edo nai-gabiagaiti; bada edozein pekatu mortalek ofendietan dau txito asko gure Jainko ona.

I: *Pekatu benialik baño egin eztabenak, konfesau leite euren damu bage?*

E: Ez, euki biar dau damuba; ezpada ezaguera osuaz bada damurik ez eruatia, izango da Sakrilejiua. Onelakuak egin biar dabena da, nosbait egin dabene pekatu mortalen bat damu geitzat konfesinoian ifini; ta inoz pekatu mortalik egin ezpadabe, damutu pekatu benial mueta gorrotorik geiena emoten deusnaz.

I: *Beraz euki leite pekatu benialen baten damu egiazkoa, besteren batzuben euki bage?*

E: Ezta askok uste dabene baisen erraz: alanbere bai, pekatu benial damu ditubala deritxazan aek ezaiñaguak badira bestiak baño, edo oituz, ta usadioz egiñak.

I: *Zer da damu senda, bizi, edo eragillia?*

E: Da damuari bat, zeinek iguinarazo, edo gorrotau eragiten deus-kun pekatuba, beste kalte, ta gatx guztiak baño geiago.

I: *Beraz damu, edo atsakabe geiago artu biar dogu, zerren Jangoikua ofendiu dogun, eze ez zerren galdu ditugun gure ondasunak, senidiak ta munduban ditugun gauzarik maiteenak?*

E: Bai: zerren pekatuba dan gatx, edo kalte guztietatik andiena, ta bildurgarriena.

I: *Ze bidetik izango dogu egiazko damuari bat?*

E: Jainkuari biotz osotik, ta humiltasun andiagaz eskatuta.

2. Geure aldetik egiñaz alegiña pekatuben damuba artzeko.

I: *Zegaz baliauko gara orretako?*

E: Gomutaubaz astiro geure artian, ta leku bakar batera juanaz, zein ona, ta maitagarria dan guk ofendiu dogun Jangoikua.

2. Zeinbat mesede artu ditugun bere esku errukitsubetatik, ta guk berari erakutsi deusnaz eskergabetasuna.

3. Jesu Kristoren Pasinoia, ta eriotzia, zein erakarri eutsen gure pekatubak.

4. Guk galdu dogun Zeruba, ta merezi izan dogun Infernu betikua atsegin zital beinguan igaro zan bategaiti.

I: *Zeinbat kontrizinoe, edo damu modu dira?*

E: Badira bi: damu osua, ta damu ez osua. Lenenguari deritxo Kontrizinoia, edo Ondamuba, ta bigarrenari Atrizinoia, edo Bildur damuba.

I: *Zer da damu osua, edo Kontrizinoia?*

E: Da pekatubaren gorroto andi bat ofendiu dogulako Jangoikua, izanik ain ona, ta maitagarria.

I: *Zeintzuk dira damu onen egikizun ta ondoringuak?*

E: Ifiten dau pekataria Jainkuaren grazian konfesau baño bere len, baldin badau konfesetako gogo, edo borondate zinzo bat.

I: *Zer da atrizinoia, edo Bildur damuba?*

E: Da pekatubaren gorroto andi bat, zerren ofendiu dogun Jainkua, gomutaurik pekatubaren ezaintasuna, galdu dogun Zeruko gloria, ta beti iraungo dabene infernuko neke ikaragarriak.

I: *Asko da Infernuko bildurra egiazko damu bat eukiteko?*

E: Ez: zerren Diabrubak bere bildur dira, baña eztauke damu Espiritu Santubaren graziatik jatorkenik.

I: *Zelan bada artu geinke damu osasuntsu bat Infernuko penak gomutauta?*

E: Aterarik kontuba, zein andiak izan diran Jainkuaren errukitasun edo miseriakorde gorde dabelako Pekataria Infernura botatzaka ainbeste bider mereziurik; zelan itxaran deusnaz penitenzia egiteko. Onelan Infernutik jaso biar dira Fedeko begiak Jainkuagana, ezpada bildurtuko gaitu subak, damutu bage pekatuba: *times ardere, non peccare*, dino San Agustinek.

I: *Zegaitik esaten jako damu oni damu ez osua?*

E: Zerren eztabene berez ifiten grazian, pekatuban daguana; bakarrik prestetan dau penitenziako Sakramentuban artzera santututen dabene grazia, ta pekatuben parkazinoia.

I: *Zeinbat gauzak lagundu biar deuse damu oni prestetako Sakramentuban artzeko grazia?*

E: Kendu biar dau pekatu egiteko borondate guztia.

2. Euki biar dau parkazinoiaren uste bizi bat, ta asi biar dau, Jainkua maite izaten, justizia guztiaren iturria legez, dira Trentoko Konziliuaren berbak, *ut ilium tamquam omnis iustitiae fontem dilligere incipiant*.

I: *Zer amodio, ta maitetasun da ori?*



E: Eleisiak daukaz Erakusle jakitunak eranzun daikenak itaune oni. Guretzat asko da egiazko pekatuben damubaz, ta biotza Jainkuagana benetan birutubaz Konfesinoera urreratutia. Ez gara larritu biar teologu askoren eztabaidak enzunda. Espiritu Santubak dino, Jainkuaren bildurra dala bere amodiuren asieria. *Timor Domini initium dilectionis*. Orregaitik uste izateko da, beti daguala amodio muetaren bat, egiazko konbersinoe, edo biurreria daguan biotzian.

Amaikagarren Ikasbidia

Aozko Konfesinoia

I: *Zer da Konfesinoia?*

E: Da Sazerdote aprobau, edo ontzat emonda daguan bati egiten jakon pekatuben agertamena, edo deklarazioa, absuluzinoia artzeko ustiaz.

I: *Zeinbat gauza, ta zezilidade biar dira ondo konfesetako?*

E: Biar dira bost: lenengua bakotxak alegiaz bere pekatubak aztertu, edo burura ekartia.

2. Bigarrena artzeia damuari sendo bat: zerren ofendiu dogun geure Jangoikua.

3. Irugarrena eukitia asmo bizi, ta zinzo bat, ez geiago pekatu rik egiteko, ta pekatu bide guztietatik aldegitoko.

4. Laugarrena, esatia artez, ta osoro pekatu mortal guztiak geure artian dazauguzan legez.

5. Bostgarrena Konfesorik emoten deitsan penitentsia atxakian, ta atzerapen andi baga egitia.

I: *Konfessore ontzat emonda dagozanen artian, zein autu biar dogu?*

E: Jakituria, ta birtuterik geien daukana, ta arduratzaka egia, ta onduen jagokuna, esango dabena.

I: *Obe ete da beti Konfessore bategaz konfesau?*

E: Bai: zerren obeto, beste guztiak bardin diriala, osatuko dau gaisua Mediku artu, te ezagun batek, ezta zaubanak baño. Alanbere ondo izango da noisian bein arduratzaka besteren bategana juatia, batez bere lotsa andi, edo lotutasunen bat badaukagu Konfessore artubaz. Au ez eginagaiti jazoten dira ainbeste konfesinoe sakrilejiozko pekatubak lotsaz konfesau baga itxita.

I: *Zeintzuk merezi eztabe absuluzinoerik obetu artian?*

E: Dotrina eztakienak.

2. Bere lagunaz baketu gura eztabenak.

3. Jaubiari ostuba biurtu nai ezteutsanak, ta lenago sarritan eskinita luzamentubetan dabiltzanak.

4. Bekatuko ekandu, edo usadio txarrak kentzeko alegiña egiten eztabenak.

5. Pekatu bide, edo okasinoetik urte gura eztabenak.



I: *Zeinbat beste leta, edo kondizinoe euki biar ditu konfesinoiak onak (sic) izateko?*

E: Dira iru ezagunenak: izan biar da humildiak, zinzuak, ta osuak.

I: *Zer esan gura dau Konfesinoe humildiak?*

E: Esan gura dau, geure utsegiñak agertu biar ditugula lotsa moduren bategaz: zerren Jainkua ofendiu dogun; ta ez esan ipuinak balira legez.

I: *Zer esan gura dau Konfesinoe zinzuak?*

E: Esan gura dau, konfesa orduban eztitugula ez gitxitu, ez geitu biar pekatubak, ezpada esan zinzotasun andiaz dirian legez.

I: *Zer esan gura dau Konfesinoe osuak?*

E: Esan gura dau osoz konfesau biar ditugula pekatu mortal guztiak, batpere itxi бага.

I: *Pekatu benialak konfesetako bago obligazinoerik?*

E: Ondo da; baña ezta gauza biarra: eta alan berariaz, ta lotsaz itxi-ko balitz bere pekatu benial ziertu, edo jakina, ez legoke konfesinoe deungarik.

I: *Asko da agertutia egin ditugun pekatu mortalen mueta, edo espezie alkarri ez jagokazanak*

E: Ez, esan biar da, zeinbat ziran al badau, baita (beintzat zinzoro ebilli gura dabenak) kuren juaetorri, zirkunstanzia, edo zertzilidade pekatuba azi edo asko geituten dabenak. Orregaitik esan biar da, ez bakarrik ostu dogula, ezpada zeinbat alditan, baita zeinbat bere, askora igoten badau. Bestela zelan jakingo dau Konfesorik zer penitencia emon, ta zer erantsi? Aragizko pekatuben bat egin dabenak, pensamentuz baño egin ezpada bere, esan biar dau zan ezkondubaz, Persona konsagraubaz, libriaz.

I: *Zer esan biar dogu lotsaz, edo bildurrez pekatu mortalen bat, edo esan biar zan zirkunstanziaren bat isildu daruenak gaiti?*

E: Esan biar da Diabrubak samia katigatu, ta estututen deusela, ez agertuteko Konfesorik.

2. Egiten ditubela sakrilejio pillo asko, atara konfesau, ta komulgetan dirian artian.

3. Salbauko ezin diriala, isiltzen egon dirian denpora guztiko Konfesinoe oso, edo jeneral bat egiten ezpadabe.

I: *Zelan puztu, ta animau biar dira errukarri onek euren pekatuak ezainnak, ta ikaragarrienak agertutera?*

E: Sinistu eragiñaz, ezin esan leikela Konfesorik konfesinoian enzuniko pekatuak, laba gori baten sartuko balebe bere; ezteutsala mukertasunik, ta arpegi len baño illunagorik erakutsiko.

2. Eginda dagozala Konfesorik pekatu andiaguak enzutera, ta bereztat izango dala gozamentu andia, estadu negargarizko atatik ateratia.

3. Urten biarko dabela Juizioko egunian, ta mundu guztiauren aurrian, orain gizon bati bere belarrira esan gura eztituban pekatubak.

4. Konfesau eraingo deusazala Infernuban Luziferrek, Demonio guztiak danzubezala.

I: *Zeinbatek dakiez isilduten dirian, ta ezkutuban egin ziran pekatubak?*

E: Edolabere bai iruk: Jainko juzgauko gaitubanak; Diabru salatu, edo akusauko gaitubanak, ta Aingeru Jaola edo Guardako negarrez daukagunak.

I: *Zer modutan konfesauko dau erraztuen isildu daben pekatuba?*

E: Juanik ardurarik gitxienaz esango deus Konfessore jakitun bati (erbestekua bada bere) ta esanaz: Jauna lotsa andi bat daukat, neure pekatubak agertuteko, ta lagundu begit bedorrek. Berba onek enzunda, itanduko deus Konfesorik amodio andiaz, zer pekatu dirian; zeinbat denpora isilletan dituban, ta bere laguntasunaz errebesauko dituzu dirianak, ta geratuko zara kezka бага, ta baketasun andiaz. O zeinbat arima errukarri doiazan infernura lotsaz itxiriko pekatubak gaiti! Zeinbati gomutetan jakez umetan eginiko zirimonia, ta ibilketa txarrak, ta dagoz esatera azartu ezin da, ezta baida, ta kezka andienetan; kendu nairik buruti esanaz bere artian etziriala pekatu mortalak izango; baña ezin arantzia guztik (sic) kendurik! Eta deungena da, geitubaz juakela lotsia, ta eriotzako konfesinoietan bere iruntsi oi diriala.

I: *Pekatu mortal dudakuak konfesau biar dira?*

E: Bai, konfesorik juzgau daizan, ta jarri ez gaitezkan Konfesinoe deunga bat egiteko arriskuban.

I: *Zer egin biar da gauzak zuzen konfesetako?*

E: Ondo, ta astiro ingurau konzienziako jira bira, ta bazterrak.

I: *Zeren gainian egingo dogu billakuntza, azterri, edo esamina au?*

E: Jainkuaren, ta Eleisako aginduben gainian.

2. Geure estaduko eginbide, edo obligazinoien gainian

3. Izaten garian lekuben gainian

I: *Eleisan sartuta zer egin biar dogu Konfesorikaren oñetara eldu baño len?*

E: Iru gauza: Jainkuari eskatu ondo konfesetako grazia.

2. Aztu eztagiguzan, pekatubak barrero gogoratu.

3. Biztu biotza damu andi bat artzera.

I: *Zer egin biar dogu Konfesorikaren oinetan garianian?*

E: Iru gauza: egon biar dogu modestia andiaz, Konfesorikari begiak ezarri бага.



2. Gomutau Fede bizi bategaz, an gagozala Jesu Kristoren oinetan legez, zeinen lekuban dagan Konfesoría.

3. Zeñiatu arreta andiaz, ta gorputza makurturik, esan biotz osotik, ta damu andiaz, *Ni Pekataria*; eta gero berak akusau gura badau, esan: onenbeste edo ainbeste egun dira, ni konfesau nintzala, konpliu neban penitencia, ta egin nituban, edo ez, dana dan legez, Konfesoríaren agin-dubak. Badakart damuba, neure Jainkua ofendiu dodalako. Akusetan naz; emen esaten dira bere utsegiñak.

I: *Eta lenagoko Konfesinoietan azturiko pekatubak, esan biar ete dira urren-go gomutau jakuzanian?*

E: Bai, ta esan biar dira aztubak ziriala.

I: *Eta pekatu mortal, edo dudakoren bat konfesaute laster gomutetan bajaku, konfesau biar ete da komulgau baño lenago?*

E: Alan egin darue Kristinau onak, ta eztago eskandalurik, Konfesoríaren oiñetara atzera biurtu arren; zerren au egin darue dirian onenak, ta geien esan daikena da, dala konziencia begiraturik.

I: *Zer egin biar dogu geure Konfesinoia amaituta?*

E: Enzun gogo, ta borondate osuaz Konfesoríaren agindu, ta konsejubak. Artu poz andiaz emon deuskun penitencia. Barristau pekatu guztien damuba, ta esan absolbieran gaituban artian *Neure Jesu Kristo Jauna*. etc.

I: *Zer egin biar dogu Konfesoríaren oiñetatik urtenda?*

E: Lau gauza: emon Jainkuari eskerrak artu dogun mesediagatik.

2. Ainbat lasterren egin emon jakun penitencia.

3. Goguan erabilli Konfesoríaren enkargubak.

4. Baldin errazoeren bategaitik beste aldi bateraño luzatu badeusku absoluzinoia, biurtu beragana agindu euskun denporan.

I: *Zein da ondo konfesetako bitartekorik onena?*

E: Aldi bakotxian konfesetia, konfesaute beriala ill biar bagendu legez.

Amabigarren Ikasbidia

Satisfazinoia, edo Ordia

I: *Zer da Satisfazinoia?*

E: Da Jainkuari, edo lagunari egiten jakon biurrera, edo barristazinoe bat emon geuntsan naigabe, edo injuriaren bategaiti.

I: *Konfesinoe on bat egiteko biar dogu artu asmo sendo bat, biurtuteko Jainkuari penitentiaren bitartez pekatubakaz kendu geuntsan onria, edo emon geuntsan naigabia?*

E: Bai, ta asmo au бага eztau balio Konfesinoiak.

I: *Zegaitik egin biar da penitencia, Konfesinoian pekatubak parkatu badira?*

E: Zerren eztan beinguan parketan, pekatubai zor jaken kastigu denporazkua, zein igaro biarko dogun edo Mundu onetan, edo Purgatorian.

I: *Zelan emoten jako Jainkuari pekatuben orde, edo satisfazinoia?*

E: Penitentiako egitekok (sic), baturik Jesu Kristoren eriotzako erabazimentu edo meritubakaz.

I: *Ze egite dira orrek?*

E: Konfesoríak emon daruazan penitentiak: nola dirian orazinoiak, barubak, ta limosnak, ta onen izenian adietan dira beste nekaldi, ta gauza on guztiak.

I: *Zelakuak izan biar dau penitentiak?*

E: Pekatuben ereduak aleginez, diño Konzilio Trentokuak.

I: *Ze penitencia dira onak murmuragille, biragille (sic) ta lagunaren kontra ernegu, edo maldizinoe deungak botaten ditubenentzat?*

E: Ito dagiela aserria lenengotik.

2. Arrastau daiela lurra miñagaz egiten daben bakotxian.

3. Egin daiela akto Kontrizinokua belauniko, ta besuak zabalik.

4. Emon daiela limosnaren bat, dirudunak badira.

5. Gomutau eragin euren miña egiña dala Jainkua alabetako, ta ez gaiski esaka inarduteko; Jesu Kristo atseretako, ta ez zikinduteko berba loi, ta ernegariakaz.

I: *Zer penitencia emon biar jake areriotasunian, ta gorrotuan bizi dirianai?*

E: Baketu deitezala areriuakaz; egin daiela eurak gaiti orazinoe, naiez guztiai enzuterik emon бага, astu deitezala artu daben naigabe, edo injuriaz; gomutetan diriala zeinbat geiago parkatu deuten eurai Jainko sarritan ofendiu dabenak.



I: *Zer jokolari deunga, edo biar eztan beste joketan dabenai?*

E: Irabazten daben erdia emon daiuela premian dagozanai.

I: *Zer ordi, edo edaiai?*

E: Ifini edango daben neurria, nola dan igaro eztitezela arratsalde bakotxian kuartillu batetik.

2. Eragotzi tabernan sartu ditezala San Karlosek dinuan legez.

I: *Aragitsu, edo deshonestuai, zer penitentzia emongo jake?*

E: Onen zauriak eztira osabide, edo erremedio arinakaz osatuko, eta alan emon biar jake.

I: Ordu laurengo egunoro Orazinoia Infernuko tormentuben gainian, gomutau ditezten, zer negar garratzak etorriko jakezan beti betiko, beinguan igaro zirian atsegin zikinak gaiti; eriotziaren gainian, gomutau ditezten zelan arren jaki izango da (sic) orain gozatu gura leuken gorputz ustela.

2. Egin daiezala baruren batzuk al badagie, akto kontrizinoeko asko egun artian, sarri konfesau ta guztien artian biarrena, aldegin lagun, ta ibillera zatar, ta peligruzkuetatik.

I: *Andiak dira oraingo Konfesorik emon daruezan penitentiak?*

E: Ez, dirian Konfessore begiratubenak emoten ditubenak bere.

I: *Zer penitentiak emon eruazan Eleisiak lengo denporetan?*

E: Ona emen batzuk.

Juramentu guzurrezkua egitebanari, berrogi (sic) eginian ur ta ogi utseko baruba, ta zazpi urteko penitentzia. Jaiegunian biar egiñagaiti bakoitxe ur ta ogiko iru baru.

Eleisaurrian edo Jaiegunetan danzan ebiltzazanai iru urteko penitentzia.

Eleisan barriketan egoten zirianai amar eguneko ur, ta ogiko barubak.

Eleisako baruren bat austen ebanei, ogei eguneko baru gogorra.

Gurasoen bati maldizinoia ezarte eutsanari berrogei eguneko ur ta ogiko baruba. Lotsia gogortasunaz galtzen eutsenei, iru urteko penitentzia, ta zazpikua eskuba jasoten eutsenei.

Bere Kura Jaunaren agindubei barre egiteutsanari, berrogei eguneko ur, ta ogiko baruba.

Seña borondatez galdu daben Andrakumiari amar urteko penitentzia.

Bere Emaztiagaz bide okerreko zikinkerian bat egin daben Senarrari berrogei eguneko penitentzia.

Seigarren Mandamentuko pekatuban jausten zan Mutil, edo Neskatilliari, urte osoko penitentzia.

Andra ezkondu besteren bategaz pekatu egitebanari, amar urteko penitentzia. Onelakuak zirian beste pekatu mueta askoren penitentiak, ta batzubetan ukatuten eutsen komunioia eriotzako orduraño milla penitentzia egin arren.

I: *Zer aginetan eutsen penitentiako denporan?*

E: Batzubei egon zitezala Eleisa ataian soka bat samatik ebela, eskatuteutsela Eleisara joiazan Kristinaubai erregutu eiuela eurak gaitik Jainkuari, beste batzubei isteutsen Eleisan sartzen sermoiak enzuteko, baña ez Meza orduban.

I: *Zer atera biar dabe Pekatariak penitentzia andi onek enzunda?*

E: Penitentzia laburrak emoten deusela oraingo Konfesorik; Jainkuak linguai beste satisfazinoe eskatuko deuskula guri bere; ta ez gariala baketu, edo kontentau biar Konfesorik emoten deuskuzan penitentzia laburrakaz, ezpada geure borondatez egin biar ditugula besteren batzuk geure pekatu, ta indarren ereduban; baña beti Konfesoriaz itunduta.

I: *Beraz guza alperra, ta kaltegarria da konfessore nasai, edo penitentzia ari-nak baño emon ez daruazenen ondoren ibiltia?*

E: Bai, zerren Purgatorioko nekaldi, edo tormentubak, zeintzuberara garuezan Konfessore onelakuak, dirian txito ikaragarriak, ta mundu onetan egin al daikieguzan penitentzia garratzenak, ta gogorrenak baño, azkoz gogor-garratzaguak.

I: *Zeinbat penitentzia modu emon daruaz Konfesorik askotan?*

E: Bi: batari deritxo Medizinala, edo osakarria; bestiarri satisfactoria, edo ordegarria.

I: *Zer dira penitentzia Medizinalak, edo osakarriak?*

E: Dira pekatuba eragozteko, edo barriro pekatu ez biurtuteko emoten dirianak, nolan dirian urtia neskattilla, edo mutillegaz ez berbarik egiteko, edo ez bakarrian egoteko; alako etxian ez oinik ifinteko, tabernan ez sartzeko, jausten bada onelako, edo alako pekatuban limosnaren bat emoteko, edo biaramonian konfesetako, eta onelako beste asko.

I: *Zeinbat denporaren barruban kunpliu biar dira penitentiak?*

E: Baldin penitentiak luziak badira, nola diran illi bian, edo lauban egunoro akto kontrizinoeko bi esatia, lurrari mun egitia, eta alan beste asko, egon biar da Konfesorien esanera, ta intenzinoera; baña estazinoe bat, lau edo bost Abe Maria, edo beste onelako beingo, edo birritako penitentzia bada, ta esan ezpadeutsa Konfesorik noz, lau edo bost egun luzatutia, ezta ardura andiko gauzia; alanbere onduen izango da ainbat lasterren egitia.

I: *Zer kontu atera biar dau Pekatari batek penitentzia egiteko?*



E: Izan dala gizon dollor bere Zeruko Erregeri jarki jakona; ta ibilli biar leuke buruba beraturik, edo lotsaz legez bere aurrian, batez bere gomutaurik zer pazienza, ta errukitasun andiaz itxaran deusian, penitentzia egiteko, beste asko pekatu gitxiagogaz daukazala Infernuban probetxu, ta onera bagako penitentzia garrantzak egiten. Goguan erabilli, zer penitentzia latzak egin zituban Jesu Kristo errubagako, edo inozentia gure pekatubak gaiti, ta atera emendik, zer egin biar dogun guk, erru guztia geuri (sic) izanda.

Eztala inor Zeruban sartuko Jesu Kristoren irudira bizi ezpada. Eta zelan bizi izan zan Jesu Kristo? Beti nekeplan, orazinoian, baru artian, errukizko, edo miseriardiako eginetan, munduko baralla, ta atsegin bideen igesi.

Amairugarren Ikasbidia

Induljenzia

I: *Zer da Induljenzia?*

E: Da konfesinoeko sakramentubak parkatu dituban pekatubei zor jaken denpora bateko kastiguben parkazinoia.

I: *Eleisa Ama Santiak emon daikez Induljenziak?*

E: Bai, ta beti emon izan ditu Apotoluben denporatik oraindano. Eta ala San Pablok emo eutsan Induljenzia Corintoko gizon zikin, edo deshonestuari.

I: *Zelan emon eutsan?*

E: Bere penitentiako denporia laburtubaz, ta parkatubaz bere damu, ta negar andiak ikusirik, ta kristinauben erregubei enzutia emonik.

I: *Nortzuk emon daikez induljenziak?*

E: Geure Aita Santubak Eleisa guztian, ta Obispo Jaunak euren Eleisetan.

I: *Zeinbat induljenzia mueta dira?*

E: Bi, bata da osua, edo Plenaria, bestia da banarokua edo partikulara (sic).

I: *Zer da induljenzia osua, edo plenaria?*

E: Da induljenzia mueta bat, zeinen bitartez parketan jakun guztiz geure pekatubai zor jaken pena denporako guztia, ain modutan, zein da batek irabaziko baleu era onetako Induljenzia, ta beriala illgo balitz, igongo leuke artez Zerura, Purgatorioko subetatik igarotzaka.

I: *Non emoten ditu induljenzia oso onek?*

E: Bakarrik geure Aita Santu Erromakuak.

I: *Zer adietan dozu Induljenzia banaroko, edo ez osuaz?*

E: Adietan dot induljenzia bat, zeinek eztaben parketan pekatubari zor jakon penaren zati bat baño; onelakuak dira berrogei eguneko Induljenzia, larogeikua, ta urtebetekua.

I: *Zer adietan dozu berrogei, ta eun eguneko Induljenziak?*

E: Adietan dot, lenengo Kristinaubak Eleisako Kanonen aginduz, berrogei, ta eun egunian egi eruen penitentiaren parkazinoia. Eta alan eztau esan gura, parketan jakuzala berrogei, edo eun eguneko purgatorioko tormentuak, ezpada antxinako berrogei, edo eun eguneko peniten-



zia eginda parkatuko jakuzan beste baño. Eta au geratuten da Jainkuaren Juizio beneragarrientzat.

I: *Beraz eztago zer penitenziarik egin, baldin ain erraz parketan bajakuz Purgatorioko pena guztiak, Induljenziak irabaziaz?*

E: Ez orrelakorik: Induljenzia da gure argaltasunaren laguntasun bat, eta ez atxakia bat geure nasaitasunarentzat guk ofendiu dogun Jainkuari ordia emon бага egoteko.

I: *Zer egiten dau bada Eleisa Ama Santiak gauza onetan?*

E: Ez gaitu libretan geure aldetiko penitenzia egitetik, ezpada gure penitenzia osuagua, edo obiagua izan dedin, batzen deutzaz Jesu Kristoren, eta Santuben satisfazinoe ta egin balio andikuak.

I: *Zelan jazoten da ori?*

E: Gizon batek asmau al penitenzia egin arren, ezteutsa satisfazinoe osua emongo Jangoiko ofendiu dabenari.

I: *Zer egiten dau bada gure Eleisa Ama Santiak?*

E: Apliketan, edo egozten deutzaz gure penitenzia laburrai Jesu Kristoren, Ama Birjiniaren, ta Santuben satisfazinoe ugariak, onen bitartez geure utsa beteteko.

I: *Zelan euki leie parte Kristinaubak Jesu Kristo geure Jaunaren, ta Santuben irabazi, ta satisfazinoietan?*

E: Guztien artian daguan batasun, edo uninoiagaiti.

I: *Zer egin biar da Induljenziak irabazteko?*

E: Iru gauza: egon biar da Jainkuaren grazian. Egin biar dira artez, ta osoro, Induljenzia irabazteko esketan jakuzan erregu, Eleisako estasi-noe, limosna, edo gauza guztiak. Euki biar dau damu egiazko bat, ez bakarrik pekatu mortalena; baita pekatu, ta utsegiterik txikarrena bere, alegiaz ez geiago egiteko asmuaz.

I: *Erraza da Induljenzia plenaria, edo osua irabazia?*

E: Da gauza txito gatxa: zerren gitxik daruezan irabazteko biar dirian prestaketa onek.

I: *Bada zelan dakuskuz ainbeste Kristinau konfesetan, Induljenziak irabazteko ustiaz?*

E: Zerren uste daben, baña deungaro, konfesau, ta komulgau, eta Eleisia ikusi, edo bisitau ezkeru guztia daguala eginda. Zeinbateg darue pekatu txikinen damu egiazkua, ta eurak bere penitenzia egiteko gogo benetako bat? Txito gitxik.

I: *Zegaitik ezin irabazi leike Induljenziarik pekatu mortalien dagozanak?*

E: Zerren ezin parkatu leite pekatuben penia, pekatuba bera parkatu бага.

I: *Zein da gauzarik onena: irabazia bakotxak Induljenzia beretzat, edo Purgatorioko arimentzat?*

E: Obiago da Jainkuaren aurrian Arima gaiso Purgatoriuari dagozantzat irabazia: zerren dan amodiozko, edo karidadeko egite andi, Jainkuak txito asko gura dabena.

I: *Eta bildur izan biar da beretzat ezer enparau eztakion, guztia Purgatorioko Arimentzat itxita?*

E: Eztago zer bildur izan: zerren gure bitartez Zerura doiazan arima zoriekuak erregutuko deuten Jainkuari arimako ondasunez bete gagizan.

2. Zerren karidadiaren bitartez irabazten dogu geuretzat meritu geiago.

3. Eta zerren Purgatoriora baguaz eztan faltako guretzat nok erre-gutu, Zerura bialdu genduzan arimak baño ezpadira bere.

I: *Zelan irabaziko ditugu Induljenzia asko?*

E: Bulda Kurutzetakua artubaz, ta eginaz, an esketan jakuna.

I: *Irabazi leite Españan Induljenziarik Bulda бага?*

E: Ez, zerren au da Aita Santubaren borondatia.

I: *Zeinbat mesede dakarguz Bulda onek?*

E: Txito asko, baina enzunenak dira oneek.

I: Buldia daukanak jan leikez, Fraile, edo Sazerdotiak ezpadira, gari-zumako, ta urte guztiko egunetan arrautsa, ta esne gauzak.

2. Erromara jua baga billatu leike Promes, edo botorik geinen (sic) aldantza, edo komutazinoia, eta alan edozein Konfesorek trukauko deutzsa beste gauza onen batzubetara, limosnaren bat Buldiaren eskubidia daukenentzat emon ezkeru.

3. Jan leike urte guztiko bijilia, edo baru egunetan okelia Konfesore, ta Medikubaren konsejuz.

4. Absolbiuko dau Konfesorik edozein pekatu, edo eskomuninoetik, baldin egiazko damu, ta gogo barriakaz konfesau, edo autortuten baditu.

I: *Zer atara biar dogu Ikasbide onetatik?*

E: Euki Induljenziak irabazteko arreta andi bat: baña eruan orretarako biar dirian, ta esan ditugun prestaerak.

2. Ez penitenzia egitiari larga Induljenzien atxakiaz.

3. Artu bulda Kurutzekua, ta egin balio dagian Komisario Jaunak aginduten deuskuna.

I: *Zer gauza dira orrek?*



E: Lenengua eskribiu artzen dabenak, beretzat badau bere izena, ta besterentzat badau bestiaren izena, barruban agiri dan utsune berariazko baten.

2. Bigarrena, egin sei arraia, iru firmiaren alde bakotxian, baldin Bulderubak kurutzeren batzuk egin ezpadeutsaz.

I: *Zelan egin leitez iru erraia albo banatako aek?*

E: Ikustzuz.

[D.F. de N.]

Amalaugarren Ikasbidia

Oliazinoia, Ordia, Ezkontzia

I: *Zer da oliazinoia?*

E: Da Sakramentubat Jesu Kristo geure Jauna (sic) egina, ta itxia gaiso ardurazkuei arimako, ta gorputzeko biar dituben laguntasun guztiak emoteko.

I: *Zelan emon daruake arimako laguntasuna?*

E: Emonaz gaisuai indarra, ta adoria Diabrubaren tentazinoe, ta eriotzako ikariaren kontra.

2. Kendubaz lenagoko pekatuben azuzki, ondar, ta enparaubak.

I: *Zelan emoten deusa gorputzeko laguntasuna?*

E: Emonaz pazienzia neke, oñaza ta naigabe gatzak dakartzanak eruateko.

2. Emonaz gorputzeko osasuna, baldin arimiaren osasunari ondo bajatorko.

I: *Zelan emon daruake Sakramentu onek gaisuei indarra, ta adoria?*

E, Euren Fede, edo sinistamena biztubaz.

2. Ezarriaz euren biotzetan Jainkua ikusi, ta gozatuteko gurari, gose, ta gogo bizia.

I: *Zegititk deituten da Sakramentu au Oliazinoia, edo Azken bustzeia?*

E: Zerren au dan Kristinaubak azkenengo artu daruena.

I: *Itxaran biar da azken azkeneraño, Sakramentu au artzeko?*

E: Ez; bada artu biar da, zer artzen daben gaisuak dakiala, ta ez egon konkorturik, illagirik, ta ezaguera бага dagozan artian.

I: *Zer egin biar da ondo arizeko?*

E: Konfesau pekatu mortalien badago.

I: *Eta ezin konfesau bada berbia jua jakolako?*

E: Orduban egin biar ditu Akto kontrizinoeko biziak, eta al badagi, emon kiñu, edo señaieren batzuk bere guria erakusteko.

I: *Zer egin biar dau gaisuak, Sakramentu au artzera doianian?*

E: Biar dau jarri bere pekatu guztien damu andi baten; artu itxarapen, edo konfianza oso bat Jainkuaren errukitasunian, ta bere borondate Santubari guztiz itxatsi, edo etzigi.

2. Opaegin bere gatxa, oñaza, naigabe, ta miñ guztiak bere pekatuben orderako.



3. Artu borondatez eriotzia, Jainkuak bialdu gura badeutsa.

4. Artu emoten deutsezan erremedio, ta osabidiak, gomutau baz Jesu Kristori ill aurrian emo eutsen edateko samin, ta garratzaz.

2. Begiak oriotuteko denpora eskatu eurakaz egin izan dituban utse-gite guztien parkazinoia: eta bardin beste sentidu guztietako orio bus-tzeetan.

I: *Zetan utsegin darue gaisorik geienak?*

E: Lau gauzatan: Pazienza gitxi, ta umore txarra eukiaz.

2. Sakramentu au artzeko nagitasuna, ta atserapena erakutsiaz.

3. Osasuna, geiegi gura izanaz.

4. Bizitza oni, ta ondasunei asko itxatxita egonaz.

I: *Zer da ordia?*

E: Da Sakramentu bat, zeinek Eleisa gizonei emoten deuten indarra, edo poderiua Eleis gauzetan jarduteko, ta onek ondo, ta biar legez egiteko grazia.

I: *Nundik jatorke indar, edo egial au?*

E: Jesu Kristogandik, zeinek indar ori emon eutsen Apostolubei, ta andik ona batzuk bestiai alkarri.

I: *Beraz beti Mundubak dirauban artian iraungo dau Ordiak?*

E: Bai, ta zelan iraun biar daben azkeneraño Jesu Kristoren gorputzak Sakramentu Santu adoragarrian, alan iraun bere biar dau bera kon-sagretako indarra.

I: *Beraz Sazerdotiaren Ordia da txito andi ta Onragarria?*

E: Bai, eta alan ekarri biar jake Sazerdotiai lotsa, ta erreberenzia txito andi bat, gaistuak, ta bizitza deungakuak balira bere.

I: *Zegaitik ori?*

E: Zerren Jesu Kristok berak bere (sic) bizi izan zan artian antxina-ko legeko Sazerdotia honrau eruazan, ta oraingen aldian irudi utsak ziran.

2. Zerren gaurko egunian bere jasten dan Zerubetatik euren esku-betara diran deungenak izan arren.

I: *Zer konseju emo eruan Jesu Kristok onen gainian?*

E: Ez egiteko eurak egin daruezan gauza deungak; eta jarten baziran Pulpituetan Sermoeginen, egiteko eurak zinuena. Bildots baten narrupian ezkutau leitiala Otso amurraturen bat, ta gordeteko onelakuen atzama-rretatik.

I: *Beraz Sazerdotia bere kondenetan dira?*

E: Bai, ta geiegi; eta alan ez beti euren ispilluban geure burubak ikusi, ezpada Jesu Kristoren Ebanjeluan, zein dan gure egite guztien zuzenbidia.

I: *Ze poderio emoten dau onez osterunzian Sazerdote Ordiak?*

E: Parketia pekatubak euren oinetara datozen penitente benetakuai, ta parkatutzat emotia Zeruban.

2. Katigaturik, ta loturik istia ondo prestatuik ezuazanak.

I: *Zegaitik esaten da daukezala Zeruko giltzak?*

E: Zerren edegi daikezan Zeruko atiak askorentzat, ta itxi beste batzubenztat.

I: *Beraz bildur izan biar dau konfesetara doianak ondo prestatuik ezpadua?*

E: Bai, ta errazoe bigaiti: lenengua, zerren Konfesorioak esan arren, Nik absolbitan zaitut zeure pekatubetatik Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian, eranzuten daben Zerutik Jainkuak: Nik kondenau, ta lotuten zaitut zeure pekatu guztiakaz. 2. bigarrena zerren egiten deusan injuria txito eskergia Jesu Kristoren odolari.

I: *Zer atara biar dogu ikasbide onetatik?*

E: Ekarri erreberenzia andia Sazerdotiai; Aingerubak ekarri darua-ken legez.

2. Ez begiratu eurakan, ezpada Jesu Kristoren irudia.

I: *Zer da Matrimoniua edo Ezkontzia?*

E: Da Sakramentu bat, zeinek santututen dau gizon, ta emaztiaren arteko batasun edo laguntasun zuzena, ta emon daruake grazia euren umiak azteko Jainkuaren bildurrian.

I: *Ze prestaerakaz artu biar da Sakramentu au?*

E: Egon biar da Jaunaren grazian, ta konsejurik onena da, egin daie-la ezkondu aurreko egunetan Konfesinoe jeneral egiazko bat. Artu biar da Sakramentu au modestia txito andiaz lotsagabekeria guztiak aldendu-rik. Eztau ezkonduko danak euki biar eragozbide, edo inpedimenturik.

I: *Zeinbat modutakuak dira inpedimentu, edo eragozbide onek?*

E: Bitakuak: batzuk eragozten dabe ezkontzia: baña ezkondu ezke-ro, balio dau ezkontziak; alanbere egiten dau pekatu mortal eragozbide onetan ezkonetan danak.

I: *Zeinbat dira eragoz bide onek?*

E: Dira lau: Garbitasuneko, Sazerdote, edo Errelijioso izateko eski-nia, edo botua.

2. Besteren bati emoniko ezkontzako berba desegin bagiak.



3. Abendu, edo garizumako denporia: baña gaurko egunian onegaz adietan da, eztala ezkontza bullazkorik egin biar denpora Santu onetan, ezta Eleisako bedekazinoe, edo fermentazinoerik bere.

4. Eleisiak eragoztia.

I: *Zer egin biar dau Kastidadeko botua egin dabenak ezkondu gura badau?*

E: Begiratu Jainkuaren aurrian ondo dan edo ez bere promes, edo eskinien nasaibidiak topetia. Eskatu orazinoian, arren erakutsi dagiola, zer egin biar daben. Agertu gero biotza Konfessore jakitun bati, ta ezkontzako errazoe andiak badaukaz, ekarri dispensia Erromatik.

I: *Biri ezkontzako berbia emon deusanak, egiten dau pekatu?*

E: Bai, ta txito andia: zerren saltzen daben bigarrena; eta alan lenengo berbiari eutsi biar jako, ta bigarrena utsa da. O zeinbat kalte egin daruezan mutil madarikatu askok! Emon daruake berbia askori; darabillez engañauta Neskatiilla zoro ez gitxi. Dabiltz irugaz, edo laugaz tratua gaistuan. Guztiai ondo berba egin, ta galdu ariman, ta mundurako. Ni arritu, edo zurtuten nabena da, zelan sinistia emon daruaken arima bagako mutil infame onelakuai. Nundik dakie besteren bat lenago berbatu rik daukan edo ez?

I: *Zer jazoten da onelako ezkontzetatik?*

E: Zerren sartu etzirian bide, edo ate onetik, madarikatu daruaz Jainkuak: euren amodio aragizkua laster desegiten da, ta bizi oi dira lera, ta atralaka gogorrian, Infernurako azten ditubela euren umiak.

I: *Zeintzuk dira bigarren moduko eragozbidia?*

E: Dira amabost: enzunenak, ta jakin biarrenak dira orain erakutsiko diranak; baña eurakaz ezkondu ten dana, eztago ondo ezkondu ta. Lenengua da Senidetasuna.

I: *Zeinbat senidetasun mueta dira?*

E: Iru guretzat. Bide okerretik, edo ezkontzako berbatik datorrena, ta oni deituten jako Onestidateko eragozbidia.

I: *Zer adietan dozu bide okerretik datorren Senidetasunaz?*

E: Adietan dot, ezkontza uts edo balio ez ebanen batetik datorrena; eta eragozbidia au eltzen da laugarren oin, edo graduraño.

I: *Zer adietan dozu ezkontzako berbatik datorren senidetasunaz?*

E: Adietan dot, Mutilen batek emon badeutsa Ezkontzako berbia Neskatiillaren bati, ezin a ezkonduko da inoiz onen aistiaz, eta Neskatiilla bere Mutillaren anaiaz; bardin adietan da, euren borondatez berbia urratu, edo desegingo balitz.

I: *Bigarren senidetasuna zein da?*

E: Da koñatatatik datorrena.

I: *Zer da koñatatzako senidetasuna?*

E: Da aragizko batasun, edo egite osotik jaioten dana.

I: *Zeinbat modutara jazoten da aragiaren batasun edo egite oso au?*

E: Bitara; bide deungatik ta bide zuzenetik.

I: *Zer da bide deungako aragiaren batasun au?*

E: Da seigarren Mandamentubaren kontra egin dan pekatu nagusitik datorrena; eta eragozbidia au eltzen da bigarren graduraño: alan, ezin ezkondu leitez ez neba arrebaz, ez lenkusu lenkusina lenenguakaz, ez lloba, izeko ta osaba urkuenakaz.

I: *Zer da bide zuzeneko aragiaren batasuna?*

E: Da ezkontza barruban eukiten dan artu emon aragizkua: eta au eltzen da laugarren graduraño; alan ezin ezkondu leite alargun bat bere emazte, edo senar illaren seinide (sic) laugarren graduban sartuta daguanaz.

I: *Zein da irugarren senidetasuna?*

E: Da berez, edo naturalezaz datorrena: nola dan Aita Seme, Ama alaba, Neba Arreba, Lenkusu lenkusina, Lloba Osaba, edo onela Alde berezkuen artekua. Eztago inor eztakianik senitasun au eltzen dala laugarren grado edo oñeraño.

I: *Zer da indarreko ezkontzia?*

E: Da nai ta ez, edo bildugarri (sic) andiren bategaz egin dan ezkontzia, atarako eskubiderik ez eguala.

I: *Zer da gaistakeriako eragozbidia?*

E: Da iru aldetik datorrena: Eriotzatik, Adulterio, edo Ezkondu ten pekatu bide okerrekotik, edo aldabetara (sic) bietatik.

I: *Noz da, edo zer da Eriotzako eragozbidia?*

E: Senar Emazteren bat illten dabenian bik alkarregaz itunduta, ezkontzeko asmuaz.

I: *Ze da Adulterio bakarreko eragozbidia?*

E: Senarra bizi eban artian Emaztiak besteren bategaz egi eban pekatuba, ill onduan ezkondu teko asmo, ta tratubaz. Edo senarra ill бага, ta fede deungiaz egi eben bigarren ezkontzia. Bardin Senarraren egiña.

I: *Zer da eriotza, ta Adulteriotik datorren eragozbidia?*

E: Da ezkondu ren bategaz pekatu egin, ta laguna illtia ezkontzeko asmuaz, biak itundu ez arren.

Eztot gauza onen gainian ezer geiago aitatu ko: zerren da gauza milina, edo delikauba. Leiala da konzienzia: agertu au Konfessoriari kezka ren bat daukanak.

I: *Zer egin biar dau deungaro ezkondu ta daguanak?*



E: Billatu Konfessore jakituria andiko bat, ta egin onek esango deusana. Ezpabere beti biziko da pekatu mortalien.

I: *Nun artu biar da Ezkontzako Sakramentua?*

E: Bakotzak bere erriko Kura Jaunaren aurrian, edo onen baimenez beste Abaderen baten bitartez; eta biak erri bitakuak badira gura daben Erriko Kuriaz.

I: *Zer egin biar da lenago?*

E: Iru Eleis dei euren errietan, ta bardin nunbait lantza, edo serbi-zuan denpora luzeren baten egon badira. Zeinbat denpora biar daben, esango deutsa Kura Jaunak.

I: *Zeintzuk dira Ezkonduben eginbiar, edo obligazinoiak?*

E: Dira bost enzunenak: Senar Emaztiak alkarren artian bake, ta batasun santuban bizi izatia.

2. Batak bestiaren argaltasun, ta utsegiñak pazienziak eruatia.

3. Euren lan, edo biarretan alkarri lagundutia.

4. Batak bestiari leialtasun andi bat gordetia.

5. Euren Umiak Jainkuaren bildurrian aztia.

I: *Zelan aziko ditu Jainkuaren bildurrian?*

E: Euren Seiñen biotz bigun, ta samurretan sartubaz Jainkuaren amodiua, pekatubaren gorrotua, ta gauza on guztietarako gurari bizi bat.

I: *Nortzuk egin darue pekatu ezkondutian?*

E: Ezkontzeko egin biarrak jakin бага ezkonetan dirianak, ta ez gitxiago asmo, edo intenzinoe garbia eztaruenak; eta alan egin daruez pekatu asko eldu baño lenago frutu onetatik jan daruenak; edo etorkizunakaz gomutautu pensamentu, ta gozamentu loietan borondatez egoten dirianak.

I: *Pekatu asko egin oi dira ezkontza egun, ta Etxetan?*

E: Bai: berba zantarrak, pensamentu zikinak, danza, ta kiñu txarrak izan oi dira, geien erregiñau daruenak. Eta esan daikegu negarrez San Franzisko Salesek dinuana, gaurko eguneko Eztegu gitxitan aurkituko dala Jesu Kristo. Diabru Asmodeo gaistua izaten da kuren Agintaria. Eta zelan bedeinkatuko ditu Jainkuak onelako Ezkontzak?

I: *Eta pekatuak egin leike Senar Emaztiak alkarregaz?*

E: Bai, ta andiak, geienak uste izan ez arren. Bakotxa orditu leite bere Mastian arturiko ardauaz. Askoz begiratubaguak dira Aberiak Jainkuaren irudira egiñak diran Gizonak baño. Zorionekuak inozentzia, edo jakiñez Santuban bizi dirianak. Zorionekuak donzellatasuna gordetera deitubak diranak. Zeinbat naste, ta kaltetik libretan dira!

Amabostgarren Ikasbidia

Orazinoia, edo Eskaria

I: *Zer da Orazinoia?*

E: Da geure biotza Jangoikuagana jasotia, biar ditugun gauzaren batzuk esketako.

I: *Zeinbat erara egin daikegu Orazinoia?*

E: Bitara, biotzez, ta aoz; ta alan Orazinok batari deritxo barrukua, ta bestiari aozkua, edo bokala.

I: *Asko da auaz Orazinok egitia?*

E: Ez biotzak lagundu ezpadeutsa: ezpan utsetako eskabidiak eztitu artzen gure Jangoikuak.

I: *Badaukagu Orazinoe egiteko obligazinoerik?*

E: Bai; eta da Kristinauben eginbide estubenetik bat iñolabere itxi ezin leikiana.

I: *Zegaitik ori?*

E: Iru errazoe gaitik: Jainkuak aginetan dabelako txito leku askotan. Zerren gagozan biarturik ezagubide, ta honria emotera geure Jaunari; ta Orazinoia dalako, bera honretako bitarteko guztiz ona.

Zerren izanik Jainkua txito aberatsa, ta ondasun guztien iturria, ta gu Erromes gaiso ezer eztaukagun batzuk, berak emon biar deusku guztia, ta artzeko eskatu biar da.

I: *Zelan egin biar da Orazinoia?*

E: Umiltasun andiaz, itxarapen, edo enzungo gaitubalako uste osuaz, ta iraunaz, edo barriro eskinaz (sic) bein edo beste jaretsi ez arren esketan doguna.

I: *Zelan egin leike biotzeko Orazinoia edozein Kristinauk?*

E: Egunion edolabere orretarako ordu lauren bat artubaz, dala goisaldian, dala gaberuntz.

I: *Zer gauzatzuk meditau biar ditugu?*

E: Geure azkenkiak, edo etorkizunak, nola dirian Eriotzia, Juiziua, Infernuba, ta Zeruba. Jainkuaren eskubetatik artu ditugun mesede guztiak, ta zein ona, ta errukiorra izan dan guretzat. Eta geien Jesu Kristo geure Jaunaren Pasinoe, ta Eriotzia.

I: *Zer ordenaz aztertu, edo meditau geinke bere Pasinoia?*



E: *Astelenian*, zelan garbitu eutsezan Apostolubai euren oñak, ta zelan itxi euskun Sakramentu Santu Altarakuan bere gorputz beneragarria.

Martitzenian, zelan ifinirik Judasek Judeguben eskubetan, lotueben gaistagin andi bat legez, ta Jetsemaniko Ortuban igaro zituban larritasun, naigabe, ta izerdi odolezkuak.

Egubaztenian, zelan eruanik Pilatosgana gau guztian izan zan Sol-dautzar gogorren siñugarri; an emoeutsezan ukabilkada, belarondoko, ostikada, ta botaka negargarriak.

Egubedian: Zelan Erodesgana eruanik euki eban zorotzak (sic); gero osteria biurturik Pilatosgana, azotau eragieban azurretaraño, Borreru madarikatu gogortzarrak adikatu, ta aspertu artian.

Bariekuban: zelan buruban sartu eutsen elorritzko Koroe aranzaduna, ezarri eutsen Kurutze astun bat bere soñian, ta erueban Kalbarioko Mendiraño jausi, ta jagi ebillela.

Zapatuban: zelan Kurutzian ultze gogorrekaz josirik, jaso eben gora lotsari andian ifintebela, bere Ama Kurutzepian eukala. Emen erregutu eban bere Arerio, ta Borrerubak gaitik; emo eutsen bere egarrion Infernuko Botikario aek eginiko edari min bat; ta begiak Zeruruntz jasorik itxi eban bere Espirituba Aitaren eskubetan, ta ill zan.

Domekan, zelan Obipetik urten da biztu zan illen artetik, ez geiago illteko.

I: *Zeinbat ondasun aterako ditugu Pasinoe santuko azterri, edo meditazinoetik?*

E: Askok: baña jakiñenak, ta biarrenak iru. Humiltasun andia; Amodio bizi bat Jesu Kristoganuntz; ta Penitenzia gura andi bat.

I: *Zelan humiltasuna?*

E: Ikusirik zetaraño beratu, ta umillau zan Jainkuaren Semia.

I: *Zelan Amodiua?*

E: Ezaguturik, zetaraño amau ginduzan.

I: *Zelan Penitenzia guria?*

E: Aterarik kontu au: baldin nire pekatubak gaitik ainbeste nekaldi artu, ta penitenzia egin badau, zer egin biar eztot nik?

I: *Zeinbat gauza, zirkunstanzia, edo zertzilidade aztertu ginaiz Kristoren Pasinoian?*

E: Oneek: Zeinek daruan ainbeste neke? Zegaitik daruazan? Zeiñegaiti? Zer era, edo modutara? Eta zetaraño?

I: *Eta Orazinoe denporan ezin biotza batu badogu, itxi biar ete jako lan balioso omi?*

E: Ez leuke Diabrubak beste gauzarik nai; bada badazau geure Are-rio onek, dino Santa Teresak, galduta daukala orazinoian iraun, ta jarduten daben arimia.

I: *Zegaitik dago munduba ain galduba?*

E: Euren artian astiro gomutetan eztitubelako Etorkizunak, ta Kristoren tormentu, edo nekaldiak.

I: *Zer esaten deusku onen gañian Jesu Kristo geure Maisubak?*

E: Egin daigula beti orazinoe; esan gura dau geure lan guztiak egin daiguzala bere gloriarako.



Amasei garren Ikasbidia

Aita Guriaren, ta Abe Mariaren Azaldamentuba

I: *Zein da Eskari, edo Orazinoe guztien artian onena?*

E: Aita guria, edo Jainkuaren eskaria, esan gura dau, Jesu Kristok erakutsi euskuna.

I: *Nogaz berba egiten dogu Aita guria esatian?*

E: Geure Jainkuaz.

I: *Zegaitik emoten deitsagu Aitaren izena?*

E: Zerren berak emo euskun geure izate, ta bizitzia, ta berak gorde-ten deuskun. Eta Jainkuagan geure itxarapen, edo uste guztiak ezarri dai-guzan bere Umiak, ta Zeruko Jaubegai, edo herederubak legez.

I: *Zegaitik esaten eztozu Aita neuria, ta esaten dozu Aita geuria?*

E: Zerren guztiok garian alkarren anaia, ta alkargaitik erregutu biar dogulako.

I: *Zegaiti dinozu Zerubetan zagozana?*

E: Zerren egon arren Jangoikua arkuntza, ta bazter guztieten, alan-bere Zeruban dago bere jauregi, edo Palaziuan legez. Eta guri erakuste-ko, Orazinoeko orduban geure biotzak jaso biar ditugula Zerura, nundik jatorkuzan ondasun guztiak.

I: *Zeinbat eskabide dagoz sartuta Aita geurian?*

E: Zazpi.

I: *Zein da lenengua?*

E: Santifikau bedi zure izena.

I: *Zer eske egiten jako berba orretan?*

E: Izan dedilla ezagutuba, onrauba, ta maitetuba Mundu guztiagandik.

I: *Zelan ori?*

E: Eskatubaz, Fedebagiak biurtu ditezala bere izen Santuba ezagu-tuta gure Kristinautasunera. Juramentu guzurrezko egillak, ta blasfema-tzalliak itxi daiuela, bere izen Santuba deungaro erabiltiari. Kristinau guz-tiak onrau dagiela bizitza santubaz.

I: *Zer esan gura dau eskari onek: Betor gugana zure Erreinuba?*

E: Esan gura dau: agindu daiala gure biotzetan bere graziaz ta gero bete gaizala bere gloriaz.

I: *Zer esan gura dau eskari onek: Egin bedi zure borondatia nolan Zeruban, alan lurrian?*

E: Esan gura dau: ekarri daigula lurrekuak geure Jainkuari Zerukuak ekarri daruaken obediencia, bere agindu guztiak gordiaz.

I: *Zer esan gura dau laugarren eskari onek: Egun iguzu geure eguneko ogia?*

E: Esan gura dau, emon daigula gorputz, ta arimako bizitziaientzat egunoro biar dogun janari, edo ogia; onek dira, bere grazia, Jesu Kristo-ren gorputz Santuba, ta bere berbia.

I: *Zein da gorputzeko ogia?*

E: Da gure bizitziairi iraun eragiteko biar ditugun gauza guztiak.

I: *Zer esan gura dau bostgarren eskari onek: Parkatu iguzuz geure zorrak, gik geure zordunai parketan deutsegun legez?*

E: Beti eskatu biar deitsagula geure pekatuben parkazinoia; ta par-katu daiuezala geure gaiskinik, ta Areriorik andienai, esanaz geuk bere parketan deutsegula.

I: *Beraz bere kontra esketan dau, Areriuari amodiori (sic) ezteutsanak?*

E: Bai: esango baleutsa legez: Ez egidazuz, Jauna, parkatu neure pekatubak, baldin neuk areriuai parketan ezpadeutset; ta artu egidazu gorroto andi bat, nik gorrotorik badeutset.

I: *Zer esan gura dau Seigarren eskari onek: Ez itxi jausten tentazinoian?*

E: Esan gura da, kendu daiguzala Diabrubaren tentazinoiak, edo emon daigula grazia goitu (sic) ta galdu ez gagian, pekatu eragiñaz.

I: *Zer esan gura dau zazpigarren eskari onek: baña bai librau gatxerik?*

E: Esan gura dau, atera gaizala bizitza onetako miseria, ta negar bide-tatik; baña geien betiko eriotzatik, zein dan gatx guztien artian andiena.

I: *Zein da Ama Birjina onrretako, ta bere bitartetasuna topetako erreguba, edo Orazinoia?*

E: Da Aingerubaren Agurra, edo Abe Maria.

I: *Zeinbat berba esatuzan San Gabriel Aingerubak Ama Birjiniari Jainkuaren partez barri onak emoten jua jakonian?*

E: Onek: *Agur Maria, graziaz betia, Jauna da zugaz.*

I: *Zer esan gura eutsan onegaz?*

E: Barri onak zuretzat Maria, bada zure Sabel garbian erabilliko dozu Jainkuaren Semia Gizon eginda; graziaz betia zara, ta Jauna benetan dago zugaz.

I: *Zeintzuk dira Santa Isabel bere lenkusiniak esaeutsazanak?*

E: Bedeinkatua zara Andra guztien artian, ta bedeinkatuba da zure sabelako frutuba Jesus.

I: *Noz esaeutsazan berba onek?*



E: Ikustera jua jakonian Ama Birjina, igarririk, zer erabilen bere Sabel garbian; eta adierazo eutsan, zala Jainkuaren Ama, ta zorionekua-gua beste munduko guztiak baño.

I: *Zeintzuk dira, Eleisiak geitu, ta beretzat artu dituban berbak?*

E: Santa Maria, Jainkuaren Ama, erregutu eizu gu bekatoriok gaiti, orain, ta geure eriotzako orduban. Alan izan dedilla.

I: *Zertako geitu ditu berba onek?*

E: Bere bitartetasuna topetako, adierazuaz guztia daikiala, izanik Jainkuaren Ama.

I: *Beraz euki biar deusagu debozinoe txito andi bat Ama guztiz zorioneko oni?*

E: Bai, ta iru errazoe gaiti.

I: Lenengua daukazan anditasunak gaitik: bada da Aita Jainkuaren Alaba maitatuba, Semiaren Ama, ta Espiritu Santubaren Egoleku, edo tenpluba.

2. Da Ama, ta Donzellia aldabatera.

3. Da Aingeruben, ta Gizonen Erregina.

Bigarrena; zerren Aingeru, ta Gizon guztiak baño grazia geiago eban bere ariman lenengo egunetatik.

Bere egite miragarriak gaiti umiltasuna, garbitasuna, obediencia, Jainkuaganako bardinik izan eztaben amodiua, Gizonen errukia, ta pekatuari eutsan gorroto besterik ez legezku.

I: *Beraz ezteutsa egiazko debozinoerik bere Mats, ta egite onetatik jarraitu gura ezteutsanak?*

E: Ez: zerren ezin maite izan leikez, bere Semiak ezin ikusi ditubanak; eta alan izan biar dogu umildiak, garbiak, errukiorrak, ta artu Jainkuari maitetasuna, ta pekatubari gorroto, ta iguin bizi bat.

I: *Zeintzuk uts egin darue onetan?*

E: Bere debozinoe itxura bategaz deungaro bizi dirianak. Uste dabena salbetako asko dala, Errosariua egunoro esatia, bere Kofradian sartzea, Eskapulariua erabiltia, bitartian bizi diriala euren gurarira.

I: *Alanbere zein da, Ama Birjina onrretako debozinoerik enzunena, ta onena?*

E: Errosariua.

I: *Zer da Errosariua?*

E: Da Aita gure, ta Abe Mariatzko larrosa ederrakaz egiten deusagun Koroe zori (sic) garri bat.

I: *Zelan esan biar dogu Errosariua?*

E: Jainkuaren aurrian jarri, zeinatu, esan neure Jesu Kristo Jauna, biotza garbituteko geure utsegite guztietatik, ta Koroia deritxona bada,

zazpi *Aita geuria*, ta irurogeta amabi Abe Maria, ta gero Aita gure ta Abe Maria Aita Santubaren intenzinoera.

I: *Zegaitik esaten dira zazpi Aita geuria?*

E: Birjina guztiz Santiaren bizitzako zazpi misterio enzunenak gaiti ta dira: Sorrera, edo konzepzinoe garbia, Jaiotzia, Presentazinoia, edo Eleisan agertu zanakua, Aingerubaren barri onekua, edo Anunziazioa, Santa Isabelen ikustia, Garbiegun, edo Purifikazinoekua, ta Zerura erua-na izan zanakua.

I: *Zegaitik irurogeta amabi Abe Maria?*

E: Zerren gizon jakitun askoren ustia dan, bizi izan zala onenbeste urtian.

I: *Ondasun asko aterako ditu, Errosariua egunoro, ta debozinoez esaten dabenak?*

E: Bai, ta sarri erakutsi izan dau Birjiniak bere poza mirari askoren bitartez.

I: *Nun esan leike Baserritarrek gabaz astirik ezpadauke?*

E: Soluan euren biarrian: ta ezta frutu gitxiago artuko.



[Azkenengo Ikasbidia

Konfesinoe Jeneralen gainian

I: *Zer da Konfesinoe jenerala?*

E: Da Konfesinoe guztien, edo batzuben barriste bat, konfesetan diriala bizitza guztiko, edo urteen batzuketako pekatu guztiak.

I: *Ona da konfesinoe modu au?*

E: Bai; berez ona da: Baña banaka batzubenentzat izan leite kaltetsuba.

I: *Nortzuk dira onek?*

E: Egiazko Eskrupulosuak, zeintzuk len konfesinoe jenerala bein, edo geiagotan zuzen, ta ondo egin, alegiaz ezer itxi бага, ta damu egiazkuaz beti dabiliz ikara, bildur ta duda askoren artian.

I: *Zer egin biar dabe onelango arima gaisuak?*

E: Egin itxu-itxuban Konfesorik aginduten deusena.

I: *Zeintzubenentzat da ona Konfesinoe jenerala?*

E: Iños lenago egin eztabenentzat, uste izan arren konfesinoe len egiñak onak izan diriala.

I: *Zegaiti ori?*

E: Zerren umetan egin dirian Konfesinoiak ardura gitxigaz egin oi dirian. Zer examina egiten da lenengo urtetan? Ze damugaz eldu oi da konfesetara? Zelan enzuten dira Mezaak? Bada ziur, eta zuzen ibilli gura dabenak Zerurako bidian, txito ondo egingo dau Konfesinoe jenerala egi-ten badau. Bildurtuko nintzate askoren Salbazinoiaz, enzungo baneu Konfesinoe jeneralik iños egin бага agertu dala beste Munduban.

I: *Nortzubenentzat da premiazkua, ta biarra Konfesinoe jenerala?*

E: Lenagoko Konfesinoiak dongaro egin dituben guztientzat.

I: *Eta zelan igarriko deusagu lenagoko Konfesinoiak dongaro egin ditugun?*

E: Igarriko deusagu, baldin egin bazirian examiña бага damu, ta propositu sendo, ta egiazko бага, edo geure erruz, ta lotsaz pekatu mortal bat konfesau бага itxi bazan. Eta zeinbat onango dago Munduban?

I: *Beraz, Jauna, txikarretako pekatu loi, ta txikiñak zikiñak goguan daukezala konfesau ezinda egon dirianak egin biarko dabe konfesinoe jenerala?*

E: Bai, salbau gura badabe, ta esan biar ditube guztiak begitandu arren lotsagarriak diriala, ta agertu Konfesorikari Seniden artekuak bazirian: edo mutiltxubak mutiltxubakaz, neskatillak neskatillakaz edo animalien bategaz egin bazituban: baña eztago zer esan zer animalia modu

zan, ta obra osozko pekatuba ezpazan asko da esatia zirimoniak txarrak egin zitubala, onenbeste edo ainbeste bider, goguan badauka. Geiago biar bada konfesorik itanduko deutsa.

I: *Eta asko da mandamentuben kontra egin dituban pekatubak esatia?*

E: Ez; esan bere biar dau, zelan lenago lotsaz itxi zituban, ta zeinbat denpora, ta urtian.

Baña, pekaturen batzuk esan, ta beste batzuk esanga edo gitxitubaz, ta edertubaz konfesetan zitubenak eztauke esan baño azkenian: Jauna, akusetan naz zelan batzuk lotsaz isten nituban, beste batzuk gitxituten nituban, ta beste batzuk apaindu, ta edertuten nituban, ta onenbestegaz aituko dau Konfesorik biar bestian.

I: *Zeintzuk uts egin darue onetan?*

E: Gazte zoratu edo alegre askok zeintzuk artuarren makiña bat atsegin txar euren artian, ta ibilli arren pozik tiraka, botaka, ta eskuka ziki-
netan, eztauren konfesau laugarren parterik, edo bakarrik esanaz, etzitu-
bela konsentidu euren guraz.

I: *Zeintzuk geiago?*

E: Pekatu andi edo obrazkoren bat egiteko asmorik artu ezpadabe, konfesau eztauezanak bestelango pensamentu euren borondatez euki zitubenak.

I: *Zeintzuk geiago?*

E: Euren burubaz eskuka zikiñak aragiaren gustuak artutiarren egin-
da, esan daruenak bakarrik, pensamentu txar batzuk euki zitubela. Oñen
konfesinoiak donga, ta okerrak dira ta dauke ainbat lasterren Konfesinoe
jenerala egiteko obligazioa, ta zelan zan guztia esateko.

I: *Beraz esango dau batek, ezin salbauko naz Konfesinoe jenerala eginbaga, zerren txikorra nintzarian egin nituban zirimonia zikiñak neure ida ta lagunakaz, ta ez naz aritu konfesetara, ta ez konfesarren pensetan neban batzubenentzira-
la pekatu mortalak izango; baña beti geratuten nintzan duda, ta eztabaidan, ta ezin
gendu izan dot kezko ta arantzia biotz barruti?*

E: Modu onetan Konfesinoiak egin ditubanak barristau biar ditu guztiak; zerren dudazko pekatu mortalak konfesau бага lotsaz istia dan sakrilejo jakiña, ta umetan bere egon oi da ezaguera, ta malizia moduren bat, ta ez daruez egin loikeriak gurasuen aurrian, ezpada ezkutuban, ta ainbat bakarren. Beintzat beti dago duda errazoezkua pekatu mortalak ete ziran.

I: *Zeintzuk geiago egin biar klabe Konfesinoe jenerala?*

E: Lotsaz konfesau бага euki ditubanak jakinezaz, pekatu mortaltzat artu zitubenak benialak zirianak. Batzuk egoten dira konfesau ezinda



euren borondatiaren kontra euki dituben aragiaren berotasunak, Santu edo Jainkuaren kontrako pensamentu txarrak.

Esan daruen legez, begitandu eraginik Diabrubak, Herejetzat euki-ko ditubala Konfesoriak. Beste batzuk uste dabe pekatu mortala dala komulgau ezker baruba ausi baño lenago txistuba botatia, ta egon oi dira konfesau ezinda lotsaz, ta bildurrez. Borondatiaren kontrako gauza-tan eztago pekatuak, ezta txistuba botatian bere bein igaro ezker ezta-rrira ostia Santuba, ta pekatu ezta eztago konfesetako obligazinoerik. Bana zerren artu zituben pekatu mortaltzat, ta egon zirian lotsaz konfe-saubaga egin zituben Konfesinoe, ta Komuninoe beste sakrilejio, ta sal-bau ezin leitez Konfesinoe jeneral baga, esaten jakola Konfesoriarri zer jazo jakon.

I: *Zeintzuk geiago dauke Konfesinoe jenerala egiteko premia?*

E: Damu, ta propositu sendo baga konfesau dirianak: onek dira, loi-keriako pekatu moduren baten oituraz sartuta egon dirianak, edo euren burubakaz, edo adiskidetasun txarrian, edo urtiak igaro ditubenak berba zikiñak esaten, ta oratute tentagarriak egiten, edo onetarako leku emoten. O ta zeinbat gazte daukazan lotuta Diabrubak alde onetati!

I: *Zer erantzun darue onelanguak?*

E: Konfesauta daukezala; ezer itxi ezabela.

I: *Eta balioko dau Jainkuaren aurrian atxakia onek?*

E: Ez; zerren emoten zituben berbak Konfesoren oinetan zirian otzak, ta guzurrezkuak ta damu benetako bagiak euren Konfesinoiak. Uste txar onek daruaz Infernura ainbeste arima. Begitanduten jake konfesau ezker guztia daguala eginik. Bizitza barria da konbersinoe egiaz-kuaren igargarri, edo señaia.

Dauke Konfesinoe jenerala egiteko premiña pekatuko okasinoe urrekuan bizi izan dirianak, batez bere etxian pekatuko laguna euki dabe-nak: zerren bitartian egiten zirian konfesinoiak zirian donga, ta sakrilejio-kuak (inolanbere alegiala etxeko okasinoeti urten ez beban) damu egiaz-korik eztagualako borondatezko okasinoe urrekuan bizi dirian artian.

I: *Bada zelan absolbitan ninduben Konfesoriarri?*

E: Zerren ezkutau, edo edertuten zenduzan pekatubak; edo zeure pekatuben kastiguban topau zendubalako bere obligazinoiak ez ekiazan Konfessore zure, ta bere arimiaren kaltegarri bat. Dauke konfesinoe jene-ralaren premiña ordituteko usadiua denpora luzian euki dabeenak; zerren ezitirian geienak zuzen konfesau oi ta damurik eruan eztaarelako.

Baita benetako gorroto, ta ikusi ezin luzian bizi izan dirianak bere; gorrotua kendu baga eginiko konfesinoiak dongak dirialako. Dauke kon-

fesinoe jeneralaren premiña gauzaren bat ostu, edo edo (sic) bide donga-ti izanda al daiela biurtu baga luzaro egon dirianak, zerren bitarteko kon-fesinoiak zirian dongaro egiñak. Bardin esan biar da beste edozein man-damenturen kontra oiturazko edo usadiozko pekatubetan sarturik egon dirianen gañian zerren bitartian ez daruen egiazko damu ta propositurik eruan.

I: *Eta konfesinoe jenerala egiten dabeen guztiak egin darue ondo?*

E: Ez; zerren konfesinoe jeneral batzuk egin oi dira tranpiatz absol-bizinoia aterateko asmuaz, bitartian benetako damurik eztauela. Tranpo-so asko dago Munduban; ta alan biotza aldatuta ezpadago, eztago egiaz-ko konfesinoerik.

Beste batzuk dagoz konfesinoe jeneralian bere pekatu mortalen bat isildu daruenak; gauza negargarria da batzui jazoten jakena. Enzuten daben Sermoeren bat, edo beste gauzaren bategaiti artuten ditube onak izateko gura, ta desiuak. Egiten dabe Konfesinoe jenerala, ta gordeten dabe pekaturen bat lotsaz. Jarraituten deutse sarri konfesetiari; asten dira penitenziak egiten, ta munduko iritxian bizitza santu bat eruatzen. Gerua-go ta gogorrigo egiten dira euren bizimodu azaleti onian: ta asko agertu-ko dira kondenauta juizioko egunian; lotsa ondagarria bota balebe santu batzuk izango zirianak.

I: *Zer egin biar klabe onelanguak?*

E: Egin ostera konfesinoe jenerala osoz, ta damubaz, zerren languak ez eutsen balio.

I: *Eta gauza gaxa ete da konfesinoe jenerala egitia?*

E: Ez; askori Diabrubak alan begitandu eragin arren. Ezta iñor galdu ta kondenetan, buru txarra, edo adimentu laburra daukalako; baño bai asko borondate txarra dala bitarte. Jainkuak ezteusku eskatuten galdu dai-gula osasuna pekatuben examiña edo azterria egiten.

I: *Baña zelan konfesinoe baten esan leiz amar edo, edo ogei urteko pekatubak?*

E: Txito erraz berrogeta amar urtekuak balira bere, batez bere Kon-fesoria Jakintsuba ta birtutetsu bada.

I: *Zelan ori?*

E: Zerren asko dan esatia usadio txarra, bestelan esan ezin dabenak. Eta alan birao gaizto, edo lagunaren kontrakuak esateko oituria zortzi, amar, edo urte geiaguan euki dabeenak asko da esatia oitura txar au bataz beste urtian birritan, edo iru bider izango zala, edo geiago, edo gitxiago gomuta al badau, ta nosbait egunen batzuk igaroten ziriala esan edo egin baga.

I: *Eta besterik ezin dabenak zer egin lei?*



E: Esan; nosbait, banaka batzubetan, sarri, edo txito sarri ziriala, ta berba oneekaz aituko dau konfesorikak biar beste. Baña sarri egin dabenak, esaten badau dakiala nosbait, edo banaka batzubetan baño egi ez ebala, ezta ondo konfesetan. Bardin aituten da beste edozein pekatuban.

I: *Zelan egingo da onduen, ta errazago konfesinoe jenerala?*

E: Bizitzia erabagiaz; eta alan ogei, edo ogeta lau urte daukazan neskatillia bada, atera kontu, ze bizi modu eruaeban gitxigorabera, esan daruen legez, mundura agertu, edo Plazara urten arteraño, au da amabi, edo amalau urte eukazanian. Begiratu egin zituban, edo ez txikarretan loierkeria, ta zirimonia txarren batzuk, senide, edo lagunen batzukaz: au da labanarri edo estropezurik andiena; ta baldin malizia sartun jaken denporan artu oi zituben atsegin loiak ardura бага, edo zerbait enzunaz, ikusiaz, edo senditubaz, edo beste ibilmodu dongakaz. Gero esan leitez aurre-runzian egin zituban pekatubak. Ezkonduba bada onduen izango da ezkondu ezkeroko pekatubak aparte esatia.

I: *Eta zelan konfesau leiz gazte denporan eginiko pekatubak, buruko uliak baño geiago bazirian?*

E: Esanaz, Jauna, akusetan naz, amalau urteti aurrera, (edo baktotxari jazo jakon moduban) bizi izan nintzala Jainkuaren bildur бага; pensamentu txar askotan atsegin artuten nebala, berbak loiak esan, ta pozik enzuten nitubala, ta bardin ipuin, ta kanta zikiñak; arkitu izan naz fiesta, ta bigira askotan; ta bide, juaetorri, ta egote oneetan egin, ta konsentiduten genduzan tiraka, botaka, laztanga, ta onelango eskuka asko. Ta obrazko, edo pekatu nagusietan jausi dana esan biar dau artez zeinbat bider gitxi gorabera gogora ekarri al baditu, baita ze persona mueta, edo kastagaz (izentau бага) libria, ezkonduba, senidia, edo konsagrauba bazan. Berba baten, Munduban dirian gaistakeriarik andienak badira bere esan Konfesoriarri goguan daukanik ezer itxi бага. Bada bitik bat, edo konfesau, edo kondenau.

I: *Ze onera, edo frutu atera lei Konfesinoe jeneraletik?*

E: Txito asko, ta Konfesinoe jenerala ondo egin daben asko dagoz Zerubetan, bestela dudabaga Infernura biar ebenak. Onez gañeti geituten da pekatuben damuba, ta humildadia, ikusirik beregan ainbeste ofensa Jangoiko onaren kontra. Ifinten dau ariman bere bildur Santuba, ikaratuten ditu Infernuko gaiskiñak, kenduten ditu biotz barruban egozan kezka, ta aranza guztiak, ta arimia geratuten da pozarren ozta zer igaroten jakon eztakiala, sartu dalako Jainkuaren grazia, ta uste dau bota, ta kendu dabela beregandik pisutzar astun bat, ta gelditu dala espiritu arintasun, ta gozotasun Munduko guztiak baño geiago balio daben bategaz.]